

ZEGAMA 2010

URTEKARIA

12. Zenbakia. Abendua



ZEGAMAKO
UDALA





ZEGAMA UDALA

AGURRA

HERRITAR ADISKIDEA, AGUR!

Abenduan gaude eta, aurten ere urtean zehar zegamar guztiok egin dugun lanaren bilgune bilakatu den 12. Urtekaria duzu eskuartean.

Bakoitzak egiten duen ahalegintxoarekin, herri bizi eta etorkizunari aurrez aurre begiratzen dion herria osatzen dugula esango nuke.

Aurten, lau ekimen azpimarratuko nituzke: Alde batetik, eskolako patioari eman zaion aterpea, San Bartolome auzora eraiki den igogailua, herriko saneamendua, ur zikinak sare nagusira sartzea eta Anduetza Museoa, "Aizkorriko Ataria" izenez bataiatu ondoren, Gipuzkoako Parketxeen Sarean, neurri handi batean, sartu izana. Azken pausoa falta bada ere, aurtegoan aurrera pauso garrantzitsua eman dugulakoan gaude eta azken pausoa eman arte, Gipuzkoako Parketxe Sarean bete betean sartu arte, lanean jarraituko dugu. Bidean datoz, Kortaberriko bidegurutzetik Industrialderainoko bidegorria eta gimnasio berria ere, eta uste dugu 2011ko lehen seihilabetean hauek ere burututa izango direla.

Esan, 2010 urtearen ezaugarri nagusia, denok era batera edo bestera nozitu dugun krisia izan dela eta datozen urteotan ere, lagun izango dugula, bai gure lantoki, etxe eta erakundeetan ere. Ondorioz, Udalaren helburua, gastuak ahalik eta gehien neurtzea izango da, alferrikako dirurik xahutu ez dezagun. Zegama, oinarritzko azpiegituraz ongi hornitua dago eta gure erronka hauek ahalik eta era txukunenean mantentzea izango da. Orain ordea, Gabon jaien atarian gaudela, datorren urterako lanak datorren urterako utzi eta ospa ditzagun jai-egun hauek bakean eta zoriontasunean.

Mila esker, urtekari hau egiten laguntza emandako guztioi, udal langile, herriko elkarte eta herritar ugari hain zuzen ere. Zuen laguntzarik gabe, ezinezkoa litzateke honelako urtekaria egitea.

Besterik gabe, zorionak eta Urteberri on.

Edurne Albizu
Alkatea

AURKIBIDEA



68



78



94

Alkatearen agurra	1	Olaberriko Auzokideak	60	Gure Baserri eta Parajeak	92
Agenda	3	Odol Emaileen Elkarte	60	IX. Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia	94
Jaka familia	4	Jostunak II eta Bordadorak	61	Juliana Larrea	96
Udala	6	Pili Ezeiza	61	Jorge Garcia	99
Partzoneria	36	Mares Azurmendi	62	Julian Alonso	100
Zegama Errealarekin peña	39	Carmen Fernandez	63	Anne Gragert eta Heike Hösterey	102
Industrialdea bizi-bizirik	40	Isabel Guzman	64	Juan Carlos Irizar	104
Lehen eta orain	42	Maritxu Ormazabal	65	Ofizio baten desagertzea	106
Aizkorri Guraso Elkarte	45	Arantxa Asumendi	66	San Pedro Ermita	108
Aitxuri Herri Eskola	46	San Martin Parrokia	67	Mikel Urbiztondo	109
Tobera Musika Eskola	48	San Bartolome Jaiak	68	Joxantonio Ormazabal Gogoan	110
Orkatz Abesbatza	50	Quebrantahuesos / Treparriscos	75	40 urte Zegamako Ikastolak	113
Jubilatuen Elkarte	51	Behobia Donostia	75	Ikastolako oroitzapenak	117
Elkartu Nahi Txirindulari Elkarte	52	Aitor Perez Arrieta	76	Bittor Galarraga	121
Aitzgorri Futbol Taldea	52	San Martin Feria	78	Karmele Arostegi	122
KZ gunea	53	Antonio Viñals	82	Marisol Arrieta	123
Amezti Elkarte	54	Natur baliabideen izaera	83	Ikastolako argazki bilduma	124
Tartaloetxe Kultur Elkarte	56	Erlezain Eguna	84	Ba al zenekien?	127
Zegamar Batasun Kasinoa	58	Ollerias Maratoia	86	Atzoko Zegama	128
Zegamako Zentro Meteorologikoa	58	Tradizioak	88	Sendabelarrak	131
Gazte Herexa Elkarte	59	Aizkorriko Lagunen Eguna	90		

UDALAK ANTOLATURIKO EKIMENAK 2011

Martxo:	5-6	III. Zeramika jardunaldiak
Apirila:	3	Erlezain Eguna
Maiatza:	29	X. Zegama-Aizkorri mendi maratoia
Ekaina:	12-13	Arantzazura peregrinazioa
Uztaila:	4	Aizkorriko Lagunen Eguna
	10	Jubilatuen Eguna
Abuztua:	23-25	San Bartolome jaiak
	27-28	
Azaroa:	12	San Martin Feria

EGILEAK ETA KOLABORATZAILEAK

Jaka Sendia	Belen Asurmendi
Oihana Zubizarreta	Arkaitz Aizpeolea
Jose Luis Berasategi	Juliana Larrea
Arantxa Gorrotxategi	Jorge Garcia
Iñaki Irastorza	Julian Alonso
Juantxo Agirre	Anne Gragert
Fermin Leizaola	Heike Hösterey
Maria Isabel Ugarte- mendia	Juan Carlos Irizar
Igor Alustiza	Benito Gorospe
Ainitze Azurmendi	Mila Alustiza
Arantxa Berasategi	Itziar Etxabe
Bixente Dorronsoro	Mariam Arando
Uxune Alustiza	Lourdes Urteaga
Begoña Olarte	Jabier Berasategi
Nerea Tauschke	Andoni Aizpeolea
Jabier Garrues	Txantxon Zubeldia
Joseba Imaz	Ramon Otaegi
Asier Galdos	Belen Ormazabal
Aixuri Herri Eskola	Bittor Galarraga
Tobera Musika Eskola	Karme Arostegi
Orkatz Abesbatza	Marisol Arrieta
Jubilatuena Elkarte	Margari Garcia
Elkartu Nahi Txirindulari Elkarte	Maitere Zabaleta
Aizkorri Futbol taldea	Joani Peñagarikano
Zegamako KZgunea	Miren Ormazabal
Zegamako Errealeko Peña	Enkarna Asurmendi
Amezti Elkarte	Joxe Telleria
Aizkorri Guraso Elkarte	Pedro Berasategi
Odol Emaleen Elkarte	Maria Teresa Zurutuza
Tartaloetxe Kultur Elkarte	Jon Ormazabal
Zegamar Batasun Elkarte	Manu Arizkorreta
Gazte Herexa Elkarte	Miren Arantxa Albizu
Olaberriko Auzokideak	Maite Asurmendi
Joxe Antonio Irigoras	Angel Irigoras
Pili Elorza	Antonio Viñals
Karlos Ormazabal	Ramoni Urreaga
Joseba Izagirre	Mari Lourdes Garmendia
Asier Elizegi	Mikel Berasategi
Eneritz Arrondo	Olga Urbizu
Jaione Gorrotxategi	Guillermo Zubizarreta
J. R. Agirre	Bittorio Zabalgoeaskoa
Pili Ezeiza	Julian Beloki
Mares Azurmendi	Rafa Olaziregi
Carmen Fernandez	Aitor Perez
Isabel Guzman	Mikel Urbiztondo
Maritxu Ormazabal	Lourdes Larrea
Arantxa Asurmendi	

Gure eskerrik beroenak

KUTXARI
GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI
EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA
SAILARI urte guztian zehar eman
diguten laguntzengatik

Zegamako Urtekaria 2010

© Zegamako Udala

Lege-gordailua: SS-1324/10

Zegamako Udalak ez du bere gain hartzen Urtekarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Halaber, adierazi, argitaratutako argazkiak Elkarte bakoitzak Udalaritza utzitakoak direla.

2010EKO HERIOTZAK

VITORIA LAPIZETXEA DOMINGO
2009-12-31
ARIZKORRETA OLARAN LUCIO
2010-02-1
AZURMENDI LARREA JOSE RICARDO
2010-02-10
OTAEGUI BERASATEGUI ANTONIO
2010-02-18
LARREA ALDASORO MICAELA
2010-03-07
ZABALETA ARIZTIMUÑO NICOLAS
2010-06-22
ARRIZBALAGA OIARBIDE M ^a CONCEPCION
2010-06-30
MENDIZABAL GORROCHATEGUI M ^a JESUS
2010-08-11
CRIADO VELA VALENTINA
2010-09-17
ARANZA AGUIRREGOYA ANGEL
2010-09-24

2009KO JAIOTZAK

COLLADO MENCHACA IZARO
2009-12-20
SEGUROLA COLLADO ALAIN
2010-12-23
ORMAZABAL IGOA ANE
2010-12-23

2010EKO JAIOTZAK

ZUBELDIA ORMAZABAL IRANTZU
2010-01-03
DE PRADO ORMAZABAL KAIET
2010-01-11
LANDA TELLERIA JURGI
2010-02-11
ROZAS PEÑA KIZZY
2010-02-15
VIDAL ESTEVEZ YERAI
2010-03-12
ORMAZABAL URDANGARIN ENEKO
2010-03-24
ORIBE ORUE ALAIN
2010-04-13
BENNAZI NOUR EDDINE
2010-04-19
AIZPIOLEA AZCONA ARATZ
2010-04-28
ELIZEGI YARZA NORA
2010-05-17
MURUA GONZALEZ NAROA
2010-06-08
ETXEZARRETA URBIZU JOKIN
2010-06-08
APALATEGUI ALVIZ BEÑAT
2010-07-02
CATARAIN GONZALEZ UNAX
2010-07-03
IRAOLA RUIZ ANTON
2010-07-12
IZAGUIRRE UGARTEMENDIA AMETS
2010-09-30
GALDOS IMAZ PAULE
2010-10-27
ANTIA LABACA IHINTZA
2010-10-27
ALCELA MUGURUZA ORHI
2010-11-01
ARANEGUI CABALLERO LUKEN
2010-11-13
AZURMENDI ZUBELDIA OÑATZ
2010-11-22



ZEGAMAKO UDALA

AGENDA - TELEFONOAK

Idazkaritza

943 801 115

Faxa

943 800 073

Bake Epaitegia

943 801 115

Kultura, Euskera eta Ongizate saila

943 801 115

Web orria:

www.zegama.net

E-mail:

zegama@udal.gipuzkoa.net

Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren web orria:

www.zegama-aizkorri.com

BESTE TELEFONO BATZUK

Aixuri Herri Eskola	943 800 042
Haurreskola	943 800 087
Tobera Musika Eskola	943 801 570
Osasun Zentroa	943 801 306 / 943 027 700
Eguneko Zentroa	943 801 610
Udal Liburutegia	943 802 137
Turismo Bulegoa	943 802 187
Ostatua	943 801 051
San Adriango Aterpetxea	943 582 076
Sasieta Mankomunitatea	943 161 590 / 943 161 555
Ertzaintza	943 088 800
Zumarragako Ospitala	943 035 000
Beasaingo Anbulategia	943 027 700 / 943 027 701
Beasaingo Larrialdiak	943 461 111 / 943 880 967
Gurutze Gorria	943 161 010 / 943 162 150
Ur Zerbitzuak	902 302 222
RENFE (Beasain)	902 240 202
SOS Deiak, Suhiltzaileak	112
Taxia (Arantza Ormazabal)	645 006 737
Goierrialdea Autobusak	943 885 969
Goitur	943 161 823
Goieki	943 161 537
Goimen	943 161 244
Ordiziako Zerbitzu Forestala	943 881 793
Goierri Beheko Industrialdea	943 880 617
Goierriarra	943 882 719
Goierriko Hitza	943 160 056
Goierri Telebista	943 085 477
Partzoneria	943 801 006
Iberdrola	943 884 654
Ikastolen Fundazioa	943 160 089
INEM	943 880 548
Langai	943 884 401
Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa	943 886 600
Gazte informazioa	943 805 634
Gipuzkoako Baso Elkarte	943 652 900
Akabatutako animaliak biltzeko zerbitzua	943 112 348

■ ZEGAMAKO OROITZAPENAK

JAKA FAMILIA



Zegama herrian, Mendietako Jakatarrak bezala izan gintezke ezagunak. Miguel Jaca eta Bittori Auzmendi ziren gure gurasoak, biak Etxarri Aranatzen jaiok eta ezkontzean Idiazabalen urte pare bat bizi ondoren Zegamara etorri ziren, bertan hemezortzi urte inguru bizi izan zirelarik, gero Zumarragan hamabost bat urtez bizi eta azkenik Lasarten kokatu eta hil ziren. Mendietako Jakatarrak bezala ezagunak garen arren, bi anaia gazteenak izan ezik, besteok Ariztizahar baserrian jaiotakoak gara, dena den gure oroitzapenak Mendieta baserrian bizi ginenekoak dira. Jaiotzez zortzi ginenetik, Pedro, Pascual Tomas (40 egun zituela hil zena) Felix, Joseba, (1986.an hila) Goio, Jon, Bixente eta Xanti, gaur egun sei anaia bizi gara. Zegamako urtekarirako bertan bizi izan gure oroitzapenak idazteko gonbite/enkarguari erantzunak prestatzerakoan, jarraian idazten dugun hiruon esku utzi dute beste hirurek eta hauxe da gure ekarpena.

Goio.- Garai hartako Zegamak eta Mendieta Baserriak batez ere ez zeukan zerikusik egungo Mendietakin. Garai hartan, abeltzaintza eta laborantzak zegamarren artean pisu handi bat zeukan. Mendieta ingurua ez zegoen gaur egun bezala pinudiz inguratua, soro, zelai eta larreak zituen inguruan. Justu baserriaren gaikaldean exola hesi batek erdibituta bi zelai zeuden, Murgialdaiko Joxe eta Quintinena ezkerrekoa eta lbarretakoena eskuinekoa. Urtero martxoa bukaera aldetik maiatza bukaera arte exola hesi horien gainean noiznahi eta saio luzeetan Kukua kantari egon ohi zen, gure gozamenerako.

Gaztelandeta aldean ere zelai eta larre ugari zegoen, udaberritik udazkenera bitarte iluntzero hurrengo goizeraino, bizpahiru ganadu buru larrera eraman ohi genituen. Gogoan dut inguru horietan, bosgarren putzuaren ondotik, trenbideko trabesak egiteko pago zuhaitzak eraman zituzten eta trabesak egiteko balio ez zuen egurrarekin ikatz txondorrak egin zituzten. Guzti hori mandoekin garraiatu zen. Seguraski, Zegamatik eramandako azken trabesak eta ikatza izango zela uste dut, guretzat oso berezia izaten zen, maldizio eta juramenduez aparte, mandazailleek mandoekiko erabil ohi zuten hizkera: ie muloooo!!!, Carboneeee!!!, arre Pajaritaaaa!!!.

Oroitzen naiz neguak oso gogorrak izaten zirela. Gogoan dut ere, elurteagatik eta elur bisutsek egindako elur pilaketengatik etxetik zazpi egunez irten ezinik egon izana. Negu batean, 1954. urtea izan zitekeen, landare eta zuhaitz gazte gehienak ihartu zituen elurte eta izotzak. Beharbada negu bera izango zen Arranoaitz aldetik eta gure baserri gainetik Altsasurantz ejaertitoaren helikopteroak pasa ziren, guk lehen aldiz ikusten genituen horrelako aparatuak eta guretzat izugarritzko espektakulua izan zen.

Urte beretsuan izango zen, gure etxeokan Matista eta Juanitak garia eroin eta auzolanean jaso zuten. Garia jasotzeko jendetza bildu zen, eguzkitan lehortu, jalkitzeko jo, galbahean pasa, garbitu....., izugarritzko hautsa altsatzen zen, guretzat gauza berri bat eta ikusgarria izan zen. Bertan garia eroin zuten azken urtea izan zen.

Giro hartan bizi izan ginen Mendietan, eskolan ez genuen beharbada gehiegirik ikasi, halere baserriko unibertsitateak erakutsi zigun LARREMOTZEAN hezitzea zer zen.

Xanti.- Zegama aipatu eta burura lehenbizi datorkidan irudia garai haietako Mendieta baserriko bizi da. Zelai, soro eta genituen animala gutxien arteko bizi da. Baserria bera besteetatik nahiko aparte geratzen zenez, eskolako orduetan eta joan etorriko bideaz aparte, apenas izan nuen harremanik, beraz, anai arteko bizi da arrunta dut gogoan.

Gogoan dut baserriko eskolako bidea oso luze egiten zitzaidala, eta batez ere hasera batean eskolako orduak astunak egiten zitzaidakidala, nik euskara bakarrik nekien eta eskolako klaseak gaztelera hutsean ematen ziren, beraz, ez nuen ezer ulertzen eta horrela ezer ikastea oso zail egiten zitzaidan.

Garai haietan horren ume koxkorra izanik, ondoen gogoratzen dudana Eguberriko egunak dira. Herriko girotik hain urrun bizi ginen arren, Eguberriak bazuen xarma berezi bat, inguruko baserrietara kantatzera irteten ginen eta txanponen batzuk biltzen genituen gero gozokiren batzuk edo erosi ahal izateko. Zer esanik ere ez dago orduan "pagarik" eta antzekorik ez genuela ezagutzen. Turroia ere izaten genuen eta hori ez zen gutxi. Halere, deigarriena Errege eguna da. Orduan opari ekarle den Olentzeroren zantzurik ez zegoen eta Errege egun bezperan iluntzean, baserriko herrian kabalgata? Antzeko zerbait ikusten genuen suziri eta guzti. Oso ikusgarria egiten zitzaidan horren urrutitik argiak

eta suzieren hotsak entzutea, benetako Erregen magiaz sinistuta bizitzen nituen une haiek. Gure aitak “Reyes, por aquí por aquí” oihukatzen zien, guk ere berdin, baina ikusten zenez ez genuen behar adinako indarrarekin egiten, urtero anaia guztiak opari berdina jasotzen baikenuen, “mazapán eta konfitez” osaturiko Aingeru kaxatxo.

Zazpi urterekin utzi nuen nik Zegama baina esan dezaket nire barruan daramadala jaioterriaren herrimina. Zenbat poztu nintzan herriko kinto afarira aurreneko aldiz deitu nindutenean. Geroztik hutsik egin gabe urtero saiatzen naiz kinto afari horietara joaten, izan ere, niretzat gaztetako oroitzenak gogoratzea baino gehiago bizipen horiek berpiztea izaten baita. Distantziak hurbildu egiten gaituela esan ohi da, eta nire kasuan Zegamarekiko hala da.

Jon.- Nik Zegama hamalau urte betetzear nintzela utzi nuen, hamaika urte nituen arte Mendietan bizi izan nintzan guraso eta anaiekin, gero hiru urte Antzelai baserrian morroi egon nintzan. Nik dudan sentsazioa, haurtzarorik apenas izan ote nuen da, oso ume nintzeneko kontuak apenas gogoratzen ditut eta zerbait koxkortutakoan lanean ikusten naiz. Halere, pasarte batzuk kontatzen saiatuko naiz.

Sei urte bete arte ez dut uste herrira jaitsi nintzenik, behintzat ez daukat gogoan, beraz, herrira jeisten nintzen lehen eguna eskolan hasi nintzen eguna izan behar zuen, eta ez dut oroitzen onik, izan ere hasi nintzen lehen egun horretan, bazkal ondoren anaien inguruan nintzelarik, haiek jolasean zebiltzan bitartean eta ez dakit nolatan, bapatean bakarrik aurkitu nintzan, hara eta hona ibili ondoren azkenean eskola aurkitu nuen eta sartzean, gaitzerdi, ez nuen errietarik jaso. Geroztik askotan pentsatu izan dut, non galduko eta Zegaman, Donostia bailitzan.

Gogoan dut baita ere eskolan hasi nintzenerako irakurtzeko lehen urratsak ematen hasia nintzela, letrak behintzat ezagutzen nituen. Anaia zaharragoengandik kaskarreko batzuen truke jasotako ondarea bera. Batuketa eta gainontzekoak eskolan ikasi nituen.

Eskola eguneko joan-etorriak ditudan oroitzenen artean bat nabarmentzekotan eguraldia da. Udara oso motza egiten zitzaidan, agian oporrekin lotzen nuelako,

eta negua aldiz oso luzea, dudan sentsazioa da beti euripean ibiltzen nintzela kapa berde astun batekin eta gehienetan bustita gainera.

Bazkaltzeko etxera joatea oso urruti egiten zitzaigula eta etxetik eramaten genuen bazkaria, eguerdian Zupurrutiko Eugeniak berotzen zigun eta bertan bazkaltzen genuen. Eguneroko erosketak, normalean ogia bakarrik, kanpazu batean geuk eramaten genituen etxera. Erosketa handiagoak, noizbehinka amak egiten zituen garraiorako astoaren laguntzaz.

Eskola orduz kanpo, garaiko jolas mota ezberdin eta arruntak ditut gogoan, pilota, ziba, kanikak, “txorro-morro-piko-tailo-ke”, txapak, etab. Gogoratzen naiz eguraldi ona egiten zuenean lasterka batean jeisten ginela, eskola hasi aurretik ordu laurden batez frontoian, geuk trapuz eta hariz egindako pilotekin jolastera, zoritxarrez, gehienetan apaiza Potxolo deika joaten zitzaigun eta mezetara eramaten gintuen, horrek izugarrizko amorratioa ematen zidan.

Jolas horietaz aparte ez zegoen entretenimendurako aparteko gauzarik, ez telebistarik ez ta bestelakorik. Gurean, behin anaia zaharrenak Donostian morroi zegoela, bertan oparitutako irrati koxkor bat ekarri zuen, guretzat akontezimendu handi bat izan zen hura. Ez zen aukera askoko irratia, halere Segura Irratia entzuten genuen eta oso gogoko nuen abesti bat sarritan jartzen zuten “los barandales del puente...” Uste dut ordutik dudala mexikar abestiekiko zaletasuna.

Etxera garaiz heldu arazteagatik izango zen ziurrenik, “gaur barregura sortzen dit”, edozein pertsona nagusik bolo-bolo ibiltzen zuten inguruetako bazterretan “Sacamantecas” deituriko gaizkile anker bat omen zebilela eta ilundu aurrez etxeratu behar zela, ni beldurrez airean ibiltzen nintzan. Orain pentsatzen dut, niri “manteca” ateratzeko trebezi amorratua beharko zuela eduki, izan ere hezur eta azal baino ez bai nintzan.

10-11 urte nituela Antzelai baserria morroi joan nintzen eta hiru urtez bertan bizi izan nintzen. Baserri handiagoa izanik, egunerokotasuna ere ezberdina zen, baserriko lana handiagoa zen, ganadu janak egin, ganadua gobernatu, soroetako lanak, belar biltze lanak....., beti zegoen zerbaiten zeregina. Askotan lan astuna egiten zitzaidala dut gogoan, lan astuna

eta ez beti esker onekoa, lehorreak, harri erasoak, etab. Halere, beti dezenteko uztak lortzen genituen.

Beste baserri askotan bezala, udaberriko zizak, perretxikoak, onddoak...., eta batez ere udazkenean ehizak bere lekua zuten, bertako seme zen Luis ehiztari porrokatua baitzen. Solasaldirako gai zabala izaten zen.

Neguz kanpo, eguneko ordu gehienak baserri inguruan edo kanpoan ematen genituen, garai haietan apenas zegoen eskumuturreko ordularirik, bertako nagusiak “Xepeinok” bazuen poltsikoko katedun erloju bat baina soilik jaietan herrira jaistean jartzen zuen, halere, bazen gutxi gora-behera baliagarri egiten zitzaigun sistema bat, papeleri fabrikako tutua, goizez zortzitan eta hamabitan, arratsalde ordu bitan eta sei etan, jotzen zuena, hura zen gure ordularia, mugatua bai baina merkea alajaina.

Pena zen gutxitan egiten zela, baina oso gustuko nituen arto-zuriketa egunak, kanpoan eguraldi makurra, elurra, haize bisutsa etab, orduan sukalde epelean, tartean gaztaina batzuk janez artoari azala kendu eta jalkitzen jarduten ginen. Lana berez ez zen ez samurra ez astuna baina niri izugarri gustatzen zitzaizkidan bertan kontatzen ziren istorio, alegi, ipuin, pasarte etab. haietako asko gerora J.M. Barandiaranen obratan irakurri ditudanak.

Negu partean suertatzen ziran egun batzuk aldagoi haizeak lagundurik izugarrizko euri jasak izaten zirenak, horrelako egunetan izua sortzen zidan bertako etxeoandreak “Eugeniak” zioenean nonbait oso gizaki gaiztoren bat hila izan behar zela, eta hain zuzen inon nahi ez zuten (ez zeruan ez infernua) gizaki haren arima haizearen mende han zebilela alde batetik bestera noraezean euri jasak bere gaiztakeriak garbitzen saiatzen zen bitartean.

Zegama horren herri euskalduna izanik eta aldi berean zirikatzailea, nik ez nuen bertsolari girorik bizi edo sentitu izan, halere, bazen gure inguruko baserrietako biztanleentzat norbaitek sortutako esaldi zirikatzaile batzuk, gogoratzen ditudanak hauexek dira: Andutzan Jexux Krutzan (gurutzan), Mendalden Martin balden, Beunsastin Gabino saskin, Mendietan Matista segatan.....

Ikusten duzueenez, Zegamako nire oroitzenak, ziurrenik beste askoren antzekoak izango diren arren zuen zuten gogokoak izatea gustatuko litzaidake.



SANEAMENDUA MARTXAN

Lanak luze joan badira ere (2006an hasi zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak saneamendu lanak), aurtengo urrian sartu ahal izan da Zegamako ur zikinaren hodia sare nagusira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak bultzaturiko lanak behin amaituta gero, Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku utzi ditu azpiegiturak eta, joan den urrian egin zuen lotunea Gipuzkoako Ur Kontsorzioak Zegamako Ugarmintako kanteraren parean. Ondorioz, Zegamako Udalerriko ur zikinak hodian jasota doaz Legorretako araztegiraino. Azaroan, Barrenaldeko baserrietako lotuneak ere egin dira sare nagusira.

Zerbitzu hau martxan jartzearekin, eta gogoratu, Arriarango ura behar izanez gero, hodia sartuta utzi zela obra nagusiak egin zirenean, Zegamarentzat giltzarriak diren lanak burutu direla esan daiteke, izan ere, saneamendua gauzatuta izatea eta ur hornidura sendoa izatea, bizi kalitatearen islada baitira, gaur egun.



Baserrietako ur zikinak sare nagusira bideratzeko lotuneak egiten

ZEGAMAKO UDALEKO TURISMO ETA KULTURA ARLOAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Zegaman, azken urteotan, kultura eta turismo alorreko elementu ugari jarri dira balioan. Aizkorriko Ataria, Altzibargo Teileria, ibilbide tematikoak, Murgizelaiko parkea, Intxaustiko Errota... Hala eta guztiz ere, elementu guzti hauek gainbalio bat izan dezaten, ezinbestekoa da era ordenatu batean ezagutzera ematea eta, ahalik eta etekin gehien atera asmoz, pausoak finko eta norabide onean ematea. Honela, Udalbatzarrak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Vilau Media S.L. enpresari, "Zegamako turismo eta kultura arloaren plan estrategikoa idazteko" lanen kontratua, 29.000,00 eurotan (BEZ barne) esleitu zion.

2010eko martxoan aurkeztu zion Udaleri, Vilau Media S.L. enpresak Zegamako Plan Estrategikoa idatzita eta ondorioz, datozen urteotako lanabes garrantzitsua dugu eskuartean herriko turismo garapena landu dezagun.

GAZTE PLANGINTZA AURRERA ERAMATEKO AINITZE AZURMENDIRI 4 ORDUKO KONTRATUA EGITEA.

2010eko urtarrilaren 25eko Udalbatzarrean, Zegamako Gazte Plangintza aurrera eramateko, Ainitze Azurmendi Alustizari, gaur egungo kontratua aldatzea proposatu eta erabaki zen, hau da, udal liburutegira zuzentzen dituen bi orduaz gain, beste lau ordu ezarriz Zegamako Gazte Plangintza aurrera eramateko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuarekin, Zegamako Udalak sinaturik duen hitzarmena dela eta, 2010 urterako 9.000 €tako laguntza jaso du langilearen kontrataziorako.

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Zegamako Udala, azken hamarkada pasatxo, lanean ari da Zegaman, euskararen berreskurapena eta erabilera areagotzeko. Hori dela eta, azken urteotan, Emun Koop. Elkarteari ematen dio, plan hau garatzearen lana.



Zegamako turismo bulego berria

SAN BARTOLOME AUZORA IGOGAILUA

lazko urtean, San Bartolome auzora iristeko igogailua jartzeko hasitako obrak 2010eko ekainean bukatu ziren.

Lanak, 2009ko azaroaren 16an hasi zituen "IC Construcción, Ingeniería, y Gestión de Obras S.A." enpresak, Zegamako Udalak, 2009ko irailaren 24ko Udalbatzarrean 494.615,54 €tan esleitu ondoren. Kontratazioaren gehienekoa, 542.615,93 € ezarri bazen ere, enpresa eraikitzaileak, aurkeztutako eskaintza zela eta, esleipen prezioa 494.615,54 €takoan izan zen.

Obrak, 2010eko ekainean amaitu ziren eta igogailua uztailearen 6an jarri zen zerbitzuan.

Igogailuaren kostua, esleipen prezioa baino handiagoa izan zen, obrak egin ahala sortu diren inprebistoak zirela eta.

Alde batetik, Iberdrolak, hainbat hobakuntza obra egin arazi zizkion Udalari, igogailuari argindarra eman ahal izateko. Urtarrilaren 21eko Udalbatzarrak berretsitako, Alkate erabakiaren bidez, igogailuaren azpitik igarotzen zen tentsio ertaineko linea kentzeko lanak esleitu zituen 6.609,80 €tako inbertsioa eginez.

Bestalde, Alderdi Ederreko eremuan ere, tentsio ertaineko linea bideratu behar izan zen, Iberdrolaren eskariz,

igogailuari beharrezko zen argindarra sartzeko. Honela 2009ko azaroaren 13an, Zegamako udalak, 30.509,99 €tako (BEZ barne) lana esleitu zion DC Construcción delako enpresari, lan hau bideratzeko.

Bestalde, pasarela egungo tokian jarri ahal izateko, ezinbesteko bilakatu zen, azken soldaketa lanak, obraren ondoan egitea. Ondorioz, San Bartolome auzorako bidea astebetetz itxita edukitzea ezinbestekoa zela ikusita, Udalak, Ugarteburu auzora, Anduetza Zeharratik zehar, bide bat irekitzea erabaki zuen. Obrak, Lurkide Hondarlanak S.L. enpresak burutu zituen 9.928,09 €tan BEZ barne; era honetara, San Bartolome auzora, irisgarritasuna bermatuz bai oinezko eta baita auto bidezkoa ere, obrak zirauen bitartean.

Honela, ondorengo obra egiaztagiriak onartu ditu Udalak, ahobatasunez, igogailua egiteak sortu dituen zuzeneko eta zeharkako lanak kontutan hartuta:

- a)** 1.go egiaztagiria: 135.424,65€ martxoaren 15eko Udalbatzarrak onartua.
- b)** 2. egiaztagiria: 95.400,28 €, apirilaren 19ko Udalbatzarrak onartua.
- c)** 3. egiaztagiria: 128.301,67 € apirilaren 19ko Udalbatzarrak onartua.
- d)** 4. egiaztagiria: 107.425,87 € ekainaren 7ko udalbatzarrak onartua.

e) 5. egiaztagiria: 89.237,93 € ekainaren 7ko udalbatzarrak onartua.

f) 6. egiaztagiria: 4.946,14 € ekainaren 21eko udalbatzarrak onartua.

g) 7. egiaztagiria: 13.008,98 € abuztuaren 13ko udalbatzarrak onartua.

Proiektua idaztearen lana: Ignacio Ibarretxe: 34.000 € (gehi BEZ)

Zuzendaritza lanak: Euskal Herriko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak, 12.0910,53 €

Igogailuaren kostuei aurre egin ahal izateko, Zegamako Udalak, dirulaguntzak lortu ditu:

Alde batetik, Arantxa Tapia Foru Aldunak zuzentzen duen, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, 300.000 €.ko laguntza eman dio Udalari.

Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak EREIN programaren barnean 31.483 €tako laguntza eman dute proiektu honetarako eta azkenik Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saitetik 152.000 €ko laguntza jaso du Zegamako Udalak.

Igogailua, uztailearen 6an jarri zen martxan eta inaugurazio ofiziala uztailearen 12an egin zen.



Igogailuko pasarela jartzen



Igogailuaren inaugurazio ekitaldian Arantxa Tapia Diputatua izan zen



Igogailua eraikitzeko lanetan murgilduta

ELORTXIKIKO TXABOLA ETA AIZKORRIKO GAILURREKO ATERPEA ETA ERMITA BERRESKURATU DIRA

Aizkorri mendi zerraren magalean, Aizkorpeko parajeetan, zegamarrek mendeetan zehar ustiatu, zaindu eta kontserbatu duten paisaia kultural honen zantzuek irmo diraute. Horren erakusle dira paisaia hauetan nonahi ageri diren kultur eta natur ondare paregabeak.

Zegamako Udalak eta zegamarrek, azken urteotan, ondare hau guztia jendartera zabaldu eta publikoari erakusteko, bere gain hartu duten afera honetan, Aizkorpeko kultur ondarea berreskuratu eta balioan jartzearekin indartsu ari da. Hauen artean inguruko paisaietako balio kultural eta naturala panel tematikoen bidez azaltzen dituen ibilbide sarea eta GR, PR eta SL ibilbide aukera zabal bat abian dira jadanik. Ibilbide hauek herrigunetik abiatzen dira eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko



Helikopteroz garraiatu ziren Aizkorriko ermita eta aterpea konpontzeko behar ziren gaiak

lurretan barneratzen dira. Aizkorriko Ataria interpretazio zentroan ere gurea den Aizkorriko izena eta izana erruz goraiatu eta zabaltzen da.

2010. urte honetan Aizkorriren magaleko Elortxikiko aterpea eta Aizkorriko puntan dauden aterpe eta ermita berreskuratu, txukundu eta sendotu dira. Bi inguru hauetako, bata Euskadiko gailurrik garaiena eta bestea parajerik ederrenetakoa, azpiegiturak balioan jarriz zegamarron eta bertara hurbiltzen diren edonoren eskuetara zabalduko dira paraje hauek.

AIZKORRIKO GAILURRA

Aizkorriko gailurra (1524 m), Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko mendirik gailurrena ez bada ere (Aitxuri 1551 m), urtean mendizale askok izaten du helburu. Bertan daude Gurutze Santu ermita, aterpea eta begiratoki zoragarria, 1934ko uztailaren 8an inauguratu zituzten 2.000 lagunetik gorako erromeria-ospakizun batekin.

Zegamarrok halaxe gogoratzen dugu: Matias Gorrotxategi Otaegi, Etxeberri-Erdi baserrikoa eta haren emazte Maria Otaegi Mujika, Larrekoko alaba, Aizkorri artzain zebiltzala, ekaitz eta denborale izugarri batek harrapatu zituen eta larrialdi hartan egin zuten promes, onik ateratzen baziren, Aizkorriko gailurrean aterpetxea, babeslekua egiteko bideak urratuko zituztela. Agindua zor, eta Matiasek bete: 1925ean hil zen eta bere testamentuan 2.000 pezeta utzi zituen izendatuta, Aizkorriko aterpetxea eraikitzeko. Matias Gorrotxategi eta Maria Otaegik hain eskuzabal emandako diruak bere erredituak eman zituen,

3.085 pezeta ziren guztira 1934ean. Foru Aldundiak beste 2.000 jarri zituen. Turismoarako Nazio Patronatuak beste 2.000 eta Zegamako Udalak 124,80 m²-ko lur saila jarri zuen. Oraintsu, 75. urteurrena ospatu berri dugu.

Baina urteak joan urteak etorri, eguratsaren eraginez eta bertatik urtean zehar igarotzen diren milaka mendizalaren joan etorriak direla berritze lan batzuen premian zegoen gailur eder hau. Aterpeko ate eta leihoak egoera kaxkarrean zeuden, hormak margotu beharrean eta teilatua itoginek jotzeko arriskuan. Ermitako gailurreko gurutzea puskatuta zegoen, beirak apurtuta eta hormak ere guztiz zikinduta. Ahutzek ere ermita oso gustuko zuten eta hauen simaurrez josita egon ohi zen.

Hala, aterpean eta ermitan egin diren lanak ondoregoak dira:

- Aterpea barrutik eta kanpotik margotu.
- Aterpeko ate berria jarri eta leihoak beirritu.
- Aterpeko teilatua asfalto telaz isolatu eta puskatutako ertzak konpondu.
- Jabier Arrieta eskulturagilearen laguntzaz ermita gaineko gurutzea berreskuratu eta kolokatu.
- Ermita barrualde guztia garbitu eta margotu.
- Ermitako leihoak berreskuratu.
- Ermitaren kanpoaldean burdinazko lan-ga bat jarri ahuntzak sartzea galaraziz.



Mandoak ere garraibide garrantzitsua izan ziren



Azalpen mahaia Aizkorriko gailurrean

- Ermitako erretaula garbitu eta kontserbatu.

- Kanpoaldeko miradoreko baranda garbitu eta margotu.

Baranda ingurua berriz bertako paisaia eta panorama ikusteko gune paregabea da, eguraldi onarekin itsasoa eta Pirinioak ere ikusten direlarik. Bertara hurbiltzen den edonor, besoa luzatuta aritzen da bertatik ikusten den mendi bakoitza izendatu nahian edo zein diren galdezka.

Joan den udatik aurrera begiratokian jarri den azalpen mahaiaren bidez, inguruko paraje guztiak ezagutu ahal izango dira. Bertan Aizkorri-Aratz Parke Naturala, inguruko mendiak, Zegamako lurak eta abar argazki eta planoen bidez azaltzen dira.

Jada Aizkorri iristen den edonork jakingo du Euskadiko gailurrik garaiena Zegaman dugula.

Mahai eran jarri den panel hau Pyrolave materialez eginikoa da. Laba bolkanikoa oinarri duen material hau, kanporako gaur egun dagoen eraginkorrenetako da: eguratsaren gorabeherek, ultravioleta izpiek, euri azidoa, eta jendeak eragindako kalteak (kolpeak, arrastoak, grafitiak eta abar) sufritzeko material eta inprimaki bereziak baitira, "harri eternoa" esaten omen diote.

Lan hauek guztiak gauzatzeko material kopuru handia igo beharra zegoen Aizkorri eta honetarako Udalak bi garraiobide ezberdin erabili ditu: bata helikopteroa eta bestea mandoa, bi garraiobide eta bi garai lan batean uztarturik.



Ermitan gurutzea jarri da

ELORTXIKI TONTORREKO ATERPE-TXABOLA

Elortxiki Zegamako Iparraldeko mugan kokatzen den 870 metroko altuerako mendi tontorra da. Bertatik erruz bistaratzen dira bai Ori a bailara, Urola bailara, Aizkorri mendi lerroko mendi garai gehienak, Aratz eta baita Aralar Parke Naturaleko mendiak ere. Elortxiki Gipuzkoako paraje ederrenetakoa dela ezin uka daiteke, bertan zaudenean behintzat horixe da burura datorkizun bakarra.

Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko eremuan barneratzen den tontor honetan aterpe-txabola txiki bat eta hainbat mahai daude. Aterpea egoera nahiko kaxkarrean aurkitzen zen, bertara sartzeko diren animalien simaurrarekin zikinduta, mahai eta aulkiak izorratuta, teilatua deseginda, hormak pitzatuta eta abar. Kanpoaldeko mahaiak berriz puskatuta zeuden eta harrizko hankak bakarrik ageri ziren. Zegamako GR-136 ibilbidea bertara iristen da, eta hamaiketako nahiz bazkaria sari moduan egiteko gune paregabea da Elortxiki.

Aterpeak bi zonalde ditu, bata guztiz irekita egoten den aterpe irekia eta bestea beti itxita zegoena. Bigarren honetan litera zahar batzuk, puskatutako ekonomia bat, sabaia erorita eta abar zeuden.

Elortxiki berreskuratzeak Zegamako paraje ederrenetako batean, mendian aisialdirako gune paregabe bat prestatu eta berreskuratzea ekarri du. Burutu diren lanen artean honoko hauek daude:

- Kanpoaldeko mahaiak berreskuratu eta akazia oholez meriendatzeko edo bazkaltzeko prestatu.
- Teilatua guztiz berritu eta isolatu, oholak berrituz, teila berriak jarri eta urak jasotzeko kanaloiak kolokatuz.
- Ura biltzeko depositua garbitu eta egokitu.
- Tximiniak eta beheko suak berreskuratu (bi geletakoak).
- Barnealdea garbitu eta margotu eta sabaia berritu.
- Orain arte itxita zegoen aldeko leihoak berritu, zoru berria jarri eta txukundu.

- Kanpoaldeko hesia abereak ez sartzeko egokitu.

- Aterpeko fatxadak urdin kolorez margotu.

Lan hauek burutzearekin Elortxikiko aterpea urte batzuetarako indartu eta txukundu dugu. Orain arte ez bezala edozeinek egun pasa bat egiteko moduan dugu jada paraje eder hau. Aterpeko alde bat irekita egon ohi da eta bertan beheko sua, mahai bat eta banku luze bat daude. Beste alde berriz itxita dago eta edonork bertara lo egitera joan nahiko balu bertako giltzak eskuratzea bestetik ez du behar. Itxitako gune honetan beheko su eder bat eta lo egiteko eremu zabal bat daude, hori bai, norberak eraman beharko ditu alfombra edo esterila eta zakua.

Lan hauek guztiak gauzatzeko ezinbestekoa izan da Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapeneko Departamenduaren konpromisoa, 2009ko urriaren 30eko 0677zk. Foru Aginduaren bidez, Zegamako Udalarari 104.089,70€tako dirulaguntza ematea erabaki baitzuen. Diru honekin egin dira aipatutako lan hauek guztiak.



Elortxikiko aterpea eraberrituta



Barnean arraska eta beheko sua jarri dira besteak beste

Honela, 2009 urtean Emun Koop. Elkarteak udalerrian egindako lanaren emaitza ontzat emanik, 2010 urterako ere lan hau, Emun Koop. Elkarteari 18.000 €tan esleitzea erabaki zuen urtarrilaren 25eko Udabatzarrean.

AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO PATRONATOAN ZEGAMAKO UDALAREN ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

2006 urtean, Aizkorri-Aratz Parke Natural izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bere kudeaketarako elementuetako bat Patronatoa izeneko erakunde bat da eta bertan, Aizkorri-Aratz Parke Naturalak hartzen dituen udalerrietako ordezkari politikoak daude besteak beste. Hori

dela eta, Zegamako Udalak, martxoaren 8an egin zen Udabatzarrean, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Patronatorako Zegamako Udaleko ordezkari, Jose Ramon Agirre Berasategi zinegotzia izendatzea erabaki zuen ahobatasunez.

2010-2012 EPEALDIRAKO ZEGAMAKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.

Martxoaren 15eko Udabatzarrean, Zegaman euskararen erabilera areagotzeko, Zegamako Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurrera eramateko hitzartuta duen Emuun Koop. Elkarteak, landutako 2010-2012 Plan Estrategikoaren azalpena egin ondoren, Udabatzarrak, 2010-2012 epealdirako

Euskararen erabilera areagotzeko Plan estrategikoa onartu zuen.

ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIKO WEB ORRIA BERRITUA

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiak dagoeneko 9 edizio egin ondoren, eta korrikalariekin nahiz bertan parte hartu nahi dutenekin harremana web orriaren bidez gero eta zabalagoa dela ikusirik, Udalak, web orri erakargarri eta praktikoa baten beharra ikusi zuen. Hori zela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Departamentuak bultzaturik dirulaguntza deialdira eskaera egin ondoren, 22.000 €tako laguntza onartu zitzaion Zegamako Udalarik Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren Web orria bideratzeko. Honela, martxoaren 15eko Udabatzarrean, web orri berri bat

TOKI INBERTSIOETARAKO ESTATU FONDOA

Estatuak, Enplegua eta Toki Sostengarritasuna bideratzeko Estatu Fondoaren arautzen duen urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legea martxan jarri izanaren ondorioz, Zegamako Udalarik, 157.188,00 €tako laguntza zegokigun. Horiek horrela, diru hau, ahalik eta herritar gehienaren onerako erabili asmoz, Udabatzarrak, ahobatasunez, urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Enplegua eta Toki Sostengarritasuna bideratzeko Estatu Fondoaren kargura, Zegamako Aitxuri Herri Eskolako jolas-patioan estalki-egitura bat egitea erabaki zuen. Patio osoa estaltzeak, Toki Inbertsiotatik Zegamako Udalarik zegokion baino diru kantitate gehiago behar zenez, proiektua bi zatitan banatzea erabaki zen. Zati bakoitza, Toki Inbertsiolari egotziz eta bigarren zatia, Udalaren eskutik jarriz.

Honela, martxoaren 24ko Udabatzarrean, “Zegamako Aitxuri Herri Eskolako jolas-

patioan estalki-egitura bat” egiteko kontratazio espedientea onartu zen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, eta lan horien kontratazioa arautuko zuen administrazio baldintzen plegua ere Udabatzar berean onartu zen, lanen gastua 157.188,00 eurokoa izanik.

Aldi berean, Francisco Javier Larrea Madrazo teknikariak idatzitako proiektu teknikoa onartu zen. Apirilaren 19ko Udabatzarrak, “LM Ingenieri”k enpresari esleitu zion, eskolako patioan aterpe zati bat eraikitzearen lana 157.188,00€tan (BEZ barne). Aterpearen 2. zatia, ekainaren 21eko Udabatzarrak, patioaren lan osagarriak egitearen lana “LM Ingenieri” enpresari esleitu zion, 52.727,22 €tan (BEZ barne).

Proiektua idaztearen lana, 17.400€tako (BEZ barne) izan da, eta martxoaren

1eko Gobernu Batzarrak, LM Ingenierik” enpresari esleitu zion. Honela, lanak, 2010eko urrian amaitu zituen “LM Ingenieriak” enpresak.

Dagoeneko, eskolako haurrek, nahiz jangela zerbitzua erabiltzen duten haurrek, estalpearen erabilpena egiten dute egunero beren bizi kalitatea hobetuz. Izan ere, eguraldi ona edo txarra, jolas garaian ez baitute orain arazorik kanpora irtetzeko.

Horretaz gain, eskola kirola ere, astean bitan ematen da eskola ordutik kanpo eta, hauentzat ere estalpea izatea eskuartean erosotasuna da. Bestalde, pilota eskolakoek ere, pilotalekuaren erabilgarritasuna errezago dute, haur eta gazteek, patioko estalpea erabiltzeko modua dutelako.

Orain beraz, ditugun estalpeak, ahalik eta era orekatsuean, guztiok erabiltzea da helburua.



Patioan estalkia jartzeko obrak



Eskolako patioa estalita

MURGIZELAI PARKEAN KOMUNAK ETA ARRASKAK ERAIKI DIRA

Murgizelai eremua, herritarrok uda partean asko erabiltzen dugula baloratuz eta herrira, bisitariak erakartzeko leku egokia dela kontutan hartuz, azpiegitura egokiak jartzea interesgarritzat jo zuen Udalak. Honela, Gobernu Batzarrak, 2009ko abenduaren 21ean egin zuen bilkuran, Mikel Urbiztondo Larreari, Murgizelai Parkean komunak eta arraskak jartzeko lanen kontratua, 49.170,94 eurotan (BEZ barne) esleitu zion.

Lanak amaitu ondoren, eta aurreikusi gabeko hainbat lan burutu ondoren, udal arkitektuak prestatutako txostena eta igoerari buruzko azalpena onartu zuen martxoaren 15eko Udalbatzarrak, ahobatasunez, hala nola, Mikel Urbiztondok aurkeztutako 60.615,60 € tako(BEZ barne) faktura ere onartu zen ahobatasunez. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol eta Kanpo Ekintza Departamentuko Kirol Zuzendaritzak, ekimen hau

burutzeagatik, kostuaren % 50eko laguntza eman zion Udalari, 30.307,80 € hain zuzen ere.

Aurtengo udan, Murgizelaiko parkean komunak erabilera egin ahal izan dugu herritarrok, giltza turismo bulegoan eskatuz. Esan, azpiegitura honekin Murgizelaiko parkeak asko irabazi duela eta egun-pasa egiteko oinarritzko zerbitzu egokiz hornitua geratu dela.



Murgizelaiko komunak



Komunak eta arraskak eraikitze lanak burutzen



Murgizelaiko arraskak



Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako diputatu den Iñaki Galdos eta Turismoko Zuzendari den Ernesto Murgiondo Murgizelaian burututako lanak ikusten.

egiteko baldintzen plegua onartu zuen Udalbatzarrak eta publizitaterik gabe prozedura negoziatua erabili ondoren ekainaren 21eko Gobernu Batzarrak Virtual Shapes S.L. enpresari esleitu zion 37.120,00 €tan (BEZ barne) Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiko web orri berria egitearen lana.

SAN BARTOLOME AUZOAN ARGIAK

San Bartolome auzoko zenbait puntutan, argi gutxi zegoela jakinarazi ondoren

bertako biztanleek, Udalak, martxoaren 24ko Udalbatzarrean 5 farola gehiago jartzeko erabakia hartu zuen. Farola berriak jartzearen lana, herrian elektrizitate lanetan aritzen den, Jabier Iraola Ibañezi esleitu zitzaion 6.704,80€tan (BEZ barne).



San Bartolome auzoa argiztatuagoa dago orain



Eguneko Zentroan eginiko egokitzapena lanak

EGUNEKO ZENTROAN OBRAK

Eguneko Zentroak 8 plaza izan ditu 2010 urtera arte. Zegoen zerbitzu eskaria kontutan hartuta, Zegamako Udalak, 2 plaza gehitzea eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari. Honela, egun 8 plazatik 10era pasatu da eta horretarako, batez ere, erabiltzaileen erosotasuna irabazteko beharrezko ziren obrak egin dira. Honela, adierazitakoaren arabera, Eguneko Zentroan zenbait egokitzapen bideratzeko lana, aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Mikel Urbiztondo Larreari, 5.490,28 eurotan (BEZ barne) esleitzea erabaki zuen martxoaren 24an ospatu zen Udalbatzarrek.

GOIERRI TELEBISTA ETA HITZARI LAGUNTZA

Apirilaren 19ko Udalbatzarrek, Goierriko bi komunikabide euskaldunei urtero laguntza ematea onartu zuen. Honela, aurreko urtetako ildo jarraituz, biztanleko 2 €tako laguntza ematea onartu zen. Ondorioz, bakoitzari 2.814,00€tako laguntza emango zaio 2010ean.

GIMNASIOA EGOKITZEN

Zegamarrok, negu partean behintzat, gimnasio baten azpiegitura faltan botazen dugu. Kirola egiteko erosotasun bat behar dela kontutan hartuta, Zegamako Udalak, Toki Inbertsioetako lehen Estatu Fondoa, kiroldegiko gelei altuera bat emateko erabaki sendoa hartu zuen, era horretara 200 m²ko solairu berri baten jabe egiten baitzen Udala eta erabaki honek, gimnasio bat eraikitzeko aukerak erretzen zizkion Udalari.

Honela, Udalbatzarrek, 2009ko azaroaren 2an egin zuen bilkuran, Zegamako polikiroldegiko aldagelak eta gimnasioa egokitzeko lanen proiektua idazteko lana eta zuzendaritza, Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoari esleitu zion 18.000 €tan BEZ barne.

Honela, Ibarretxe Arkitektoak gimnasioa egiteko proiektua aurkeztu ondoren, apirilaren 19ko Udalbatzarrek, "Zegamako kiroldegiaren ondoko eraikinean gimnasio erabilerarako" lanak egiteko kontratazio espedientea lan horien lizitazioa arautuko duen administrazio baldintzen plegua onartu zuen, lanen gastua 469.559,86€tan (BEZ barne) ezarri.



Foru Aldundiko Iñaki Ugarteburu Kiroletako Zuzendaria eta Iñaki Galdos Kiroletako eta Kanpo Ekintzako diputatua gimnasioko lanak ikusten

Lanen esleipena, kontratazio ireki bidez izapidetu ondoren, uztailaren 5eko Udalbatzarrek Pedro Iparragirre Eraikuntza enpresari esleitu zion 424.324,32 €tan BEZ barne.

Gimnasioa egiteko finantziarioa, 2010eko aurrekontuan, 270.000 €tako partida zegoen jasota eta gainerako gastuak,

2009ko Kitapeneko gerakinekin eta 2011 urteko Aurrekontutik jartzea erabaki zen.

Honela esan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirolak eta Kanpo Ekintza Departamentuak, Zegamako Udalak egindako dirulaguntza eskaerari erantzunez, ekimen honetarako 100.000 €tako laguntza onartu zuen, helburu horretarako. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko Erein Programatik, 155.356,70 €tako laguntza lortu zuen Udalak.



Gimnasioa hirugarren solairuan kokatuko da



Gimnasio barruko lanak ere aurrera doaz



Langileak gimnasioa egokitzen

KALITATEA FUNDAZIOAREKIN HITZARMENA SINATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Apirilaren 19ko Udaltzarrean, Zegamako Udala eta Kalitatea Fundazioaren artean lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea erabaki zen ahobatasunez. Lankidetzaz hitzarmen horren arabera, erakunde bakoitzak hainbat betebeharrak ditu. Azpimarragarrienak honako hauek dira: Zegamako Udala, urtean zehar, eta batez ere antolatzen dituen ferietan, Kalitatea Fundazioko produktuen promozioa egitera konprometitu da eta bestalde, Kalitatea Fundazioa, Zegamako Udalarik, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian parte hartzen duten korrikalariari eman beharreko 550 motxila, Eusko Labeleko produktuez hornituak, dohain ematera konprometitzen da.

HAURESKOLA HANDITZEKO ERABAKIA HARTZEA.

2009-2010 ikasturtean, Ugarte Zelaiko Haurreskola berria ireki bada ere, 2010 urtean zehar jaiotzea aurreikusita zegoen haurren kopurua kontutan hartuta, eta guraso eta guraso izango zirenekin bilera bat egin ondoren, 2010 urtean zehar, egun irekita dagoen Haurreskola txiki geratuko zela aurreikusitua zuten Udalak. Horrela, eta behin-betiko konponbide bat edo beste lokal baten eraikuntza bideratzen den bitartean, alokatutako instalazio modular baten bidez, behin-behineko eranskin bat jartzeko aukera aztertu ondoren, apirilaren 19ko Udaltzarrean, alokatutako modular bat jartzeko erabakia hartu zuen. Honela, Lurkide Hondarlanak

enpresak, bere lursail batean, Haurreskola jartzeko baimena eman ondoren eta hiru aurrekontu ezberdin aztertu ondoren, Algeco Construcciones Modulares S.A. enpresari modularra alokairua kontratatzea erabaki zen.

Alokaturik Haurreskola jartzearen kostuak honako hauek izan dira:

- 78,93 m² dituen eraikin modularren alokairua: 535,00 euro/hilabeteko gehi BEZ. Urte beteko kostua, 7.447,20 €.
- Egituraren garraioa eta jasotzea: 1.1150,00 euro gehi BEZ.
- Muntaita eta desmuntaita: 7.120,00 euro gehi BEZ.

Horren arabera, egituraren alokairuak 17.040,20 euroko kostua (BEZ barne) izan du. Bestalde, ondoko lursailaren egokitzapen lanak bideratzea ere beharrezkoa izanik, lan horiek, aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Lurkide Hondarlanak S.L. enpresari 7.409,60 eurotan (gehi BEZ) esleitzea erabaki zen.

Udaltzarrean, bestalde, aurrekontuan, ekimen hau aurrera eramateko falta zen diru kopurua, hurrengo kreditu aldaketan jasotzea erabaki zen ahobatasunez.

ZEGAMAKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA

2009an Zegamako Udalak, herriko hiru gunetan Arau Subsidiarioaren aldaketa bultzatu zuen. Udalaren ustez, aldaketa horiek herri onurara bideratuta baitzeuden.

Alde batetik, Ugarte Zelai eremuan, etxebizitza gehiago egiteko aukera landu da, bertan etxe txikiagoak eta gehiago

egitea jorratu da, Udalaren helburua, igogailurik ez duten zegamar etxejabeek ere, etxebizitza lortzeko aukera gehiago izatea izanik.

Bestalde, Orlan auzoko irisgarritasuna hobetu nahian, Arretxe baserri inguruak berrantolatu nahi izan dira, bertako bidea zabalduz eta azkenik, Murgisarrin, udal lursailetan, bungalow batzuk egiteko aukera zabaltzea izan da; izan ere aldaketa egin aurretik ezinezkoa baitzen era horretarako azpiegitu bat eraiki ahal izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzik gabe.

Agiri hau, Administrazio desberdinetan tramitatu edo izapidetzen joan da, Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia etabar. Eta ibilbide luze baten ondoren eta dagokion alorrean aldeko txostenak jaso ondoren, azken hitza eman zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 7an behin betiko Onarpena emanaz Udalak bultzatutako aldaketa hauei.

Honela, Olaberri II eremuan, bi familiarik 9 etxe eraiki ahal izatetik, bi familiarik 7 etxe eraiki ahal izatera pasatu da. Bestalde, Ugarte Zelaien oraingo aldaketarekin 68 etxebizitza egin ahal izango dira 3 bloketan eta beste 14 etxebizitza, bi familiarik 7 etxetan.

Murgisarrin 8 bungalow eraikitzeak aukera dago orain, Arau Subsidiarioetan egin den aldaketa dela medio eta azkenik, Arretxe eremuko aldaketa, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du onartu eta, Udalak, bestelako prosamen berri bat egin asmo du Foru Aldundiaren aurrean, aldaketa hau bideratzeko.

UDAL-IGERILEKU ETA TABERNAREN ZERBITZUAK KUDEATZEKO KONTRATUAREN LUZAPENA

Udaltzarrean, 2008ko maiatzaren 19an egin zuen bilkuran, Juan Ignacio Moyua Ayalari (Goierriko Kirol Teknikoak enpresa) esleitu zion Zegamako Udal igerilekuak kudeatzeko lana. Honela, hitzarmenaren 3. puntua jarraiki, bi aldeek ados egonez gero, luzapena egiteko aukera ematen zenez, apirilaren 19ko Udaltzarrean, 2010 urteko denboraldirako hitzarmena luzatzea erabaki zuen. 2010eko denboraldiko zenbatekoa, 26.798,09 eurotan (BEZ barne) ezarri zen. Aurten igerilekuak ekainaren 19tik irailaren 5era egon dira irekita.

ANIMALIA ARRISKUTSUEN UDAL ERREGISTROA

Etxean gero eta txakur edota animalia gehiago ditu gaurko gizarteak. Hala



Haurreskola berria ikusteko ate irekiak antolatu ziren



Zegama Udalerriaren airetik argazkia, igogailua jadanik eraikita ikus daiteke

ere, hainbat animalia arriskutsu etxean edukitzeko baimen berezia behar denez eta Zegamako Udalarari, baimen berezi horren eskaera egin ondoren animalia arriskutsuak eduki nahi dituzten hainbat herritarrek, Udalak Animalia Arriskutsuen Udal Erregistroa sortzea erabaki zuen abuztuaren 13ko Udalbatzarrean.

BITARTEKO MAILEGUA

Igogailuaren eraikuntzan, Aizkorriko Atariaren eraldaketan eta haurreskola, nahiz eskolako patioaren eraikuntzek sortutako gastuak direla eta, udalak altxortegi arazoa izan du, izan ere, ekimen guzti horiek dirulaguntzak izan dituztelako, eta hauek kobratu ahal izateko ezinbestekoa izaten delako, aurrez lanak egin eta kasu askotan ordainduta izatea. Honela, altxortegi arazoa izango zuela ikusirik Udalak, irailaren 27ko Udalbatzarrak legez osatzen duten bederatzi kideetatik, etorritako zazpiren aldeko botoekin, Gipuzkoa Donostia Kutxarekin 60.000,00 euroko zenbatekoa duen altxortegiko mailegu bat hitzartzea, erabaki zuen, dirulaguntzak jaso bitartean eskuartean zuten altxortegi arazoa

konpontzeko. Abenduaren hasieran eskatutako dirua itzuli zuen Udalak.

KORTABERRIKO BIDEGURUTZETIK INTXAUSTIRA BIDEGORRIA

2009ko azaroaren 3an egin zen Segurako Zubiberritik Kortaberriko bidegurutzerainoko bidegorriaren inaugurazioa. Hurrengo fasea, Kortaberriko bidegurutzetik Intxaustiko Industriegunerainokoa da. Bidegorri zati honek, ordea, haserako proiektutik aldaketa handiak izan ditu. Lehen proiektua Oria ibaiaren ertzetik onartua bazegoen ere, Oria ibaiaren LIC izaera dela eta bisoi europarraren presentzia dela medio, lehen proiektu guztia aldatu beharra ikusi zuen Foru Aldundiak. Honela, Garapen Iraunkorreko diputatuak 2010eko abuztuaren 6ko Foru Aginduaren bidez, Kortaberria auzorako sarbideetik Zegamako Ondarraldea industrieguneraino bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia egiteko Proiektuaren Proiektu Aldatua (3. Ibilbidea: Donostia-Beasain) (13-BI-16/08 R) onartzeko legezko tramiteei hasiera ematea eta proiektua jendaurrean jartzea ebatzi zuen legezko epea irekiz alegazioak aurkezteko.

Honela, Barrenaldeko baserriek eta Udalak berak ere alegazioak aurkeztu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuaren aurrean, espediente aurrera doa eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko



Bidegorriaren trazatu berria markatzen duten postetxoak ezarrita daude



Ugartzelaiko etxebizitzak eraikiko diren eremua

Departamentuaren arabera, hurrengo pausoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, bidegorria egingo den lursailen jabe egitea izango da, ondoren, bidegorria eraikitzen hasteko. Bidegorriaren fase hau, Kortaberrik Intxaustiko Industrialderaino, 2011 urtearen haseran hastea aurreikusita dago.

UGARTE ZELAI EREMUKO ETXEBIZITZAK

Ugarte Zelai eremuan hurrengo etxealdia berehala eraikitzen hasteko asmoa agertu zuen lurjabea den Ormazpei S.L. enpresa eraikitzaileak. Zegaman azken urteotan etxebizitza tasatuak eraikitzen dira Udalaren erabakiz, horretarako Udala eta dagokienean enpresa eraikitzailea akordio batera iristen direlarik salneurriei dagokionean.

Honela, aurreko etxebizitzaren promozioa oinarritzat hartuta eta azken 3-4 urte hauetan etxeen prezioan eta kostuetan izan diren gorabeherak aztertu ondoren, honako prezio hauek finkatu ziren irailaren 27ko Udalbatzarrean.

OINARRIA % 8 BEZa GUZTIRA

6 etxebizitza 84,76 m² erabilgarriak (3 logela) X 2.095 €/m² = 177.572,2 + 14.205,77 = 191.777,97 €

8 etxebizitza 58,37 m² erabilgarriak (2 logela) X 2.285 €/m² = 133.375,45 + 10.670,03 = 144.045,48 €

6 etxebizitza 72,26 m² erabilgarriak (3 logela) X 2.160 €/m² = 156.081,60 + 12.486,52 = 168.568,12 €

M2 teilatupeko atikoa (obra egin gabe) 900 € m² (gehi BEZ)

Garaje itxia (14 m² gutxi gorabehera) 18.000 € (gehi BEZ)

Behe solairuko etxebizitzaren terrazen metroa : 180 €/m² (gehi BEZ)

Bestalde, Udal honen ustez, herritar ugari daude, herrian jaio eta garai bateko etxebizitza eskuartean dutelako, etxebizitza berri bat eskuratzeko zailtasunak dituztenak. Honela, etxebizitza erosteko lehentasunak finkatzeko garaian, nahiz eta Zegaman etxebizitza bat izan, igogailurik ez badu, etxebizitza berria erosteko izenematean erreztasunak ematearen aldeko apostua egin du Udalak.

Etxebizitzak, zozketa bidez esleitzea erabaki da eta, ondorengo lehentasun irizpideak ezarri ditu Udalak:

Lehen multzoa:

- Gutxienez 5 urte Zegaman erroldatua izan eta etxebizitzarik jabetzan ez dutenak edota nahiz eta etxebizitza izan, mugikortasun arazo handiak dituena. Kasu honetan ere gutxienez Zegaman 5 urte erroldatuta egotea ezinbesteko izango da.

Bigarren multzoa:

- Zegaman etxebizitza jabetzan eduki baina igogailurik ez dutenak. Kasu hauetan ere, gutxienez Zegaman 5 urte erroldatuta izatea eskatuko da.

Lehenik, lehen multzokoaren artean egingo da dauden etxebizitzaren zozketa eta, etxebizitzarik salgai geratuko balitz, bigarren multzoan izena emandakoaren artean egingo da zozketa.

BEHEKO SOLAIRUAK ETA TEILATUPEKOAK BIZITEGI BIHURTZEKO JARDUERAK ARAUTZEKO ORDENANTZA ONARTZEA.

Beste herri askotan bezala, Zegamako Udalak ere mahai gainean jarri zuen,

Zegaman ere, behe solairuko hainbat lokal eta baita teilatupeko hainbat lokal ere, etxebizitza bilakatu ahal izateko aukera. Honela, Udalaren ustez, herrian bai behe solairuan eta bai teilatupean ere, legeak etxebizitza izateko ezartzen dituen gutxieneko azalera duten lokalak etxebizitza bilakatu ahal izatea positibotzat jo ondoren, azaroaren 8ko Udalbatzarrek, gai hau erregulatuko duen ordenantza onartzea erabaki zuen. Honela, era honetako interes edo beharrik duenak, egun, aukera du Zegaman behe solairuko lokala edo teilatupea etxebizitza bihurtzeko.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA ETA EUSKARA DEPARTAMENTSUAREKIN HITZARMENA

Aizkorriko Atariaren egokitzapena egin eta gero, egoki iruditu zen baso lanetan erabiltzen ziren lanabesak museoan jartzea. Honela, mendi lanetako materiala, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere almenetan gordeta bazuela jakinik, irailaren 27ko Udalbatzarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuarekin hitzarmena sinatzea erabakizuen, Foru Aldundiaren etnografiako 14 pieza, Aizkorriko Atarian, Anduetza baserrian, deposito modura uzteko.



Foru Aldundiak utzitako zenbait tresna museoan

TURISMO BULEGOA KUDEATZEKO HITZARMEN LUZAPENA

2008ko irailaren 8ko Udalbatzarrek, "Zegaman turismo bulegoa, eta gaur egun Aizkorriko Ataria antolatu, martxan jarri eta kudeatzeko zerbitzua"ren kontratua Nerea Tauschke Lamberriri esleitzea erabaki zuen. Honela, garai hartan onartutako baldintzen pleguak, luzapenerako aukera ematen duenez, azaroaren 8ko

■ KIROLARI ATEAK ZABALIK

Hirugarren urtez jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako departamentuak abian jarritako ekimenari jarraituz, ekainaren 6an "Kirolari Ateak Zabali" jaia antolatu zuen Udaleko Kirol Batzordeak herriko hainbat elkarte eta biztanleren laguntzaz. Beste behin ere arrakasta izan zuen ekimen honek heldu eta haurren artean nahiz eta eguraldiak askorik lagundu ez.

Goizean goiz, Amezi Mendi Elkarteko kideen gidaritzapean mendi irteera burutu zen Zegama inguruko mendietan zehar. Ibilaldia herri-gunetik abiatu zen eta Elortxikirako bidea hartu zuen, jarraian, Elor Txikiko tontorrera igo gabe, Arranoaitz azpialdetik barrena Aierdira eta hemendik berriro herrira itzuli ziren 11:00ak alderako. Esan behar, izan zen eguraldi trumoiatsu eta bustia zela-eta, jende ugari bildu bazen ere goizeko 8:30etan plazara, hauetatik 9k soilik burutu zutela mendi-ibilaldia.

Mendizaleak mendian zirela, Elkartu Nahi txirindulari elkarteak antolatuta, federatu jubentzen XXVI. Elkartu Nahi Sari Nagusian parte hartu behar zuten txirindulariak Zegamara hurbiltzen hasi ziren, euren giharrak berotu eta 10:00etarako Zegamako irteeran prest egoteko. 10:00etan eman zitzaion beraz, txirindu frogari hasiera eta 12:00ak bitartean, hainbat malda eta lautada igaro zituzten Otzaurteko gainera iritsi aurretik. Helmugan Aviron-Bayonnais taldeko Loic Chetout izan zen lehenengo postuan eta Karl Baudron (Lescar Velo Sprint) eta Jon Ander Intsausti mutiloarra (Caja Rural) hurrenez-hurren bigarren eta hirugarrenean. Helmugan bertan nahiz Zegama inguruan behintzat, ez zuten animo faltarik izan froga ikustera hurbildu zen jendearen ahotik.

11:00etan berriz, Olan auzoan Pilates saioa hasi zen. Aurtengo ekitaldirako zirkuitu bat prestatu zuen Joaquin Elkoro irakasleak eta bere aginduetara, 20 bat haur eta 30bat heldu aritu ziren ariketak egiten gelditu gabe. Urtean baino



Mendi irteeran parte hartu zuten herritarrek Amezi mendi elkartekoak gidari zituztela



Aitzgorri Futbol taldekoek antolatutako futbol jokia



Jubentzen txirridu froga Zegamatik barrena



Txarapen antolatu zen bolo jokia Martin Retegi buru zela

urtean arrakasta handiagoa duen kirola dugu hau Zegaman.

Honenbestez, hiru ekintza hauekin bete ziren goizeko orduak eta arratsaldeko ekintzei eman zitzaien hasiera Txarape auzoko bola-lekuan 15:00etan. Bertan, Martin Retegi herritarra maisu eta gidari zutela, haur, gazte nahiz helduek, tarte dibertigarria pasa zuten. Adinaren araberrako hiru talde osatu ziren bolo-jokoan aritzeko. 8 eta 14 urte bitartekoak aritu ziren talde batean eta bertan, 15 neska-mutikok hartu zuten parte, Bigarren taldea 15 eta 18 urte bitartekoek osatu zuten eta arrakasta duen kirola dela esan behar bolo-jokoarena adin honetako neska-mutilentzat, 15 bat lagun izan ziren bertan parte hartzen. Hirugarren taldean 19 eta 50 urte bitarteko 8 bat lagun aritu ziren nor baino nor zeinek birla gehiago bota!

Bolo-jokoa amaitzean, plazan jarraitu zuen kirolaren festak. Herri kirolak antolatu zituen Tartaloetxe Elkarteak eta jende ugari hurbildu zen ohikoa denez, euskaldunok hain errotuta izan ditugun kirol hauek parte hartzeko: sokatira, morkol bilketa, txinga proba, zaku-lasterketa, giza-proba... Kirolen antolakuntzan Koldo Alduntzinen lana aipatu behar. Kirol hauek plazan burutzeko asmoa bazen ere, eguraldi txarrak bultzatuta, Udaletxeko arkupean babesean burutu behar izan



Herri kirolak burutu ziren plazan

ziren zenbait unetan kirol hauek. Kirol saio honi jendeak harrera benetan ona egin zion, 50 bat haur eta 30 bat guraso bertan izan ziren parte hartzen nahiz ikusmiran.

Plazako Herri Kirolen saioa amaituta, frontoian eman zitzaion Kirol egunari amaiera, Aitzgorri Futbol Elkarteak bereziki haurrentzat prestatutako Futbol Jokorekin. Zegaman ere futbolak ba

duela etorkizunik ikusi ahal izan zen! 50 bat haur eta 10 bat guraso bertan izan ziren balaia astinduz.

Zegamako Udal Kirol Batzordearen eskutik, eskerrak luzatzen dizkizuegu egun hau antolatzen eta kirol ekintza hauek aurrera eramaten lagundu duzuen denoi eta baita ere, bertan parte hartu duzuen haur, gazte eta heldu guztioi!

ARBELTXO HARATEGIA



Rafa Olaziregi bere harategian

Ekainaren 1ean hasi zen Rafael Olaziregi, Santa Barbara 8an dagoen Benito Gorospereen harategian lanean. Aurrez horrelako lanetan inoiz ibilia ez bazen ere, langabezia geratu ondoren, Lasarteko Aduriz etxean aritu zen txahal eta txerriak manejatzen ikasten eta hiru hilabete bertan egon ondoren, ekainaren 1ean bere kabuz hasi zen Santa Barbara 8ko harategian lanean. Sei hilabeteren ondoren, eskua hartzen ari da eta gustura dabil ofizio berrian.

ZEGAMAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENEAN ESKU-HARTZEKO PLANTEAMENDUA

Zegamako Udaletik abian da 2009 urteaz geroztik haur, nerabe eta gazteen Sustapenerako Sistemaren esku-hartzeko planteamendua.

Bide honetatik, aurreko urtean egindako lanarekin jarraituz, 2010eko lehen sei hilabetean nerabeentzako zerbitzu bat definitu eta martxan jarri ahal izateko prozesu parte-hartzailea eraman da aurrera. Zerbitzu hori, hau da, gazteak, nolakoa izango denaren hainbat alderdietaz hitzegin da prozesu horretan zehar hainbat eragilerekin (nerabeak, gurasoak, elkarte...). Prozesuan parte hartu dutenei informazioa eman eta iritzia eskatu zaie eta gai ezberdinen inguruan adostasunera iristea izan da helburu.

Guzti honetan, nerabeek izan dute protagonismoa eta adinka banatutako bi taldetan (12-14 eta 15-18) launa saio egin dira bakoitzarekin. Bosgarren saio bat guztiek batera egin dute eta bertan hartu dira gaztelekuaren funtzionamendu orokorraren erabaki nagusiak, izan ere, udalak muga batzuk jarri baditu ere, nerabeek beraiek izan dute eskumena erabakiak hartzeko.

Prozesu parte-hartzaile honen nondik norakoak herritarrei azaldu asmoz, ekainaren 17an herri aurkezpena burutu zen Kultur Etxean eta jendeak izan zuen aukera prozesu honen berri jakiteko.

Gauzak horrela, uztailaren 2an inauguratu zen gazteleku eta Udaleko alkate eta zinegotzietz gain Joxi Intxausti Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteri zuzendaria izan zen bertan.



Gazte lekuaren inaugurazio ekitaldian, Jose Insausti Foru Aldundiko Haur eta Gazteri Zuzendaria Nagusiaren bisita jaso genuen

Uztailaren zehar gazteleku irekita egon zen eta ekintzen artean aipagarri Larraitzoko zuhaitz parkera egindako irteera. Egun ederra pasatzeko aukera izan zuten nerabeek. San Bartolome jaietan berriz, kuadrilen egunean, I.go Gazte Olinpiadak antolatu zituzten eta garailea Mario Bros taldea izan zen.

Ikasturte berriarekin batera ireki zen irailean gazteleku; astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:30etatik 20:00etara eta larunbatetan 16:00etatik 21:00etara. Ainitze Azurmendi egoten da bertan nerabeekin eta zenbait ekintza prestatzen ari dira dagoeneko. Beraz, 12-18 urte bitarteko zegamarrak animatu daitezela bertan parte-hartzera!

Gainera aipatu, egin den lan guztiaren informazioa blog-ean ikus dezakela

edonork, ondorengo helbidean: <http://zegamagazteleku.wordpress.com>

Prozesu parte-hartzaileaz gain, gazteria sailetik antolatu dira lehen aldiz udako udaleku irekiak. Horretarako, proiektu bat idatzi da eta hau izan da udalekuen planteamenduaren oinarria. Denera 49 haur izan dira udalekuetan parte hartu dutenak ekainaren 24tik uztailaren 30era bitartean, lau begiralerekin batera; Ane Ormazabal, Anuska Gorrotxategi, Amets Etxaide eta Oihana Agirrezabalaga.

Aurrerantzean jorratuko diren lan ildoen artean aipagarrienak bi dira: batetik, gaztelekuan nerabeek izango duten parte-hartzea definitzea eta bestetik, eragile desberdinak osaturiko batzordea osatzea.



Udako aisialdian parte hartu zuten monitorea eta gazteak



Uztailaren 27an gazte lekutik irteera antolatu zen Larraitza

Udalbatzarrak, Nerea Tauschke Lanberriri, beste 18 hilabeterako hitzarmena luzatzea erabakia zuen.

AIZKORRI ARATZ NATURA PARKEA ERABILTZEKO ETA KUDEATZEKO PLAN ZUZENTZAILEAREN HASIERAKO DOKUMENTUA

Aizkorri-Aratz parajea Parke Natural 2006an izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Izendatze honen ondorioz, Parke Naturalak funtzionatzeko mekanismoak bideratuta izaten dira eta horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuak aurkeztutako "Aizkorri-Aratz Natura Parkea erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea da. "Plan Zuzentzaile" hau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Aldizkari Ofizialean, abuztuaren 27an argitaratu zen



Aizkorri-Aratz Parke Naturala

ZEGAMAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA

Zegamako Udalak, apostu handia egin du bai aurreko legegaldian eta baita oraingoan ere, Zegama, Gipuzkoako Parketxen Sarean sartu ahal izateko. Hori dela eta Anduetza Museoaren egokitzapena egiten joan da, aurtengo urtean, bertako gaia edo ardatza Aizkorri-Aratzeko Parke Naturala izatea erabakiz eta museoari goitik beherako eraldaketa bat eginez. Eraldaketa honen helburua, Zegaman Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko sarrera bat, Arantzazukoarekin batera ezartzea izan da. Hori dela eta, esan genezake, aurrean aurrera pauso garrantzitsua eman dugula bide honetan, nahiz eta azken pausoa falta zaigun ematea.

Urriaren 18ko Udalbatzarrak, urriaren 20an, Aizkorriko Atariaren barnean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko foru diputatua den Rafa Uribarrenekin sinatuko zen hitzarmena onartu zuen Udalbatzarrak ahobatasunez. Hitzarmen honen arabera, Zegamako Udala, Gipuzkoako Parketxe Sarean sartuko da, hau da beste parketxeekin batera ezagutzera emango

nahiz eta bere karga ekonomikoa oraindik Zegamako Udalak izango duen.

Hitzarmen honen ondorioz, Zegamako Aizkorriko Atariaren publizitate zabala egingo du Gipuzkoako Parketxe Sareak berak eta ondorioz, bisitari gehiago izateko bidea jarri dugula esan dezakegu.

Azken pausoa, hau da Parketxe Sarean % 100 integratzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutan dago eta esan dezakegu, Zegamako Udalak eta herriak, etxeko lan guztiak eginak dituela azken pauso hori eman dadin. Ea, 2011 urtea den, Zegamari dagokion errekonozimendu hori iristen den urtea.



Zegamako Udalak eta Gipuzkoako Parketxe Sareko zuzendari den Rafa Uribarrenekin hitzarmena sinatu zuten



Arantxa Berasategi ikastaroak emateko arduraduna

eta, Udalak, urriaren 18ko Udaltzarrean Plan Zuzentzaile honi iradokizunak aurkeztea erabaki zuen, ahobatasunez.

INTERNET BIDEZ LANA BILATZEN IKASTEKO IKASTAROAK MARTXAN

Gaur egun lana bilatzeko beste era bat ere erabil dezakegu, interneta. Izan ere lagunei kurrikulumak ematea, egunkarietan sarritan begiratzea... ez dira nahikoa izaten lana aurkitzeko eta honenbestez, internetera jo behar izaten da. Hori dela-eta, Udalak langabetuentzat Internet bidez nola lana aurkitu ikasteko ikastaroak antolatu ditu eta Arantxa Berasategi da ikastaro hauek ematen ari dena Kultur Etxeko gela batean. Lana aurkitzeko www.redtrabaj@.es orria eta interneteko beste hainbat atari erabil daitezke. Aipaturiko web orri honetan, dauden lan eskaintzak ikus daitezke eta INEM-en izena ematea beharrezkoa da lan eskaintza hauetan izena emateko.

UDALERRIKO KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI DIRULAGUNTZA BANAKETA

Urtarrilaren 18ko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2009 urteari dagokion

dirulaguntza herriko kultur eta kirol elkarten artean banatzeko prozedura martxan jartzea erabaki zuen.

Aurreko urteetan bezala, 11.000,00 € banatzea aurreikusitako eta urtarrilaren 31 jarri zen epea agiriak aurkezteko. Behin agiriak aurkeztu ondoren, maiatzaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak, honako banaketa hau onartu zuen ahobatasunez:

Kultur Elkartek

Orkatz Abesbatza 3.600,00 euro.

Gazte Herexa 1.500,00 euro.

Kirol Elkartek

Amezti Mendi Elk. 1.400,00 euro.

Elkartu Nahi 1.750,00 euro.

Aizkorri F.T. 1.850,00 euro.

Tartalo Etxe P.E. 1.400,00 euro.

EUSKARAREN ALDEKO EKIMEN ANTOLATZAILE ETA SUSTATZAILEI DIRULAGUNTZEN BANAKETA.

Euskararen aldeko ekimenei laguntza emateko, Zegamako Udalak urtero 1.000 € inguru bideratzen ditu. Horretaz gain, ekimen hauetara joateko ere, Kultura batzordetik autobusak antolatzen ditu. Hona hemen urtarrilaren 18an onartutako laguntzak:

Kilometroak: 150 €.

Ibilaldia: 100 €.

Araba Euskaraz: 100 €.

Nafarroa Oinez: 150 €.

Herri Urrats: 100 €.

Urruña/Ziburuko Ikastolak: 200 €.

Euskararen Kontseilua: 200 €.

TELEFONICAREN BANDA ZABALA ZEGAMAN

Zegaman, Euskaltel etxearen Wimax zerbitzuaz gain Telefonicaren zerbitzua

dago interneten nabigatzeko besteak beste. Testuinguru honetan eta Wimax uhinak herriko eremu guztietara ez zirelako iristen (Goialdeko baserriak) alde batetik eta bestetik, herrian telefonikaren indarra ere oso txikia zelako, Udalak hainbat gestio egin zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko, Berrikuntzako eta Jakintzaren Departamentura eta baita telefonika enpresara ere, Zegama indar gehigoz hornitu zezaten.

Beti bezala, hemen ere arazoa inbertsio garrantzitsu bat egitean zegoen, izan ere, 140.000 €tako inbertsioa egitea ezinbestekoa baitzen, Segurako Magdalenan dagoen telefoniko zentraletik Zegamara fibra optikoa ekarri ahal izateko eta Zegaman bertan beste kaxa bat jarri ahal izateko. Honela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Departamentuak 140.000 €tako inbertsioarekin lagundurik telefonika enpresak Seguratik Zegamara fibra optikoa sartuz, banda zabala ekarri du eta Txarapen ekipo berriak jarri ditu. Honela, herri-gunean, mega bat iritsi gabe izateko 10 mega izatera pasatu gara. Bestalde, Telefonica enpresak herrian banda zabala dugula aprobetxatuz, Ameztin ekipo berriak sartu ditu mugikorretan ere banda zabala izan dezagun Zegaman. Egun, telefoniari dagokionean, komunikabideetan aurreko puntan gaudela esan behar. Modu honetan, Goialdeko baserrietan ere (Telefonicaren kable zerbitzua soilik jasotzen duten paraje honetan orografia dela-eta) interneteko zerbitzua asko hobetu da.

OLABERRIAN LUR KUTSATUEN IKERKETA

Olaberriko Ugarte Zelaiko eremua, etxebizitzak egiteko bideratuta dago Arau Subsidiarioetan. Denok dakigu, egun kamioien aparkalekua den eremuan, garai batean, Elektrokimika kokatua egon zen eremua dela eta ondorioz, bertako lurren kutsadura aztertzea ezinbestekoa dela bertan edozein ekimen egin ahal izateko. Honela Udaltzarrek, 2009ko azaroaren 2an egin zuen bilkuran, "Electroquímica"



Interneteko konexioa hobetze aldera Txarapen Telefonikak jarri duen kaxa



Olaberriko aparkalekuan lurraren kutsadura neurtzeko burutu ziren katen arastoak

enpresa egon zen eremuaren (11. Eremua-Olaberría) hirigintza garapena eman ahal izateko lurzoru kutsatuei buruzko azterketa egiteko lana, URS enpresari, 17.422,00 eurotan (BEZ kanpo) esleitu zion.

ZERRALAN ELKARTEARI MAKINARIA EROSTEKO DIRULAGUNTZA

Zerainen kokatuta dagoen eskualde mailako Zerralan Elkartean egurrak moztu eta jasotzeko makina bat erosteko proposamena iritsi zen udaletxera. Kontutan hartuz, Zegamako Udala bera eta hainbat herritar ere bertako bazkideak direla zerbitzu hau jaso ahal izateko, martxoaren 1eko Tokiko Gobernu Batzarrak 600,00 €tako laguntza ematea erabaki zuen ahobatasunez, makinaria berria erosteko.

GOROSPE HARATEGIAREN TITULARTASUN ALDAKETA

Rafael Olaziregik, Benito Gorosperen jubilazioaren aurrean, berak Santa Barbara 8an izan duen harategiaren titulartasun aldaketa eskatu ondoren, ekainaren 7ko Tokiko Gobernu Batzarrak, titulartasun aldaketa onartzea erabaki zuen; nolahi ere, jarduera legeztatzeke, dagokion proiektu teknikoa eskatzea erabaki zen, salbuetsitako 165/1999 Dekretuan ezarritakora egokitu behar delarik.

SANTA BARBARA KALEKO PIBOTEAK ALDATZEKO ERABAKIA.

Santa Barbara kaleko pibote borobil batzuk apurtuta zeudela ikusita eta, gainera konpontzeko modurik ez zegoela



Ziklogenesiak teiltua eraman zion San Bartolome auzoko etxe bati

ikuskatu ondoren, Udalari, Santa Barbara kalean pibote berriak jartzeko erabakia hartu zuen ekainaren 21eko Gobernu Batzarrean.

Honela, piboteak ATP enpresari erostea erabaki zuen Udalbatzarrak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, hau da, 6.744,24 euro BEZ barne.

ZEGAMAKO EPAITEGIRAKO LAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Herri Administrazio Sailak, Epaitegia udaletxean kokatuta edukitzeak, Zegamako udalari sortarazten dizkion gastuei aurre egiteko, 1.717,45 € tako laguntza eman dio, dirulaguntza eskaera egin ondoren.

SCOTLAND-EUSKAL HERRIA EKIMENARI LAGUNTZA

Nazioen Mundua mugimenduak, Urriaren 16an, Ordiziko Trevijano errugbi zelaian, antolatutako jaialdi erraldoia zela eta, udal honi egindako dirulaguntza eskaerari erantzunez, irailaren 27ko Gobernu Batzarrak 300,00 €tako laguntza ematea erabaki zuen.

ALTZUKARAN PISTA KONPONTZEKO LANEN ESLEIPENA.

Irailaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Altzucarango pista

konpontzeko eta lkaiztik gora eroritako eskoilera konpontzeko esleipenak egin zituen. Zegamako gainerako baserri pistetan bezala, Udalak, zoruan kostuaren % 50 bere gain hartu du eta kunetak egitearen kostuaren % 65eko kostua ere bai. Gainerako dirua, auzotarrek jarri dute. Bestalde, Altzucarango nekazal jarduera dela eta, Goimenez emandako 9.399,13 €tako laguntza izan du pista honek.

Esleipenak:

- Zorua konpontzeko lana: Oiarbide S.L. enpresari 14.454,52 eurotan (BEZ barne).
- Zorua konpontzeko lana: Oiarbide S.L. enpresari 5.056,30 eurotan (BEZ barne).
- Eskoilera konpontzeko lana: Lurkide Hondarlanak S.L. enpresari 4.285,00 eurotan (gehi BEZ).

Ondorioz, Udalak, 9.964,69 € jarri ditu ekimen honetarako eta auzoak, 8.709,91 €.

ZIKLOGENESIAK KALTE HANDIAK EGIN ZITUEN ZEGAMAN

• Otsailaren 27an haizeak, herriko zenbait etxetan (bereziki San Bartolome auzoan) eta autoetan eragindako kalteen berri eman zen. San Bartolome auzoko etxebizitza bloke batean etxearen teilatu osoa haizeak eraman ondoren, bertako bizilagun batzuei Ostatuan aterpea eman zitzaion eta beste batzuk herrian bertan dituzten senitartekoengana joan behar izan zuten. Parrokiaren etxebizitza ere erabili zen, konponketa lanak irauin zuten hilabete luzean eta esan, zorionez, herritar guztiak onik irten zirela zurrumbilo hartatik. Gau hartan, haizeak 150 Km /h indarra izan zuen momentu batzuetan.



Santa Barbara kalean piboteak kendu dira

AIZKORRIKO ATARIA

2010. urte honetan Aizkorri Aratz Parke Naturaleko interpretazio zentroa ireki berri da Zegaman. Uztaillaren 30ean herritar guztiokin egindako irekiera ekitaldian ireki zituen Anduetza baserriko AIZKORRIKO ATARIA bere ateak. Abuztuan eta irailean zehar makina bat bisitari jaso ondoren, urriaren 20an, Eusko Jaurilaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak lagun, egindako inaugurazio ospakizunekin zegamarron urteetako borroka izan den Aizkorri Aratz Parke Naturaleko sarrerate izendatu zen Anduetza baserria Aizkorriko Ataria izendapenarekin.

Aizkorriko Atariari babes gutzia eskainiz, inaugurazio ekitaldian zegamarron artean izan ziren Gipuzkoako Diputatu Nagusi den Markel Olano jauna, Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko ingurumen sailburu den Pilar Unzalu anderea, eta Gipuzkoako Parketxeak Fundazioaren lehendakari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapen Departamenduko diputatu den Rafael Uribarren jauna.

Orain arte Egurraren Interpretazio Zentro izan dena, bere izaera galdu gabe, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio-Zentro izateko birmoldatu den honetan, Zegamak, mendeetan zehar, Aizkorri-Aratz Parke Naturalarekin izan duen lotura estua eta bereganako duen begirunea aintzatsiz zegamarrona den paraje paregabe hau jendartera zabaltzeko burutu da. Zegamaren garapena Aizkorri hertsiki lotua dago; Zegaman, Aizkorri begira egiten dugu negar, amets eta barre, Aizkorri begira aurreikusten dugu eguraldia eta berari begira nozitzen dugu urtaro aldaketa. Zegama eta Aizkorriren arteko sinbiosia ezta hitz hutsean geratzen, errealtatea da.

Aizkorriko Ataria Interpretazio Zentroak, Aizkorri-Aratz Parke Naturala ikusteko, sentitzeko eta interpretatzeko beste modu bat aurkezten digu; ez digu soilik parkeko natura aberastasuna erakusten, honekin bat, mendeetan zehar naturaren eta gizakiaren arteko elkarbizitzak sortu duen paisaia kulturalaren izaeran murgiltzeko aukera ematen du.

Anduetza baserria, antzina erdia ospitale eta erdia baserri izan zen. Auza-Etxe zuen ospitaleak izena eta gaixo, umezurtz, etxerik gabeko eta apaizgaiei aterpe ematea zuen zeregin. Horrelaxe iraun zuen pasa den mendearen amaierara arte. Baserriak Anduetza zuen izena.



Eusko Jaurilaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta Zegamako Udaleko Edurne Albizu, Aizkorriko Atariaren inaugurazio ekitaldian

Egun Aizkorriko Ataria Interpretazio Zentroa den honek, 2000. urtean hasi zuen ibilbidea. Zegamako Udalak Auza-Etxe ospitalaren ondoan zegoen Anduetza baserria eskuratu zuen eta honela, bi eraikuntza hauek batera zaharberrituz, Egurraren Interpretazio Zentroa inauguratu zuen 2003ko ekainaren 25ean. Egur museoak, Imanol Artolak bildutako 173 enborrez osatutako bilduma izan du oraintsu arte erakusgai. Zegama, baso-tradizio handiko herria izanik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Baso zerbitzuek 100. urteurrena ospatzen zutela eta, Anduetza baserri eraberrituan antolatutako enbor bildumarekin batera basozaintzari lotutako erreminta, lanabes eta baso kudeaketa modu ezberdinak azaltzen ziren.

Baina zegamarrok beti izan dugu buruan beste asmorik: Zegama, Aizkorri-Aratzeko berezko sarrera izan da mendeetan zehar, eta aurrerantzean ere halaxe izaten jarraituko du Aizkorriko Atariari esker.

Interpretazio zentroaren egituraketa osatzeko lan talde zabal bat osatu zen. Lehendabizi era honetako museoak diseinatu eta lantzen Euskadi mailan eskarmentu handienetakoa duen Bilbo inguruko Vilau enpresaren zerbitzuak kontratatu ziren. Aukeraketa hau ez zen oso erraza izan, honetarako makina bat museo eta interpretazio zentro bisitatu ziren eta beraiekin harremanetan jarri ondoren, luzea baina ilusioz beteaz izango zen elkarlan hau mamitzeko lehen pausuak eman ziren.

Museoaren egituraketa nagusia eta azaldu nahi ziren atalak natura, paisaia, egurra eta turismoa izanik, gai hauetan eskarmentu handia zuten kideekin diziplina aniztetako lan talde sendo bat osatu zen. Hauen artean Alvaro Aragón Ruano (EHUko historialaria eta irakaslea, eta Gipuzkoako basoek erdi-erotik gaurdaino izan duten garapenaren ezagutzarik nabarmenena duena), Isabel Elorza Puyadena (EHUko irakaslea eta Zegama, Partzuergoa, Santiago Bidea, artzaintza eta abarretan jakituria handia duena), Oihana Zubizarreta Otaegi (zegamarra, Biologian lizentziatua eta Aizkorriko natur eremuen ezagutza handia duena), Asier Galdos Arrondo (paisajista eta paisaia kulturalaren eremuan lanean ari dena), Imanol Artola (zegamarra, Basozaina, egurraren ezagutza paregabea duena eta egur bilduma edo xiloteka zabal baten jabea) eta natur-turismoan ezagutza zabala duten, eta gaur egun Anduetza Baserriko interpretazio zentro eta turismo bulegoa gidatzen dutenek osatu zuten lan talde hau. Eten gabe, bestelako aditu askoren laguntza jaso ere jaso da atal ezberdinak jorratzeko.

Vilau enpresako kideak, museoaren egituraketa eta diseinuz arduratu dira. Honetarako diseinatzaile, argazkilari, ordenagailu programatzaile, idazle, bideo-sortzaile eta abar izan dira gaur guztion begietan dugun Aizkorriko Ataria sortzeko zuzendaritza eta definizio lanetan.

AIZKORRIKO ATARIA

Bost ataletan dago banatua interpretazio zentroa:

1 GUNEA: Turismo bulegoa

Lehen gune hau turismo bulegoari dagokio. Bertan, ongi etorria emanez, Zegamako eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko elementu esanguratsu edo adierazgarrienak jasotzen dituen panel deigarri bat aurkituko du bisitariak. Horretaz gain, Zegama, parke naturalean, Goierri, Gipuzkoa eta Euskadiko turismo informazioa eskuratu ahal izango du bai bertako teknikariari galdetuz, bai eskuragarri dauden liburuxkak kontsultatuz. Gune honetan, bereziki, Zegamako eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko baliabide turistikoei buruzko informazio zabalagoa eskainiko zaio bertara hurbiltzen denari. Guzti honen osagarri, Zegamako nahiz eskualdeko (Goierriko) ezaugarri diren hainbat artisauproduktu eskuratzeko aukera izango da dendan.



2. GUNEA: Gipuzkoa, Aizkorri-Aratz Parke Naturala, Zegama eta BASOAREN AHOTSA ikus-entzunezkoa

Turismo bulegotik interpretazio zentroa osatzen duten 4 guneetatik lehenengoan sartuko gara. Gune honek kostaldetik abiatuz, Erdi Aroko Errege-bidean barrena Gipuzkoako gailurreraino, Aizkorriraino, egiten den bidaia du oinarri. Bidaia horretan zehar, Gipuzkoa, Aizkorri-Aratz Parke Naturala eta Zegama ezagutuko ditugu panel eta interaktiboetan aurkituko dugun informazioaren bitartez, eta bidaia amaitzeko basoan murgilduko gara basoaren ahotsa ikus-entzunezkoak zer esaten digunaren irrikaz.



3. GUNEA: Baso kulturala

Bigarren solairuan gure arbasoen biziera adieraziko diguten pagomotzen basoan galduko gara. Hauetako bakoitzak, entzunezko banaren bitartez baso hauen inguruko kontu ugari esango dizkigute. Eta baso honetan, hauen sortzaile diren lanbideak ezagutuko ditugu panel eta interaktibo batzuen bidez.



4. GUNEA: Zegama berraurkituz

Ganbaran, egungo Zegama eta Aizkorri, garai batekoarekin lotuz, bertan gordetzen diren oinarizko bost printzipio, izaera edo moldaera erakusten dira: Artzaintza, Santiago Bidea, Zegama-Aizkorri mendi maratoia, xenda-zaletasuna eta baso-kudeaketa iraunkorra.



5. GUNEA: Xiloteka

Bisita amaitzeko, igogailua hartu eta Anduetza baserriko sustraietara jaitsiz beheko solairura agertuko gara. Bertan oraintsu arte Anduetza Baserriko Egur Museoa ikusgai zeuden 173 enbor ezberdinekin osatutako baso berezi bat osatu da. Bilduma honekin batera Imanol Artolaren Xiloteka gordetzen da bertan, mundu osoko ia 1300 oholtxo ezberdinen bilduma.



FINANTZAZIOA

ESLEIPENAK		600.070,00 €
Aurre-egituraketa lanak, Zegamako Turismo plana	VILAU MEDIA	29.000,00 €
Museoaren egituraketa proiektua	VILAU MEDIA	58.000,00 €
Proiektuaren zuzendaritza eta ikuskatzea	VILAU MEDIA	20.068,00 €
Sistemen instalazioa, integrazioa eta sinkron.	ERABI	139.200,00 €
Multimedia zerbitzuen garapena (Signo Digital S.L.)	SIGNO DIG	54.578,00 €
Eszenografia, atrezzo eta girotzeak egitea (Vilau Media S.L.)	VILAU MEDIA	218.776,00 €
Zerbitzuaren azken lanak eta martxan jartzea (Vilau Media S.L.)	VILAU MEDIA	55.448,00 €
Bestelakoak (seinaleztapena, garbiketa, eta abar)		25.000,00 €

LAGUNTZAK		600.070,00 €
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko ingurumen sailburuordetza		325.460,00 €
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko nekazaritza eta landa garapenerako sailburuordetza		100.740,50 €
Eusko Jaurlaritzako Industria, berrikuntza, merkataritza eta turismo saila.		120.000,00 €
Zegamako Udala		53.869,50 €

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ZEGAMAN

Europar Batasunak, errekonozitzen duen moduan, Europa mailan, energiaren alorrean ezarritako heburuak lortu ahal izateko, ezinbestekoa da tokian tokiko ekimenak martxan jartzea, energia berriztagarriak sortuz eta aldi berean energiaren erabilera hobea eginez.

Herri administrazioek ere, argindarra sortzeko bidean, erabaki garrantzitsuak har ditzakete, poliki-poliki energia berriztagarriak sortuz eta eredu izanaz eta hala nola, erabilera hobea eginaz herri argiteri eta kontsumo pribatuan ere.

Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Garapen Iraunkorreko Departamentuaren bidez, azken urteotan energiaren alorrean hainbat ekimen desberdin bideratzen ari da, batez ere, energiaren erabilera arrazoizkoa bideratuz eta energia berriztagarrien erabilera bultzatuz.

Hauen artean sartzen da, eguzki argiaren bidez argindarra sortzen duten plaka fotoboltaikoak jartzea. Plaka hauen bidez, erregai fosilak gutxiago erabiltzeaz gain negutegi efektua gutxiagotzea lortzen da besteak beste eta aldi berean lurraldeko jarduera ekonomikoari bultzada bat eman

nahi zaio. Era berean, herritarrengana iritsi nahi da, energia berriztagarriak sortzeko kultura zabaldu dadin poliki-poliki.

Honela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, esperientzia piloto bat jarri du martxan Gipuzkoako lau herritan: Zegama, Elgoibar, Oñati eta Zarauzko Udaletan hain zuzen ere, eguzki plaka fotoboltaikoak jarri udal eraikinetan.

Zegamari dagokionean, lehen fasean, Udal Pilotalekuko teilatuan eta eskolako gimnasioko teilatuan era honetako eguzkizko plaka fotoboltaikoak jartzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia. Lehenengo instalakuntzak, 20 KW sortzea aurreikusten da eta bigarrenak, 15 KW. Honela, bien artean 7 etxebizitzatako argindarra sortzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Proiektu honen helburua zera da, behin instalakuntzak egin eta gero, hauek Udalari emango zaizkio dohain eta honek, era berean, kontzesio moduan, eta prezio baten truke, interesa

duten herritarrei saltzea nahi da, hauei, herritarrei energia berriztagarrietan inbertitzeko aukera emanaz.



Plaka fotoboltaikoak ezarri dira frontoiko teilatuan



Dirintiko pista berri da



Landaketak egin zituzten Aitzuriko ikasleek

DIRINTIKO PISTAREN KONPONKETA

Dirinti baserrietara doan bidea oso egoera kaxkarrean zegoela ikusirik eta auzokoekin bilera egin ondoren, auzoari zegokion diru kantitatea adostu eta jarri ondoren, azaroaren 17ko Alkate erabaki baten bidez, Dirinti auzoko bidearen konponketa

lanak Oiarbide S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 19.308,30 €tan (BEZ barne). Auzoko lau baserriren artean 8.840,65 €tako diru ekarpena egin zioten Udalari eta gainerako 10.467,65 € Udalak jarri zituen, gainerako pistetako proportzioak gordez: Zoruaren kostuaren % 50a eta kuneten kostuaren % 65a udalaren gain hain zuzen ere.

ZUHAITZ EGUNA

Martxoaren 15ean egin zen Zegaman Zuhaitz Eguna. Horretarako Aitzuri Herri Eskolako ikasleek, mendietako Udal zinegotzia den Jose Ramon Agirrerren laguntzarekin, Eliza atzealdeko plazan zenbait landaketa egin zituzten.

ZORTASUNA

Krisi garaian murgilduta gaude eta egoera zail honek Udalen ekonomian ere eragin zuzena du. Hain zuzen ere, Gipuzkoan zergen bilketaren arduraduna den Diputazioak jakinarazi du Lurralde Historikoa osatzen duten 88 udalerrietatik 25ek gastu arrunta sarrera arrunta baino handiagoa dutela; alegia, "Aurrezki garbi negatiboa" dutela. Adierazpen honen larritasuna esanguratsua da eta aditzera

ematen du Udalek, herritar orok moduan, bere jarduera egokitu egin beharko duela dituen diru-sarreretara. Esandako datu honetan, inongo ezbairik gabe, giltzarria da Udalek duten zortasuna (banku eta aurrezki kutxei eskatutako maileguena, alegia). Testuinguru honetan Aldundiak gaineratu du, datuak kontuan hartu beharrekoak badira ere, Lurralde Historikoko Udaletxeak solbenteak direla.

Bestalde, Zegamako Udalaren egoera ona dela esan daiteke kontuan hartzen bada ez duela mailegurik ordaintzeko eta honenbestez zero zortasuna duela, Lurralde Historikoko beste hamabi udalerrien antzera. Jarraian zehazten dira Goierriko udalerriek 2010eko ekainean duten zortasuna (Diputazioak argitaratutako datuen arabera):

Altzaga:	39.996 euro.	Legorreta:	572.091 euro.
Arama:	0 euro.	Mutiloa:	122.204 euro.
Ataun:	0 euro.	Olaberria:	643.814 euro.
Beasain:	7.347.018 euro.	Ordizia:	3.971.508 euro.
Gabiria:	352.867 euro.	Ormaiztegi:	265.265 euro.
Gaintza:	96.350 euro.	Segura:	700.371 euro.
Idiazabal:	0 euro.	Zaldibia:	246.070 euro.
Itsasondo:	37.996 euro.	Zegama:	0 euro.
Lazkao:	1.541.910 euro.	Zerain:	3.016.246 euro.

Egia da krisi garai hauek areagotu egin dutela agintari eta herritarren ardura eta kontu publikoen egoerak modu berezian kezkatzen gaituela. Honenbestez, Zegamako Udalaren egoera lasai egoteko modukoa dela ondorioztatu daiteke; are gehiago kontuan hartzen bada "Goierri Beheko Industrialdea S.A."n 437.238,63 euroko diru-ekarpena egin duela Udalak eta diru hau hurrengo urtetan eskuratzeko duela.

UDAL BASOETAN INBERTSIOAK

Azken urteetan egin ohi dugun bezala, bukatzeaz dugun 2010 urte honetan ere, egin diren lanen eta horiek burutzeko behar izan diren inbertsioen inguruko xehetasunak ematea du helburu txosten honek.

Horrela, eta besteetan bezala, lan arlo ezberdinetan sailkatuko da txostena, bakoitzean zer egin den eta zer inbertsio suposatu duen azalduz.

1. Landaketa gazteetan zakarrak garbitze lanak. Beste baso lan batzuk.

- TRINTZELAIETA sailean haizeak edo eta elurrak eraginda etzan ziren landare gazteak altxatu beharra izan da, guztira 2,00 ha-ko azalera.

898,80 €

- TXAPARRIko sailean aurreko neguan burututako landaketa berriari udarako garbiketarako lanak egin dira 0,75 ha-ko azalera.

285,28 €

- TXERMATXOko sailean, zakarrak moztu ondoren azpi adarrak kimatu dira 16,50 ha-tan.

9.355,50 €

- ARAKAMA - HAITZ GAÑAko sailean zakarrak moztu ondoren goi kimaketaren lehen fasea burutu da, 3 eta 4 metrotaraino kimaketa eginez, 5,50 ha-ko azalera.

3.118,50 €

GUZTIRA 13.658,08 €

2. Baso-bideetan egindako lanak.

- ARRANOAITZ, ELOR HAUNDI, OAZURTZE edo ITZUBIAGARA doan bide nagusian bidearen azpi aldetik erortze bat zegoela eta harri handiz osaturiko eskoilera bat egin beharra izan zen.

8.187,82 €

- ARRANOAITZ sailean barrenean, hainbat lekuetan erortze edo luizi txikiak

bazeudela eta beste hainbat lekutan ubideak hautsita edo beteta.

GUZTIRA 11.092,61 €

INBERTSIOEN LABURPENA

Aurreko ataletan ikus daitekeena batuz gero, aurtengo urtean H.O. 2.025.1 zenbakidun "ZEGAMAKOMENDIA" mendian egindako inbertsioen kopurua 32.515,79 izan dela esan behar da.

Hauetan nagusiena, iazkoan bezala, baso hobekuntzetan gastatutakoa da, aurtengoan atal honetan soilik joan baitira 21.423,18 €.

Bigarren atala, iaz bezala hau ere, baso bideetan erabilitako kopuruak beteko luke, garai batean ez bezala, bigarren mailan kokatzen delarik azken boladan. Lan hauetan 11.092,61 inbertitu dira.

Bixente Dorronsoro

(Basozaintza 1. Ataleko Burua)



EUSKARA PLANA ZEGAMAN



2010-2012 epealdirako euskararen Plan Estrategikoa onartuta

Aurreko Plan Estrategikoa 2006-2009 epealdikoa zain zen eta bukatzeaz zegoela ikusita, 2009ko abenduan plan estrategiko berria lantzen hasi ginen Euskara Batzordean. Urtarrilean bukatu genuen lana eta ondoren Udalbatzak onartu zuen. 2010-2012 Plan Estrategiko horretan, Zegaman 3 urtetan euskarari dagokionez ze lan ildo nagusi edukiko ditugun agertzen da. Ze helburu lortu nahi dugun eta bide horri nola ekingo diogun idatzi dugu, eta hori esku artean izanda, urtero urte horretan egingo ditugun ekintzak definitu beharko ditugu. Beraz, 2010ean egindako ekintzak Plan Estrategiko horren arabera izan dira.

Hau da **2010-2012 Plan Estrategikoaren eduki nagusia**, laburpena eginda:

Familia Bidezko Transmisioa	
HELBURUA: Haur eta gaztetxoaren gurasoen euskararen erabilera handitzea	ESTRATEGIAK <ul style="list-style-type: none"> ✓ Guraso euskaldunen sentsibilizazioan eraginez, hizkuntza ohiturak aldatzearen. ✓ Programak eta ekintzak beste eragileekin koordinatuz (Guraso Elkarteak eta Eskola).
Euskalduntze-prestakuntza	
HELBURUA: Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitzea herritarren artean.	ESTRATEGIAK <ul style="list-style-type: none"> ✓ Herritarrekin eta bereziki etorri berriekin komunikazioa landuz. ✓ Laguntza ekonomikoa eskainiz.
Lan munduan: komertzioak	
HELBURUA: Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitzea	ESTRATEGIAK <ul style="list-style-type: none"> ✓ Merkatariei euren jarduna euskaratzeko baliabideak eskainiz ✓ Merkatarien sentsibilizazioan eraginez
Aisialdia	
HELBURUA: Gazteen artean euskararen erabilera handitzea edota mantentzea.	ESTRATEGIAK <ul style="list-style-type: none"> ✓ Gazteen sentsibilizazioan eraginez eta eskaintza sustatuz. ✓ Haur, nerabe eta gazteen sustapen sistemarekin koordinazioa bultzatuz.
Administrazioa	
1 HELBURUA: Udaleko hizkuntza irizpideak definitu eta martxan jartzea.	
2 HELBURUA: Lan hizkuntza euskara izatea.	

Herri Eskolak euskararen erabilerari buruzko irizpideak landu ditu

Euskara teknikariaren laguntzarekin, 2009an hasitako lanari jarraipena eman diote Herri Eskolako irakasleek. Gurasoekin dituzten harremanetan, umeei dituztenetan, irakasleen artekoetan, bestelako begiraleen artekoetan... euskararen erabilera nolakoa izan beharko lukeen lantzen aritu gara. Euskararen erabilera eskolan jaitsi ez dadin ze ekintza eta jarduerak egin daitezkeen ere ikusi dugu, eta besteak beste, beste herri batzuetako eskoletako esperientziak bildu ditugu, gero Zegaman martxan jartzeko.

Guraso Elkarteak ere euskara planean

Udaberrian Guraso Elkarteko zuzendaritzako hiru kideekin elkartu ginen Euskara Batzordeak zeukan kezka baten inguruan jarduteko. Kezka hauxe zen: guraso askok plazan, parkean, eskolako sarreran...euren artean erderaz hitz egiteko joera ez ote daukaten. Beraz, gurasoen hizkuntza ohituren inguruko diagnostiko bat egin genuen eta helburu batzuk jarri. Aurrera begira gurasoen euskararen erabilera handitzeko zer egin daitekeen ideiak bildu genituen, eta 2011n martxan jartzeko asmoa daukagu.

Herriko dendariak euskararen erabilera handitu nahian

Orain bi urte hasi ginen dendarietarako saioak antolatzen. laz ondorio nagusi bat atera genuen, eta hauxe zen: orokorrean dendan erderaz gehiago hitz egiten dugula euskaraz baino, bai bezeroak eta bai dendariak berak. Aurten erremedioa jartzen saiatu gara eta txanponari buelta eman nahi izan diogu: goazen euskaraz gehiago hitz egitera erderaz baino. Baina nola lortu hori, ohiturak aldatzea hain zaila izanda? Hiru esparru landuz lortu dezakegula esan dugu aurtengo saioetan: dendariak berak euskaraz gehiago hitz egiteko zerbait eginda, bezeroak euskaraz gehiago hitz egiteko zerbait eginda, eta dendariak euskaraz idazten trebetasun handiagoa hartuta. Baina beste galdera bat etorri zaigu segidan: eta nola egingo dugu hori? Irudiak eta bideoak erabiliz ideiak biltzeko ariketa egin dugu bigarren saioan, eta 20 ideia inguru atera dira. Orain, ideia horiei galbahea pasa behar diegu eta 2011n zer egin daitekeen aukeraketa egin. Ea datorren urtean dendetan eragina nabaritzen hasten garen. Zorionak beste behin ere bi urte hauetan 6 saioetan parte hartu duzuen dendari guztiei!

Euskara ikasteko klaseak martxan daude aurten ere!

2009-2010 ikasturtea ekainean bukatu zen eta 7 lagunek parte hartu zuten klase horietan, talde bakarrean. 2010-2011 ikasturtean ere herrian euskara ikasteko aukera eskaini dugu eta bi talde sortu dira: iazko ikasleekin bat eta ikasle berriekin beste bat. Urtero bezala Maizpide euskaltegiko irakasleak etortzen dira klaseak ematera, kasu honetan bi. Iaz hasi zirenek astelehenetik ostegunera izaten dituzte klaseak, 17:00etatik 19:00etara. Aurten zerotik hasi direnek berriz, egun berdinetan baina goizez izaten dituzte klaseak, 9:15etatik 11:15etara. Norbaitek izena eman nahi badu oraindik badu aukera, udaletxetik pasa dadila izena ematera. Udalak matrikula ordaintzeko diru laguntza eskaintzen du, beraz, inguruan norbait baldin baduzue animatuko litzatekeena, esaiozue! Eta bide batez herritar guztiak animatu nahi zaituztegu ikasle hauei euskaraz hitz egitera eta praktikatzeko laguntzera, eskertuko digute eta!

Gazteengana hurbildu nahian

Estatistikek diotenez, Zegaman umeak, gazteak eta adinekoak dira euskaraz gehien egiten dutenak. Helduak dira gutxien egiten dutenak. Dena den, gazteen artean erderarako joera nagusitzen ari ote den kezka sortu zen Euskara Batzordean. Horregatik, interneteko sare sozialetara jo dugu Facebook-en eta Tuenti-n kontuak sortuta, eta asmoa gazteekin zuzenean egiteko komunikazio kanal bat sortzea izan da. Udazkenean tailer bat antolatu nahi izan dugu gazteen arazoan eta euskararen inguruan hitz egiteko, hausnartzeko eta irtenbide posibleak bilatzeko, baina gazte gutxi izena eman duela ikusita, tailerrik ez antolatzea erabaki da. Orain, sare sozial berdinak erabiliz, gazteei eurei galdetu nahi diegu zer egiteko prest leudekeen. Askotan gazteentzako gauzak antolatzen dira baina gazteekin kontatu gabe, beraz, horri buelta eman nahi diogu.

Udala bere burua arautzen

Udalak herritarrentzat erreferente izan behar du, eta euskararen gaian ere hala izan behar du, gero sektore ezberdinekin euskararen inguruko lanketa egin nahi bada behintzat. Horregatik, Udalean euskarari dagozkion hutsuneak identifikatu eta horiek konpontzeari ekin diogu. Horretarako euskararen erabilera administrazioan nolakoa izan behar den arautzen ari gara, eta erabat bukatu gabe baldin badago ere, honelako gaiak ari gara arautzen: herritarrei bidaltzen zaizkien paperetan euskarak ze tratamendu izan behar duen, nola nabarmendu euskara, barne mailako paperetan ere ze tratamendu izan behar duen, zerbitzu bat kontratatzerakoan ze irizpide erabili euskarari dagokionez... Baina guzti hori araututa ez da nahikoa, arau horiei jarraipena egin beharko baitzaie betetzen direla ziurtatzeko. Beraz, 2011. urte hasieran arauari jarraipena egiteko sistema bat ere diseinatuko dugu.



ERAIKUNTZAK
Construcciones
PEDRO IPARRAGUIRRE, S.L

*¡Gabonak ondo pasa eta
Urte Berri On!*



Kale Nagusia, 48 Bajo IDIAZABAL
943 188 008 - 670 588 472

■ KULTUR EKINTZAK

2010 urtean zehar hainbat kultur ekintza burutu dira Zegaman. Hona hemen, joan diren 12 hilabeteetan burututakoak:

IPUIN KONTAKETA

Gabonetako oporretan murgilduta, urtarri-laren 4an, ipuin-kontaketa izan zen Kultur Etxean Lur Kortaren eskutik. Hurbildu ziren haurrak, biziki gozatu zuten emanaldiarekin.

BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK ERAKUSKETA

Otsailaren 3tik 7ra, Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Bizitzeko tokiak, Pertsonentzako tokiak" erakusketa izan genuen ikusgai Kultur Etxean. Erakusketa honek, biodibertsitatea izan zuen oinarri eta bertan, orain hainbeste entzuten den "Natura 2000 Sarea" zer den ikasteko aukera izan ere genuen.

NATURA 2000 SAREA DELAKOAREN INGURUAN HITZALDIA

"Bizitzeko Tokiak, Pertsonentzako Tokiak" erakusketarekin bat, otsailaren 4an hitzal-



Lur ipuin kontalariaren saioa kultur etxean

dia izan zen Natura 2000 Sareari buruz. Zegaman, Natura 2000 Sarearen barnean Aizkorri-Aratz Parke Naturala eta Oria ibaia egonik, bertaratuek gure ingurune honek dituen balioak ezagutzeko aukera izan zuen.

ERLAUNTZEAN SORTZEN DIREN PRODUKTUEN ONURAK

Ereuzain Egunaren atarian, apirilaren 10ean, hitzaldia eman zuen Iñaki Gonzalok erlauntzean sortzen diren produktuek osasunean dituzten onurak azalduz. Jende mordoak bildu zen hitzaldi honetara eta bertaratuek, eztiak, propoliak, apiterapiak...gure bizi-kalitatea zenbait hobetu dezaketen ikasteko aukera izan zuten.

ZEGAMA, ATZOKO ARNASA GAURKO BIZITZA

Joxe Mari Artolak, herriko jendeak utzitako hainbat ikus-entzunezko jaso eta hauetatik hautaketa bat eginez, bi DVDtan garai bateko herriko hainbat imagina esanguratsu bildu zituen: San Bartolome jaiak, Arantzazuko Peregrinazioa, San Martin feria... Bi DVD hauek, uztailaren aurkeztu zituen udaletxeko arkupean. Urterokoa bihurtu zaigun Joxe Mari Artolaren udako emanaldiak, oraingoan ere jende ugari bildu zuen eta baita askori irribarrea atera arazi ere.



Bizitzeko tokiak, Pertsonentzako tokiak erakusketa

KONTU KONTARI DABILEN BIDEA

Aurten Xakobeo urtea dela-eta, bai Euskadiko, bai Espainiako erakunde askok hainbat ekimen jarri dituzten martxan Santiago Bidea sustatzeko xedearekin. Ekintza horietako bat "Sociedad de Conmemoraciones Culturales" erakundeak antolatutako "Kontu Kontari dabilen Bidea" izan da. Ekimen honen helburua, erromesek lurraldez lurralde ahoz aho banatzen zituzten euren herrialdeetako istorioak zabaltzen jarraitzea da.

Hori dela-eta, abuztuaren 6an, Kantabriako 2 ipuin kontalari izan genituen Kantabriako ipuinak kontatzen Zegaman. Oporrak direla-eta garai txarra izanik ere, ume mordoxka bildu zen Elizondo plazan ipuinak entzutera eta hauen aitzakian, baita zenbait heldu ere.

Ildo beretik, Santiago Bidean oinarrituta BIDEAN..... ENTZUN DUT izenburupean beste ipuin kontaketa bat izan genuen Kultur Etxean urriaren 1ean. Oraingo honetan, bi euskaldun izan genituen ipuinak kontatzen eta ipuinak kontatu ez ezik antzeztu ere egin zituzten.



Natura 2000 sareari buruzko hitzaldia



Kantabriako ipui kontalaria, abuztuan ospatu zen "Kontu kontari dabilen" ipui kontaketa saioan

www.rotulastudio.com

Diseño
Rotulación
Impresión Digital
Serigrafía

Rotula Studio



Diseinua
Errotulazioa
Inpresio Digitala
Serigrafia

Polígono Intxausti, 14 C 20215 ZEGAMA (Gipuzkoa) Tel. 943 801 244 - Fax: 943 801 245

UDAL GIZARTE EKIMENAK

Zegamako Udalak bere aurrekontutik 11.000 € edo 1.830.246 pezeta banatu zituen giza elkarte ezberdinen artean aurrez onartutako ordenantzaren arabera eta deialdi publikoa egin ondoren aurkeztutako eskaerak azterturik, banaketa bi multzotan egin zen:

A. Gobernuz Kanpoko Erakundeak

B. Elkarte ezberdinak

A. Erakunde Ez Gubenamentalei 2009ko diru banaketa (2009):

Izaki: Asociación Chernobil	1310 €
Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús	1300 €
Sahararen alde	1300 €
Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa	1200 €
Oscar Romero	900 €
“Hirugarren Munduko Gazteak”	900 €
GUZTIRA	6910 €

GKE 2009 URTEA ZEGAMAN

1.- IZAKI: Asociación Chernobil

Arduraduna: Axun Mendizabal Elizegi (Zegama).

Dirulaguntza:

Helburua: Chernobil zentraleko hondamendi nuklearraren eta bestelako katastrofeen adin txikiko biktimei laguntza humanitarioa eskaintzea.

Non: CHERNOBIL.

2.- “Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús”: EEG

Arduraduna: Victoria Urriolabeitia Arangüena Peioren arreba (Zegama).

Dirulaguntza:

Helburua: Txirotasun handia dagoen Peruko Piura herrian bertako familientzat etxebizitzaren egoera hobetzea litzateke. Etxeak lurrezkoak dira lo ere bertan esterilla bat jarriaz egiten dute, osasunari kalte bizia eraginez.

Non: Peru (Piura)

3.- SAHARAREN ALDE.

Arduraduna: Axun Apaolaza (Zegama)

Dirulaguntza:

Helburua: Herri Saharaiari laguntza eskaintzea duten egoera larria kontutan izanik.

4.- Felix Iñurrategi Baltistan

Fundazioa: EEG

Arduraduna: Javier Sodupe (Zegama).

Dirulaguntza:

Helburua: Hushe bailarako pertsonen garapena bultzatu nahian, Baltistaneko albarikokeen salmenta garatu. Hori lortzeko bidezko merkataritza zirkuituetan produktu hau barneratuaz .

Non: Valle de Hushé en Baltistan. PAKISTAN iparra.

5.- “OSCAR ROMERO” SOLIDARITZA BATZORDEA: EEG.

Arduraduna: Milagros Anduela Aramburu (Bergara).

Dirulaguntza:

Helburua: Sincuyo kantoieko “Caserío Los Orantes” Eskolari informazioaren teknologia eta komunikazio moduak erraztea.

Non: Sincuyo kantoia AHUACHAPAN EL SALVADOR.

6.- “Mundu Solidarioa Helburu” Arrasate: EEG.

Arduraduna: Leire Etxeberria Elorza (Arrasate).

Dirulaguntza: Nicaragua Diriamba herrian Carazo bailaran baliabide murrizak dituzten gazteen lanerako integrazioa eta ikas mailan laguntza ematearen ardura aurrera eramatea.

Helburua: Nicaragua Diriamba herrian Carazo bailaran

Non: Togo- Africa Occidental subsaharianoa.

B. ELKARTE EZBERDINEI LAGUNTZAK:

Giza elkarte ezberdinei, Zegamako Udalak 2009 urteko aurrekontutik 4.090 € laguntza banatu dizkie, modu honetara:

Guruze Gorria	1.880,00 €
Herriko Parrokia	800,00 €
Odol Emaileak	450,00 €
ATZEGI	160,00 €
ASPACE	160,00 €
GIZAKIA HELBURU	160,00 €
FONTILLES	160,00 €
HIES	160,00 €
MINBIZIAREN AURKA	160,00 €
GUZTIRA	4.090,00 €

• SAHARAR HERRIARI LAGUNTZA:

Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik Saharar herriari lagundu nahian, Zegaman 2009ko abenduaren 15etik 2010eko otsailaren 6ra elikagai bilketaren kanpaina gauzatu zen.

Kanpaina honen helburua, lau produktu konkretu biltzea zen: atun latak, azukrea, lentejak eta konpresak. Bilketa egin ondoren, Sahararen aldeko Euskal Karabanaren bidez, Saharara eraman ziren produktu hauek laguntza zuzena izanik.

Zegaman hiru bilketa gune antolatuta ziren: Udaletxea, Kooperatiba eta Edurne Janari Denda.

• ALFABETATZE INFORMATIKORAKO IKASTAROA

Landa eremuan adinduek informatikaren gizartean sartu ahal izateko aukera zabaltzeko asmotan, lau orduko ikastaroa antolatu zen Ehenelur elkartearen laguntzaz.

Ikastaroa informatika munduari buruz ezer ez dakien adineko pertsonentzat zuzendua izan zen, hau da, oso oinarrizko maila erakutsiz. Bertan testu bat idazten ikasi, internet-a zer den adierazi, mezua bidaltzen ikasi etab egiten ikasi zen.

Ikastaroa otsailaren 11an arratsalde bakar batetan eman zen eta sei lagunek parte hartu zuten.

• LANDA EREMUAN MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN FAMILIENTZAT EDO ZAINTZAILEENTZAT BIDERATURIKO IKASTAROA

Landa Eremuan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat eta beren familientzat edo zaintzaileentzat bideraturiko ikastaroa antolatu zuen Zegamako Udalak Enhelur elkartearen laguntzaz.

Ikastaroa otsailaren 22an hasi eta 10 egunetan eman zen jarraian, guztira 50 ordu .



Jubilatuena eta Eguneko Zentrokoen artean ekintza bateratua



Emakume etorkinei laguntzeko hitzaldia izan zen Kultur Etxean

Ikastaroaren helburuak:

- Mendekotasuna duten pertsonen laguntza eman ahal izateko formakuntza ona izatea.
- Zaintzailea hezi, adinekoen arazoei aurre egiteko.
- Mendekotasuna duten pertsonen izan ditzaketen errekurtsoen informazioa eman eta oinarritzko zerbitzuen berri eman.
- Mendekotasuna duten pertsonen zaintza egokia emateko estrategiak landu.

Ikastaroan lau lagunek parte hartu zuten, ikastaroaren bukaeran parte hartzearen adierazle modura beren titulua jaso ahal izan zutelarik.

• BULARREKO MINBIZIAREN DETEKZIO GOIZTIARRARI BURUZKO HITZALDIA

KATXALIN, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak, Zegamako Udalaren laguntzarekin hitzaldia antolatu da.

Bularretako minbiziaren detekzio goiztiarrari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta honi buruz ondo informatuak egotea funtsezkoa da gu guztiontzat.

Hitzaldia azaroaren 23an, Donostiako Onkologia Institutuko Dra. den, Arrate Plazaolak eman zuen eta bertan: bularreko minbiziaren arrazoen azterketaz, tratamenduaz, prebentzioaz, etab. hitz egin zen.

• JUBILATU ETA PENTSIODUNENTZAT SOIN HEZIKETA IKASTAROA.

Urriari hasi eta ekainera arte, ikasturtean zehar ematen den ikastaroa da. Berezitasuna garbi dago, jubilatua eta pentsiodunentzat bideratua dago; hau da, soin heziketa bai, baina patxadan. Astean bi egunetan biltzen dira, astearte eta ostegunetan eta Joakin Elkoro ordiziarrak da ikastaroaren arduraduna.

Soin heziketa Zegamako herritarrengan ikastaro erabat arrakastatsua dela esan daiteke. Urtez urte, ikasle ugari biltzen ditu, 2009-2010 ikastaroan 18 pertsona zeuden izena emanak, 2010-2011 ikasturtean berriz 22.

• JUBILATUEN EGUNA:

Urtero bezala aurten ere, Udalak antolatutako Adinekoen Eguna uztailaren 11an izan zen.

Urtero bezala, eguna txistularien kalejirarekin hasi zen; ondoren herriko Parrokian Meza, bertan, Joxe Agirre eta Txomin Garmendia bertsolariak eta Orkatz abesbatzak parte hartu zutelarik. Meza entzun ondoren herriko Ostatu Jatetxeok polikiroldegian emaniko bazkaria dastatu ahal izan zen.

Bazkaria dastatu lagunartean eta Joxe Agirre eta Txomin Garmendia bertsolariek, saio ederra emanaz egin zen bazkalostea Iturrioren doinuaz lagundurik; sari banaketa ere izan zen eta azkenik dantza saio bat ere bai.

Garrantziko eguna beraz guztiontzat, horrelaxe urte askotan izan dadila!

• ETXEBIZITZA BABESTUA:

2005eko urriaren 10ean Zegamako lehen onuradunarekin jarri zen martxan iaz lau egon ziren arren aurten oraingoaz, sei onuradun egon dira.

Bertan bizi ahal izateko, onuradun bakoitzak tasa bat ordaindu behar izaten du eta zerbitzu guztiekin aurtengo tasa honen zenbatekoa, hilean 681,24 €koa izan da. Tasa hau, hala ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio baten ondoren zehaztuko da.

Ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: Etxearen garbiketa, arropa garbiketa eta plantxa, Katering zerbitzua (otorduak), beharra izanez gero, mediku tratamenduen gestio eta kontrola, administrari lanak, autonomia eta laguntza beharrean gainbegiratzea.

• EGUNEKO ZENTROA:

Eguneko Zentroa 2004ko urriaren 1etik martxan dagoen zerbitzua da. Zegaman Eguneko Zentroaren eta Etxez Etxeko Laguntzaren gestioa, GSR S. KOOP enpresak eramatean du.

Eguneko Zentroa, gaur egun, 8 plaza onartuak dituen zentroa da eta aurtengo urtean zehar hamar onuradun egon dira, nahiz eta momentu honetan zazpi pertsona egon, hau da, bost alta berri eta hiru baja izan ditugu. Hamar onuradun hauek sei zegamarrak dira, segurar bat eta hiru mutiloak.

• EGUNEKO ZENTROA ETA JUBILATUEN ARTEKO HARREMANEN HASIERA

Eguneko Zentroa eta Jubilatuen Elkartearen arteko harremanak bultzatu nahian, bi hilabetez behin, zenbat ekintza bateratu eraman dira aurrera.

Aktibitate ezberdinak egin nahi dira, beti ere, GSRko dinamizatzailea den Irati buru delarik, hau da, bere gidaritzapean eramango dira ekintza guztiak.

Egin nahi diren ekintzak hauek dira: Bingingo, Musikoterapia, Karta Partidak, Irteerak...

1. Lehen saioa:

Martxoaren 25ean, karta partida.

2. Bigarren saioa:

Uztailaren 8an, bingo jokoa.

3. Hirugarren saioa:

Urriaren 21ean, bingo joko berezia.

4. Laugarren saioa:

Abenduaren 2an, musikoterapia.

Guzti hau aurrera eramateko, 15 bat boluntarioen laguntza izan da lehenengo lau sesiotan, talde nahiko konstantea. Aurrera begira, espero da, aktibitate ezinbestekoa izatea.

Saioak Jubilatuen Elkartearen egin dira eta arratsaldeko 16:30etatik 17:30etara iraupena izan dute.

■ ZEGAMAKO TURISMO BULEGOA

2010. urtea oso garrantzitsua izan da Zegamako Turismo bulegoarentzat. Batetik Done Jakue bidearen Xacobeo urtea izan da eta bestetik, turismo bulegoa lekutzen den Andueza etxean, Aizkorriko Ataria Interpretazio Zentroa martxan jarri da.

Done Jakue bidearen Xacobeo urtea izanda Zegamako aterpean lo egin duten erromes kopurua nabarmen igo da. Aurreko urteko datuekin konparatuz, turismo bulegotik 100 erromes gehiago bideratu ditugu. Zegamako Udalak turismo bulegoaren laguntzaz, barrualdeko Done Jakue bidea ezagutarazteko foileto bat argitaratu du. Foileto hau euskal Done Jakue bideko puntu garrantzitsuetan banatu da, hurrengo urteetan erromesak Zegamatik pasatzen den bide honetara erakartzeko helburuarekin. Honekin batera Aste Santuan, Zegama Zalduondo Done Jakue bidearen etapa gidatua antolatu zen berriro ere. Hala ere eguraldi txarra zela-eta, ez zen irteera hau aurrera eramatea posible izan.

Esanda bezala garrantzitsua izan da Aizkorriko Ataria interpretazio zentroaren

irekiera ere. Zentro honetan bisitariak Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko, Zegamako eta bertako baso kulturaletako berri ezagutzeko aukera du, eta turismo bulegoko gidarien laguntza gai hauetan sakontzeko. Orain arte etorri diren bisitariak oso gustuko izan dute zentroan islatzen dena. Honela Zegamako herriak bere eskaintza turistikoa erakargarriago bihurtu du eta honek Zegamara bisitari gehiago erakarriko ditu.

Aizkorriko Ataria interpretazio zentroak uztailaren 30ean ireki zituen bere ateak eta irekiera hau ospatzeko, herritar guztiei luzatu zitzairen bertan parte hartzeko gonbitea, izan ere, Zegamako herritarrak zentro honen parte baitira. Jende mordoxka elkartu zen egun horretan eta museoko txoko guztiak ikusi eta gero, Idiazabal gazta eta sagardoa eskaini zitzairen etorritakoei. Interpretazio zentro berriak herritarren artean ere harrera ona izan duela esan behar.

Herritarrentzat ateak ireki ondoren inaugurazio ofiziala egin zen urriaren 20an. Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak zabala etorri zen

interpretazio zentro berriaren inaugurazio ekitaldi honetara. Abuztuan eta irailean zehar bisitari asko etorri dira zentro berria ikustera eta iritzi oso positiboak jaso ditugu beraiengandik.

Hala ere 2010eko bisitarien datuei buruzko analisia egin ostean, aurreko urteekin konparatuz bisitari kopurua pixka bat jaitsi egin dela esan behar. Kontutan izanik Andueza etxea interpretazio zentro berria egiteko obrak zirela eta itxita egon dela, hori ez da batere harrizkoa. Dena den, lanek iraun duten bitartean, turismo bulegoa ez da itxita egon, Kultur Etxean jarraitu du bere zerbitzua ematen.

Turismo bulegoak antolatzen dituen ibilaldi gidatuei dagokionez, aurreko urteetan bezala aurten ere zubi eta jai egunetan izan da aukera Zegamako bazterrak ezagutzeko turismo bulegoko gidaren gidaritzapean. Aipaturiko zubi eta jai egunetan San Adrianera, Intxaustiko errotara eta Altzibargo teileria antolatu dira ibilaldiak. Berrikuntza moduan berriz, ekainaren amaieran artzaintza gaitzat harturik Oltzara egin zen ibilaldi gidatua aipatu behar. Bertan, Oltzako Mari Paz



Egurra lantzen ikasten ari diren gazte taldea Egurraren Museoan

Oiarbidek eta Jose Etxeberriak hartu zuten parte eta benetan polita izan zen beraien ahotik euren bizipenak entzutea.

Ohiko ibilaldiez gain, "Ollerias Maratoia" ospatu zen igandean, Intxausti errotara eta Altzibargo teileria ibilaldi gidatuak antolatu ziren egun osoan zehar eta arrakasta handia izan zutela esan behar, guztira 180 lagunetik gora joan baitziren bi eraikin bitxi hauen historia ezagutzeko irrikaz, udaletxeak jarri zuen autobusean.

Bukatzeko aurten komunikabideetan Zegamak izan duen oihartzuna ere aipatzekoa da, bertan izan dira Aizkorriko Atariaren irekiera lau haizetara zabalduz Euskadi Directo programa, Ipupomamua, Viajes de Castilla, EITB (Guia secreta del Camino de Santiago), TeleDonosti, Euskadi Directo, Sustraira, TVEko Destino España... Hauetaz aparte irrati saio askotan parte hartu dugu.

Bukatzeko, hurrengo urteko helburua ibilaldi gidatuak antolatzen segitzea da. Aizkorri Ataria interpretazio zentroa dela eta, bisitari gehiago erakartzea espero dugu bai zentrora eta bai ibilaldietara. Bide batez zentro berria oso egokia da orain ikastetxeetako irteerak egiteko beraz hurrengo urtean ere gazte askoren bisita espero dugu.



Aizkorriko Atariaren inaugurazioa uztailearen 30ean



San Adrian inguruak ezagutzuz ibilaldi gidatuak

■ GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PARTZUERGEOA

2010 urtean zehar, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoaren Batzarrak, besteak beste honako erabakiak hartu ditu:

Otsailaren 4ko Batzarra

- Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Patronatoan, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoari hiru ordezkari tokatzen zaizkionez, Otsailaren 4ko batzarrean honako izendapen hauek egitea erabaki zen:

Izendatuak: Isabel Telleria Urbizu, Ioritz Imaz Baztarrika eta Jose Galvez Romero.

Hauek bileretara ezin direnean joan beste hiru ordezkari aukeratu ziren: Jesus Berasategi Garcia de Vicuña, Haritz Eguren Urrestarazu eta Edurne Albizu Ormazabal.

- INEMek antolatzen duen lan sustapen programara hiru peoi hartzeko eskaera bideratzea, Garagartza inguruan garbiketa lanak egin ditzaten.

- Mapa Toponimiko berria egitea. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoko Mapa Toponimiko berria egiteko erabakia hartu zen, aurrez egindako mapak akats garrantzitsuak dituela kontutan hartuta.

- Artxiboa ordenatzeko dirulaguntza eskatzea. 1960 urtetik hona Gipuzkoa eta Arabako artxiboa ordenatu gabe dagoenez, artxiboa ordenatu ahal izateko dirulaguntza eskatzea erabaki zen Euskoko Jaurlearitzako Kultura sailari.

- Eusko Jaurlearitzako Kultura sailak, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergotik egin zen dirulaguntzari erantzunez, artxiboko fondo dokumentalak digitalizatzeko 4.000€ etako laguntza eman duela eta, aurrekontua egin zuen enpresarekin lanak hastea erabaki zen.



Iramendiko saroia



Iramendiko txabola konpondu aurretik



Auzolandegietako gazteak txabola konpontzen



Harri lauzaz konpondu zuten teilatuetakoko bat



Antzina zotalez estaltzen ziren teilatuak

- Egur loteak. Partzeneroek egindako egur loteen zenbatekoa uste baino handiagoa izan dela ikusi ondoren, Txurro-Letaín-Napar Aitz parajetik ere entresaka egitea erabaki zen egindako eskaera guztiei loteak iristeko.

Apirilaren 13ko Batzarra

- Hainbat artzain txabola, egun artzain ez direnek erabiltzen dituztela ikuskatu ondoren, Oihan Enpresari, artzain txabola bakoitzaren erabilpenaren inbentarioa egin dezan eskatzea erabaki zen eta aldi berean, ardiak ez dituzten txabola erabiltzaileei giltzak eskatzea.

- David Villaron jaunak, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoko artxiboaren digitalizazio lanak burutzen ari denak, jakinarazi du, aurrekontua egindakoan 20.000 agiri inguru digitalizatzeko aurrekotua pasa bazuen ere, egun, 34.000 agiri digitalizatu beharko dituela ohartu

dela, honela, aurrekontua 11.400€ igoko dela ohartaraziz lan guztia egiten badu. Batzarrak, lana bukatzeko erabakia hartu zuen eta 11.400 € gehiagoko kostua bere gain hartzea.

Uztailaren 8ko Batzarra

Lehendakariaren aldaketa eman zen batzar honetan, Segurako Maria Isabel Telleriaren eskutik, Donemiliagako Jesus Berasategiren eskuetara pasatu zen Lehendakaritza urte beterako.

- Lan sustapen programan eskainitako 3 lanpostuetarako 250 pertsonak izena eman ondoren, herri partzuergotan erroldatutakoak bakarrik kontutan hartzea erabaki zen eta dagokion aukeraketa, INEMek egin zezan zerrenda bidaltzea erabaki zen.

- 1960tik 2009ra, Gipuzkoa eta Arabako artxiboa ordenatzearen lana,

“Consuelo Arteaga, Artxibo Antolaketa S.L.” enpresari esleitzea erabaki zen 6.500 €tan gehi BEZa. Horrez gain, datuak base informatikoan sartzeagatik beste 1.000 €tako ordainsaria onartu zen eta KNOSSYS programa erosteagatik beste 500 €tako ordainsaria. Erabaki honekin, 2010ean eta azken berrogeitamar urte hauetan Partzuergoak hartu duen erabaki garrantzitsuenetakoa hartu duela esan genezake, hau da, azken urteotan hartutako erabakiak, agiriak etabar. era ordenatuan jartzea eta edozein partzenerok edozein agiri behar duenean, edo kontsultatu nahi duenean, lana erreztuta izatea bertako langileek.

- 2010eko udan, Kutxa eta Aranzadi Zientzia Elkartearen elkarlanari esker, Iramendiko artzain txabola bat, Auzolandegi baten bidez, konpontzeko aukera dagoela jakinarazi zen. Partzuergoak, bigen kostua eta eta hauek Iramendira eramatearen kostua hartu behar zuen bere gain eta



gainerakoa Kutxaren kontura izango zen. Partzuergoarentzat kostu txikia zela ikusirik, Auzolandegiak antolatzea eta bigen kostua bere gain hartzea erabaki zen.

- Erdiko Saroi artzain txabola, Zuazola Asparrenako artzainari esleitzea erabaki zen.
- San Inazio Eguna antolatu eta lanak banatu ziren batzordekideen artean.

Uztailaren 26ko Batzarra

- Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoaren mapa toponimikoa egitearen lana, IKERMAP enpresari esleitu zitzaion, 12.400 €tan gehi BEZa.
- Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoaren iritzia eskatuz idatzia Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapenaren departamentutik. Bertan Partzuergoaren oniritzia eskatu zuten, Otzaurte gainean dauden, Asier Zabaloren jabetzakoak

diren lursailak erosteko eta ondoren, kotxeentzat aparkaleku bat egin asmoz. Partzuergoaren batzarrak, bere oniritzia luzatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Otzaurten aparkalekuak egiteko.

Abuztuaren 27ko Batzarra

POSTUA	ZBKA.
Apota	5
Apotal	11
Aratz	4
Aratz	8
Iturgain	2
Larrebil	16
Leotaran	1
Letain	11
Peazulueta	3
Portugaña	1
Ulzama	3
Ulzama	5
Ulzama	7


Zegamari tokatutako postuak

- Ehiz postuen zozketa egin zen Partzuergoko herri bakoitzaren artean, hauek ondoren, beren herrietan herriko ehiztarien artean zozketatzeko.

- Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Prugarri, aurkeztu beharreko alegazioak onartu ziren.

Irailaren 12ko Batzarra

- Ganaduzaleei, Otzaurteko Mikelete etxea, uztea erabaki zen bilera bat egiteko.
- Irailaren 13an, Asier Arrese, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Departamentuko Mendietako zuzendariarekin egingo zen bilerarako gonbidapena egin zen. Besteak beste, Aizkorri-Aratz Parke Naturala dela eta, pisten erabilpena, ehiz garaiko baimenak, etabar landuko zirela jakinarazten zen.



Iramendiko saroiaren planoak Fermin Leizaolak egina

■ ZEGAMA ERREALAKIN PEÑA

Kaixo Erreal zale:

Hiru urte ederki sufritu ondoren igo gara lehenengo mailara, Zorionak guztio!!!! Gainera aipatzekoa da dotore hasi duela Errealak denboraldia lehenengo mailan.

Geu ere gustura gaude, jadanik Zegamako Errealaren Peñak 43 bazkide baititu, eta aipatu gainera gazte jende asko animatu dela.

Hori dela-eta 2011ko urtarrilaren 2rako bidaia bat antolatu dugu Zaragozara partidua ikusi eta Errealak animatuz egun eder bat pasatzeko asmoz. Anima zaitezte eta etorri gurekin Zaragozara!



San Adriango meza ospatu zen egunean, Errealzaleak lehenengo mailarako igoera ospatu zuten

Zegamako industrialdean hainbat lantegi ditugu eta krisi garaian bete betean murgilduta gauden honetan ere, bizirik diraute. Aurtengoan, errotulazioa eta serigrafia oinarri dituen Rotula Studio enpresako bi jabeekin izan gara solasean, Jabi Garrues eta Joseba Imazekin hain zuzen ere. Beraien esanetan, 7 urte dira jadanik enpresa sortu eta Zegamako industrialdean daudela eta gustura daude.

ELKARRIZKETA

Javier Garrues Areso eta Joseba Imaz Garcia

ROTULA STUDIOKO NAGUSIAK DUELA 7 URTEK ZEGAMAKO INDUSTRIALDEAN



Noiz sortu zen Rotula Studio enpresa?

Duela 7 urte sortu genuen enpresa, 2004ko abenduan hain zuzen ere.

Nola definituko zenukete Rotula Studio?

Rotula Studio komunikazio arloko enpresa bat da, bezeroei euren negozioak garatzeko tresna egokiak ematea helburu duena.

Zeinek osatzen duzue enpresa?

Jabi Garrues Areso eta Joseba Imaz Garcia gara enpresa honetako jabeak eta gurekin batera, beste bi langilek egiten duten egun lan. Hasieran, enpresa ireki berritan Joseba eta biok hasi ginen baina gerora beste bi langile hartu ditugu eta esan bezala, orain lau gara.

Nolatan sartu zineten mundu honetan? Aurretik mota honetako beste enpresaren batean lanean aritu al zineten?

Bai, errotulazioan lan egiten zuen beste enpresa baterako egiten genuen lan baina esan bezala, duela 7 urte geure enpresa propioa sortzea erabaki genuen eta hementxe gaude.

Formazio berezirik jaso al duzue lan honetan aritzeko?

Nik, Jabik, diseinu grafikoa ikasi nuen eta lan honekin zuzenki lotuta dago hori. Josebak berriz muntaian oinarritutako hainbat ikasketa egin zituen. Bestalde, aurretik mota honetako enpresa batean lanean aritzeak ere asko lagundu digu.

Hasiera zaila izan al zen? Oztopo asko izan al zenituzten?

Hasierak inoiz ez dira errazak baina duela 7 urte, egoera ekonomikoa egun baino

askoz hobea zen eta ez zen hain zaila izan merkatuan sartzea. Enpresa sortzeko lanetan berriz, paper kontuetan eta, nire anaiaren laguntza izan genuen, bera abokatua baita.

“

Rotula Studio komunikazio arloko enpresa bat da, bezeroei euren negozioak garatzeko tresna egokiak ematea helburu duena

”

Horrelako enpresa mota bat jartzeak inbertsio handia eskatzen al du?

Erdi mailako inbertsioa egin behar dela esango nuke. Inbertsioari dagokionean, zer mailatan hasten zarenek ere zerikusia handia du. Gu gutxinaka-gutxinaka hasi ginen eta horrela ez da hain garestia ateratzen. Hasiera hartan ez geneuzkan makina asko eta beraz, lan asko ezin genituen egin, gero ordea pixkanaka makina gehiago sartuz joan gara eta orain eskaintza zabalagoa dugu bezeroentzat.

Zegamako industrialdea izan al da zuen lehen egoitza? Zergatik aukeratu zenuten Zegama?

Bai, Zegamako industrialdean hasi ginen. Zegaman pabiloiak Beasain edo Ordizirekin alderatuz, merkeago zeuden eta egia esan, hori izan zen gu Zegamara etortzeko arrazoia.



Rotula Studioko langileak Zegamako industrialdean duten pabiloiaren aurrean



Errotulazioa ibilgailuan



Hormen dekorazioa



Saltokietarako kartelak

Zegama bezalako herri txiki batean enpresa izateak zein abantaila ditu? Gustura al zaudete Zegamako industrialdean ?

Honaino etortzen diren bezeroak benetan interesa dutelako etortzen zaizkigu eta horrek lan eta denbora asko aurrezten digu. Bestalde, leku oso lasaia da hau eta hori ere abantaila moduan ikusten dugu.

Zer da Rotula Studion egiten duzuen?

Bi arlo nagusi jorratzen ditugu, errotulazioa eta serigrafia. Hasiera batean, errotulazio-lanak egiten genituen soilik baina duela bi edo hiru urte, serigrafia-lanak egiten ere hasi ginen.

Zer aurkitu dezakegu zuen katalogoan?

Errotulazioari dagokionean hainbat motatako lanak burutzen ditugu, erakusleihoak dekoratu, kanpo seinaleak errotulatu, komertzioetako kartelak egin, ibilgailuak errotulatu, ekitaldietarako kartelak egin, etxeen hormetako dekorazioa, kirol gaien dekorazioa ...

Serigrafiari dagokionean berriz, material mota ezberdinak erabiliz etiketak, kamisetak (kirol taldeentzat, lantokietarako, dendetarako, despedidetarako...), propaganda edo opari gisa ematen diren tresnen dekorazioa... burutzen ditugu, www.rotulastudio.com web orrian jarri ditugu burutu ditugun lan batzuen argazkiak, bezeroek gure lanen berri izan dezaten.

Publizitatearen munduan lan egiten duzuelarik, diseinuak, modak... aldatuz doaz eta etengabe gauza berriak, estilo berriak ateratzen dira. Zer egiten duzue eguneratzeko?

Merkatuan zer dagoen ikusteko bi bide nagusi erabiltzen ditugu, interneta eta azokak. Bi urtean behin azokak antolatzen dituzten Madrilan eta Bartzelonan eta azoka hauetara joan ohi gara hornitzaileak ezagutzera eta hauek eskaintzen dutena ikustera. Dena den, aurreko krisia dela-eta esan digutenez ez omen da aparteko eskaintzarik egon eta ez gara joan.

Bestalde, interneten ere beste enpresek burututako diseinu piloak dago ikusgai eta horiek aztertuz ere asko ikasten da.

Eta azokak aipatu dituzuela, zuek joaten al zarete zuen produktuak erakustera azoka horietara?

Ez, gure lan esparrua Goierria mugatzen da momentuz behintzat eta beraz, ez du zentzurik gure produktuak Madrilan edo Bartzelonan erakustea.

“ Rotula Studion bi arlo nagusi jorratzen ditugu, errotulazioa eta serigrafia ”

Zein dira zuen bezeroak?

Esan bezala Goierriko enpresak nahiz partikularrak izaten dira. Gerta liteke, Irun edo Donostia aldean ere lanen bat sortzea internet bidez baina orokorrean Goierri izaten da gure lan esparrua. Guk egiten ditugun lanak kostu txikikoak izaten dira eta Goierriko mugitu behar badugu desplazamendua kobratu egin behar izaten dugu. Ondorioz, adib. Donostialdean errentagariagoa zaie bertako enpresa bati lana ematea guri baino, merkeagoa ateratzen baitzaie.

Lanbide honen alde on eta txar bana...

Guk egiten ditugun lanak kostu txikikoak izaten dira eta ondorioz, bezero batek lana ez badigu ordaintzen ere ez dugu hainbeste diru arriskatzen. Honek badu ordea bere alde txarra ere, kostu txikiko lanak izatean, bezero asko eta aldi oro lan asko izateak behartzen gaitu etekinik atera nahi badugu.

Krisiaren eraginik antz eman al duzue?

Bai, asko. Guk lehen eraikuntzako enpresa batentzat egiten genuen lan asko eta krisia

dela-eta eraikuntza gelditzeak gure lanean ere eragina izan du. Bestalde, partikularrei dagokienean ere, lehen astero hiru bat furgoneta errotulatu genituen batez beste eta orain bakarria hilabete osoan.

Konpetentzia edo lehiakortasun handia al dago zuen lanbidean?

Errotulazioan lan egiten duten enpresa dezente dago Goierri eta beraz badago konpetentzia. Dena den, enpresa hauetako askok ez dute seriotasunez lan egin eta horrek merkaturuan sartzeko atea ireki dizkigu, bestela oso zaila da lan honetan aurrera egitea.

Zergatik da zaila?

Bezero batek gure arloko enpresa baten gain bere irudia uzten duenean, gero oso zaila da bezero horrek irudia egin dion enpresa hori utzi eta beste batera joatea. Bezero horren diseinuak... enpresa horrek ditu eta behar bada enpresa berriak ezin dizkio bezero horrek behar dituen diseinuak egin, izan ere datu guztiak beste enpresa horrek baititu.

Nora jo behar da zuen produktuak erosteko? Internet-a erabiltzen al duzue horretarako?

Internetez inongo konpromisorik gabe kontsultak egitea oso erraza da eta beraz, bezero batzuk hasierako pausu gisa bide hau erabiltzen badute ere gehienak telefonoz deitzen digute eta handik aurrera zuzeneko harremana izaten dugu, geu joaten gara beraiengana edo bestela beraiek etortzen dira gure enpresara.

Ba al duzue etorkizunerako helbururik?

Azken bi urte hauetan asko zabaldu dugu gure eskaintza, errotulazio sinplea egitetik serigrafia egitera pasa gara eta dekorazioari ere heldu diogu zertxobait, koadroak... Hori dela-eta, momentuz horrela jarraitzea da gure asmoa. Gauza gehiegitan sartzegatik zerbitzu txarra ematea baino nahiago dugu arlo gutxiago jorratu eta hauetan kalitatezko zerbitzua ematea.

Oihana Zubizarreta

■ LEHEN ETA ORAIN



Aizkorriko aterpea konpondu aurretik



Aizkorriko aterpea txukunduta



Patioa estalkirik gabe



Patioan estalkia jartzeko lanak hasita



Estalkiaren egitura jartzen



Patioa estalkia jarrita



Murgizelai Parkea lehen



Estalki berria jartzeko lanak hasita



Komunak eta arraska eraikitzen



Komunak eta arraskak eraikita



Altzucarango pista konpontzeko lanak hasita



Altzucarango pista berrituta



Frontoiko eraikina lanak hastear



Frontoiko eraikina laugarren pisua eraikita



Igogailua egin aurretik



Igogailua eraikitzen



Pasarela jartzen



Igogailua martxan

■ AIZKORRI GURASO ELKARTEA

Ohikoa denez, Aizkorri Guraso Elkartearen, atzera begirada bat botaz, urtean zehar egindako ekintzen laburpen bat egiteko garaia iritsi da. Zenbait ekintza, urtero ospatzen dira, baina badira berrikuntzaren bat edo beste.

2010. urte honetan burututako lehen ekintza, **inauterietako ostiralekoa** izan da. Bertan haurrak ikastolan moztarotatu ondoren, txokolatada antolatzen da bertaratutako guztientzat. Jarraian, haurrak horren gustuko dituzten buruhandiak izaten dira.

Kurso amaierako festak ere izaten du bere xarma, 10 hilabete luzeren ondoren, horrenbeste amesten ditugun opor luzeak iritsi baitira. Beste urteetan, puzgarriak izan dira, baina aurtengoan, gure gizartea jasaten ari den krisia dela medio, herriko kiroldegian haur jolasak antolatu dira, aurrepegiak margotuz eta ohikoak diren taldeko jokoak eginez.

Kurso hasieran, **“kirol festa”** egiten da irailaren azkeneko larunbatean Xabier Ints-austik antolatuta gurasoen laguntzarekin. Aurtengoan, festak jarraitu egin du, izan ere, lehenengo aldiz, **ikastolako bazkaria** antolatu da. Jokoen ondoren, ikastolako gimnasioan, ikasle, guraso eta irakasle artean 162 lagun elkartu gara. Ikusirik izan duen arrakasta, datorren urtean errepikatzeke gogo eta borondatearekin agertzen da Guraso Elkartearen.

San Martin ondorengo igandean ere, bada haurrentzat pozgarri. Izan ere, aurre-

ko urteetan Pirritx eta Porrotxen ikuskizunak izan badira ere, aurtengoan “Izenaduba Basoa”ren eskutik antzezlanak izan da ikusgai gimnasioan. Ondoren txokolate beroa banatu delarik.

Dakizuen bezala, eskola orduetatik kanpoko **zaintza zerbitzuak** ere, aurrera jarraitzen du goizeko 8:00etatik 9:00etara bitartean ikastolako jangelan Marian Telleria begirale bezala delarik. Bere ordezkari bezala M^a Karmen Laskurain eta Juani Arzelus aurkeztu dira. Ikasturte honetan, lau dira zerbitzu hau erabiltzen duten ikasle finkoak eta beste batzuek berriz, puntualki erabiltzen dute.

Negu partean, igandetako **bideo emanaldiak** ere jarri dira kultur etxean, igande arratsalde hotzak pasatzeko aukera paregabea izanik.

Elkarteko partaide guraso denak izan arren, hauteskunde bidez aukeraturiko ordezkari bat arduratzen da Elkartearen betebeharrak kudeatzen eta aurrera eramaten. Bi urtero ordezkari horren erdia berritzen da. Eta dokumentu hau idazten ari garen momentu honetan, hauteskunde prozedurak martxan jartzen ari gara, batzarkide batzuk beraien betebeharrak uzteko garaia iritsita eta berriak aukeratzeko. Ondorengo zerrendan, azaroaren erdian elkarteak duen ordezkari ageri da, abenduan kideen erdia berriak izango direlarik.

- Ainhoa Gorrotxategi
- Leire Ormazabal
- Mainer Azurmendi

- Iker Goiburua
- Jon Elorza
- Xabier Ormazabal
- Karmele Ormazabal
- Juani Arzelus
- Anartz Goia
- Alicia Acha
- Eba Larrea
- Jon Ormazabal
- Xanti Jimenez
- Ainhoa Urbizu

Beste behin gogora arazi nahi genuke Elkartearen egiteko seme-alaben heziketan Eskolako Irakasle Klaustroari laguntzea dela, eskola orduz kanpoko aktibitateetan eta aktibitate osagarrietan gehienbat.

Aurretik aipatzen diren ekintzak egiteko barne antolaketa lanak ere izaten dira, ikasleen ekintzak koordinatu eta guztia aurrera ateratzeko gestioak eginez. Besteak beste honetarako guraso talde osoari oharrak bidaltzen zaizkio eta instituzio desberdinekin harremanak mantentzen dira helburuak betetzeko laguntza lortzeko.

Bestalde, finantziarioari dagokionean, gurasoen ekarpen eta Udal zein Foru Aldundien ohiko diru-sarrerak jasotzeaz gain, inguruko enpresa batzuen laguntza ere jasotzen dugu. Jakin badakigu, aurtengoan, krisia dela eta enpresa hauek esfortzu berezia egin behar izan dutela eta hau hala izanik, eskerrik beroenak luzatu nahi genizkieke guztiei Aizkorri Guraso Elkartearen izenean.



Aitxuriko ikasleak kirol jardueretan parte hartzeko prest



Kurso hasieran eginiko eskolako bazkaria

■ AITXURI HERRI ESKOLA



ELKARRIZKETA

Mila Alustiza

ARAKAMANeko MILAK AZKEN IKASTURTEA AITXURIN



Mila, nolakoak dira zure eskolako lehenengo oroitzenak?

Lehenengo, Antiguoko Matia eskolan ibili nintzen. Pila bat ginen gelan, txiki eta handi. Gero handik, 10 urterekin, Zegamara etorri nintzen eta San Pedroko goiko ermitan zegoen eskolan jarraitu nuen. Ondoren, San Pedroko beheko eskola eraiki zen eta 14 urtera arte bertan ibili nintzen. Orduko oroitzenak oso onak ditut. Ezpaleotik Kobarainoko umeak biltzen ginen eskola hartan, irakasleak kanpotik etorritakoak izaten ziren eta dena gazteleraz ematen genuen. Irakaslea ia urtero aldatzen zen eta bakarria izaten zen guztiontzako. Irakasle batzuekin Espainiako bandera igo eta “Cara al Sol” kantatzen genuen.

Zergatik ikasi zenuen magisteritza?

Gure etxean “Maestra zamorana” bat zegoen, Julia Lorenzo Sastre, eta hark konbentzitu zituen nire gurasoak

ikasketak egiteko. Berak preparatu ninduen batxilerra egiteko eta Ingreso eta 1. maila Oñatin egin nituen. Ondoren irakasle eskolako bidea hartu nuen umeak gustuko ditudalako.

“
10 urtetatik 14era San
Pedroko eskolan ibili
nintzen
”

Nortzuk izan ziren zure lehenengo irakasleak?

Magisterio ikasten ari nintzela partikularrak eman nituen Zegaman. Bukatu ondoren Errenterian egin nuen lan urte bete eta gero bederatzi urte ibili nintzen Beasaingo

Lizeoan. Handik Zegamako eskolara etorri nintzen.

Zergatik aldatu zinen Beasaindik hona?

Orduan osatu berria zen Herri Eskola hemen eta Juntak eskatu zidan ia herrira etorriko nintzen eta, horrelaxe etorri nintzen. Poliki-poliki eta konturatu gabe 26 urte beteko ditut hemen.

Ama izatea eta kanpoan lan egitea, erraza al da?

Ez, ez da erraza baina ilusioarekin antolatu egiten dira gauzak eta, gainera, laguntza ere izan nuen umeak zaintzeko: gurasoak, Maixabel, Joxepa...

Zer da gehien aldatu dena irakaskuntzan zuek daramatzazun 36 urteetan?

Hasieran lan asko egiten genuen eskuz fitxak prestatzeko, “multikopista” zela, “kola de pescado” zela... Gaur egun, materiala errazago eskuratzen dugu klasea aurrera eramateko, fotokopiagailuak eta ordenagailuak ditugulako eskolan.

Bestalde, metodologia ere asko aldatu da, ikasleek askoz ere protagonismo gehiago daukate orain eta gelan ikasleek egin behar duten lana bideratzeko, denbora askoz gehiago eskaintzen diogu prestaketari.

Ez dugu ahaztu behar, irakaskuntza gune aproposa dela gizarteak dituen hainbat zeregin burutzeko eta, honek, presio handia eragiten dio eskola, ikasle eta irakasleari.



Mila eta bera anaia Juan Jose eskolan



San Pedroko eskolaren aurrean Mila bere ikaskideekin



Ikasleekin eginiko irteera batean

Urte hauetan zehar formakuntza ezberdinak egin dituzu, hauen artean psikomotrizitatea, eta honek eskolarako aldaketa suposatu du.

Bergarako UNEDen 2 urteko ikastaroa egin nuen psikomotrizitateko espezialitatea lortzeko. Praktikak eskolan bertan egin nituen eta UNEDEko irakaslea bertara etortzen zen saioa gainbegiratzera.

Psikomotrizitate saioetan umeen emozioak eta sentimenduak mugimenduaren bidez adierazten dira. Saio hauek aukera ematen dute umea gehiago ezagutzeko eta laguntzeko. Aitxurin neu hasi nintzen saioak egiten 90-91 ikasturtean. Baina berehalaxe hasi ziren Haur Hezkuntza eta 2. maila arteko tutoreak mundu honetan sartzen eta praktikan jartzen. Une honetan ere jarraitzen dugu hilero bilduz saioak errebisatzen, artikulatu berriak irakurri eta eztabaidatzen, gure kezkek argitzen, eta antolatzen diren psikomotrizitateko jardunaldietan parte hartzen.

Uste dut Zegamako eskolan denetik egitea tokatu zaizula.

Ba, bai. Tutore izan naiz 4 eta 5 urtekoekin eta Lehen Hezkuntzan berriz, 3. mailatik 8. maila arte....Ikasleekin esperientzi berriak probatzea gustatu izan zait, naturarekin kontaktuan ibiltzea, irtenaldiak egitea... Zuzendari eta ikasketa-buru ere izan naiz. Eta zer gehiago nahi duzu esatea, ba?... Denetik. Hala eta guztiz ere, oso gustura egin dut lana Aitxurin.

Herria eta bere bazterrak oso ondo ezagutzen dituzu eta gida lanetan ibili zara beste irakasle eta ikasleekin.

Bai eta gustura aritu naiz gainera! Lehen esan dudan bezala, natura oso gustuko dut, Zegamako istorio zaharrak, bertako ohiturak, animaliak, landareak... honetan maisu trebea aita izan dut eta berarengandik ikasitakoa oso baliagarria izan zait. Eskolan neu naiz zaharrena eta arlo hauetan behintzat hainbat argibide ematen saiatu naiz.

Zer aholku emango zenioke gaur egungo irakasle berri bati?

Lehenengo esango nioke pazientzia izateko, gogoz lana egiteko eta umeak entzun eta maitatzeko. Eta, oso garrantzitsua, lankideekin harreman ona izatea. Nik lagun asko egin ditut urte guzti hauetan eta pentsatzen dut betirako izango direla.

Bestalde, ikasleengandik asko jaso dut, gelan sartu orduko problema guztiak ahazten ditut eta umeen bizipoza jasotzen dut.

Zer asmo duzu hemendik aurrera? Zer egin nahian zabilta?

Lehenengo niretzako eta nire ingurukoentzako denbora hartu. Ondoren? Neure burua ezagutzen dut eta badakit ez naizela geldirik egongo. Irakurtzea, ibiltzea, gauza berriak ikastea... gustuko ditut eta tartean-tartean bidaiaren bat edo. Lehen aipatu dudan bezala familia eta lagunekin egoteko patxada gehiago izango dut.

Eta hemendik aurrera zer? Gure landareak eta loreak zeinek landatu eta zaindu behar ditu? Irteeretan zeinek erakutsiko dizkigu zuhaitz eta landare ezberdinen izenak? Eta inguru honetako istorio eta kontakizunak?



Mila Aitxuriko ikasle batzuekin

Zeinek bultzatu behar ditu proiektu berriak? Asmoa izango duzu bada, noizik eta behin eskolara etorri eta ogia eta gazta egiteko? Aaa, eta ez ahaztu udaberriko Murgizelaiko festan txistorra egitera etortzea!

Lasai, etorriko naiz..., saltsan ibiltzea gustatzen zait eta!



lhauteri egun batez Mila ikaskideekin



Mila ikasleei ogia nola egiten den irakasten



Psikomotrizitate gelan haurrekin

■ TOBERA MUSIKA ESKOLA



Musika, zuk bezala, maite dugulako. Musika, zuk bezala maite dugulako.

Musika dugu maite. Eta izugarri behar du izan; bestela, nekez ulertzen baita TOBERA Musika-eskolaren existentzia bera. Harridura eragiten du gure ereduak, izan ere, hara gako batzuk: hasteko, errepara diezaiogun TOBERAren jarduera-eremu geografikoari. Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloa landa-izaerako populazio-gune sakabanatu eta txikiak dira. Herriok, ozta-ozta gaintzen ditugu 3.000 biztanleak. Masa kritikorik ba al dago eskaintza zabaleko musika-eskola den TOBERAri eusteko? Hori galdetzen digutenean, zeharka erantzuten diegu: herri bakoitzak bere aldetik jardunda, zalantzarik gabe, ezinezkoa litzatekeela.

Ez hori bakarrik, 3.000 biztanle horiek 63,27 km²ko zabalera duen eremuan bizi gara gainera (53,12 biztanle/km²). Aipa dezagun, bestalde, herri mugakideak izanik ere, herri-kasko bat eta gertuenekoa 5 bat kilometrok bereizten dituztela. Eutsigarria al da baldintza hauetan TOBERAren pareko zerbitzu bat?

Aldekoa eman ez dezakeen egoera izanik ere, horixe da aldi berean TOBERA Musika-eskola indartsu eta sinesgarri egiten duen errealitatea. **Zentralizazioan** beharrean, gurea bezalako musika-eskola batek ispilu horretan ikusi behar duela bere burua pentsatu eta ulertzen dugu. Zailtasunak zailtasun. Dagokion testuingurura moldatu eta egokitu behar du ikastetxeak eta bere hezkuntza-proiektuak nahiz barne-antolaketa orokorrak, alderantzizkoa ez baita gertatuko.

Eta horretan ari gara etengabe. Guraso partaideak, ikasleak, udalak, eskolako langileak... Musika dugulako maite. Bai. Izugarri.

Ekintzak nahi eran:

Hasierako multzo batean kokatuko genituzke, adibidez, eskolak urtarilaren 5 iluntzero antolatzen duen Erregeen Zamalkada, apirilaren 11ko Erlezain-egunean arratsaldez ibilitako trikitilari eta pandero bikotea, maiatzaren 30eko lore-sortaren ematea Idiazabalgoen erromesaldian, festetako partaidetzak goizeresi eta buruhanditan, arku-egiteak egun seinalatueta, urriaren 20ko *Aizkorriko Ataria* interpretazio-zentroaren inaugurazio-ekitaldiko partaidetza, eta beste asko.

Musika-hezkuntzaren praktikari propioagoak zaizkion ekintzen markoan, berriz, atargabekoa izaten jarraitzen du eskolaren jendaurreko musika-jarduerak. Otsailaren 6 eta 7ko asteburuan Andoaingo *Bastero* Kulturgunean jendetza bildu zen piano-jaialdiaren inguruan, bosgarren urtez. TOBERAko ordezkariak ere ez zuen huts egin, ez presentzian, ez lorpenetan. Larunbateko saioan Álvaro Ramos ikasleak brontzezko domina eskuratu zuen eta Maddi Ormazabalak zilarrezkoa. Iganeko saioan, berriz, Idoia Zubizarretak urrezkoa eskuratu zuen, Josune Zubizarretak zilarrezkoa eta Libe Galdosek eta Nerea Galdosek osatutako bikoteak urrezkoa. Herriarren aurrean martxoaren amaieran egin zuten denek erakustaldia, entzunaldi-zikloaren barruan.

TOBERA Musika-eskolako ikasleek musika-hizkuntzako eskoletan lantzen dituzten kontzeptu, teknika eta lan-prozedurak ezagutaraztea garrantzitsua da, hala nahi duenak, eskola hauetan zer eta nola ikasi eta irakasten den jakitea izan dezan. Helburu horrekin, martxoaren 16an, musika-hizkuntzako 207. gelako atea zabalik egon ziren egun osoan, goiz eta arratsalde. 5 urte dira Zegaman esperientzia honi ekin zitzaionetik.

Musika-tresna bakoitzak bere berezitasunak ditu. Horiek agerian uzteko, entzunaldi-zikloa antolatu zen martxoaren 4. astean. Piano- eta akordeoi-ikasleen entzunaldia martxoaren 22an izan zen Aitxuriko eskulanetako edo preteknologiako gelan (104. gelan). Txistuko ikasleena martxoaren 23an Zegamako Kultura-etxeko Oria aretoan. Eta gitarra eta trikitixa/panderokoena martxoaren 25ean Zegamako Kultura-etxeko areto berean.

Martxoaren 26 iluntzean iritsi zen urteko saiorik bikainenetakoa. Tradiziozko koreografiak zein gaur egungoak, narrazioa, musika eta antzezpena uztartzen dituen ikuskizun handia eta berritzailea eskaini zuen TOBERA Musika-eskolak egun horretan *Akelarrean* izenburupean, erabateko arrakastarekin. Taula gainean hamaika dantzari nagusi izan ziren, une jakinetan 40 dantzari izateraino, eta guztira 50 laguneko lantaldeak atera zuen aurrera ikuskizuna, txalapartari, txistulari, bertsolari, trikitilari, aurkezle eta abarrek lagunduta.

Sorginen eta herritarren arteko harremanak ardatz dituen ordubeteko kontakizun dramatizatuan ikuskizunerako propio prestatutako dantza-erak erakutsi ziren, ikasleen eta dantzako irakaslearen artean maisuki osatutakoak. Aretoa lepo bete zen. Goierrri Telebistak ordutegi nagusian estreinatuta eman zuen saio bereziaren grabaketa gero, eta bere webgunean ere zintzilikatu zuen, ia 400 ikustaldirekin bideo ikusien artean kokatu delarik.

Zegamako dantza-taldeak bultzatu eta martxoaren 26ko emanaldiak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko, zozketa-errifak jarri ziren salgai otsailaren hasieratik aurrera. Saldutako 390 zenbakietatik Zegamako Ainhua Urbizu Urreagarena atera zen bigarren itzulian saritua, eta Gabiriako *Korta Mariskeria* itsaski-jana edo mariskada irabazi zuen.

Apirilaren 25ean Legazpiko egun osoko Dantzari Txiki Egunean izan ziren Zegamako dantza-taldeetako lau.

Inguruko musika-eskolekiko harremanak estutzeari begirako dinamikaren barruan, kate-begi bat gehiago erantsi zaio 2010ean Elkartruke-sortari. Urnietako *Lourdes Iriondo* Musika-eskola publikoarekin egin da tratua, eta lehenengo emaitza apirilaren 23an plazaratu zen. Arratsaldeko 6etan, herriko plazan hasita, kalejira eskaini zuten Urnietako Musika-eskolako ikasleen Bandak eta trikitilariak. Erdiguneko kaleetan buelta egin ondoren, Aitxuri Herri-eskolako gimnasiorako bidea hartu zuen musikari-desfileak, han arratsaldeko 6:30ean kontzertu bateratua hasi baitzen. Musika-emanaldia amaituta, afari-merienda egin genuen denok elkarrekin.



Bakarlarrien protagonismoa eta talde-praktika uztartzen dira emanaldietan.



Legazpiko *Dantzari Txikin* 40 zegamarrek hartu zuten parte.

Ekainaren 1ean taldeak protagonista izan zituen ekitaldia aurkeztu zuen TOBERAK Urrietako *Sarobe* antzokian. Mikel Laboaren omenezko azken zatia ere atondu genuen saio horretarako, Laboaren abesti kuttunen koreografiak, ahotsak, instrumentazioak... sartuz.

Ekainaren 5ean Pasaiaiko Akordeoi-topaketan izan ziren Zegamako 2 akordeoi-jotzaile TOBERA ordezkatzuz. *Illumbe* Akordeoi-orkestraren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako topaketan Euskal Herriko 21 musika-eskolatako 300dik gora ikaslek hartu zuten parte, eta horien osagarri abesbatzak ere aritu ziren.

TOBERA Musika-eskolaren 2009/2010 ikasturtea hainbat emanaldik itxi zuten. Horien artean, ekainaren 15ean Zegamako gimnasioan kontzertua eta merienda egin ziren. Realaren igoera ospatzeko 2 egun lehenagotik egiten ari ziren festa eta ekimen guztiei ere batu zitzaizkien Zegamako ikasleak, futbol-talde txuri-urdinaren mendeurreneko ereserkia egitarauan barneratuz, dozenaka ikasleren ahotsetan. Kontzertu honen hasieran, gainera, iPod/mp3/mp4rako diseinuzko bozgorailu baten zozketa egin zen. Eskolaren webgunean (www.tobera.org) irudi jakin bat topatzeko lehiaketan parte hartu eta erantzun zuzena eman zutenen artean zotz eginda, Nerea Galdos zegamarra irten zen irabazle.

Ekainaren 17an euskal dantzen saioa egin zuten Zegamako 5 dantza-talde txistulariekin batera gimnasioan. San Joan bezperako suaren inguruan ere, zortzigarren urtez jarraian, dantzariak eta

txistu-banda izan ziren gau magikoari beren ukitua ematen. Eta San Bartolome egunean ere ez zen beren parte-hartzea falta izan, azken 9 urteetan izan den eran.

Irailean hasi zuen TOBERA Musika-eskolak bere 24. ikasturtea. 2010/2011 ikasturtean % 30etik gorako hazkundea izan du matrikulazioak iazko datuekin alderatuz gero. Alegia, 2009/2010 ikasturtearekiko ia heren batean biderkatuta ari da lanean Zegama, Segura eta Zeraingo musika-eskola. Gure musika-eskolaren ikasketa-plangintza eguneratu zenez geroztiko matrikula-kopuru handienekoa da aurtengoa, eta eskolaren irismena 110 familia baino gehiagotarakoa da honezkerok.

Ikasturte berriko aurreneko ekintza musikarion zaindariaren omenezkoa izan zen. Santa Zezilia azaroaren 18an ospatu genuen. TOBERA Musika-eskola bazkide duen *Euskal Herriko Musika-eskolen Elkarteak* antolatutako 'Musikalean' ekimen jendetsuarekin egin genuen bat. TOBERAK, Zegamako kaleetan kalejira antolatu zuen Zegama, Segura, Zerain eta Ormaiztegi kriktilari eta pandero-joleekin, eta baita kontzertua ere gimnasioan.

Ekintzak gora behera, berrietasun-proiektuak ere protagonista izan dira 2010ean. www.tobera.org webguneak duen baliorik handiena ez dago edonoren bistara, baimendutako erabiltzaileenera baizik. Izan ere, www.tobera.org webguneak ikasleen ebaluazio-prozesua kudeatzeko barne-erabilerako aplikazio



Kulturaren suspertzaille da TOBERA. Zegaman Banda zegoen garaia oroimenean.

berritzaile 'gordetzen' du, TOBERArako berriaz diseinatutakoa eta merkatuan parekorik ez duena.

Hitz batean, ikaslearen historialaren jarraipen zehatza eta integrala egiteko modua jartzen du eskura aplikazioak. Begi-kolpe batez, nahi erara datuak galbahetik pasaraziz eta edonondik egiteko moduan jarri ere. Erabiltzaile arruntak ere –hau da, baimendua ez denak–, ordea, pixkanaka gero eta eduki osatuagoa topatuko du. Eta 2011n zehar, gainera, guztiz itxuraberrituko da. Edonola ere, egun ere badu zer kontsultatua, esate baterako, 1.100 argazki baino gehiagoz osatutako funtsa baitu erabiltzailearen eskura jarrita webguneak, ia 40 album desberdinetan antolatuta.

Inbertsioetan, halere, ez da hori TOBERAK eskuartean duen bakarra. Bere jabetzakoak diren musika-tresnak zaindu eta ugaritzeaz gain, azpiegiturak hobetzeko ahalegin gehigarria ari da egiten eskola, Eusko Jaurlaritzaren aparteko diru-laguntza bat baliatuz horretarako: leihoak atera, dantzarako ispilua jarri, soinu-ekipoa erosi, dantza-arropa berriak egin, e.a. Zure konfiantzari tamainan erantzun nahi diogulako. Funtsean, musika maite dugulako. Musika maite dugulako. Izugarri. Eta zuk eta guk musika maitatzea modu berean ulertzen dugulako.

Iker Gómez de Segura
TOBERA Musika-eskolako Zuzendaria



Musika-eskolak nabarmen igo du bere irteera-kopurua.



Ikasle eta ikusle ugari. Biak dira beharrezkoak. Eskerrik asko!

■ ORKATZ ABESBATZA



2009ko abenduan eginiko XXV. Eguberri Jaialdi arrakastatsu bezain kidekorrean izandako esperientzia ederrek eraginda, aurtengo urtea guztiz indarberriturik hasi genuen. Horrela, Orkatz Txiki abesbatzak Urte Berri eguneko mezan abestu zuen Zegamako San Martin parrokan.

EGUNEROKO LAN ISILA, URTEKO UZTAREN ATARI

Hainbat giza ekintzetan, emaitzen aurretik prestaketa eta saiakera daude. Lege honek abesbatzetako lanari ere bete-betean eragiten dio. Honela talde bakoitzak astean behin gutxienez (eta aldizka, beharraren arabera, bietan) egiten dituzte entseguak. Lan isila bezain beharrezkoa da. Eta, beharbada, hau da gure elkartean egiten dugun ekintza garrantzitsuenak: urtean zehar herriko 40 haur zein gaztetxoek eta 25 helduek gustoko duten kultura jardunean sakontzeko eta trebatzeko biltzea eta elkarrekin lana egin eta harremanak izatea.

Hau guztia bideratuz, bi abesbatzetako zuzendari lanetan Jabier Otaegi Goia aritu da aurtengo urte osoan zuzendariak egiten duen lana txalagarria da. Orkatz abesbatzako partaideak gainera ahots teknika saiak egiten ditugu urtean zehar Izaskun Arruabarrena sopranoarekin.

GIDA BATZORDEAN ALDAKETAK

Izkutuko lanen artean, elkartean eta abestaldean funtzionamendurako eta ekintzen antolaketarakoak daude.

Horretarako egiten dugun Batzar Orokorra, otsailaren 6an ospatu genuen aurtengo 2010eko plangintza eta aurrekontua onartzearekin batera, lan hauen guztien ekintzaile eta ardura nagusi den Gida Batzordeko diruzainaren hautaketa genuen egiteko eta lan honetan Jaione Gorrotxategi Arrietak ordezkatu zuen Asun Aguinagalde Larrañaga. Jaionekin batera, Gida Batzordea Jabier Otaegi Goia zuzendariak, Ainitze Azurmendi Alustiza presidentea, Izaskun Igoa Arizkorreta idazkariak eta Jesus Mari Larrea Arana bokalak osatzen dute.

OHITURAZKO KANTU ESKEAK

Herriko beste zenbait erakunde, elkarte eta taldeekin batera, usadioari jarraituz, otsailaren 4an Santa Ageda eskean aritu ginen herritarrekin batera. Halaber, abenduaren 24an iluntzean Olentzero kantu eskea eginez herritarrekin bat egin genuen.

EKINTZAK ETA KONTZERTUAK

Egindako lana plazaratzeko hainbat ekintza eta emanaldi egin dugu:

- Martxoaren 27an XVI. Kantu Festa ospatu genuen. Berrikuntzen artean, iluntzean pintxo eta txokolate beroarekin lagunduta egindako karaokea izan genuen.
- Aste Santuarekin batera, apirilak 2an nagusiek Ostiral Santuko ospakizunetan abestu genuen.

- Orkatz Txikikoek, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako IV. Haur Abesbatzen Tailerlean parte hartu genuen Hondarribiako aterpetxean apirilak 17-18 asteburuan. Lanez betetako asteburua izan zen, guztira Gipuzkoako 7 abesbatzetako abeslariak egon ziren eta igandean, kontzertu bat eskeini zuten guztiek Hondarribiako elizan.

- Zegamako parrokan, Orkatz Txikikoek maiatzaren 9an abestu genuen Lehen Jaunartzeen ospaketan.

- Ikasturteari amaierabikaina emanasmaz, Orkatz-kideok Gernikan pasatu genuen ekainak 12 eta 13ko asteburua. Gure herrian bikario izandako Pello Urriolabeitia farntziskotar laguna egun parroko den Gernika-Lumoko San Frantzisko elizan eskaini genuen kontzertua eta ikasturtean zehar egindako lana modu ederrean aurkezteko aukera izan zen.

- Orkatz Txiki ere ez zen gutxiago izan eta ekainak 19 eta 20an Donibane Garaziko abesbatzarekin elkartrukea egin genuen, hango abesbatzarekin batera kontzertu bikaina eskeiniz.

- Oporren aurretik, Orkatzkideok adinekoen festa eguneko meza ospakizunetan abestu genuen uztailearen 11n. Abuztuaren 24ean, San Bartolome egunez elkartu ginen berriro ere Orkatzeko partaideak, Zegamako zaindariaren egunean mezetan abestuz.

2010 – 2011 DENBORALDIAREN HASIERA

Irailean hasi ginen berriro ere bi abesbatzetako partaideak entsaioak egiten, urte amaierako ekitaldietarako prestatzen.

- Honela, Orkatz Txikikoak 42. Tolosako abesbatzen lehiaketara joan ginen haur koruen nazioarteko lehiaketa saioa ikustera urriak 31an. Azaroak 6 eta 7an berriz, Orkatz Txikiko abeslariak Barriako



Orkatzekoak Gernikara egindako irteeran



Orkatz Txikikoak beste abesbatza batzuetako partaideekin Hondarribin

aterpetxera joan ginen; kantuak ikasteaz gain, talde giroa suspertzeko asteburu bikaina igaro genuen.

- Bi abesbatzak elkarrekin abestuz, azaroak 20ean San Martin parrokan, Santa Zeziliaren omenez kontzertu bat egin genuen.

- Abenduaren 25ean, Eguberri eguneko mezetan abestu genuen Orkatz Abesbatzakoak.

- Gainera, herrian ematen dugun kontzerturik garrantzitsuena izan dugu abenduaren 26an, hain zuzen ere XXVI. Eguberri Jaialdia. Aurtengoan gurekin

batera musika lirikoaren munduan bakarlarri bezala lan bikaina egiten ari den eta zegamar jatorria duen Andeka Gorrotxategi Azurmendi tenore gaztea izan dugu protagonista.

- Gabon egun hauen inguruan, urtero bezala, Orkatz Txikikoak Segurako eta Orkatzekoak Beasaingo zahar egoitzan izan gara bertakoeekin arratsalde bat pasa eta elkarrekin gozatu asmoz. Gainera aurten Orkatz Txikikoak Zegamako Eguneko Zentruan ere izan dira kantari, bertakoei gabon kantuak eta zorion asmoak opatuz. Bisita hauetan, olentzero eskean jasotako diruarekin erositako

opari bana ematen diogu zentru hauetan daudenei.

ESKERRIK ASKO

Azkenik, aurtengo errepasso azkar honetan gure elkarteari hainbat laguntza eskaini diozuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuek ere gurekin zaudetela bai baitakigu eta guretzat zuek ere Orkatz Abesbatza baitzarete. Bide batez, badakizue, kantatu eta gozatu nahi duen orok atea zabalik ditu bai Orkatz eta bai Orkatz Txiki abesbatzetan. Eskerrik asko denoi eta Urte Berri On!

JUBILATUEN ELKARTEA

Kaixo herritarrok, 2010eko urtekari honetatik agur bat herritar guztioi Jubilatuen elkarteko partetik eta eskerrak eman bereziki herriko gazteei eta haurrei elkarrekin topo egiten dugunean egiten diguzuen harrerarengatik, ez dakizue zenbait pozten gaituen horrek eta zein onak diren guretzat zuen maitasun keinuak, jarraitu horrela!

2009 urtetik 2010era bitarte honetan, ez dugu gure jarduna asko aldatu. Hauexek dira 2010ean zehar burutu ditugun ekintza nagusiak:

Jubilatuen gimnasia taldea:

Jubilatuen gimnasia talde bat dago eta hau gorputzarentzat onuragarria izateaz gain, gure espirituarentzat ere aberasgarri da, ekintza hau gure elkargune ere bai baita.

Bestelako irteera eta ekintzak:

Urtarrilaren 5ean ospatzen den Erregen Kabalgatan erabiltzen diren arropak Jubilatuen Elkarteko kideek josten ditugu.

Otsailaren 11an, Loudesko Amaren eguna ospatu genuen elkartean. Bittoriok meza eman zuen elkartean bertan eta ondoren, txokolate beroa banatu genuen bertaratu zirenen artean.

Martxoaren 9an, Oiartzungo Aduriz sagardotegira egin genuen irteera. Ekintza hau, urtean zehar antolatzen ditugun beste batzuen antzera irekia izan zen, hau da, ez zen jubilatuentzat soilik izan, beste herritarrek ere aukera izan zuten ekintza honetan parte hartzeko.

Apirilaren 15ean, iazko urteko bideari jarraituz Iratxera egin genuen irteera eta egun paregabea pasa genuen.

Maiatzaren 17, Errioxa aldera egin genuen bidaia, bertan Arnedo eta Azagra bisitatu genituen eta bazkaria, Azagra

“Hostal Venecia”n egin genuen.

Uztailaren 11an urtero ohi bezala Jubilatuen Bazkaria ospatu genuen

frontoian eta uztailaren 22an Nafarroako Baztan bailara aldera egin genuen txangoa. Bertan, Lesaka eta Bera herriak ezagutu genituen besteak beste.

Abuztuaren 27an, San Bartolome jaietan, azken urteetan egin dugun moduan, Paella lehiaketan parte hartu genuen. Aurten paella prestatzeko ardua izan duten bi bikoteak hauek izan dira; alde batetik Maritxu Galarraga eta Enkarna Irastorza eta bestetik Jabier De Prado eta Begoña Etxezarreta. Aurten ere, 2. saria ekarri digute Jabier eta Begoñak, bejon deiela!

Irailaren 17an beste irteera bat egin genuen, oraingoan Gipuzkoara eta Zarautz, Orrio eta Donostian ibili ginen. Bazkaria, Aiako Atxerri jatetxean egin genuen.

Urriaren 17an, Jubilatuen Elkarteko zenbait kidek Beasaingo ibilaldi neurtuan parte hartu zuten, hauek dira aurten Beasainen izan direnak: Juan Mari Ormazabal, Patxi Berasategi, Ramon Arrizabalaga, Enkarna Irastorza, Joakin Irastorza, Pako Irastorza, Jesus Telleria eta Begoña Etxezarreta.

Azaroaren 27an berriz, Jubilatuen elkartean bertan urteroko Gaztaina jatea burutu dugu.

Abenduaren 13tik 18ra bitartean, Kultura Astea antolatuko dugu elkartean. Bertan, mahai jokoak, bingoa... eta beste zenbait ekintza antolatzekotan gara eta ezin ahaztu Santo Tomas egunean burutuko dugun txistor jatea ere. Egundak honetan



Herriko adinekoak jubilatuen bazkari egunean

gainera, 2010ean 78 urte bete dituztenei saski bana oparituko zaie. Aldi berean, aurreko urteko ohiturari jarraituz, Zahar Egoitzetan dauden herritarrei bisita egingo diegu Gabon Jaiak alaitze aldera.

Jakina denez, urtean zehar burutzen ditugun irteera eta ekintza hauek, oso lagungarri ditugu hirugarren adinekook geure elkarbizitzarako. Egundak oso atsegin-garri izaten ditugu benetan!

Udalari eskerrak eman gabe ere ezin gelditu, izan ere, oso ongi hornituta dugun egoitza hau gure eskura jarri baitu eta honetaz gain, urtean zehar egiten dugun irteera bateko autobusaren gastuak ere bere gain hartzen baititu. Eta eskerrak eman halaber, Udalak Jubilatuen Egunean Ostatutik zerbitzatuta ematen digun bazkari ederrarengatik.

Aipamen berezia aurten, hain maitea dugun eta irailaren 1ean 100 urte bete zituen Joakina Aranari (Tomas Zubizarretaren alarguna) ere, emakume alaia eta baiko-rra. Jubilatuen elkartekoak ere bertan izan ginen egun horretan eta ordulari bat oparitu genion elkartekoon izenean.

2010. urteko laburpen hau egitean, go-goan izan ditugu aurten gure artean joan zaizkigunak ere, batzuk elkarteko bazkideak zirenak eta antolatutako ekintza askotan parte hartu zutenak. Bakean atsedan har dezatela.

■ ELKARTU NAHI TXIRRINDULARI ELKARTEA

Elkartu Nahi Txirrindulari Elkarteak, aurreko urtean bezala, bi txirrintu proba antolatu ditu, XXVI. Elkartu Nahi Saria eta LXXIX San Bartolome Saria. Biek ala biek, jende ugari ekarri zuten Zegamara eta beste behin ere argi gelditu zen bi proba hauek jendartean duten oihartzuna.

XXVI. ELKARTU NAHI SARIA

Ekainaren 6an, Kirolari Ateak Zabalik eguna ospatzen genuen egun berean, Elkartu Nahi Saria ospatu zen Zegaman, egun ezin aproposagoa kirol proba hau ospatzeko!

Proba honetan, 67 txirrindularik hartu zuten parte, eta 72km luze egin behar izan zituzten Otzaurte mendatean ezarri zen helmugara iritsi aurretik. Ia gehienek lortu bazuten ere proba amaitzea, 16ek ez zuten Otzaurteko helmuga zeharkatzerik izan.

Lasterketan azkarrena eta Otzaurteko helmuga zeharkatzen lehena Aviron Bayonnais taldeko Loic Chetout izan zen eta 2h 01min eta 12s behar izan zituen 72 km-ak egiteko. Bigarren postuan eta

irabazlearengandik 15 segundura, Lescar Velo Sprint taldeko Karl Baudron izan zen eta hirugarren postuan Caja Rural taldeko Jon Ander Insausti bigarrenaren denbora berean.

Mendiko saria berriz hirugarren sailkatuarentzat izan zen, Jon Ander Insaustirentzat alegia eta bigarren eta hirugarren postuak Loic Chetout eta Asier Unanuerentzat izan ziren hurrenez hurren.

Taldeko sailkapena berriz, talde euskaldun batentzat izan zen, Caja Ruralentzat alegia eta bigarren eta hirugarren postuak Aviron Bayonnais eta Sumofic taldeentzat izan ziren.

LXXIX SAN BARTOLOME SARIA

San Bartolome jaietako igandean berriz, ohikoa denez, San Bartolome Saria ospatu zen jaietako egitarauaren barruan. Goizeko 10etan eman zitzaion probari hasiera eta 117 Km burutu behar izan zituzten proban parte hartu zuten 95 txirrindulariek. Hauetatik 67 izan ziren helmugara iritsi zirenak eta ia hiru ordu txirrintu gainean ibili ostean,

Jose Antonio Cerezo galiziarra izan zen Zegamara iristen lehena. Bigarren postuan Caja Rural taldeko Pablo Torres izan zen eta hirugarren postuan beste galiziar bat, Alejandro Paleo hain zuzen ere.

Mendiko saria, 11 punturekin Lizarte taldeko Martin Iraizozentzat izan zen, bigarren postua Alejandro Paleok berak lortu zuen 7 puntu batuz eta hirugarren Pablo Torres izan zen 2 punturekin.

Taldeko saria, lasterketa honetan ere, Caja Rural taldearentzat izan zen.



Festetako umeen txirrintu proba antolatzen

■ AIZKORRI FUTBOL TALDEA



Infantilen taldean, 6 zegamar ditugu: Xabier Azurmendi, Joseba Saez de Maturana, Andoni Saez de Maturana, Alvaro Ramos, Eukén Olaziregi eta Lander Mendizabal.



Kadeteen taldean bi zegamar daude: Lander Irastorza eta Iban Matxinandiarena.



Futbol eskolako partaide diren 35 haurretatik zenbait zegamarrak dira: Hodei Barbarin, Alain Lucas, Iñaki Galdos, Bruno Lopes, Gerardo Ramirez, Gorka Arizkorreta, Aitor Barbarin eta Unai Berasategi.

Gure klubaren 25. urteurrena ospatzen dugun honetan, albiste onekin gatoz. Joan den urtean mutil infantilen taldea berreskuratu ondoren (txapeldunen fasean parte hartu zuten) aurten beste talde bat berreskuratu dugu, mutil kadeteena hain zuzen ere eta horretaz gain, 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutilen futbol

eskola jarri dugu martxan. Eskola honen helburuak anitzak dira, hauen artean taldean lan egiten erakustea, komunikazioa, arauetikiko errespetua sustatzea, arazoak konpontzen jakitea, aurkarietikiko eta ezberdinak direnekiko errespetua lantzea, irabazten eta galtzen ikastea... Ezin aipatu gabe utzi, Aitzgorri futbol tal-

dean badela infantil mailako nesken talde bat ere eta beraz, aukera honetaz baliatuz, Zegamako neskei bertan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu. Aitzgorri-Goierri futbol taldeari buruzko informazioa eskuratu nahi izanez gero, www.goierri.es web orriara jo dezakezue.

KZ GUNEA



2001 urtean Eusko Jauriaritza eta udaletxeen ekimenez gaur egungo KZgunea sareak lehen pausoak eman zituen. Sare hau martxan jartzeko arrazoi nagusienetako bat Konekta Zaituz dirulaguntza izan zen. Honen bitartez Euskal Herriko etxe askotara Interneterako sarbidea iritsi zen, izan ere merkatuan baino prezio merkeagoan eskaintzen baitzen aukera hori. Hala eta guztiz ere, ikerketa baten ondoren ikusi zen nahiz eta Euskal Herriko etxe asko Internetera konektatuak egon, herritar gutxik erabiltzen zutela Interneta, askok erabiltzen ez zekitelako. Arrazoi hau dela eta sortu zen gaur egun Euskal Herri osoko herrietara zabaldutako sarea. Bertan herritarrei Internet erabiltzen irakastea zen helbururik garrantzitsuen hasiera batean. Gaur egun zerbitzu horretaz gain beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, IT txartela ateratzeko aukera, irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei web orrialde bat egiteko aukera, enpresa txikien kudeatzaileei zuzendutako ikastaro bereziak...

Zegaman 2002ko urriaren 16an ireki zen KZgunea, Kultur etxean hain zuzen ere. Momentu hartan egunero bertan tutore bat egoten zen 20 orduko Internetari buruzko ikastaroak eta mintegiak ematen. Ikastaro hauetan 54 pertsonak hartu zuten parte. Horietatik %74 emakumezkoak ziren eta %26 gizonezkoak.

Gaur egun nahiz eta egunero ez egon KZgunean tutore bat, astean behin astearteetan etortzen da erabiltzaileek dituzten zalantzak argitu eta mintegiak (gai ezberdinei buruzko ikastaro motzak, ordu bat edo biko iraupena dutenak) ematera. Tutorearen bisita egunei eta mintegiei buruzko informazioa sarrerako iragarkitaulan eta mahai gainean aurkitzen dira

eguneratuta edo www.kzgunea.net web orrian Zentruak/Zegama aukeratu eta bertan agertzen da informazioa.

Baina KZgunearen zerbitzua ez da mugatzen tutorea dagoenera bakarrik. Edozein herritarrek KZgunea erabili nahi badu nahikoa du goizeko 9:00etatik 14:00etara udaletxera joan eta giltza eskatzea, edo 16:30etatik 18:30etara liburutegirajotea. Horibaiaurrez KZguneko erabiltzaile izan behar da. Norbait oraindik KZguneko erabiltzaile ez bada eta bertako zerbitzuak erabili nahi baditu nahikoa du bertan aurkituko duen inskripzio orria betetzea eta atzealdean sinatzea, hori bai 16 urte izatea beharrezkoa da. Honekin tutoreak bere datuak KZgunearen sarean sartuko ditu eta berarekin harremanetan jarriko da erabiltzaile izena eta pasahitza emateko. Aurrez erabiltzaile den pertsona bat KZgunera joan eta ez bada bere datuez gogoratzen Lazkaoko KZgunera 943087929 edo Beasaingo KZgunera 943086987 telefono zenbakietara deitu eta bere NAN zenbakiarekin emango zaizkio.


KZgunearen historia eta erabilerari buruzko informazioa eskaini ondoren gustatuko litzaidake gaur egungo Zegamako KZgunearen egoera zenbakitan adieraztea:

8 urte pasa ondoren Zegamako KZgunean 175 pertsonak eman dute izena. Erabiltzaileen %60 emakumeak dira eta %40 gizonezkoak.

Erabiltzaileen lanbideari buruzko datuak berriz ondokoak dira: %45,73 langilea da, %10,98 etxeandreak dira, %14,63 langabetuak dira, %21,34 ikaslea da eta %7,32 berriz erretiratuak da.

KZguneari ematen zaion erabilera berriz, gehienbat informazioa bilatzeko eta korreo elektronikoa kontsultatzeko izaten da, gaur egungo egoeran lana bilatzeko ere erabiltzen da.


KZGUNeko ERABILTZAILEAK SEXUAREN ARABERA



■ Emakumezkoak ■ Gizonezkoak


ADIN TARTEA	ERABILTZAILE KOPURUA
15-24	37
25-34	32
35-44	35
45-54	38
55-64	10
> 65	12

ERABILTZAILEAK LANBIDEAREN ARABERA



■ Lanetan ■ Ikasleak
■ Etxeko andrea ■ Erretiratuak
■ Langabezian


ADIN-LERRUNA



■ Emakumezkoak ■ Gizonezkoak

KZGUNEAN NABIGAZIOA

Informazioa bilatzeko www.google.com orrialdea da erabiliena. Korreo elektronikoa dagokionez berriz, www.yahoo.es, www.hotmail.com eta www.kzgunea.net orrialdeak erabiltzen dira. Lana bilatzeko www.redtrabaja.es, www.lanbide.net, www.infoempleo.com eta www.infojobs.net. Honetaz aparte atzerritar batzuk beren herrietako albisteen berri izateko ere erabiltzen dute KZguneari eskaintzen duen Interneten nabigatzeko zerbitzua. Azpimarratzekoa da KZgunean ezin dela txateatu, messagerra erabili eta jokuetan jolastu, izan ere ez baita ziberkafe bat.



■ AMEZTI ELKARTEA



2010eko abendua iristearekin batera atzera begirada bat bota beharrean gaude. Egia esan eraman duen abiada ikusita atzoko egunari begira gaudela dirudi.

Urte honetan gure elkartean egin zen lehen ekintza Otsailaren 6an egin zen, elkarteko mus txapelketa hain zuzen ere. Bertan bikote batzuk izan genituen kartetan arratsalde pasa eta hauetatik Igor Elizegi eta Asier Berasategik osaturiko bikotea irten zen txapelkun eta Candido Ocaña eta Joxe Telleria txapelkunorde.

Apirilaren 17an elkarteko batzarra ospatu genuen. Aurten lehendakaria, idazkaria eta bokal bat aldatu dira, Jose Mari Bitartek bere lehendakari ardura Iñigo Aizpolearen esku utziz, Eli Arrietak, bere idazkari ardura Ainhoa Txurrukaren esku eta Joxe Agirrebengoaren ordez Nikolas Zabaleta sartu zen, bokal postuan.

Irailaren 11an, uda bukatu denaren aitzakian, urtero egin ohi dugun bezala

elkarteko lagunarte afaria egin genuen, giro onean igaro zena.

Aurten bigarren aldiz Mus txapelketa azkarra ospatu genuen, Urriaren 23an. Irabazleak Gorka Lozano eta Aitor

Garaiar izan ziren, txapelkun orde bezala Fernando Urbizu eta Joxe Agirrebengoa geratu zirelarik.

Orain arteko ekintza hauez gain, herri mailan ere zenbait ekintzetan parte hartu dugu urtero bezala, sagardo eta sardina jatean, San Bartolometako paella lehiaketan, San Martinetako gazta banaketan... baita Aizkorriko Lagunen egunean egin zen festan ere.

Urtea konturatu ere egin gabe pasatu zaigu. Hurrengo urterako ere zenbait ekintza prestatzen saiatuko gara.

ZORIONAK ETA URTE BERRIO ON ZEGAMAR GUZTIO!!!



Mus txapelketako sarituak: Fernando Urbizu, Gorka Lozano, Iñigo Aizpeolea (Ameztiko lehendakaria), Aitor Garaiar eta Joxe Agirrebengoa

■ AMEZTI MENDI ELKARTEA

Amezti Mendi Elkarteari dagokionez, esan behar aurtengo udaberrian gida taldea berri dugula jende berria sartuz. Maratoiko antolakuntza batzordean buru belarri murgilduta daudenetatik kanpoko jendea sartzea zen helburua.

Ekipo berriak gogotsu ekin dio lanari eta orain urte batzuk egin ohi bezala, berri ere, hilero mendi irteerak antolatzen hasi gara mendizaletasuna dugun herritarrok elkarrekin paisai ikusgarriekin gozatu eta momentu oparoak pasatzeko asmoarekin.

Horrela lehen irteera apirilean egin genuen. 2009an hasiriko bideari jarraituz, Sabiñanigo, Gasteiz eta Zegamako mendi elkarteek adosturiko senidetasuna mantenduz, elkarrekin Sabiñanigo alderantz joan ginen asteburu pasa. Larunbat gaua Pirenarium aterpetxean igaro ondoren, igandean Cotefablo tuneletik abiatu, Erata gaina igaro (2005m)



Amezti Mendi Elkartekoak eta Aitzuri Herri Eskolakoak eginiko ibilaldi batean

eta Gavin-en amaitu genuen, bertan bazkari eder batekin berriro indarrak berreskuratu eta autobusez Zegama Aldera itzuliz. 2011. urtean Gasteiztarren esku gelditzen da irteera honen antolaketaren ardura.

Maiatzean, urtero legez, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren antolakuntzan buru belarri jardun ondoren, Aitxuri Herri Eskolako ikasleek Aratzera zuten irteera aprobetxatuz, elkarrekin joatea adostu genuen. Bertan, Aratzeko puntaren aldamenean dauden "Elur zuloak" izeneko kobazuloa ikusteko aukera izan genuen.

Ekainean Aralar aldera egin genuen bisita. San Migel ondoan dagoen Albi aparkalekutik abiatuz, Aralartik barrena ibili ginen, Igaratzatik bueltan Guardaetxera itzuliz. Irteera honez gain, Udalak antolaturiko Kirol Festa Egunean Elor Txikira irteera ere egin genuen.



Amezti Mendi Elkartekoak mendira eginiko irteera batean

Uztailaren lehen igandean, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatu izaten da eta Amezti Mendi Elkartekoak bertan izan ginen bai Zegamatik oinez edo Aldaolatik joan zirenei gidari lanak eginez. Ohiturari utsiz Aizkorri gainean ez zen kaba faltarik izan.

Uztailaren 24-25ean Pirinioetara antolatu genuen txangoa. Larunbat goizean goiz atera eta Larrañeko (Zuberoa) Erroyemendi gainera joan ginen. Handik Orhi (2018m) tontorra hartu ondoren Iratiko basoetatik zehar itzuli bat emanez, bertako paisai ederrak gozatu genituen. Bertan gaua pasa ondoren, igandean, Holtzarteko zubia, Santa Engrazi herria eta Kakoetako arroillak ikusteko aprobetxatu genuen.

Abuztuko oporraldiaren ondoren, irailean Azpeitiko Izarraitz aldera bideratu genuen brujula, bertan gure probintziako patroien Inazio Deunaren irudiari bisita eginez.

Urrian, gure elkartearen izena duen Amezti mendira egin dugu irteera. Bertan gainera posta-ontzi bat jarri dugu, bertarutzen den edonor bisitarik, non dagoen jakin dezan eta nahi izanez gero bere txartela utz dezan.


Azaroan berriro ere Aitzuriko ikasleekin batera Apeaderotik abiatu eta San Adrianera eramaten gaituen kanalaren bidea egin dugu.

Abenduan berriz, urtero legez, hilaren 17 jarri dugu Federatu Txartelak egin ahal izateko eta aste buru horretan Amezti irteeretan egindako argazkiak jarri dira ikusgai Kultur Etxeko areto nagusian eta urtea ondo bukatu eta elkarrekin brindis bat egin asmoz Aizkorriekin dugu hitzordua 31an.

Bestalde, Aizkorriko Mendi Lasterketa antolatzea izaten da Amezti Mendi Elkartearen urteko ekintzarik garrantzitsuen eta aurreko eguraldia ez dugu eduki gure alde. Egun horretan, hotza euria eta elurra izan genituen lagun eta hala ere eta hemen azpimarratu beharrekoa, 250 boluntariok egin zuten lan esker gaitza.

Amezti Mendi Elkartearen izenean, urte berri zorientzua opa dizuegu herritar guztioi eta 2011 urterako prestatzen ari garen irteeretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, non guztion artean giro ederra nagusitzeaz gain inguruko txoko ederrak ezagutzeko aukera izango duzun.

AMEZTI MENDI ELKARTEA



TARTALOETXE KULTUR ELKARTEA

URTE BERRI ON!

Konturutzerako joan zaigu urtea aurtengoan ere! Zenbaki borobila izan duen urte honetako errepassoa egiteko txanda iritsi zaigu orain. Betiko helburuekin jarraitzen dugu Tartaloetxe Elkarte osatzen dugunok: elkarte gastronomiko hutsa ez garela erakustea alegia eta helburu horri jarraituz aurtengo urtean ere antolatu ditugu zenbait ekintza. Egin diezaigun beraz errepassoa igarotako urteari.

GABONETAN PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN



Urteroko moduan, herrian falta zaizkigunak gogoratuz agurtuko dugu urtea. Urtez urte egiten dugun ekintza izan ohi da iluntzeko gaztaina jana eta dagoeneko egutegian biribildua dugun data izaten da abenduaren 31koa. Preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea egiteaz gainera, gaztaina eta gazta jana izaten da udaletxe aurreko plazan. Beraz, su ondoan mokadutxo bat eginez elkartasuna adierazi nahi duzuen guztiok, jaso ezazue gure gonbidapena urteko azken egunerako.

PILOTARI GAZTEAK ELKARTEAN

Tartaloetxe Elkarteari egokitu zitzaion aurtengoan Herri Arteko Pilota Txapelketako Finalak jokatu ostean, pilotari gazte guztiei iluntzean luntxa ematea. Urtarrilaren 2an Idiazabal, Segura, Mutilloa eta Zegamako pilotari gazteak elkartu zituen txapelketak. Ikusleak ere ugari izan ziren pilotalekuan: herritar, lagun eta baita gurasoak ere. Finaleko tentsioak baretzeko eta txapelketa laguntasunean amaitzeko aukera izan zen gure elkartean. Bazkideok prestatutako luntxa eskaini zitzaion parte hartu zuten gaztetxoei eta haien gurasoei.



Pilotari gazteak luntxa dastatzen

JUAN LUIS IZAGIRRE ETA JEXUX TELLERIA GARAILE MUS TXAPELKETAN



Mus txapelketako irabazleak eta txapeladunordeak

XVIII. edizioa izan da dagoeneko aurtengoa. lazko txapeladunek bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Aitor Azurmendi (Rocky) eta Joseba Zubizarreta ez ziren Joan Luis Izagirre eta Jexux Telleria menderatzeko gai izan. 24 bikotek hartu zuten parte iraileko azken ostiralean jokaturako lehen kanporaketan. Bertatik zortzi bikote pasa ziren urriaren 2an jokatu zen final handira. Esan bezala, Joan Luis Izagirre eta Jexux Telleria beteranoak izan ziren garaileak. Hiru partida jokatu zituzten finalerako sailkatu zirenean. Lehen biak 4 eta 0 irabazi zituzten eta final nagusirako sailkatu ziren. Azurmendi eta Zubizarretak, ostera, ez zieten 4 eta 0 koa eramatez utzi eta 4 eta 1 amaitu zen finaleko azken partida. lazko kasuan bezala, elkartearen saria Perez anaientzat izan zen: Jaun eta Denis. Giro paregabean igaro genituen bi egunak eta sari mordo bat banatzeko aukera izan genuen herriko denda, taberna eta enpresa ezberdinei esker.

LARRE-GAIN SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Elkartearen agendan falta ezin den egunetako bat da sagardotegira egiten dugun irteera. Aurtengoan Hernani aldera joatea erabaki genuen; Larre Gain Sagardotegira hain zuzen. 40 lagun inguruko koadrila bildu ginen bazkide eta herritarren artean eta egun ederra igaro genuen. Sagardotegian bapo afaldu ostean, Hernanin parranda eginez amaitu genuen eguna.

ORDEZKARITZA SEGURAKO IPARRA HEGOAN

Zegamarrek ere badute lekua Seguran. Urteroko moduan, bizilagun dugun herrian ospatzen duten Iparra Hegoa festara gonbidatuak izan ginen eta hutsik egin gabe, bertan izan zen gure elkarteko

ordezkaritza. Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako elkarteetako kideekin egun hobea igarotzeko aukera izan zuten gure elkartekoek. Betiko moduan, sukaldaritza lehiaketan parte hartu zuten eta baita ondoren egiten diren Gerezi Ondoko ekitaldi eta herri bazkarian ere.

HERRI KIROLAK, ARGAZKI ZAHARRAK, PARRILADA ETA BERTSOAK ELKARTEAREN EGUNEAN

Urteroko moduan Ekainean Tartaloetxe Elkartearen Eguna ospatu genuen. Herri kirol erakustaldiarekin ekin genion eguerdian. Aurtengoan, Joxe Mari Esnaola (Txapas) aizkoran, Goenatxo harri jasotzen eta herriko trontzalariak izan genituen: Ander Lasa (Koa) eta Jose Luis Perez (Kalderete). Hainbat proba egin zituzten eta erakustaldi bikaina eskaini ziguten udaletxe aurreko plazara bertaratutakooi. Aurtengoan lehen aldiz, Angel Irigorasek prestatutako argazki zaharren erakusketa ere izan genuen. Elkartearen sortu zenetik gaur egun arteko argazki bilduma ikusteko aukera izan zen batetik eta baita herriko beste zenbait argazki zahar ere. Jende ugari bildu zuen erakusketak.



Herri kirol saioa elkartearen egunean

Egunari segida 70 bat laguneko bazkari batekin eman genion. lazko parriladak izandako arrakasta kontuan hartuta, aurtengoan ere parrilan erretako saiheskia izan genuen bazkaltzeko. Eta bazkal ostean, belarriak gozatzeko unea iritsi zen Beñat Iguaran eta Josu Agirre bertsolari gazteen eskutik.



Bertso saio ederraren lekuko Tartaloetxe elkarte

PAELLARIK ONENA TARTALOETXEOA!

Festa giroan jarraituz, San Bartolomeak ere ezin aipatu gabe utzi. Aurtengoan bai! Aurtengoan San Bartolome Jaietako Paella Lehiaketan txapeldun izatea lortu zuten gure ordezkariak. Anartz Goiak eta Karlos Zuñigak prestatutako paella izan zen epaileen iritziz aurtengo festetako hobereena. Zorionik beroenak beraz bi bazkide hauei! Ezin aipatu gabe utzi, ordea, bi horiekin batera urtez urte, atsedeen hartu gabe aurkezten den beste bikotea ere: Tomas Lasa eta Santi Bautista. Ea datorren urtean zuena den goxoena!

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETARA

Urtarrilean, Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen gure elkartearen. Bikote ugari hartu bazuten ere parte, Gipuzkoako finalerako lau txartel besterik ez ziren banatu. Zegamako ordezkari gisa bi bikote sailkatu ziren Gipuzkoako txapela eskuratzeko: Urko Garaiar eta Bernat Berasategik osatutakoa batetik eta Eneko Aramendi eta Joxe Luis Azurmendik osatutakoa bestetik.

LAPURRETA TARTALOETXEN

Urriaren 12 aldera gertatu zen, Hispanitatearen egunaren inguruan.

Tartaloetxeko kanpoaldeko paretan zintzilikatua zegoen Euskal Presoen aldeko zapia desagertu zen; norbaitek zintzilikatua zegoen zapia ostu zuen. Badirudi ez dela denon gustukoa.


TXAKOLINA, SAN MARTINETAKO ERREGINA!

“Txakolina txakolina, Getariko erregina” badio ere abestiak, Zegaman ere txakolin zaleak garela ezin uka daiteke. Ohitura bihurtu da dagoeneko San Martin egunean gure elkarteak antolatzen duen txakolin dastatzera hurbiltzea. Inguruko txakolindegietako produktuak eskaintzea eta herritarrei horiek dastatzeko aukera ematea izaten da helburua. Aurtengoan, Olaberrian egiten den txakolina ezagutzeko aukera ere izan dugu. Txakolina, salda bero-beroa eta pintxoak. Mokadutxoak eta txakolinarekin topa eginez ospatu genuen San Martin eguna.

JOXANTONIO ORMAZABAL “Aierdi” OROITZAPENEAN.

Dagoeneko hilabete batzuk joan dira Joxantonio “Aierdi” gure artetik, maiatzean, joan zenetik. Nahiz eta utzi, utzi gintuen, ez zen bakarrik joan. Gehiago etorriko ez diren gure zati batzuk ere berarekin eraman zituen. Horrela gertatu ohi da beti, norbait gure artetik joaten denean; gure zati bat beraiekin desagertzen da.

Baina alderantziz ere gertatzen da beti. Beti geratzen zaigu beraiek utzi digutena, beraiekin bizitako betirako izango ditugun lotura eta oroitzapenak. Joxeane gure elkartearrekin, beste hainbatekin bezalaxe, lotura estua izan zuen. Bertso bat behar genuela, lantxo bat zuzendu beharra zegoela, esku bat bota behar zela... beti prest izan genuen gure artean. Elkartearren izena aukeratzekoan ere, beste hainbaten artean, berak proposatutako bat aukeratu genuen: Tartaloetxe Kultur Elkartea hain zuzen ere. Gogoan dugu Antonionioren perretxikoaren hura. Fernando zaharra eta apaizen horrenbeste abentura. Hainbeste amets etorri ziren Patxi busen mundura. Idatzi zendun hizki bakoitza, oroitzapen bihurtu da. Joxan, mila esker emandako guztiagatik eta zoriontsu izan hadi hagoen lekuan hagoela ere, besterik gabe adiorik ez, gero arte Joxantonio “Aierdi”.



TARTALO-ETXE PILOTA ELKARTEA

2010 urtean zehar ere, pilota zaletasuna duen haur edo gazte orok aukera izan du kirol honetaz gozatzeko. Astean bi egunetan haurrak ibili ohi dira eta beste bi egunetan gazte federatuak egin ohi dituzte beraien entrenamenduak.



Pilota eskolako haur batzuk Unai Atxa begiralearekin

Zegaman pilotarekiko zaletasuna egoera onean aurkitzen dela esan dezakegu. Izan ere, 6-12 urte bitarteko 25 haur inguru elkartu ohi dira beren jolasaldiak egiteko. Urteak urtera ematen duten aurrerapausoa ikusgarria da, eta hauetako asko maila ona ematen ari dira. Horrela saiatuz gero, etorkizunean pilotan jokatu dezaketela erakusten ari dira. Honekin jarraitasuna ikusten da eta hori datu pozgarria da Zegama bezalako herri batentzat.

Gazte federatuen artean gaur egun honako hauek ditugu: infantil mailan Xabier Azurmendi eta Josu Oiarbide; kadeteetan Iban Matxinandiarena; jubeniletan Unai Atxa; helduetan Eñaut Alberdi eta Unai Agirre. Haez gain, aipatu beharra dago Segurako Iñigo Intxausti, Zeraingo Mikel Oria eta Beasaingo Beñat Azketa zegamarrokin ibili ohi direla entrenatzen eta bikote lagun osatuz.

Urteroko moduan lehendabizi Udaberri Txapelketa izaten dute eta ondoren Klubaren arteko txapelketa. Haez gain beste hainbat torneotan ere parte hartu ohi dute Gipuzkoa eta Nafarroan zehar. Honez gain benjamin eta alebinak Lazkaoko torneotan parte hartu dute.

Emaizte dagokionez, Matxinandiarena-Intxausti, Gipuzkoako txapeldunorde izan dira infantil mailan, eta Azketa-Atxak emaitza eta maila ederra eman dute jubeniletako hainbat txapelketetan.

2011 urterako helburuak aipatzekotan, alde batetik txikitxoenei ondo pasatuz, pilotan jolasten eta jokatzen erakustea dira, eta bestetik ea berriro, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan parte hartzeko taldea osatzen dugun, non horretarako 3 mailtan herriko ordezkariak behar



Gazte federatuak

ditugun eta lehendik pilotan ibilitako gazteren batzuk, berriro takoak janztera suposatzen duen. Hirugarrenenik, garaipenak iritsiko diren itzaropen handia dugu. Maila guztietan daude aukerak baina batik bat, jubeniletan ditugu esperantza gehienak, Azketa- Atxa bikoteak, lesioak lagun, puntan ibili beharreko bikotea osatzen dute. Ospaketarako, kaba botilak hozkailuan ditugu freskatzen. Beraz, gogor saiatu beharra dago ez hutsik egiteko!

Bukatzeko, Tartaloetxe Pilota Elkartetik, Gabonak ondo igaro ditzazuen eta 2011 zoriontsu bat opa dizuegu herritar guztioi. ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

TARTALO ETXE PILOTA ELKARTEA

ZEGAMAR BATASUN KASINOA

Jakina den bezala, elkarte hau, Kasinoa alegia, Zegaman irauten duen elkarterik zaharrena da. Hasierako data zehatza ez badugu ere, dagoeneko ehun urtetik gora ditu.

Eta jakina, gaur egun, akta liburu zahar, dokumentu, idatzizko materiale, argazki eta abar luzea galduak egongo dira edo seguruenik juntako kide, garai bateko bazkide edota Kasinoarekin lotura izan duen norbaiten etxean paper artean egon daitezke. Hauetatik asko, zoritxarrez, gure artean joanak dira, eta beraiekin, egon zitekeen dokumentazioa ere.

Urtekari hau, zegamar guztiei iristen zaenez, gune egokia da, inork bere etxean Kasinoaren inguruko paper zaharrik aurkituko balu, jakinarazteko. Eskertuko genuke gure ia luzea den historia hau dokumentatzen lagunduko ligukeelako.

Urtero bezala, 2010. honetako ekintzarik garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

Lehenik eta begirune berezia diogulako, maiatzaren 24an, Arantzazuko erromesalditik etorrera egunean ospatu zen ipuin-lehiaketari buruzko informazioa.

KASINOKO XXII. IPUIN LEHIAKETA (2010-05-24)

SARIDUNAK

1.MAILA

1. postua: Manex Ormazabal Apalategi

2. postua: Iosu Arakama Iraola

2.MAILA

1. postua: Nerea Berasategi Albisu

2. postua: Andrei Filip Filip

3.MAILA

1. postua: Francisco Gabarri Etxebarria

2. postua: Maialen Martin Goikoetxea

4.MAILA

1. postua: Garazi Telleria Etxebarria

2. postua: Aitzol Arrondo Larrea

5.MAILA

1. postua: Arantxa Ortiz Elorza

2. postua: Aitor Barbarin De La Granja

6.MAILA

1. postua: Uxue Arrizabalaga Begiristain

2. postua: Ainhoa Saez de Maturana Ormazabal



Imanol Azurmendi eta Jabier Telleria mus txapelketako irabazleak

Irabazle izan direnei, zorionak eta aipamen berezi bat lehiaketa honetan parte hartzen beti saiatzen diren beste guztiei, nahiz eta, sari berezirik jaso ez. Gure aldetik zoragarria da haur talde horri sariak banatzea.

Beste alde batetik, apirilaren 11an, Erlezain Egunarekin batera antolatzen dugun Bertso jaialdia aipatu beharra dago. Aurtengoan, ondorengo hauen partaidetzarekin: Iker Zubeldia, Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Sustrai Kolina eta Unai Iturriaga.

Gai-jartzaile Unai Elizasu zutelarik.

Saio bikaina, Udalaren laguntzarik gabe antola ezina.

Aipatu behar, baita ere, Kasinoak Mus txapelketa antolatu zuela azaroaren 19 eta 26an eta bertan Imanol Azurmendi eta Jabier Telleria izan ziren garaile.

ZEGAMAKO ZENTRO METEOROLOGIKOA

Hemen dituzue 2009ko abendutik hasi eta 2010eko urrira bitarteko meteorologiari buruzko datu batzuk. Datu hauek, www.euskalmet.euskadi.net web orritik eskuratu ditugu:

PREZIPITAZIO GEHIEN EMAN ZEN EGUNA
2010-01-14 • 62,3 l/m2

T. MAXIMOA EMANDAKO EGUNA
2010-08-26 • 36,6°

T. MINIMOA EMANDAKO EGUNA
2010-03-01 • -3,2°

HEZETASUN ERLATIBO HANDIENA EMANDAKO EGUNA
2010-08-01 eta 2010-09-17 • %92

HAIZE ABIADURA HANDIENA EGON DEN EGUNA
2010-02-27 • 128,1 km/h

ARGIBIDEAK

Prezipitazioa l/ m2

T. max (°C)

T. min. (°C)

Haizea abiadura max. (Km/h)

Hezetasun Bat. Best. (%)

Euria, m2ko zenbait euri egin duen

Temperatura edo hozberorik altuena

Temperatura edo hozberorik baxuena

Haizearen indarririk handiena

Hezetasun handieneko eguna

	Prez. (l/m2)	T. max. (°C)	T. min. (°C)	Haizea abiadura (km/h)	Hezetasun erlatiboa (%)
Abendua 2009	-	-	-	105,8	-
Urtarrila 2010	229,9	-	-	92,4	-
Otsaila 2010	74,7	-	-	128,1	-
Martxo 2010	93,3	19,1	-3,2	96	90
Apirila 2010	50,1	26,7	2,9	72,7	90
Maiatza 2010	128,4	30,8	2,8	70,9	90
Ekaina 2010	116,7	30,8	8,2	73	90
Uztaila 2010	15	26,9	10,6	49,4	91
Abuztua 2010	36	36,6	10,6	64,9	92
Iraila 2010	51,5	35,2	7,2	80,4	92
Urria 2010	121,4	26,9	2,7	104,1	90

■ GAZTE HEREXA ELKARTEA

2010. urtea garrantzitsua izan da, Goierriko Gazte Asanbladak berriro ere biltzen hasi baikara proiektu komun bat aurrera eramateko asmoz. Proiektu honek, herrien arteko komunikazioa bultzatzea eta indarra emateaz gain ongi pasatzeko aukera ematea ere badu helburu.

Horretan hasteko, bilkurak egiteaz gain, Akelarrean parte hartzeko asmoa dugu. Akelarrea, Goierriko Gazte Asanbladen arteko topaketa da. Topaketa hau abenduaren 11n ospatuko da Seguran eta egun osoko festa izango da. Bertan, hitzaldiak, laburmetraien emanaldiak, poteoa, bertso bazkaria, jolasak, herriz herri piztu Goierri manifestazioa, Goierriko zazpi talderen kontzertuak... egongo dira. Jarriko diren karteletan agertuko da guztia zehaztasun handiagoarekin. Hauek herriko tabernetan eta kaleetan ikusi ahal izango dira.

Aurtengoan ere hemen garela esan, Gazte Herexak aurten egin dituen ekintzen berri emateko asmoz eta baita ere etorkizunean izango dituenak kontatzeko. Otsailean, azken urteetan bezala inauteriak ospatu genituen, Gari eta Iñaki trikitalariek poteoa egin genuen herri osoan zehar. Ondoren frontoian afaldu genuen indarrak hartzeko eta zegoen hotzari aurre egiteko, dantza egitea baino zer hobe! beraz, dantza lehiaketa egin genuen eta ondoren festak tabernetan jarraitu zuen.

Apirilerako Getariara irteera bat antolatu genuen, Txomin Etxaniz txakolindegia bisitatu, bertan kata egin eta ondoren Zarauzko Txikipolit jatetxean bazkaltzeko asmoz, baina krisia dela eta jende gutxi animatu zen eta orduan bertan behera utzi genuen ekintza hau.

Abuztuari dagokionean, esan behar dugu oso hilabete garrantzitsua dugula, San Bartolome jaiak izaten baititugu. Hilabete honetan bi ekintza egiten ditugu, alde batetik haurrei zuzenduriko jolasak eta bestetik gazteei zuzenduriko afaria.

Haurrekin jolasak egiteak egun bertako lanaz gain aurretik ere lana duela aipatu behar dugu, opariak aukeratu, paperean bildu, jolasak pentsatu, materiala bildu... Urtetik urtera egun honetan haur gehiago etortzen da eta guztiok primeran pasatzen dugu jolas eta jolas.

Aurtengo gazte afaria seigarrena izan dela ere aipatzekoa da eta urtetik urtera jende berria animatzen dela, hori seinale ona dela

aitortu behar dugularik. Egun honetan ere Gari eta Iñaki trikitalariek animatu ziguten poteoa eta afaria. Orduan ere, frontoian afaldu genuen eta ondoren tabernetan jarraitu genuen festa.

Azaroan, San Martinak ditugu, aurten, frontoian taberna txiki bat jarriko dugu, bertan, ardoa eta txakolina eta txorixo egosia jarriko ditugu bertan egongo den giroari laguntzeko asmoz. Orain dela urte batzuk jartzen zen eta orduan arrakasta zuen, orain ere horrela izatea espero dugu!

Gabonetan, urtero bezala, eguerdi aldera elkartu eta Ostatuan bazkalduko dugu, ondoren bi taldetan banatu eta bertako baserrietara joango gara gabon kantak abestera, iluntze aldera denok berriz kalean elkartuko garelarik.

Hurrengo urtean berriro ere hemen izango gara gure berri emateko asmoz, ordura arte ondo segi!



Gazte hereraxako kideek San Bartolomeko haur jolasak antolatu zituzten

JOAKINA ARANA LARREAK 100 urte

Joan den irailaren lehen egunean, Joakina Arana Larreak 100 urte bete zituen. Seguran jaio bazen ere 1910eko irailaren 1ean, oso umetan bere aita zenaren Zegamako Iturralde baserrira etorri zen bizitzera eta orduz geroztik Zegama izan du bere bizileku. Hogeita hamabi urte zituela Tomas Zubizarretarekin ezkondu eta orduz geroztik Olaberri auzoan bizi izan da. Gaztetan Zegamako Papeleran aritu zen lanean eta ezkonduz geroztik, semeez eta etxeko martxaz arduratu izan da. Hiru semeren ama, 6 bilobaren amona eta 3 birbilobaren birramona da Joakina egun. Zorionak eta jarrai dezazula beste hainbat urtean horrelaxe!



Joakina Aranak opari ugari jaso zituen bere 100. urtemugan, lore sorta bat eta plaka bat Udalaren eskutik eta ordulari bat Jubilatuen elkarteko Maria Dolores Arizkorreta eta Mari Carmen Calvoren gandik

■ OLABERRIKO AUZOKIDEAK

Hamar urtetik gorako geldialdiaren ostean, Olaberriko bizilagunok auzoko festak berreskuratzea erabaki genuen. Ideia hori 2009ko abuztuan auzotarren artean egindako sardina-jan baten bueltan piztu zen. Hortik abiatuz eta Kottiren garajearen antolakuntza bilerak eginez, maiatzaren 1ean egun osoko festa ospatu genuen.

Eguerdiko 12etan suzirikin eman genion hasiera festari. Jarraian, irailean 100 urte bete zituen Joakina Arana auzotarrari omenaldi xumea egin genion, bizilagunen izenean plaka bat jaso zuen eta Endika Igartzabal eta Gorka Maiz bertsolari gabiriarrak eskainitako bertsoak entzuteko aukera izan zuen.

Ondoren, Olaberrin oso bertakoa dugun toka lehiaketa etorri zen. Garai batean hain errotuta geneukan ohitura hori ere festekin batera galdu zenez, berreskuratu nahi izan genuen. Emakumeen kategorian Itziar de la Granja izan zen txapelduna eta gizonetakoetan, berriz, Joseba Arakama.

Egun osoan zehar argazki zaharrak ikusteko aukera ere izan genuen Angel Irigorasen eskutik. Garai bateko Olaberriko festak argazkiek herritar askoren arreta piztu zuten.

Auzo-bazkariak ere sekulako arrakasta izan zuen, bertako bizilagunek gain herritar asko bertaratu baitzen, guztira 110 lagun inguru bilduz. Bazkalostea Joseba Arakama eta Oier Irastorza trikitilariak alaitu zuten, Endika eta Gorkaren bertsoez lagundurik. Motz geratu zitzaigun, ordea, bazkalosteko festa giroa, ume-jolasek ere lekua izan baitzuten tradizioari jarraituz.

Arratsaldeko 6etan herri-kirolei eman genien tarte auzoko aparkalekuan. Aizkoran lau bikotek parte hartu zuten. Kanaerdiko 9 enbor ebakitzea izan zen egin beharreko lana, horietako bat zutika eta gainerakoak etzanda. Joxe Mari Esnaola eta Imanol Berasategik irabazi zuten lehia. Bigarren postuan Xabi Dorronsoro eta Iñaki Lakiola geratu ziren, ondoren Jexux Oiarbide eta Mikel Matxinandiarena, eta azkenik, Pako Mendizabal eta Joxe Mari Arakama.

Aizkoraren ondoren norgehiagoka berezi bat eskaini ziguten Ander Lasa eta Joxe Luis Perezek Joxe

Mari Esnaolaren aurka. Lehenengo biek 10 korte egin behar zituzten trontzarekin, eta Joxe Mari 30 korte motozerrarekin. Berak irabazi zuen erronka.

Iluntzeko zortziak aldera, tripa-zorriak baretzeko pintxoak, ardoa eta sagardoa zerbitzatu ziren. Gauerdi aldera, kalejiran jaitsi ginen herrira eta han jarraitu zuen parrandak goizalderarte.

Antolatzaileak oso pozik geratu ginen festak izan zuen harrerarekin eta jendearen partehartzearekin. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eman ziguten guztiei, besteak beste, Mordoxka tabernari, Josu harategiari, Joxe Telleria aseguru etxeari eta Udalari. Eta nola ez, festan parte hartu zuten guztioi.

Aurrerantzean ere tradizio honi jarraipena ematen ahaleginduko gara, ohitura onak gal ez daitezen!

Olaberri auzoko bizilagunak



Olaberriko Jaiak 10 urtetik gorako geldialdiaren ostean

■ ODOL EMAILEEN ELKARTEA

2010 urtean bi odol emanaldi izan ditugu, urtarrilean elurra zela-eta ez baikenuen odol-emanaldia egiteko aukerarik izan. Beraz, lehen emanaldia maiatzaren 17an izan zen eta bertan 45 emanaldi izan ziren, bigarrena berriz irailaren 17an burutu zen eta 50 emanaldi izan ziren bigarren honetan.

2010eko azaroaren 7an urtero egiten den bezala, Goierriko odol-emaileen eguna ospatu zen Zumarraga-Urretxun eta bertan, Xabier Arizkorretak 25 aldiz odola eman duelako eta Juan Inazio Galdos 50 aldiz eman duelako oroigarri bana jaso zuten bertan ospatu zen omenaldian.

Odol emaileen elkartetik, odola ematera etortzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, odol premia handia baitago.

Igor Elizegi odola ematen



Xabier Arizkorreta eta Juan Inazio Galdos eta Juan Mari Ormazabal odol-emaileen omenaldian

Aurtengoan, jostunak eta brodatzaileak hartuko ditugu hizpide urtekarian. Lehengo urtean elkarrizketarik egin gabe gelditu ziren zenbait jostunen eta brodatzaileen elkarrizketak aurkituko dituzue hurrengo orrietan. Jostunen lanbidea iaz jorratu genuenez, sarrera hau brodatzaileei eskaini nahi izan diegu aurten.

Brodatzaileena ere jadanik galtzen ari den lanbidea dugu, edo bai behintzat eskuz brodatzen zuten haiena. Beraien lana, orratzak eta hari mota ezberdinak erabiliz oihalak apaintzeko erliebe-lanak egitean datza. Brodatzeko era ezberdinak zeuden, txirula erakoa (urre edo zilar koloreko hari kizkurtuez egiten dena), iraganeko era (oihaletik hari-izpiak alde batetik bestera pasatuz josi gabe marrazkiak sortzea), danbor erara (danbor itxurako uztai edo bastidore bat erabiliz egiten zena)... Egun ordea, makinek bete dute antzinako bastidore, orratz etab.en lekua, hasieran hankekin mugitzen ziren makinak ziren, ondoren elektrikoak eta egun berriz, ordenagailua itsatsita dutenak. Badago alde ederra eskuz ala makinaz burutu brodatze-lana! Dena den, makinarekin burututako lanak ez du eskuz brodatutakoak bezainbesteko sentimendurik islatzen eta horrek ere asko balio du!

ELKARRIZKETA Jostuna

Pili Ezeiza

TOLOSAN HASI NINTZEN JOSTEN IKASTEN 19 BAT URTE NITUELA



Non eta noiz jaio zinen?

Berastegin jaio nintzen 1961ean.

Noiz sortu zitzaizun josten hasteko grina?

Hasiera batean puntua egiten nuen, umeentzako arropak, galtzerditxoak... eta gero, josten ikasteko irrika sortu zitzaidan. Honela, aurrerantzean, josten eta puntua egiten jarraitu nuen.

Zein eskolatan edo norekin hasi zinen josten ikasten?

Tolosan hasi nintzen josten ikasten 19 bat urte nituela M^a Pilar Lasarekin.

Bertako ikasleak elkartzen al zarete?

Jostunen egunean, hau da, Santa Luzi egunean elkartzen gara nahiz eta urte batzuetan kale egin dudan umeak direla-eta.

Etxean edo etxetik kanpo josten zenuen? Zein enpresetarako?

M^a Pilarrekin, josten ikasteaz gain, berari ematen zizkieten lanetan lagundu ere egiten genion. Honela, 10 bat urtez edo jardun nintzen berarekin lanean eta geroztik, etxekoentzat eta etxetik kanpokoentzat arropak josten aritu naiz. Egun, Ampoko langileen buzoen konponketaz arduratzen naiz.

Zein arropa mota gustatzen zaizu jostea gehien?

Gabonetako jantziak eta mozorroak ditut gustuko.

Eta konponketak ala arropa berriak egitea duzu gustuko?

Arropa berriak errazago josten dira, tela moztu, "ilbandu", josi...orden bat jarraituz egiten da lana. Konponketek berriz lan handiago dute, lehenengo jositakoa desegin egin behar da eta gero berriz josi, orduka kobratuz gero, oso garesti ateratzen dira konponketak. Horren ondorio omen da Amerikatik etorri den moda berri hori, hau da, barrenak tarraka eramatearen hori alegia.

Nor dira zure bezeroak?

Denetarik josten dut eta beraz, denetariko bezeroak ditut.

Urteko zein garaitan duzu lan gehien?

Josten hasi nintzenean, inauteri aurretik izaten nuen lan gehien. Orain berriz, urteko garai denak dira antzekoak lanari dagokionean.

Zeintzukdirajosten izatearen alde on eta txarrak?

Josten asko disfrutatzen dut eta horixe da niretzat lanbide honek duen alde ona eta alde txar bat esatekotan berriz, prezioa esango nuke.

Oso garestia da eta ordu asko egin behar da lana etekina ateratzeko.

Non erosten dituzu josteko behar dituzun, tela, hari eta bestelako osagarriak?

Garai batean Beasainen eta Tolosan erosten nituen. Orain asko gutxitu dira bai tela denda eta bai osagarri-dendak ere.



Gabonetako jantziak eta mozorroak jostea dut gustuko



Botoietan batez ere aukera txikia izaten da eta koloretako kremaierak lortzeko ere arazoak izaten ditut.

Zentro komertzialek itzalik egiten al diote Zegama bezalako herri txiki bati?

Askoi! Prezioari dagokionean behintzat zenbait arropa esku josterik ez du merezi nahiz eta kalitatean badagoen aldea.

Ogibide honetan ametsik bai?

Ez, ez dut ametsik.

Arantxa Berasategi



Pili bere etxean joste lanak egiten

Mares Azurmendi

ZARAUZKO DENDA BATERAKO BORDATZE-LANAK EGITEN ARITU NINTZEN GAZTETAN



Non eta noiz jaio zinen?

Arretxe baserrian jaio nintzen 1949. urtean.

Nola sortu zitzaizun brodatzeko grina? Noiz?

Garai hartan, 18 urte inguruko emakume gaztetxo gehienek josten eta brodatzen ikasten zuten. Niri josten ez baina brodatzen ikasteko gogo sortu zitzaidan. Lan polita zen eta soldata bat lortzeko aukera ere bazen.

Zein eskolatan eta norekin hasi zinen brodatzen ikasten?

Maritxu Urbizurekin hasi nintzen ikasten.

Inoiz elkartzen al zara zure ikaskideekin?

Ez, ez nintzen elkartzen. Herritarrak zirenez kalean ikusitakoan egoten ginen elkarrekin baina besterik ez, gainera, ni gero Zarautza joan nintzen lanera eta ez nuen aukera gehiegi izan beraiekin egoteko ere.

Etxean ala etxetik kanpo?

Gaztetan, Zarautzen fabrika batean lanean hasi nintzen bulegoetarako materiala egiten zen enpresa batean eta lanetik ateratzean, bertako denda baterako bordatze-lanak egiten nituen. Bertan 19 urtetatik 23 urtera bitartean aritu nintzen lanean. Etxetik kanpo bizi nintzen gaztetan, gastuak nituen baina lan faltarik ez nuen, ez nuen hauei aurre egiteko arazorik izan. Ezkondu nintzenean, Zarauzko fabrika utzi eta Zegamara itzuli nintzen berriro.

Fabrika eta brodatzea, biak utzi al zenituen?

Ez, brodatuen dendarako lanean jarraitu nuen. Aste barruan brodatze-lanak egin eta larunbatero Zarautza joaten nintzen senarrarekin astean zehar egindako lanak eramatera. Baina denda horretarako lan egiteaz gain, herriko jendeak eskatutako

brodatze-lanak ere egiten nituen. Dena den, alaba jaio zenean, etxeko lanak ere ugaritu egin zitzaizkidan eta ondorioz, Zarauzko dendarako brodatzeari utzi egin nion. Hala ere, herriko jendearentzat jarraitu nuen brodatzen, hauek ez baitziren hain presako lanak izaten. Horrelaxe jarraitu nuen urteetan zehar eta egia esan ez dut gogoratzen neuk utzi nion lanari edo lanak utzi ninduen ni tergalatzeko eta kolorezko izarak azaldu zirenean.

“ Ez dut gogoan neuk utzi nion lanari edo lanak utzi ninduen ni ”

Etixerako brodatzen al zenuen?

Gure gazte garaian, ezkontzerako “arreoa” prestatzea zen ohitura baina gezurra badirudi ere, ez nuen neuretzat arrearik prestatu. Etixerako ez nuen ia ezer josi!

Izan al zenuen ikaslerik?

Ez, joste-lanean ez nuen ikaslerik izan baina izan nuen aukera Zarauzko ikastolan irakasle izateko. Garai hartan, titulurik izan gabe irakasle izateko aukera zegoen eta irakasle gisa lanean aritu bitartean irakasle-ikasketak egiteko aukera izaten zen. Dena den, brodatzea oso gustuko nuen ez nintzen lan horretan hasi. Hala ere, beste lanbide bat aukeratzekotan horixe aukeratu nuke, haur txikien irakasle izatea.

Zein brodatu dituzu gustuko?

Oso gustuko nuen “matizatzea”, hau da, itzalak bere lekuan

brodatzea, iluntasunak ematea, koloreak sartzea. Lanak pertsonalizatu egiten nituen, nire gustukoa zen zerbait sartuz, lanak aberastu egiten nituen.

Zer zen gehien brodatzen zenuena?

Nagusiki “arreok” izaten ziren lanik gehiena ematen zidatena.

Zein ziren zure bezeroak?

Zarauzko dendan denetariko bezeroak nituen, Zegaman berriz gehienak ezkongaiak izaten ziren.

Urteko zein garaitan izaten zenuen lanik gehien?

Urte guztian zehar egiten nuen lan ikaragarri.

Ogibide honetan ametsik bai?

Ez, lana besterik ez.

Diseinatzaile bat aukeratzekotan, zein aukeratu zenuke?

Ez dut bereziki gustuko dudan diseinatzaile baina Zarautzen lanean aritu nintzenean izan nuen aukera Euomar hotelean egiten ziren brodatze-lanen erakusketa ikusteko. Zarauzko dendako bezeroak, Euomar hoteleko erakusketa haietan kalitatezko brodatze-lanak aukeratzeko laguntza eske etortzen zitzaizkidan. Ni Euomarreko erakusketara beraiekin joan eta aholkua ematen nien erosteko moduko lanak zein ziren esanez. Oso gustura egiten nuen lan hori ere.

Arantxa Berasategi



Zarauzko denda baterako brodatze-lanak egiten

Carmen Fernandez

HAUR TXIKIEI ZUZENDUTAKO JOSTE-LANAK EGITEN DITUT



Non eta noiz jaio zinen?

Galizian jaio nintzen Ourenseko Beran-Leiron herrian 1945eko urriaren 11an.

Nola sortu zitzaizun josteko grina? Noiz?

Íñaki nire semea institutuan hasi zenean, duela 14 bat urte gutxi gorabehera, etxean denbora pasa ibili ordez lana bilatzen hastea erabaki nuen. Inoiz pentsatuko ez nuen lan bat sortu zitzaidan, josten! Egia esan ez nuen batera gustuko lan hori. Dena den, umeei zuzenduriko joste-lanak izateak sortu zidan grina eta egun, nire bizimoduaren oinarri bihurtu da lan hau. Goizean goiz lanean hasi eta 10:00ak aldera deskantsu txiki bat hartzen dut, tailerra utzi kafetxo bat hartu eta eguerdira arte lanean jarraitzen dut. Arratsaldez ere lanean aritzen naiz 21:00ak aldera arte.

Zein eskolatan eta norekin hasi zinen josten ikasten?

Autodidakta izan naiz, neure kasa ikasi dut.

Etxean edo etxetik kanpo josten duzu? Zein enpresatarako?

Hasiera batean Eredu enpresarentzat udako eserleku eta dunbonak josten aritu nintzen baina esan bezala, jostea ez nuen oso gustuko eta aspertuta utzi egin nuen lan hori. Ondoren, handik hilabete batera edo, Donostiako ile-apaindegi batzuetarako mantalak... josten aritu nintzen. Horretan nenbilela, josteko makina konpontzera etortzen zen mutiko bati esker, Irurako Uzturre fabrikaren berri izan nuen. Hauek, El Corte Ingles dendarako lan asko egiten zuten eta beraientzako lan batzuk egiten hasi nintzen.

Zein lan mota egiten duzu? Zeini zuzendutakoak dira zure lanak?

Uzturre fabrikarako egiten ditudan lanak haur txikiei zuzendutakoak izaten dira. Haur kotxeentzat estalkiak, maindireak, zakuak, aldagarriak, udarako estalkiak, panpinentzako zakuak, koltxoi estalkiak, eguzkitik babesteko aterkiak, turbuletak, saskiak, poltsak ... lan asko izaten dut horrelako lanak josten.

Zein da josi duzun piezarik bereziena?

Sehaskentzako estalkiak. Hauek, sehasken egitura estaltzen duten oihalak dira eta apaingarri gisa zein babes neurri gisa erabiltzen dira haurrak sehaskaren hormen kontra har ditzakeen kolpeengandik babesteko.

Zein dira lanbide honen abantailak?

Zegaman bertan lan egiten dut eta beraz, ez daukat hemendik mugitu beharrik. Goizean goiz, astelehenetik ostiralera, egunero Uzturreko kamioia etortzen zait etxera egindako lanak jasotzera eta hurrengo egunetan egin beharreko lanetarako materiala ekartzera.

“
**Autodidakta izan naiz,
neurekasa ikasi dut
josten**
”

Ba al du desabantailarik?

Ez, nire kasuan behintzat ez. Zerbait gaizki josiz gero, portearen kostua, 20 €, ordainsaritik kendu egiten dute baina niri oraindik behintzat ez zait inoiz horrelakorik gertatu.

Zein material mota erabiltzen dituzu zure jostelantetan?

Material mota ezberdin ugari erabiltzen ditut eta behar bada horregatik ez naiz aspertzen egiten dudana. Tela mota ezberdinak, betegarri ugari, hari

mota asko, oihal-tartekiak, era guztietako farfaioloak, txantiloak... eta lisaburdina ere bai, lisatzea nahitaezkoa baita jostunen lanean.

Zenbait pieza josi ohi dituzu egunean?

Egun bakoitzean pieza mota jakin bat josten dut. Esate baterako eguneko 15 zaku josten ditut, edo 20 estalki edo 30 ume-karro...

Eta prezioei dagokienean, nola konpontzen zarete?

Produktu bakoitzak bere erreferentzia-zenbakia du eta horren arabera prezioen zerrenda bat osatzen da. Jostun bakoitzak diseinatzailearekin urtero pieza bakoitzaren prezioak adosten ditugu, lehen pezetetan orain eurotan. Nahiko zorrotzak izaten dira diru-kontutan eta paperak zuzen edukitzea ere beharrezkoa da, autonomoak ordaintzea... Aurten krisia dela-eta, lan gutxiago dugu baina beraientzat josten dihardugun jostunon lana mantentzen saiatu dira.

Zegaman izan al duzu lankiderik?

Bai, Milagros Otaegi ere hasi zen nirekin lanean baina orain bakarrik jarraitzen dut.

Elkartzen al zarete lankide izandakoekin?

Bai, Santa Luzi egunean elkartzen gara jostunen zaindariaren egunean.

Zein joste-lan dituzu gustukoen?

Uzturrerako lan egiten dudanetik dena gustatzen zait, lankideekin ere oso harreman ona dut eta baita diseinatzailearekin eta enkargatuarekin ere. Denekin ongi konpontzen naiz.

Gehituko zenukeen zerbait?

Pieza bakoitzak ezinbesteko ezaugarri batzuk eraman behar ditu, Uzturreko hodeitxoa, konposaketaren etiketa, betegarriaren etiketa eta jostun bakoitzaren zenbakia. Nirea 8 zenbakia da eta honela, akatsen bat baldin badago, badakite zein jostunena izan den.

Arantxa Berasategi



Carmenek eginiko zenbat joste lan

Isabel Guzman

OSO GUSTUKO DUT BRODATZEA ETA ASKO BETETZEN NAU LAN HONEK



Non eta noiz jaio zinen?

Altsasun jaio nintzen 1960an.

Nola sortu zitzaizun brodatzeko zaletasuna?

12 urte nituela, 6 bat hilabetez aritu nintzen josten, 14 urterekin neure arrea brodatzen hasi nintzen eta gero nire ahizparena brodatu nuen, nire ahizpari gehiago gustatzen baitzitzaion jostea. Altsasun bada ohitura bat Santa Ageda egunean emaztegaiak senargaiari brodatutako zinta batzuk oparitzekoa. Nire anaiak andregairik ez zuenez, neuk oparitzen nizkion neronek brodatutako zintak.

Zein eskolatan eta zeinekin hasi zinen ikasten?

Carmen Guerrerok zuen tailerrean ikasi nuen. Izugarri ona zen bere lanean eta arrakasta handia izan zuen.

Elkartzen al zara garai hartan tailerrean izan zenituen irakasle eta lagunekin?

Bai, oso harreman ona daukagu batez ere andereñoarekin, humanitate handiko pertsona da.

Eta zuk izan al duzu andereño izateko aukerarik?

Bai, Zegaman lanean hasi nintzenean izan nituen ikasle batzuk.

Etxean edo etxetik kanpo egin ohi zenuen lan?

1982 urtean Zegaman, Buztinkale auzoan tailer bat sortu zen eta 1992ra arte bertan

aritu nintzen lanean, arreoak, musuzapiak, izarak, toailak... Ikasle batzuk ere izan nituen garai hartan.

“

14 urterekin nire arrea brodatzen hasi nintzen

”

Zer nolako brodatze-lanak egin dituzu nagusiki? Zein ziren zure bezeroak?

Arreoak egin ditut gehien bat eta beraz, emakume ezkongaiak izaten ziren nire bezero ohikoenak. Ezkongaien familiakoak ere etortzen zitzaizkidan sarritan ezkongaiari oparitzeko izarak, gortinak, toailak... egiteko eskatuz.

Urteko zein garaitan izaten zenuen lan gehien?

Urteko garai guztiak antzekoak izaten ziren niretzat lanari dagokionean.

Zein dira lanbide onek dituen abantailak?

Oso gustuko dut brodatzea eta asko betetzen nau lan honek. Brodatzea prozesu bat izaten da, oihala hartu, beheko eta gaineko tolesdura josi, hilbandu, marrazkia bilatu, marrazkia kalkatu, bastidorean ezarri eta brodatu (makinez edo eskuz). Inizialeak izararen erdi aldean kokatzen ziren. Brodatze-lana sekula ez da ongi ordaindua izan.

Zein material erabiltzen dituzu brodatzeko?

Kotoizko ohilak erabiltzen ditut beti, neguan kotoizko izarak gorputzeko beroa mantentzen dute eta udan berriz freskotasuna ematen dute. Harietako dagokienean berriz, “Ancora” markakoak erabiltzen nituen lehen eta orain “DMC” markakoak. Hari hauek oso garestiak dira baina kalitatezkoak, ez dute kolorea galtzen.

Ba al duzu gustuko diseinatzailerik?

Ez, ez nuke jakingo bat aukeratzeko baina berriro ere brodatzen ikastera joan beharko banu nire irakasle izandako Carmen aukeratu nuke, ona zen benetan!

Arantxa Berasategi



Brodatzen ikasten aritu zen garaian ikaskide batzuekin

Maritxu Ormazabal

18 URTEREKIN DONOSTIAKO AKADEMI BATERA JOAN NINTZEN ETA BERTAN IKASI NUEN ONGI BRODATZEN



Non eta noiz jaio zinen?

Zegamako Zupurruti etxean jaio nintzen 1941eko azaroaren 27an.

Zein eskolatan eta zeinekin hasi zinen brodatzen ikasten?

Zegamako mojen eskolan ibili nintzen eta bertan makinaz bordatzen irakatsi ziguten batez ere. 14 bat urterekin Jesusa Garciarengana joaten nintzen josten ikastera, familiakoak baikin. Negu batean Donostiako Salesianoen ikastetxean ere egon nintzen, bertan josten eta bordatzen ikasteaz gain, bestelako etxeko lanak egiten ere irakatsi ziguten, garbiketak egiten... Ondoren, 18 urterekin Donostiako akademi batera joan nintzen eta bertan erakutsi zidaten ongi brodatzen.

Afizioz edo etxeko beharrak ikusita hasi zinen brodatzen?

Lan hau oso gustuko nuelako hasi nintzen, egia esan dirua ere ongi etortzen zitzaigun baina hori ez zen izan benetako arrazoia, gustuko nuelako eta oso aberasgarri zitzaidalako baizik. Garai hartan nire gurasoek etxetik kanpo egiten zuten lan eta beraz, ez genuen diru arazorik. Oporrak kanpoan pasatzen genituen familia bakarretakoa ginen.

Makinaz ala eskuz brodatu duzu gehien?

Makinaz brodatu dut gehien, nahiz eta eskuz ere lan asko egin dudan. Esaterako, gure etxeko egongelan duela 40 urte egindako alfonbra bat dago. Nire senarraren lehengusu bat Alaska Hoteleko alabarekin ezkondu zen eta bertan, Alaskan, emakume honek eginiko eskulan asko zeuden, alfonbrak, gortinak...

Hortik ideia hartuta, Gasteiza joan eta alfonbrak egiteko materiala erosi ondoren, neuk ere alfonbrak egin nituen etxerako. Zegamako telarrean ere bi liho puska erosi eta biak elkartuz, hauek dekoratu eta kutxa baten gainean jartzeko tapete bat egina dut. Batek baino gehiagok esan dit eskulanetarako artista naizela.

**“
Lan honek jende asko
ezagutzeko aukera
eman dit
”**

Etxerako edo enpresaren baterako brodatzen zenuen?

Etxean brodatzen nuen, bai etxerako eta bai kanpokoentzako.

Noiz arte aritu zinen brodatzen?

Kanporako ezkondu arte aritu nintzen brodatzen, 29 urtera arte. Orduan, ezkondu eta berehala izan nuen semea eta gainera, ama, anaia eta senarraren ama zaintzea tokatu zait, ondorioz, kanporako josteari utzi egin nion. Dena den, etxerako eta ingurukoentzat lan asko egiten jarraitzen dut, baserritar jantziak, tokilak, gortinak, sehasketarako izarak...

Zein brodatu mota zenituen gustuko? Eta zein zen gehien burutzen zenuen brodatze-lana?

Lan guztiak gustatzen zitzaizkidan, oheko arropak, gortinak, armairu gainetan

jartzeko oihaltxoak, toallak, mantelak, eskuzapiak... Berdin zitzaidan zer brodatu, guztia nuen gustuko, orain etxerako eskulanak egiten jarraitzen dut, oso aberasgarria da niretzat. Bi biloba zoragarri ditut eta hauei denbora asko eskaintzen diet.

Zein material mota erabiltzen zenuen brodatzeko?

Kotoia erabili ohi nuen, bai fina eta bai lodixeagoa. Saltzaile batek saltzen zizkidan eta honen bitartez mantelak eta hoteletarako izarak ere brodatzen nituen.

Irakasle moduan ibili al zinen?

Ez, ez nuen klaserik eman eta ezta lan hau bilatu ere.

Altsasun bizita, mantentzen al duzu zegamarrekin harremanik?

Bai, oso harreman estua gainera. Nire aita, 12 senideko familia bateko kide zen eta horietako bat Azkonietako Miguel zen. Urtero etortzen eta elkartzen ginen Azkonietako osaba-izeba eta lehengusuekin Gabonetan eta baita beste egun berezi batzuetan ere. Gurasoak hil zirenean, Zegamako lehengusuek, hileko lehen igandean beraiekin bazkaltzera etortzeko gonbitea luzatu zidaten eta ordutik oso gustura etortzen naiz Zegamara. Duela 10 bat urtetik nire lehengusu Loli eta bere senarrarekin batera joaten gara oporretara eta 5 edo 6 bat aldiz Portugalen izanak gara. Joan ginen aldi oro han eginiko eskulanak ikusiz entretentzen ginen.

Urteko zein garaitan izan zenuen lan gehien?

Urte osoan antzeko. Emakume gehienek Papeleran lan egiten zuten eta senargaia bilatzen zutenean izarak, gortinak, eskuzapiak... brodatzeko eskatzen zidaten.

Lanbide honek duen alde onen bat aipatzekotan zein aipatuko zenuke...

Oso atsegina nuen lan hau. Lagun asko ezagutzeko aukera eman dit, orduko jendea oso alai zen, oso dantzariak, herriz herri festetara bizikletaz egiten genituen joan-etorriak.

Ogibide honetan ametsik bai?

Ez dut aparteko ametsik izan.

Arantxa Berasategi



GESTIÓN
SERVICIOS
RESIDENCIALES



EGUNEKO ZENTROAN
GAUDEN GUZTIOK
GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRIO ONA
OPA DIZUEGU

Arantxa Asurmendi

MODELO BERRIAK JOSTEA DUT GUSTUKOEN, NEUK SORTUAK, UKITU PERTSONALA DUTENAK



Non eta noiz jaio zinen?

Zegamako Arretxe baserrian jaio nintzen 1961eko maiatzaren 9an.

Zein izan zen lanbide honekin izan zenuen lehen harremana?

Gure amona, puntua egiten erakusten ahalegindu zitzaidan eta gogoan dut nola 5 orratz hartu eta lehen galtzerdiak egiten hasi nintzen. Galtzerdi bat egin banuen ere, ez zitzaidan lan hura batere gustatu eta bigarren galtzerdia egin gabe gelditu zen. Bitartean, izeba Lurdesen etxera ere sarri joan ohi nintzen eta nire izebaren amaginarreba, Apaztegiko Rosario, gantxiloa egiten aritzen zen. Ni, haren ondoan aukitxo batean eserita begira egoten nintzaion eta behin, gantxiloa egiten erakusteko esatera ausartu nintzen. Izeba Enkarniri, Maresi eta besteei begira ere egoten nintzen, eskulan ugari egiten baitzuten. Halako batean, neu ere horretan hasi nintzen.

10 urterekin edo, Maritxu Urbizurengana joan nintzen ikastera eta 14 urterekin berriz, Donostiako akademia batean jarraitu nuen ikasten, "Corte Paris"en hain zuzen ere, bertan, Ageda Otegi genuen irakasle. 4 urtez mozketa, jantzigintza eta diseinua ikasi nituen nire gelan zeuden beste 60 neskaekin eta mutil batekin batera.

Eta zu ibili al zara irakasle lanetan?

Bai, Zegaman Txantonenean 3 edo 4 urtez aritu nintzen klaseak ematen. Ezkondu nintzenean, 22 urterekin Antzuolara joan nintzen bizitzera eta han 6 urtez, Ainhoa alaba jaio zen arte, jarraitu nuen josten irakasten.

Etxean edo etxetik kanpo egin duzu lan? Zein lantegitarako?

Aipatu bezala, Zegaman etxetik kanpo josten nuen eta Antzuolara joan nintzenean tailer bat antolatuta eta prestatu nuen. Alaba jaio zenean lanari utzi eta 8 urtez batere josi gabe egon nintzen. Dena den, alabak 8 urte eta semeak 2 urte zituztela, Bergarako denda batean jostun lanetan hasi nintzen konponketak egiten. Hemen goizez aritzen nintzen eta arratsaldez tailerrean klaseak ematen nituen eta beste joste-lan asko ere egiten nituen noski.

Deskribatu iezaguzu zure tailerra

Tailerrean lau makina elektriko eta hankarekin martxa eman behar zaien

horetako beste bidit. Behin, Leonerajoa ginen batean, azoka batera joan ginen eta bertan, gizona eta emakumezkoak bereizi egin ginen bakoitzak bere gustuko gauzak ikus genituzan. Nire senarrak josteko makina zahar bat ikusi, erosi, eta oparitu egin zidan. Makinaz gain, antzinako bi plantxa ere erosi genituen, bata tximini duna eta bestea txikiagoa. Egun tailerrean daukat apaingarri moduan txikia. Makinen mantentze-lanetan Donostiako Fernando Unzalu ibiltzen da.

“ Antzuolan tailer bat jarri nuen martxan ”

Nondik erosten dituzu telak?

Bezero gehienak Bergaran dagoen "Cotonos Agirrezabala"ra bidaltzen ditut, izan ere bertan denetik baitago, oihalak, zintak, kremaierak, hariak ... Hau da "Telas a Peso" denden hornitzailea.

Egun, zein arropa mota josten duzu gehien?

Baserritar jantziak eta dantzari-arropak dira gehien josten ditudanak, hauen artean dantza-txapelketetan parte hartzen dutenenak.

Zein da josteko gehien atsegin duzun jantzi mota? Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gustukoena gauza berriak ditut, neuk sortutako modeloak, ukitu pertsonala dutenak eta ezberdinak. Hari flojoak pasatzea berriz ez dut gustuko. Hau, ilbantzearen antzeko lana da, tarteka puntada batean haria lasaiago uztean datza.

Urteko zein garaitan duzu lan gehien?

Garai lasaiena iraila izaten da. Kurtso hasiera honetan, Antzuolako gimnasia eritmikoko jantziei "lentejuelak" josten izaten dut lana.

Arrasaten ospatzen den "Maritxu Kajoi" jairako arropak ere josten ditut. Dena den, garai batean dotoreago jantzen ziren festa honetarako egun baino.

Gabonak inguruan Azkoitian izaten den "Txikito Elegante" izeneko beste jai egun baterako ere josten ditut arropak. Egun horretan aspaldiko arropak jantzeko ohitura izaten da.

Aipa iezaguzue lanbide honen alde on eta txarrak

Alde ona, gustura egiten dudana dela eta txarra berriz, ordu askoko lanak izaten direla eta merkeak.

Lehen pezetak, orain euroak... prezioak ere aldatuko ziren noski!

Asko! Lehen praka pare bat jostea 2000-2500 pezeta inguru kobratzen genuen eta orain berriz 35-40 € inguru. Nahiz eta orain garestiago izan, proportzioan lehen garestiagoa zen praka pare bat jostunak egitea.

Zentro komertzialek konpetentziarik egiten al dizute?

Egia esan neuri ez. Zentro komertzialetan erositako arropen konponketak egiten lan asko izaten dut. Jendeak orain arropak dendetan erosten ditu baina nahiago izaten du konponketak egiteko herriko jostunarengana joatea.

Arantxa Berasategi



Arantxa eta bera alaba Ainhoa joste-lanak egiten

■ SAN MARTIN PARROKIA

BATAIOAK

Bataioak hiru txandatan ospatu ohi dira, Jesusen bataoiaren festan (Errege festaren ondorengo igandean), Bazko Bigarrena igandean eta irailaren igandeetako batean (gurasoek aukeratzen dutenean). Elkartean ospatzeak garrantzia eta emozio berezia du beti, denok arduradun garela adieraziz. Hauek dira aurten bataioa hartu duten hamahiru haurrak:

- Kaiet De Prado Ormazabal
- Garazi Balerdi Garmendia
- Ane Ormazabal Igoa
- Irantzu Zubeldia Ormazabal
- Jurgi Landa Telleria
- Mikel Otegi Ariztimuño
- Alain Segurola Collado
- Eneko Ormazabal Urdangarin
- Aratz Aizpeolea Azkona
- Naroa Murua Gonzalez
- Jokin Etxezarreta Urbizu
- Ander Auzmendi Urbitarte
- Unax Katarain Gonzalez

Honelako ospakizunak beti dira alaiak, bizi berri baten hasierak poz handia sortzen du familiarengan eta guztiongan. Zorionak guraso guztioi!

LEHENENGO JAUNARTZEAK

Aurtengo urtean bederatzita umek ospatu dute lehenengo Jaunartzea:

- Unai Berasategi Asurmendi
- Aitzol Arrondo Larrea
- Laida Arrondo Atxa
- Elorri Rivas Larrea
- Jon Arakama Zeberio
- Jone Oiarbide Arzelus
- Itxaso Berasategi Albisu
- Garazi Telleria Etxeberria
- Oihane Telleria Ezama

Egun zoragarria benetan, gure umeen alaitasunak dena apaindu zuen eta eguraldi eder baten laguntzarekin dizdiratsu gertatu zen guztia. Beti bezala, umeen xalotasunak unkituta utzi gintuen eta emozio faltarik, pozezko malkoak barru, ez genuen izan. Animo eta zorionak guztioi eta segi jator izaten.

EZKONTZAK

Parrokiaren inguruan (toki desberdinetan) bost ezkontza ospakizun izan dira. Herritar ez direnen ezkontzak ere izan dira, adibidez hiru Urbiako baselizan.

- Xabier Zumalde Ayastuy eta Amaia Irazabal Idigoras (Urbiako ermitan)
- Guillermo Gavilan Ratero eta Ainhoa Iturbe Murgiondo (Urbiako ermitan)
- Aitor Perez Azurmendi eta Ziortza Gonzalez Ibarzabal
- Mikel Ruiz Infante eta Annabella Victoria Wolloshin (Urbiako ermitan)
- Joseba Albizu Ormazabal eta Aloña Gorospe Bidaola (Santa Engraziko ermitan)

Maitasunaren bidea zoriontsu izateko aukera ederrera da. Onena opa dizuegu eta zorionak guztioi!

HERIOTZAK

Aurtengo urtean ere hildakoen zerrenda gutxitu egin zaigu:

- Manuela Larrea Asurmendi
- Josefa Morales Figueroa
- Domingo Vitoria Lapizechea
- Luzio Arizkorreta Olan

- Jose Ricardo Azurmendi Larrea
- Antonio Otaegi Berasategi
- Micaela Larrea Aldasoro
- Nicolas Zabaleta Ariztimuño
- M^a Concepción Arrizabalaga Oyarbide
- M^a Jesus Mendizabal Gorrotxategi
- Valentina Criado Vela
- Angel Aranza Agirregioia
- Vicente Oiarbide Oiarbide

Itxaropenak eta fedea eraginda gero arte esanaz ospatu genuen gure senideen agurra. Jainkoak digun maitasunaren zerrendan seguru daudela sinesten dugu! Agur eta bakean goza dezatela!

Eta honela bukatzen dira parroki inguruan izan ditugun ekintza eta ospaketak. Barkatu norbait zerrendan jarri gabe edo zerbait gaizki idatzi izan badut.

BAKE ETA ON GUZITO!



Jabier Arrietak egindako San Bartolomeren irudia abuztuaren 24az geroztik, atzealdeko ateko zaindari

■ SAN BARTOLOME JAIK

ABUZTUAK 23, ASTELEHENA

Oporretan bete betean murgilduta eta uda giroa lagun iritsi ziren aurten ere San Bartolome jaiak Zegamara.

Urtero bezala, herriko txirrindulari gazteak izan ziren jaietako hasiera eman zienak. Goizeko 9:30etarako prest ziren euren bizikleta eta lasterketa on bat egiteko behar zituzten jantzi, kasko...guztiak soinean zituztela. 7 urtetik beherakoek eman zieten hasiera txirrindu lasterketei eta apeaderorako igoerarekin eman zitzaion amaiera txirrindu festari. Urtero bezala, arrakasta

handia izan zuen kirol jarduera honek, horren lekuko dira txirrindu probetan parte hartu zuten 80tik gora lagunak.

Aurten ere, mutil zein neskentzat izan ziren sariak eta berrikuntza bat ere izan zen Apeaderorako igoeran. Aurten lehendabiziko aldiz, tarteko helmuga ezarri zen Zegamako herrigunean eta Aritz Irastorza izan zen sari hau irabazi zuena.

Hona hemen, 2010eko txirrindu probetako emaitzak:



Txirrindulari gazteak Kalekon, proba hasi aurretik



Guztientzat izan zen saria



Neskek gogor jarraitzen dute txirrindu gainean

7 URTEK BEHERAKOAK

► Neskak

Eneritz Kortabarria				
Laura Ferreira	2	1	3	Malen Otaegi

► Mutilak

Miguel Angel Ramirez			Egoi Telleria		
2	1	3	2	1	3
			Xabier Insausti		

7-8 ETA 9 URTEKOAK

► Neskak

Irati Arizkorreta			Eider Telleria		
2	1	3	2	1	3
			Leire Berasategi		

► Mutilak

Alain Joseba Garzarain			Ion Arakama		
2	1	3	2	1	3
			Naien Bata		

10 ETA 11 URTEKOAK

► Neskak

Arantxa Ortiz			Oihane Telleria		
2	1	3	2	1	3
			Ione Oiarbide		

► Mutilak

Gerardo Ramirez			Eñaut Mendia		
2	1	3	2	1	3
			Aitor Barbarin		

12 ETA 13 URTEKOAK

► Mutilak

Xabier Azurmendi			Josu Oiarbide		
2	1	3	2	1	3
			Mikel Rey		

APEADERORA IGOERA

Unai Agirre			Ander Perez		
2	1	3	2	1	3
			Xabier Goiburua		

Tarteko helmuga: Aritz Irastorza



Lehen mailarako igoera ospatuz



Maria Jesus eta bere akordeoia, Zegamako kaleak alaituz

Txirindu probetako sari banaketak amaitu eta handik gutxira, festei ofizialki hasiera emateko ordua iritsi zen. 12:00ak gertuan zirela, plaza mozturro koloretsuz betetzen hasi zen. Errealeko intxak bertan ziren 1.mailarako igoera ospatuz, segalariek sega-apustuari ekin zioten plazan eta Maria Jesus eta bere akordeoia ere bertan ziren jaien hasiera alaitzeko xedearrekin.

Horrela ba, eguerdiko 12:00etako kanpaiak jotzeaz bat, festak eztanda egin zuen Zegamako plazan. Belea bazetorren zuhaitzetik udaletxeko balkoira 5 egun bertan pasatzeko asmoz eta zegamarrak berriz, pozik ziren bere presentziarekin.

Festen hasiera alaitzen, Bonberenea Txaranga izan genuen eta nola ez, mozturrotu eta euren karroza eta guzti kalera irten ziren koadrila guztiak. Goraipatzekoa da koadrilek mozturroen prestaketan egindako lana eta jarritako ilusioa, hauxe baita lehen egun honi kolorea, umorea eta dirdira berezia ematen diona.

Eguerdiko mozturro festaren ondoren, mozturrotutako koadrilak Eliza atzeko

plazan bildu ziren bazkaldu eta I. Gazte Olinpiadetan parte hartzeko indarrak jasotzeko. Gazte lekukoen inizatibaz, arratsaldeko ordu horiek betetze aldera, koadrilen arteko I. Olinpiadak antolatu ziren eta bertan parte hartu zutenak hainbat probatan parte hartu behar izan zuten: zizare karrera, zaku karrera, sagar jatea... Aurtengo koadrila abilena Mario Bross izan zen eta beraiek eraman zuten garaikurra.

Gazteak olinpiadak ospatzen ziharduten bitartean, San Bartolome ermitan urteroko Bezperak ospatu ziren. Hau amaituta, herriko agintariak Txarapeko bolalekura hurbildu ziren herritarren arteko bolo txapelketari hasiera emateko. Alkate eta zinegotziek lehen bota aldia egin ostean, herriko gaztetxoek eman zioten hasiera txapelketari. Gaztetxoeren arten habilena Ibai Arrizabalaga izan zen, hiru bota alditan 16 birla botata, bigarren hoberena berriz Kemen Aldabe



Hondartzako sorosleak lehorrera etorrita



Sevillanak "Feria de Abril"era bidean



Zegama, baserri giroko herria



Jesus eta bere apostoluek bazkari ederra egin zuten



Futbito finlean parte hartu zuten Shalky eta Tripiko jokalaria

izan zen 9 tantorekin eta hirugarrena Gorka Arizkorreta 8 tantorekin.

Behin gaztetxoaren txapelketa amaituta, helduen txapelketa eman zitzaion hasiera. Hauen artean hoberena aurten ere Joanjo Balerdi izan zen.

Bolo txapelketa amaitzerako hasiak ziren frontoian nor baino nor Shalky eta Tripi taldeetako futbito jokalaria. Lehia beroaren ostean, eta giro paregabekoa lagun, Shalky izan zen atezaina gainditu eta baloia sareetara bidaltzea lortu zuen bakarra. Azkenean, Shalky suertatu zen garaile Tripikoei 4 gol sartuta. Atezainik hoberenaren saria berriz talde bereko

Urko Agirrek jaso zuen eta pitxitxiaren saria berriz Jon Arakamak.

Futbito txapelketari amaiera ematerako prest ziren buruhandiak eta erraldoiak Bonberenea txarangaren doinuak lagun, kalejirari ekiteko eta noski, baita herriko haurrak ere buruhandien aurretik korrika saio polit batzuk egiteko irrikitan. Buruhandiak ez zuten hutsik egin eta gozatu ederra hartu zuten herriko txikiek hauen inguruan.

Buruhandiek euren lana amaitzean, mozorro lehiaketako sariak banatu ziren. Aurten saria eramane zuten mozorroak hauek izan ziren:

12 eta 16 urte bitartekoaren artean:
GREASEeko neska-mutilak eramane zuten saria.

16 urtetik gorakoetan:

- **Mozorro landuenaren saria:**
 Hondartzako sorosleak

- **Giro hoberena sortu zuen taldea:**
 Maria Jesus eta bere akordeoia

- **Bakarkako saria:**
 Patxi Kataraintza izan zen.

Behin sariak banatuta, Diskojiran erromeri taldearen musika lagun, ordu txikiak arte jarraitu zuen festak Zegaman.



Haurren bolo txapelketako parte hartzaileak



Maria Jesus eta bere akordeoiarentzat izan zen sarituetako bat



Grease 12 eta 16 urte bitartekoaren artean irabazle

ABUZTUAK 24, ASTEARTEA

San Bartolome eguna, egun handia izaten da Zegaman eta asteartea izan arren, jende ugari hurbildu zen Zegamara prozesioan, mezan eta hauen ondoren izaten diren ekintzetan parte hartzeko asmoz.

Goizeko 11:00etan, Zegamako txistularien doinuen erritmora eta Tobera Musika Eskolako dantzarien konpainian beste herritar askorekin batera, San Bartolomeren irudia bere ermitatik San Martin parrokiara eraman zen prozesioan. Jarraian meza ospatu zen bere ohoretan eta handik irteetan, Elizalde plazako sarreran jarritako San Bartolomeren taila inauguratu zen. Taila hau, Jabier Arrieta herriko taila maisuak egin zuen espresuki ate honetan jartzeko.

Inaugurazioa amaituta, herriko agintarien soka-dantza erakustaldiari eman ziztaion hasiera plazan. Benetako erronka beraiena herritar guztien aurrean dantza egin beharra! Zirimiripean, joan zen agintarien dantza saioa eta baita jarraian aritu ziren Tobera musika eskolako dantzari gazteena ere.

Dantzarien saioan tartetxo bat eginez, 2010eko lorategi, leiho eta balkoi apainen sariak banatu ziren San Bartolome eguerdian. Balkoi eta leiho dotoreenaren saria Maria Sagrario Gereñuk eraman zuen Alderdi Eder auzoan duen bere etxeko balkoi apaina sarituz. Lorategi apainenaren saria berriz, Maite Aierberentzat izan zen Aseginolaza Anaiak kalean duen bere etxeko lorategi koloretsua dela-eta.

Tobera musika eskolako dantzariak euren saioa bukatzeaz bat amaitu ziren San Bartolome eguneko goizeko festa-ekintzak. Dena den, arratsaldean ere izan zen zer ikusi eta zertaz gozatu Zegaman.

Eliza atzeko plazan gaztetxoentzat puzgarriak izan ziren eta bertan salto eta brinko aritzeko aukera paregabea



San Bartolome prozesioan eraman zuten San Martin elizara



Herriko agintariak soka dantzan

izan zuten. Kultur Etxeko plazan berriz, Ziordisport taldekoek Excalestic erraldoia jarri zuten eta hurrez gain, hainbat gurasok ere parte hartu zuten jolas honetan hurren aitzakian.

Bien bitartean, herriko frontoian San Bartolome eguneko ohiko pilota jaialdiaz gozatu ahal izan zen. Bi pilota partida izan ziren herriko nahiz kanpoko pilotari gazteen eskutik. Hauek izan ziren aurtengo pilota partidetak emaitzak:

1go PARTIDA:

Xabier Azurmendia eta Larrea 22

Josu Oiarbide eta Iban Matxindariarena 9

2. PARTIDA:

Unai Agirre eta Iker Alustiza 13

Beñat Azketa eta Unai Atxa 22

Pilota partidak amaitzean, buruhandien eta erraldoien kalejirak eman zion jarraipena jaiari. Herriko txistulari taldearen txistu eta danbor soinuaren erritmora erraldoiak dantzan ziharduten bitartean, buruhandiek ongi astindu zituzten hauen inguruan zebiltzan hurren ipurdiak!

Buruhandiak eta erraldoiak Udaletxeko atarira erretiratu ostean, Joselu Anaiak taldearen erromeria hasi zen, lehen saioa 21:00etatik 22:00etara burutu zuten bigarrena 00:00etatik 3:00ak arte. Giro polita benetan plazan sortu zutena!



Herriko zenbait gazte, gau giroa alaitzen



San Bartolomeren irudi berriaren inaugurazioa

ABUZTUAK 25, ASTEAZKENA

San Bartolome bigarrena Iruñako gaita-eroen doinuek esnatu zuten eta Toka-saioak eman zion jarraipena festari. San Bartolome egunean ez bezala, eguzkiak gogor berotu zituen bazterrak biharamunean eta ez zen giro izan plazan! 11:00etan hasten zen toka-txapelketan parte hartzeko izen-ematea eta herriko hainbat tokalari hurbildu zen puntual-puntual plazara izena eman eta txapelketa aurretik entrenamendu txiki bat egiteko asmotan. Aurten toka saioan izan zen berrikuntzarik ere. Lehenengo aldiz emakumeen txapelketa burutu zen eta fin fin aritu ziren gainera! Gizonezkoen artean berriz, lehia estua izan zen eta azkenean hauek izan ziren 2010eko saria eraman zutenak:

EMAKUMEETAN: Maria Jesus Mujika

GIZONEZKOETAN:

1.postuan: Constantin Rosu

2.postuan: Fermin Mazkarian (Maxki)

3.postuan: Urko Egimendia

Toka txapelketa amaitzerako prest ziren Iñaki Murua, Andoni Egaña eta Aitor Mendiluze bertso sorta eskaintzeko. Udaletxeko arkupearen babesean, ordu beteko saioa burutu zuten hirurek Joseba Albizu gai-jartzaile zutela.

Bertsolariek euren plazako lana amaitzean, bertso gosez gelditu zirenek, Ostaturun izan zen bertso-bazkarian parte hartzeko aukera izan zuten. Giro paregabea bertan sortu zena!

Arratsaldean berriz, bigarren bertso-saio bat izan zen udaletxeko arkupeetan eta jarraian nola ez! Eguneroko haurren zita garrantzitsuena! Buruhandi eta erraldioen kalejira! Oraingo honetan, Iruñako Gaita-eroen ardura izan zen kalejirari musika jartzea.

Bien bitartean, frontoiari oilasko usaina zerion! San Bartolome jaietan sekulako arrakasta lortu duen herri afaria prest zen jadanik! Seihun plater, seihun, aulki, 300 oilasko eta Llopart kaba botila mordo! Umore eta festa gogoa ez zen falta izan urtero bezala eta bertan izan ziren Sant Sadurní D'Anoiako agintariak ere.

Afaria amaitzean, Joselu Anaiak taldearen erromeria izan zen plazan eta betekada ederra hartu zuen plazak oraingoa ere! Eta honenbestez, honekin



Erraldoi eta buruhandiekin kalejira

amaitu zen San Bartolome jaien lehen txanpa, ongi etorri ziren bi egun indarrak berri eta asteburuko egitarauari indarrez ekiteko!



Toka txapelketan parte hartu zuten emakumeak



Toka txapelketako 4 sarituak



Bertso saioa udaletxeko arkupean



Herri afari jendetsua izan zen

ABUZTUAK 28, LARUNBATA

Abuztuaren 28. honetan, 28garrenez izan genituen Urantzu Dultzaineroak San Bartolome jaietan. Euren dultzaina doinuek eman zioten hasiera jaien bigarren txanpari.

Larunbat goiz honetan bi ekintza nagusi burutu ziren, Elkarteen arteko Paella lehiaketa eta haurren egunari zegozkion jolasak eta mozorro festa.

Paella lehiaketan parte hartu behar zuten 10 sukaldari-bikoteak izan ziren festari edo lanari ekiten lehenak. Urtero bezala herriko 5 elkarteetatik bina bikote izan genituen lehiari. Hauek izan ziren aurtengoan parte hartu zutenak:

TXARAPE ELKARTETIK: Inaxi Urreaga eta Arantxa Garikano / Ana Jesus Larrea eta Maria Jesus Mujika

KASINOA ELKARTETIK: Mari Karmen Laskurain eta Jose Angel Alberdi / Jose Inazio Urbizu eta Diego Arratibel.

JUBILATUEN ELKARTETIK: Begoña Etxezarreta eta Jabier De Prado / Maritxu Galarraga eta Enkarna Irastorza

TARTALO ELKARTETIK: Tomas Lasa eta Santi Bautista / Anartz Goia eta Karlos Zuñiga.

AMEZTI ELKARTETIK: Iñigo Aizpeolea eta Andres Lucas / Joan Mari Ormazabal eta Patxi Arrizabalaga.

Epaimahai lanetan berriz Julio Rivas eta Migel Fernandez izan ziren eta euren epaiaren arabera hauek izan ziren 2010eko lehen eta bigarren sariak jaso zituztenak:

1.saria: Karlos Zuñiga eta Anartz Goia

2.saria: Begoña Etxezarreta eta Jabier De Prado

Sukaldariak paella gozoak prestatzen ziharduten bitartean, Kultur Etxeko plazan kolorea, umorea eta jolasa zen nagusi. Herriko haurrak, mozorro koloretsuak soinean zituztela, Gazte Herexakoek antolatutako zituzten hainbat jokotan parte



Paella lehiaketako bi bikote sarituak irribarretsu



Estimazio handia izan zuten paellak jendartean

hartu zuten eta 13:00aldera, guztientzako sariak banatu zituzten!

Paella lehiaketako sariak banatu ondoren, paellak dastatzeko aukera izan zen eta honen lagungarri, edaria ere banatu zen. Paellek izan zuten estimazioa eta denbora gutxiren buruan hutsik ziren 10 kazuelak!

Arratsaldean, Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan jarraitu zuen festak. Dar Dar Teatro taldeak Egizu Lo, Tartalo antzerkia antzeztu zuen herriko txikienezat. Gimnasioa bete-bete egin zen azkenerako eta herriko umeek, herriko jentilaren istorioa bertatik bertara ezagutzeko parada izan zuten.

Ondoren, frontoian herri-kirolen erakustaldia izan zen. Bertan, son handiko kirolariak izan genituen, hala nola, Perurena aita- semeak harria jasotzen eta Floren Nazabal, Iñaki Azurmendi eta herriko Jose Mari Esnaola aizkoran. Arrakasta itzela

izan zuen jaialdi honek, ikusi besterik ez zegoen frontoiaren itxura!

Kirol jarduna amaituta, buruhandi eta erraldoien txanda iritsi zen, Urantzu dultzaina-joleen konpainian herriko kaleak zeharkatu zituzten eta hauek kalejira amaitzerako prest ziren plazan Dantzadi taldeko musikariak erromeriari ekiteko.

Ondoren, VI. Gazte Afaria ospatu zen frontoian eta jarraian, erromeriaren bigarren saioa 00:00etatik 3:00ak arte.



Herri kirolak frontoian



Haurrak mozorrotuta eta jolasteko gogoz



Buruhandiek makina bat gozatu zuten haurrek

ABUZTUAK 29, IGANDEA

Kirol jarduerak eman zioten hasiera jaietako azken egunari. Txarapeko bola-lekuan Probintziako bolo-txapelketa ospatu zen eta plaza inguruan berriz, LXXVII. San Bartolome txirrindu probari eman zitzaion hasiera.

Aurten, beste urteetan ez bezala, bolo txapelketa saio bakarra izan zen eta 31 bolo jokalarik hartu zuten parte bertan. Aurtengo irabazleak hauek izan ziren:

1.postuan: Zeferino Agirre

2.postuan: Antonio Alustiza

3.postuan: Xabier Lazkano

Herriko lehenengoa: Joanjo Balerdi

Herriko lehenengo gaztea: Mikel Aranburu (Idiazabal)

Bolo jokoa amaitzerako jadanik makina bat kilometro burutu zituzten txirrindulariek. Aurten, lehen eta hirugarren postuak bi galiziarrentzat izan ziren:

1.postuan: Jose Antonio Cerezo

2.postuan: Pablo Torres

3.postuan: Alejandro Paleo

Mendiko saria: Marlin Iraizoz

Taldeko saria: Caja Rural

Arratsaldean, jadanik ohikoa den sardina jatea eta sagardo dastatzea egin zen plazan. Jende ugari hurbildu zen festetako azken egun honetan eta mokadu goxoak dastatu eta Gipuzkoako hainbat sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera izan zen: Aburuza, Zabala, Isastegi, Urbitarte, Zelaia, Ohiarte, Oatza, Begiristain eta Aulia.

Sardina erreen usainean, azken buruhandien saioa ospatu zen eta guztia



Jose Antonio Cerezo Zegamako helmugara iristean



San Bartolome sariko sarituak

alaitzen, Tobera musika eskolako trikitilari gazteak izan genituen.

Festari, urtero bezala, belearen entieroarekin eman zitzaion amaiera.

Kandela argitan esan genion agur beleari, triste baina aldi berean pozik aurtengo San Bartolome jaiak utzitako oroitzen onak gogoan!



Sagardoa zintzurra bustitzeko



Sar dinak sabela pizteko

QUEBRANTAHUESOS

Quebrantahuesos, Pirinioetan ospatzen den txirrindulari froga da Sabiñanigo herrian duelarik irteera eta helmuga. Aurten ekainaren 19an ospatu da eta 6976 txirrindularik hartu dute parte bertan, hauen artea 6 zegamar izan ditugu eta hauetatik 4ek lortu dute lasterketa amaitzea. Aurtengo Quebrantahuesos probako protagonista eguraldi txarra izan zen eta hau nabari izan zuten txirrindulariek. Lasterketa, Rafael Miravallesek irabazi zuen gizonezkoetan eta emakumezkoetan berriz Maria Martinek. Dena den, zegamarrak ere ez ziren makal ibili! Hona hemen egin zituzten denborak. Ea datorren urteetan ere horrela jarraitzen duzuen. ANIMO!

IZENA	DENBORA	SAILKAPENA
ANDER PEREZ ARRIETA	6:04:04	22
ARITZ IRASTORZA ARRIETA	7:06:17	796
EGOITZ IRASTORZA ARRIETA	9:52:14	4.578
XABIER GOIBURU GOIA	6:12:00	325

TREPARRISCOS

Egun berean ospatu zen Treparriscos proba ere eta 90Km-ko lasterketa honetan, 1477 txirrindularik parte hartu zuten. Irabazlea Daniel Arnal Martinez izan zen eta 2:16:59 behar izan zituen proba amaitzeko. Bi zegamar ere izan genituen proba honetan hauexek izan ziren beraiek egindako denborak eta lortutako postua sailkapenea:

IZENA	DENBORA	SAILKAPENA
JOSEBA BERASATEGI	3:26:56	671
IÑAKI LABAKA	4:00:24	1.159

Bejon diezuela eta ea datorren urtean ere bertan izaten zareten!

ZEGAMARRAK BEHOBIAN

Azaroaren 15ean, Behobia-Donostia lasterketa entzutetsua ospatu zen Donostian. Askoren ilusioa izaten da lasterketa honetan parte hartzea eta hainbat zegamar ere bertan izan dira San Martin feriko ajeak alde batera utzita. Hamaika korrikalarik hartu dute parte Zegamatik 46. edizio honetan eta denek lortu dute lasterketa bukatzea. Hauek izan dira maila bakoitzean helmugara iristen lehenak aurtengoan: Irabazle nagusia mutiletan Rafael Iglesias izan zen eta nesketan berriz, Maria Lopez de Tejada. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero www.behobia-sansebastian.com orrialdean begira dezakezu. Hauek dira herritarrek lorturiko emaitzak.

IZENA	DENBORA	S. OROKORRA	KATEGORIKO. S
GILLERMO PINILLOS RODRIGUEZ	1:16:00	374	80
XABIER MORILLO MENDIZABAL	1:18:56	837	615
IÑAKI LASA AGIRRE	1:19:31	956	709
JON ELORZA UGARTEMENDIA	1:20:55	1.227	893
CARLOS MORAN ALONSO	1:22:15	1.478	329
JOXE MIGEL ENCINAS SANCHEZ	1:23:42	1.895	1.321
IGOR ELIZEGI ARRIZABALAGA	1:28:48	3.804	2.525
JUAN LUIS URCELAI UGARTE	1:40:22	9.445	2.427
IKER ALZELAI ARAKAMA	1:45:27	11.712	6.718
JAVIER BARBARIN RODRIGUEZ	1:45:54	11.904	3.075
JOSE FRANCISCO ALUSTIZA AZURMENDI	1:48:55	13.104	961



BEROLAN, S.L.

BEROGINTZA - ITURGINTZA - GASA - ENERGI BERRIZTAGARRIAK
CALEFACCIÓN - FONTANERÍA - GAS - ENERGÍAS RENOVABLES

EXPOSICIÓN CALEFACCIÓN Y TALLER:

Ibabe Industrialdea, 26

20210 LAZKAO

Gipuzkoa

Tel. 943 888 193

Fax 943 884 939

EXPOSICIÓN BAÑOS:

Nafarroako Elorbidea, 27

20200 BEASAIN

Gipuzkoa

Tel. 943 161 277

Fax 943 160 933

Aitor Perez Arrieta

ORAIN BERRIRO ERE AUKERATU BEHARKO BANU TXIRRINDULARI IZATEA AUKERATUKO NUKE



Zergatik aukeratu zenuen txirrindulari izatea?

Niri betidanik gustatu izan zait bizikletan ibiltzea. Dena den, umetan, lagun gehienek moduan, futbolean ibili nintzen urte askoan. Hala ere, uda aldera, futbol denboraldia amaitzean, San Bartolome jaietako Apeadero Igoera probari begira, bizikleta entrenamenduak egiten nituen. Proba hau bi aldiz irabazita, jendea ea txirrindularitzan zergatik ez nuen proba egiten hasi zitzaidan esaten, batez ere Nieto eta halaxe egin nuen. Hurrengo denboraldian futbola utzi eta txirrindularitzan hasi nintzen.

Txirrindulari bezala zein dira zure ezaugarriak? Zein bertute dituzu? Nola definituko zenuke zeure burua?

“Todoterreno” bezala definituko nuke neure burua. Inoiz ez naiz diziplina batean gailendu baina ongi aurkitzen naizenean, terreno guztietan moldatzen naiz itxuroso. Taldekide onak edukiz gero, beraiantzat lan egitea ez zait axola eta gero, nire momentua aurkitzen ere jakiten dut.

Hiru txirrindulari aipatzekotan, zein aipatuko zenituzke eta zergatik?

Indurain: Nire lehen pausak bera gailurrean zegoela eman nituen, bera neure eta nire belaunaldikoen “idolo” izan zen, berak bultzatu gintuen txirrindulari izatera, ikonoa izan zen guretzat, boom bat, gure garaian 300 txirrindulariz osatutako pelotoiak ezagutu nituen eta konparaketa guztietan Indurain aipatzen zen.

“ Txirrindulariak ona izateko jaio egin behar du ”

Valverde: Bere taldean aritzeko aukera izan nuen, klase izugarriko txirrindularia da, otsailean nahiz irailan forma izugarrian egoten da, urteko edozein garaitan karrerak irabazteko gai da eta hori, oso txirrindulari gutxiaren eskuan dago. Kiniela guztietan beti agertzen da bere izena eta gainera mutil oso apala da.

Ulrich: Miresgarria zen, klase handikoa agian, negu aldera gehiegi despistatzen bazen ere. Amstronen itzalean ibili zelako areagotu zitzaidan bereganako miresmena.

Txirrindulari batek ona izateko zein ezaugarri fisiko eta psikiko bete behar ditu?

Txirrindulariak ona izateko jaio egin behar du. Entrenatzearen poderioz hobetzen joan daiteke baina jaiotzetik motor ona izatea ezinbestekoa da. Psikikoki berriz gogorra izan behar du, momentu zail asko pasatzen jakin beharra dago.

Aipa itzazu goi mailako txirrindulari izatearen alde onak eta txarrak zein diren.

Alde onak, norberak aukeratu duen kiroletik bizitzeko aukera izatea, ordutegi zehatzik gabe bizitzeko aukera eta goizean goiz jaiki beharrik ez izatea dira.

Alde txarrak berriz, eguna ez dela entrenamenduarekin edo lehiaketarekin amaitzen, gero atsedean hartzea ezinbestekoa dela eta horrek, beste gauza batzuk egiteko aukera kentzen duela. Bestalde, aipatu baita ere txirrindulari izateak “monje” bizia egitea eskatzen duela.

Zein dira zure txirrindularitza ibilbidean pasa dituzu momentu latzenak? Eta momentu onena?

Garai latzenak eta hoberenak denboraldi amaieran bizi izan ditut, hurrengo denboraldirako talde zain nagoenean latzenak eta taldea aurkitzean onenak.

Aurten lehenengoz Frantziako Tourrean izan zara. Zer du Tourrak berezi beste probek ez dutena?

Jendeak eta prentsak egiten dion jarraipena. Txirrindu probetan ez da oso ohikoa argazkilari eta kamera asko ikustea, Tourrean berriz, edozein irteeratan 20 kameratik gora izaten dira antolakuntzak jarritakoez gain. 190 herrialdetan egiten zaio Tourrari jarraipena eta bide bazterrean karrera ikusten egoten den jende andana ere izugarria da.

Zein izan da parte hartu duzun probarik gogorrena?

Hiru asteko itzuli handiren bat. Agian Giroa esango nuke, portuak malda handiagokoak dira eta etapak ere, Tourrekoak edo Espainiako Itzulikoak baino luzeagoak izaten dira. Hala ere, egun bateko probetan sufritu dut gehien, Amstel Gold Race-en esate baterako, 260 Km-ko eta tontor txiki askoko proba da, gainera tentsio izugarria izaten da horrelako lasterketetan.

Lasterketa bat aukeratzekotan zein aukeratuko zenuke? Zergatik?

Frantziako Tourra. Jarraipen gehien duen lasterketa delako eta egindakoa bazter guztietara iristen delako, egindakoa biderkatu egiten delako.



Aitor Perez Tourrean



Aitor bere jarraitzaileekin lasterketa irabazi ostean



Profesionalen Spiuk taldearekin podiumean

Egun, txirrindularitzak ez du garai gorena bizi. Nolako etorkizuna ikusten diozu txirrindularitzari? Dopin kasuek izan al dute gainbehera honetan zerikusirik? Eta komunikabideek?

Azkenaldian albiste txarrak besterik ez dira entzuten. Susperraldian zegola ematen zuenean Contadorren positiboak beste kolpe bat eman dio txirrindularitzari. Gainontzean egoera ez da txarra, talde berri indartsuak sortu dira mundu mailan, txirrindularitzara ere globalizazio iritsi dela esan behar. Geroz eta lasterketa gehiago antolatzen dira Europatik kanpo, Australian, Kanadan... egoerakaxkarrenean Espainian aurkitzen da, geroz eta talde gutxiago daude eta lasterketa gutxiago antolatzen dira. Komunikabideek ere azkenaldian beren lana egin dute, dopin kasuak oso mamitsuak izaten dira orokorrean. Penagarria da beti txirrindularitza dopin kasuekin lotzea, ikusi nahi nituzke beste kiroltako kirolariak txirrindularioi pasa arazten dizkiguten kontrolak pasatzen!

Euskal Herrian txirrindularitza zaletasun handia dago, beste herrialde batzuetan ere hala gertatzen al da?

Bai eta sutsuagoak direla ere esango nuke zenbait lekutan. Italian asko bizi dute txirrindularitza baina batez ere Belgika eta Holanda aldean eraman dut inpresiorik onena. Han edonor etortzen zaizu zeure argazki bat hartu eta autofoto eske. Jendea txirrindularien argazkiak betetako karpeta bat hartu eta sinadura eske ibiltzea, kirol hau benetan bizi dutenaren seinale da.

Zein ezaugarri dituzte Euskal Herriko zaleek?

Euskal Herriko zalegoa ere zale ona da, txirrindularitzaz badakiena eta txirrindulariak ezagutzen dituena. Zale hoberenak hemengo lasterketetan

aurkitzen ditugu, Tourrera joaten den zalegoan berriz denetik aurki genezake je, je...

“
Euskal Herriko zalegoa zale ona da, txirrindularitzaz dakiena eta hauek ezagutzen dituen
 ”

Berriz jaioko bazina, txirrindulari izatea aukeratuko al zenuke?

Agian futbolari edo pilotari izatea errentagarriagoa izango da baina ez naiz kexatzen eta berri ere gaztea izango banintz kirol honi helduko nioke.

Txirrindulari izan nahi duen gazte edo haur bati, zein aholku emango zenioke?

Kualitateak badituzte behintzat aurrera egiteko esango nieke, txirrindulari izateak sakrifizio handia eskatzen du eta sufrimendu asko eragiten. Hori dela-eta, asko gustatu behar da kirol hau baina probatzeak merezi du. Egiten den sakrifizioa handia denean, jasotzen dena ere handia izaten da. Eta batez ere ez etsitzea, nahiz eta une zailak igaro, une on batek dena ahaztarazten baitu.

Datorren urtera begira, zein proiektu dituzu?

Ziurrenik Amporen eskutik Italiako Lampre taldera joango naiz, beraz, beste urte batez behintzat, munduko lasterketa hobereenetan parte hartzeko moduan izango naiz.

Oihana Zubizarreta




Aitor Tourraren azken etapan Parisen

SAN MARTIN FERIA

2010eko AZAROAK 13

Urteko azken zita nagusia San Martin azoka izaten da Zegaman. Aurten, ohikoa den legez, azaroaren bigarren larunbatean ospatu zen egun berezi hau nahiz eta San Martin eguna bera, azaroaren 11an ospatzen den. Esaerak dioen bezala, San Martinetako "udatxoa" lagun izan genuen eta eguzki ederra tarteko, giro onean igaro zen San Martin eguna. Goizean goizetik haizeak gogor astindu bazituen ere bazterrak, kalean jarritako artisau postuak, udaletxeko arkupearen babesean, ez zen arazorik izan azoka ospatzeko.

Dena den, San Martin festa ez da larunbatean ospatzen dugun ferira mugatzen, aurreko astean ere izan ziren bi ekitaldi.



Azaroaren 10ean, Isabel Elorzak hitzaldia eman zuen arratsaldeko 19.00etan Kultur Etxean. Jakina dugunez, udalak ematen duen Xabier Azurmendiren beka jaso zuen Isabelek Zegamatik pasatzen zen Errege Bidea eta Santiago Bidea aztertzeko eta ordu askoko lanaren ostean, lan mardula ari da osatzen Isabel gai honen inguruan. Egindako lan horren harira, "Errege Bidea gogora ekarriz" hitzaldia eman zuen Isabelek eta bertan, ezezagunak zitzaizkigun hainbat eta hainbat bitxikeria ezagutzeko parada izan genuen. Jendearen parte hartzea ere aipatu beharrekoa.

Bigarren ekintza berriz "Gustu Laborategia" izan zen. Azoka bezperan, azaroaren 12an, Amezti elkarte



Aizkorri eta Urbiako artzain arteko gazta lehiaketako hiru sarituak

herriko zenbait ekoizleren produktuak dastatzeko aukera izan genuen eta zuzen zuzenean, produktoreek eurek kontatuta, euren bizimoduari eta dastatu genituen produktuei buruzko informazioa jasotzeko aukera izan genuen. Lehen dastatu zen produktua ezitia izan zen eta honi buruzko azalpenak ematera Gipuzkoako Erlezain Elkarteko Julian Urkiola eta Jaione Korrera etorri ziren. Dastatu ziren hurrengo produktuak babarrunak eta azak izan ziren, Zegamako Altzukaran baserrian Jorge Garciak ekoiztiak biak. Jarraian, Otatza sagardotegiko sagardoa dastatu zen eta bukatzeko Mari Paz Oiarbidek eginiko



Isabel Elorza, Errege-bideari buruz solasean



Gustu laborategian, produktuak dastatzen



Mari Paz Oiarbidek ere postua jarri zuen ferian



Arakama anaiak azokan jarri zuten postuan



Aurtengo abeltzain sarituak, saria jasota



Animaliak San Martinetako protagonista.

mamia eta Oltza gazta ketu eta ketu gabea dastatu ziren. Bikainak produktu guztiak eta bikainak ere ekoizleek eman zituzten azalpenak!.

Larunbatean berriz, egunak argitzerako, herriko hainbat abeltzain jadanik Urgain Berri inguruan ziren beren animaliak hartuta. Ardiak, ahuntzak, arraza ezberdinetako behiak, behorrak, zaldiak, zezenak eta zenbait basurde ere ikusgai izan ziren azokara hurbildu zen jende ororen gozagarri.

Bien bitartean, Jose Maiora plazan, Kioskoko plazan, frontoian eta aurten lehenengo aldiz Aitzuriko patioan, artisau eta saltzaileek euren postuak atontzen ziharduten. Aitzuri Herri Eskolako patioan estalpea jarri izanak, aurten postu gehiago jarri ahal izatea ahalbidetu du eta feria herri osoan zehar zabaltzea. Aurten, patioan izan dira herriko artisauak, Jabier

Arrieta taila erakustaldia ematen, Ramon Arrizabalaga tornuan buztinezko ontziak egiten, Joxe eta Eulogio Albizu artilearekin haria egin eta honekin galtzerdiak egiten, Ane eta Heike xaboi naturalak saltzen... aurten ere izan zen zer ikusi eta zer ikasi! Eta baita zer dastatua ere! Eusko Labeldun Tolosako babarrunak ere banatu ziren doan eskolako patioan!.

Eta herritarrak hizpide hartuta, beste berritasun bat ere izan da aurten San Martin inguru honetan, udaletxean jarri den Maria Luisa Gorrotxategiren margolanen erakusketa hain zuzen ere. Bertan izan dira erakusgai azaroaren 13tik 21era Maria Luisaren maisulanak, herriko hainbat txoko, hain geurea dugun Aizkorri, bodegoiak... denetariko margolanak izan ziren ikusgai.

Egun honetako ekitaldi garrantzietariko bat berriz hastear zen eguerdiko 11:00ak aldera, Aizkorri eta Urbiako XII. Gazta lehiaketa hain zuzen ere. Aurten guztira 15 gazta aurkeztu ziren lehiaketara eta beste urte batez ere, maila bikaina izan zen. Hauek dira aurtengoan lehiaketara aurkeztu ziren gaztandegi edo artzainak: Aixtra S.D. (Araia), Olano Sat.



Eugenio Mendizabalek ez zuen hutsik egin



Ganaduen erakusketa Ugarte Zelaian egin zen

Urteroko moduan 9 sari banatu ziren eta hauek izan ziren aurten kategorია bakoitzean animalia ederrenak aurkeztu zituzten abeltzainak:

Ardietan 1. saria:

Arkaitz Urbistondo

Bildotsetan 1. saria:

Andres Zabaleta

Pirenaika behietan 1. saria:

Jon Antia

Behi mestizoetan 1. saria:

Jose Ramon Berasategi

Behi suizoetan 1. saria:

Inazio Katarain

Zezenetan 1. saria:

Andres Zabaleta

Zaldietan 1. saria:

Joxe Domingo Ariztimuino

Etxe behorretan 1. saria:

Joxe Mari Esnaola

Mendi behorretan 1. saria:

Xabier Azurmendi



Epaimahikideak serio euren lanean

(Egino), Felix Etxezarreta Goiburu (Gordoa), Jose Mari Jauregi (Ilarduia), Jabier Muñoa (Zerain), J. Aranburu elkartea (Idiazabal), Jose Ignacio Gonzalez de Heredia (Larrea), Gomiztegi Koop. (Oñati), Aizpea gaztandegia (Olaberria), Ramon Ugarte (Oñati), Arantxa Segurola eta Juan Jose Aranguren (Legazpi), Gaspar eta Puy Arrieta (Araia), Mari Paz OiARBIDE (Zegama), Unai Lekuona (Araia) eta Pedro Gabiria (Legazpi). Epaimahai lanetan 8 lagun izan genituen, 1go mahaia osatuz, Jesus Fierro Seu d'Urgelleko zinegotzia, Maria Soledad Vicente Idiazabal Jatorri izendapeneko

dastatzailea, Mikel Laskurain aktorea eta Lorenzo Laskurain, Mikelen aita. Bigarren mahaia osatu zutenak berriz honako hauek izan ziren: Isidor Rando Sant Sadurní d'Anoiako alkateordea, Alfredo Fernandez Idiazabal Jatorri Izendapeneko dastatzailea, Juan Manuel Garmendia Slow Food Donostia eta Gastronomiazko Euskal Anaiarteko kidea eta Aitor Perez Arrieta herriko txirindularia.

Aurkeztu ziren 15 gaztak dastatuta, epaimahaiak hauetatik 7 finalera pasatzea erabaki zuen. Gazta finalistak bi mahaietako epaimahikideek dastatu

ostean, eta eurek gazta bakoitzari emandako puntuazioak batu ondoren, hiru artzain hauek izan ziren saria lortu zutenak:

- 1. saria:**
J. Aranburu elkartea 208 punturekin
- 2. saria:**
Aizpea gaztandegia (Mikel Etxezarreta eta Eli Arrilaga) 199 punturekin
- 3. saria:**
Sat. Olano 193 punturekin

Jarrain, ohitura denez, Zegamako elkarteetako kideek lehiaketara aurkeztu ziren gaztak jendartean banatu zituzten.



Juan Manuel Garmendia, Alfredo Fernandez, Jesus Fierro eta Aitor Perez



Antonio Vynalsi omenalditxoa



Isidor Rando, M^{re} Soledad Vicente, Lorenzo Laskurain eta Mikel Laskurain



Herriko txistulariak kaleak alaituz



Joanes Etxaide, Luis Sodupe, Aitor Zabaleta eta Gorka Aierbe. Behean Ugutz Sodupe



Egoitz Rivas, Iñaki Galdos, Issak Jimenez eta Gorka Arizkorreta



Aitor Oiarbide, Mikel Rey, Luis Bautista eta Joseba Saez de Maturana

Baina gazta lehiaketako sariak banatu aurretik, beste bi ekitaldi garrantzitsu ospatu ziren frontoian, herriko abereen lehiaketako sari banaketa eta Antoni Vynals-i omenaldia. Eta abereen lehiaketako sariak banatuta, Antoni Vynals Seu d'Urgelleko teknikariari omenaldi xume bat egin zitzaion. Edurne Albizu alkateak omenaldi horren oroigarri, plaka bat eman zion Zegama eta Seu d'Urgell herrien arteko harremana posible egin izana eskertuz.

Eta honenbestez, sari guztiak banatuta, eguerdiko 14:00ak aldera amaiera eman zitzaion goizeko ekitaldiei eta Zegaman ohitura dugun moduan, "indoabak", odolkia, saiheskia eta txorixoa jatera joan ginen gehienok norabait.

Arratsaldeko ekitaldiei, buruhandien kalejirak eman zien hasiera. Herriko txistulari taldeak lagunduta, herriko txikienek buruhandien aurretik korrika ibiltzeko aukera izan zuten beste behin ere eta hau amaitutakoan, Eskuz Binakako

XII. San Martin Pilota Torneoko partidak jokatu ziren frontoian. Hauek izan ziren emaitzak:

Benjaminetan

Markel Arrondo eta Hodei Barbarin 16
Manex Ormazabal eta Unai Moran 11

Alebinetan

Egoitz Rivas eta Iñaki Galdos 10
Isaak Jimenez eta Gorka Arizkorreta 16

Infantiletan

Joseba Saez de Maturana
eta Luis Bautista 14

Aitor Oiarbide eta Mikel Rey 18

Helduetan

Gorka Aierbe eta Joanes Etxaide 21
Aitor Zabaleta eta Luis Sodupe 22

Igandean berriz, ajeak aje eta biharamunak biharamun, goizeko hamaiketako frontoia berriro betekada jaso zuen DVko XIX. Pilota Txapelketako pilota partidak zirela-

eta. Bi pilota partida izan ziren bertan jokatu zirenak:

Promesen mailan

Urbietan eta Larunbe 22
Tainta eta Zinkunegi 8

Senior mailan

Ezkurdia eta Galarraga 22
Elezkano eta Otxandorena 7

Emaitzek adierazten duten moduan, partidek ez zuten emozio handirik izan, ea datorren urtean partida lehiatuagoak ikusteko aukera dugun!

Eta aurtengo San Martinetako azken ekitaldia, gimnasioan ospatu zen "Izenaduba Basoa" antzerkia izan zen. Haur ugari bildu zituen ekintza honek eta hau amaitzean Guraso Elkarteok banatu zuten txokolate beroa lagungarri gertatu zen igande arratsalde goibel hura animatzeko.



Zegamako elkarteek gaztak jendartean banatu zituzten



Markel Arrondo eta Hodei Barbarin



Manex Ormazabal eta Unai Moran

Antonio Viñals

**LEHEN ALDIZ 1999KO AZAROAN
JOAN NINTZEN ZEGAMARA ETA
HARRERA PAREGABEA EGIN
ZIGUTEN**



Noiz etorri zinen lehen aldiz Zegamara? Zergatik?

Lehen aldiz 1999ko azaroan joan nintzen Zegamara nire emazte Maria Joserekin San Martin azoka ikustera.

Julian Belokik, Seu d’Urgell-eko udaletxeko Ekonomia Sustapenerako departamendura, Zegamara joateko gonbidapena luzatu zigun, guk Seu d’Urgellen egiten genuen azoka eta gazta lehiaketako esperientziak Zegaman egiten hasi berria zen Gazta lehiaketa eta azokako esperientziak elkarbanatzeko xedearekin.

“ Zegaman egiten hasi zen Gazta lehiaketa eta azokako esperientziak gurearekin elkartrukatzeko hasi ginen elkartzen ”

Nolako oroitzapenak dituzu Zegaman izan zinen lehen urte hartaz?

Hasiera hasieratik, harrera paregabea egin ziguten, gogoan dut Mirenek egin zigun ongi etorria. Zegaman egon ginen bitartean, gurekin izan zen momentu oro. Ahaztezina benetan eman ziguten tratua.

Bestalde, asko harritu ninduen Udaleko langileek feriaren antolakuntzan izandako dedikazioak Juan Inazio “nekaezin” bat buru zutela, burutu beharreko zereginak zuzentzen.

Eta zer esan Zegaman egon ginen egun haletan jaso genuen arretaz; elkarreetan eginiko bazkariak erlacionatzeko modu berri bat erakutsi ziguten, herritarren

arteko kirol proba haiek, profesionalak ziruditen, azokako giroa, gazta eta abere lehiaketa ongi antolatuta...

Batez ere nabarmendu nahi dudana eta behar bada gehien baloratzen dudana inguruko artisauek, modu xume batean baina benetakotasun itzelaz azoka honi ematen dioten balio erantsia da, ezagutzen ditudan beste azoketan aurkitzen ez dena.

Zer da Zegamara etortzen jarraitzera bultzatu zaituena?

Elkartruke tekniko eta profesionalaz gain, gure artean harreman on bat sortu zen eta horrek, hurrengo urteetan ere, azoka hauek tarteko, harremanetan jarraitzeko bideak erraztu zituen.

Onartu beharreen nago, Zegama eta La Seu d’Urgell bezalako bi herrik harremanetan jarraitzea oso aberasgarria zela, harreman hau ez da soilik instituzioen arteko harreman hutsean gelditu eta hau, harremana pertsonala izatearekin lortzen

da. Ekitaldiez gozatu, lagun artean solastu, ardo on batekin mahai on batean eseri eta Juan Inazio, Miren, Edurne, Esteban eta beste hainbat lagun (ez ditut gehiago aipatuko inor aipatu gabe ez uzteagatik) berriro ikusi... horixe da Zegamara etortzen jarraitzeko arrazoi nagusia.

Zein da egun Zegama eta La Seu d’Urgellen artean dagoen harremana?

Jadanik sendotuta dago bi herrien arteko harremana, gure herrietan ospatzen ditugun azoketarako elkar gonbidatzen dugu eta baita beraietan parte hartu ere. Ez obligazioz, lagun artean momentu atsegina bat pasatzeko gogoaz baizik.

“ Zegama eta La Seu d’Urgell bezalako bi herrik harremanetan jarraitzea aberasgarria da ”

Alderdi instituzional eta politikoei gain hartuz, hauek baitira harremana babesten eta bermatzen dutenak, hauek ez digute gure harremanean eragiten, alderdi pertsonala da gailentzen dena guztiaren gainetik eta honi esker iraungo du bizirik gure arteko harreman ez-ohiko honek.

Oihana Zubizarreta



Antonio Viñals urtero etorri ohi da Zegamara San Martin egunean

ZEGAMAKO NATUR BALIABIDEEN IZAERA


Zegamak 3.481 ha-ko azalera biltzen du bere mugen artean (ia 35 km²). Udalerri osoko lurren ia hiru laurden basoz osaturik dago (2.574 ha), beste laurdenean larre eta larrediak, gune urbanoa, landa eremuak eta abar barneratzen direlarik. Baso sail hauen % 37a hostozabalek betetzen dute eta % 63a koniferoek. Baso sail hauen % 23a pagadiz osatua dago, baso atlantikoaz % 12a eta Koniferoekin ia gainontzeko guztia (azken hauetan Intsinis pinua da nagusi %23an). (2005 baso inbentarioa)

Zegamako lurrek komunitate autonomoko Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Estrategian berebiziko garrantzia dute. Zegamako lurren % 74a natura sareko babes eremu batetan barneratuta dago:

- Aizkorri-Aratz Parke Naturalak (ES2120002) Zegaman 11,15 km² jasotzen ditu (herriko azaleraren ia % 33a). Bertan Erreserba-Zonak, Babeseko Zonak, Kontserbazio Aktiboko Zonak, Basogintzako eta Abeltzaintzako Erabilerarako zonak daude.

- Aizkorri-Aratz Parke Naturala eta Aralar Parke Naturala lotzen dituen korridore sarearen eraztun-aldeak berriz 14,00 km² biltzen ditu (udalerriko lurren %40a)

- Oriaren goi bilguren Garrantzi Komunitarioko Lekuak (ES2120005) berriz Oria ibaiak Zegama Hegoaldetik Iparraldera zeharkatzen duen luzera osoa hartzen du.



Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren mugak marra berdez eta Zegama udalerraren mugak gorritz

- Autonomia Erkidegoko Habitat Zuzentzarauan bakan edo Interes bereziko izendatutako ondorengo landareak ere aurkitzen dira Zegaman.

Euskadiko paisaia (isuri Atlantikoa batez ere) pikor txikiko unitatez osatutako mosaiko aldakor batetan garatzen da. Esaterako, Zegamako 3.481 hektareak, 2.403 lur sailetan banatzen dira, batez beste sail bakoitza 1'5 ha ingurukoa litzatekeelarik. Hau, Zegamako paisaia eta inguruen dibertsitate biologiko, natural eta kulturalaren zenbaterainokoaren adierazgarrietako bat ere bada; sail bakoitzaren edo jabe bakoitzaren kudeaketaren arabera, lurraldeko puska txiki bakoitzak, mendeetan zehar, garapen espezifiko eta partikularra jasan baitu.

Zegamako udala 106 lur-sail ezberdinetan partekatuta dauden ia 450 hektarea (4'5

km²) zabalten jabe da (udalerriko lurren % 13). Batzuk, Herri Onurakotzat Jotako Mendiak dira, eta beste batzuk, Herri Jabariko Mendiak eta Ondareko Mendiak.

Sail bakoitzak aurkezten duen biodibertsitate balioa oso aldakorra da: pinudiak, pagadiak, belardiak, larreak, txilardiak, garo-lekuak eta abar jasotzen direlarik. Lur hauek Udalaren jabetzakoak izanik bertako biodibertsitatea babestu, zaindu eta areagotzeko aukera aparta denez, bide hau lehen bait lehen hartu eta abian jarri beharra dagoela uste da. Hala ere, Zegamako udalerriko lurren % 87a jabetgo pribatuaren esku dago.




Aizkorriko pagomotza

	EAEko Katalogoa	Habitat Zuzentzaraua
<i>Aconitum anthora</i>	Bakana	
<i>Allium victorialis</i>	Interes Berezikoa	
<i>Armeria pubinervis</i>	Interes Berezikoa	
<i>Botrychium lunaria</i>	Bakana	
<i>Coeloglossum viride</i>	Bakana	
<i>Gentiana ciliata</i>	Bakana	
<i>Geranium cinereum</i>	Bakana	
<i>Ilex aquifolium</i>	Interes Berezikoa	
<i>Narcissus asturiensis</i>	Interes Berezikoa	
<i>Narcissus pallidiflorus</i>		✓
<i>Narcissus varduliensis</i>	Interes Berezikoa	✓
<i>Paris quadrifolia</i>	Interes Berezikoa	
<i>Pulsatilla alpina</i>	Bakana	
<i>Taxus baccata</i>	Interes Berezikoa	
<i>Viola bubanii</i>	Bakana	

ERLEZAIN EGUNA

2010eko APIRILAK 11



Gipuzkoako hiru ezti hoberenen ekoizleak

Apirilko lehen igandean ospatu ohi bada ere Erlezain Eguna, aurten aste bete itxaron behar izan zuten erlezainek euren egun handia ospatzeko. Apirilko lehen igandea Pazko igandea zela eta, aste bete atzeratu behar izan zen Erlezain Eguna. Eta merezi izan zuen gainera! Goizean goizetik eguzkia eta giro epela lagun burutu baitzen eguna!

Dena den, egun nagusia apirilaren 11a izan bazen ere, aurrez ere burutu ziren zenbait ekintza egun hau aitzakiatzat hartuta. Martxoaren 26an, eskolako ikasleek ezta probatzeko aukera izan zuten eta



Iñaki Gonzalo erleek osasunerako dituzten onurak azaltzen

baita erlearen bizimoduari eta erlezainen lanari buruzko xehetasunak ikasteko ere! Horretan, Julian Urkiola (Gipuzkoako Erlezain Elkarteko lehendakaria) eta Maria Iraola izan zituzten gidari Aitzuriko ikasleek.

Erlezain Egunaren bezperan berriz, Kultur Etxean hitzaldi bat eman zuen Iñaki Gonzalok eta bertan erlauntzean sortzen diren produktuek osasunerako dituzten onurak azaldu zituen.

Hitzaldia amaitu eta handik gutxira, polikiroldegian izan zen zita. Urrezko Aizkorako kanporaketa izan baitzen. Bertan 9 aizkolarari aritu ziren lehian elkarren aurka eta hauek dira kanporaketako emaitzak: Ugarteburu, Txapartegi, Elorriaga, Mugertza III.a, Esnaola, Ruben Saralegi, Kañameres III.a, Rodríguez I.a eta Pellejero

Ekitaldiz betea izan zen aurten ere Erlezain Eguna. Alde batetik, urteroko ohiko feria izan zen, polikiroldegiko eta kioskoko plazako txoko guztiak postuz bete ziren eta beraz, izan zen zer ikusi eta erosi!

Bitxiak, ukenduak, egurrezko tresna eta altzariak, kontserbak...eta nola ez, gozokiak eta ezta!

Polikiroldegian urtero lez, Gipuzkoako 11 gozogilek egindako pastelaren erakusketa jarri zen. Hauek dira aurten pastelak bidali dizkiguten gozogileak: Adarraga (Hernani), Gorrotxategi (Tolosa), Ezeiza (Tolosa), Arruti (Andoain), Egaña (Azpeitia), Zegamako Okindegia (Zegama), Hawaii (Hondarribia – Donostia), Raizabal (Bergara), Asurmendi (Eibar), Unanue (Ordizia) eta Oiartzun (Donostia).

Aurten polikiroldegian hainbat berritasun izan genituen. Tolosako Gorrotxategi gozotegikoak bertan izan ziren eta hainbat "txokolatera" jarri zituzten ikusgai frontoian bere gozoez gain. Bestalde, Eusko Labeleko ezta dastatzeko postu bat ere izan zen eta bertan, lau ezti mota ezberdin dastatzeko aukera izan zen.

Horretaz gain, Hernaniko Adarraga gozotegiko txokolata banatu zen doan azokara hurbildu zirenen artean eta Mahalako yogurtak eztiarekin dastatzeko aukera ere izan zen.



Erleak ere jaso zuen merezitako omenaldia



Epaimahikideak ezti hoberenaren bila

Aurten bigarren aldiz, Aitxuri Herri Eskolako ikasleei zuzendutako marrazki lehiaketa egin zen eta hauek eginiko marrazkiak, polikiroldegian jarri ziren ikusgai. Marrazkia egiteko gaia, egunari dagokion moduan, "Erlea" izan zen. Lehiaketako sariak egunean bertan banatu ziren eta saritu bakoitzak, diploma bat eta opari bat jaso zituen. Aurtengo sarituak hauek izan ziren:

2 urtekoetan:

Aner Chaves Panadero eta M. El Mehdi Lamtakham

3 urtekoetan:

June Collado Mendizabal eta Ander Otegi Ariztimuino

4 urtekoetan:

Beñat De Prado Ormazabal eta Unai Lekuona Mendizabal

5 urtekoetan:

Lorea Agirre Berasategi eta Olaia Aizpeolea Gorrotxategi

1. mailakoetan:

Manex Ormazabal Apalategi eta Iosu Arakama Iraola

2. mailakoetan:

Andrei Ioan Filip Filip eta Alain Joseba Garzarain Morales

3. mailakoetan:

Bruno Daniel Carvalho Veiga eta Oihane Pelaez Parra

4. mailakoetan:

Laida Arrondo Atxa eta Elorri Rivas Larrea

5. mailakoetan:

Aitor Barbarin De La Granja eta Arantxa Ortiz Elorza

6. mailakoetan:

Sara Irastorza Apaolaza eta Alvaro Ramos Zurutuza

Eguneko ekitaldi nagusietako bati 11etan eman zitzaion hasiera, Gipuzkoako XII. Ezti Lehiaketari alegia. Gipuzkoako eskualdeetako ezirik hoberenak lehiatu ziren Zegaman eta epaimahai lanetan, Lierni Aranburu (Gipuzkoako Erlezain Elkarteko teknikaria), Jon Leunda (Gipuzkoako Erlezain Elkarteko kidea) eta Amaia Zubiria abeslaria izan ziren.

Ezti lehiaketa amaitzerako, urteroko moduan, Erlezain talde batek, beren laneko jantziak soinean zituztela, herrian barrena kalejira bat egin zuten. Aurten, guztien artean erlauntz bat ekarri zuten eta kalejiraren amaieran, polikiroldegian kokatu zen eszenatokian omenaldia egin zioten erleari. Xabier Azurmendi herritarrek agurra dantzatu zion eta jarraian, erleari jarritako bertsoa abestu zuten erlezainek eta bertaratu zirenek.

Hau amaitu ostean, ezti lehiaketako sari banaketari eta urteko erlezainen omenaldiari ekin zitzaion.

Ezti lehiaketan hiru mota ezberdinetako eztiak saritu ziren, ezti iluna, ezti argia eta milalore eztiak.

Ezti iluna: Jabier Rodrigex (Donostia)

Ezti argia: Jose Luis Azpeitia (Deba)

Milalore eztiak: Fidel Azpiroz (Berastegi)

Aurten beste lau erlezain omendu ziren eta euren urteetako lan eskertuz euskal makila eta txapela eman zitzaion. 2010eko lau erlezain omenduak **Inazio Mujika, Mariano Elorza, Simon Nazabal eta Inazio Arsuaga** izan ziren eta hunkiturik jaso zituzten merezitako txaloak eta ohoreak.

Jarraian, Ostatuan herri bazkaria izan zen giro paregabea.

Arratsaldean berriz, Kasino Elkarteak antolaturiko bertsolari jaialdia izan zen. Bertan, 2009ko Txapelketa Nagusiko 7 finalista izan ziren (Maiailen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Sustrai Kolina, Aitor Sarriegi eta Unai Iturriaga) eta hauek guztiak tentatzen, Iker Zubeldia herritarra. Gai-jartzaile lanetan Unai Elizasu aritu zen. Giro paregabea, jende andana eta primerako bertsoak izan ziren jaialdian!



Erlezainei merezitako omenaldia



Arrakasta izan zuen azokak



Gorrotxategi pasteleriko txokolateren erakusketa



Mota guztietako gozoak erakusgai eta dastagai erlezainen egunean

■ OLLERIAS MARATOIA

2010eko MARTXOAK 7

Ollerias Maratoia 2010eko martxoaren 7an ospatu zen Zegaman. Ekitaldi honen antolakuntzan Udalarekin batera ollerias Euskal buztingintza museoko zuzendari den Blanka Gomez de Segura aritu zen.

Ekimen honetan, aspaldiko ontzigileen lana gogora ekarriz, beraien lan-ordu askotako lan-egunak erakutsi nahi izan ziren jendaurrean. Honela, maratoi honek, 10 ordutan ahalik eta katilu gehien egitea izan zuen helburu. Honetarako maratoian hainbat buztingile aritu ziren lanean Zegamako plazan ezarri zen tailerrean.

Ekimen honek 3 belaunaldi ezberdinetako buztingileak elkartu zituen: garai batean lanbide honetan aritu ziren Martin Catalina zegamarra, Federico Garmendia eta Nicolas Agirrebeitia. Egun buztingintzan diharduten Blanca Gomez de Segura eta bere belau-



Buztingileak lanean erlojuaren kontra



Martin Catalina ere berriro Zegaman



Ramon Arrizabalaga herritarra era buztingile

naldikoak eta hirugarrenik, azken hauen ikasle diren gazteen belaunaldikoak.

Tona 1 buztin ekarri zuten katiluak egiteko eta antolatzaileen aurreikuspena, 10 orduren buruan 1000 katilu egitea zen.

Maratoiari goizeko 8:00etan puntuan eman zitzaion hasiera. Buztingilerik goiztiarrenak gogotsu ekin zioten lanari eta goizean goizetik hurbildu zen jendea jakin-minak piztuta maratoi hau zer ote zen ikustera. Plezen lehen kontaketa goizeko 10:00etan egin zen eta ordurako jadanik eginak zituzten 176 katilu.

Maratoian zehar, Blanka Gomez de Segurak, buztingintzari buruzko nondik norakoak azaldu zituen eta bertan lanean aritu ziren buztingileak aurkezteaz gain, elkarrizketaxoak egin zizkien hauei ere. Parte hartu zuten buztingileen artean bi zegamar izan genituen, Martin Catalina eta Ramon Arrizabalaga.



Turismo bulegoek Altzibargo teilerian antolatutako bisita gidatua

Maratoiaren osagarri, Zegaman zera-mikagintzak utzi duen ondarea ezagutarazteko, turismo bulegoak bisita gidatuak antolatu zituen Altzibargo teileria eta Intxaustiko errotara. Lehen bisita goizeko 10:30etan izan zen eta arrakasta itzela izan zuen gainera!

Bisita gidatutik itzulita, bigarren kontaketa eman zitzaion hasiera, 12:00etarako eginak zituzten jadanik 528 katilu. Kontaketa ostean, eguerdiko 12:30etan maratoia aurkeztu zuten Edurne Albizu alkateak eta Blanka Gomez de Segurak. Jarraian, Zegamako azken buztingilea izan zen Gregorio Aramendiren irudi batzuk ikusi ahal izan genituen Ereintzak elkar-teak grabatu eta Blankak berreskuratu duen bideo batekoak alegia. Honen

ondoren, Arabako buztingileek parte hartu zuten buztingintza tradizionalari buruzko ikus-entzunezkoa izan zen.

Hau amaitzean, jende asko bisita gidatua egiteko gogoz gelditu zela ikusita, 13:00ean beste bisita bat antolatu zen teileria eta errotara. Handik itzuleran, eguerdiko 14:00etan, hirugarren kontaketa egin zen, 832 katilu guztira.

Arratsalde partean ere, jende ugari hurbildu zen buztingileak lanean ikustera. 16:00etan laugarren kontaketa burutu zen eta 16:30etan, eguneko hirugarren eta azken bisita gidatua egin zen. Guztira 180 pertsona inguruk hartu zuten parte bisita hauetan.

Eta 10 ordu luzeren buruan, iritsi ziren arratsaldeko 18:00ak!

Buztingileak euren lana amaitzeko ordua eta aurreikuspenak bete ziren edo ez ikusteko ordua. Emozio handiko kontaketa izan zen! Guztira 1406 katilu egitea lortu zuten denen artean 10 ordutan eta beraz, aurreikuspenak bete eta dezentez hobetu zituzten gainera!

Mila esker, era batera edo bestera, egun hau antolatzea ahalbidetu zuten guztiei eta ea denon artean lortzen dugun lanbide honi eta horretan aritu direnei merezitako erreko-nozimendua ematea!



Blanka Gomez de Segura eta Edurne Albizu maratoiaren aurkezpen ekitaldian



1406 katilu egin ziren 10 orduz jo eta ke lanean aritu ostean

GABONAK



Erregeak Zegamara ere iritsi ziren

Urteko jairik internazionalenak ditugu Gabonak. Urte osoko nekea jadanik gainean dugula, gustura hartzen diren jaiak dira hauek; batzuk oporretara joateko, beste batzuk familia giroan egun batzuk pasatzeko... edozertarako dela ere, ongi etorriak izaten dira.

Zegaman, beste Euskal Herriko herri gehienetan bezala, abenduaren 24a izaten dugu egunik behar bada maiteena eta magikoena. Goizean goizetik baserriar jantziak soinean dituztela, haurrez betetzen dira kaleak eta euren kantu hotsez alaitzen dituzte herriko bazter guztiak. Olentzerori gogor kantatzen diote gauean opari asko utz diezaieten!

Arratsaldean berriz gazte eta helduen txanda izaten da. Gazte Herexa elkarteko gazteek, goizean herrian zabalduetako alaitasun hori herriko baserrietara helarazteko xedearekin, bazkal ostean baserri baserri Gabon kantak abestuz ibili ohi dira eta halaxe egin zuten 2009ko Gabonetan ere. Talde bat, Goialdeko baserrietan ibili zen kantu kantari eta beste taldetxo bat berriz Barrenaldekoetan. Iluntzean, bi taldeak herrian elkartu ziren eta hauei, beste hainbat eta hainbat herritar batu zitzaizkien Olentzeroren konpainian herria alaitu asmoz.

Errege bezperak ere badu xarma Zegaman, ekialdeko Errege Magoek bisita egiten digute errege bezperan, eta baita

opariak ekarri ere txintxo portatu direnei! Erregeak Olaberri auzotik behera jaisten dira herri-gunera zaldien gainean eta herriko txikienek aukera paregabea izaten dute euren eskariak egiteko.

SANTA AGEDA BEZPERA

Otsailaren 5a izaten da Santa Ageda eguna, eta bezperan, iluntzean, makilak hartu eta Santa Agedaren ohorez idatzitako bertso ezagunak etxez etxe abesteko ohitura dago Zegaman. Zine zaharraren aurrean elkartu ziren arratsaldeko 18:00etan urtero bezala hainbat herritar eta makilak gogor astindu ostean, merezitako luntx-a dastatuz amaitu zuten iluntzeko kantu saioa.

ARANTZAZUKO PEREGRINAZIOA

Zegamako tradizio-ospakizunen artean aipatu gabe utz ezin daitekeena hauxe da, Arantzazuko Peregrinazio eguna. Zahar, heldu, gazte nahiz haurrentzat, guztientzat, berebiziko esanahia duen asteburua da honakoa. Aurten maiatzaren 23a eta 24a izan dira egun seinlatu hauek. Eta urtero bezala, eguraldi txar edo on, jende ugari ekin zion igande goizez Arantzazurantzko bideari.

Prest zen 8:00etan autobusa mendizale edo erromes goiztiarrenak Zegamako Apeaderora igotzeko. Hurrengo autobusa goizeko 9:00etan irten zen eta ibiltari azkarrenentzat berriz 10:00etan ere izan zen beste bat. Bidean zehar ohiko mokadutxoak egin ondoren, 13:30ak alderako, erromes guztiak Arriurdinen ziren Udalak eskainitako bazkaria dastatzeko. Lehenik eta behin salda beroa eta ondoren, xerraz eta tomatez hornitutako ogitarteko beroa. Bazkaria amaitzeko, kafea, pattarra eta gozoak ere ez ziren falta izan eta izan zen tartetxo bat aspaldian ikusi gabeko herritarrekin hitz egiteko, Arriurdingo paisaia paregabeaz gozatzeko nahiz siestatxo egiteko ere.

Arratsaldeak aurrera egin ahala, jendeak Arriurdingo parajeak atzean utzi eta Arantzazurako bideari ekin zion. Batzuk, Arantzazun bertan afaldu eta lo egiteko asmotan

ziren, beste batzuk berriz, autoz edo autobusez Zegamara itzultzeko asmoz.

Hurrengo egunean, maiatzaren 24an, astelehenez, Goiko Benta ostatuan elkartu ziren Arantzazun gaua pasa zutenak eta autobusez Zegamatik Arantzazura joan berri zirenak tradizio luzea duen prozesioari ekiteko eta erromesei bereziki zuzenduriko meza entzuteko. Prozesioan, herriko txistulari taldea izan zuten lagun zegamarrek eta San Inazioaren martxa joaz jaitsi ziren Goiko Bentatik Arantzazuko elizaraino.

Mezaren ostean, bertaratu ziren zegamar guztiak bapo bazkaldu zuten eta arratsalde aldera, batzuk oinez eta beste batzuk autobusez, Zegamara itzuli ziren. Oinezkoak 18:00ak aldera iritsi ziren Zegamara eta suziriak botaz eman zien horren berri herritarrei. Kanpai hotsen artean, jende ugari zuten zain mendizaleek San Bartolome ermitaren inguruan. Hemendik, guztiak prozesioan jaitsi ziren San Martin Elizaraino Arantzazuko Ama Birjinari ohore eginez. Elizan, otoitzaldi bat egin zen eta Arantzazuko Amaren abestia kantatuz amaitu zen ospakizuna. Ondoren, Udalak ardoa banatu zuen bertara hurbildu zen jendearen artean zeramikazko katiluetan eta baita ogitartekoak ere indarrak berritzeko. Kasinoko Ipuin Lehiaketako Sariak ere banatu ziren urtero egin ohi denez.

Gau aldera, eta aurtengoz erromesaldiari amaiera emateko, Herri Afaria izan zen Ostatur.

IDIAZABALDARREI HARRERA

Korpus Kristi aurreko igandean, maiatzaren 30ean aurten, urtero bezala Idiazabalgo agintari eta herritarren bisita jaso dugu Zegaman. San Adriango koban meza entzun eta hamaiketako egin ostean, Zegamako Gurutze Santu ermitan agertu ziren Zegamako Alkateari, mendi-larreetara bidean euren artaldeak Zegamatik pasatzeko baimena eskatzera. Hori da ermita honetan, Zegamako



Arantzazutik Zegamara bidean erromesak



San Joan suaren argitan bildu ziren zegamarrak plazan

San Joan egunean berriz, ohikoa denez, arratsaldean udal agintariak ardoa banatu zuten udaletxeko arkupean eta ondoren herri afaria egin zen.

ERMITETAN MEZAK

OLABERRIKO GURUTZE SANTUAREN EGUNA

Bi meza ospatzen dira urtero Olaberriko Gurutze Santuaren ermitan. Bata maiatzaren 3an ospatu

zen Bittorio Zabalgogeaskoaren eskutik eta bigarrena irailaren 14an.

SANTU ESPIRITUKO ERMITAN MEZA

Aurten, maiatzaren 30ean ospatu zen Santu Espirituko meza Sebastian Ugaldere gidaritzapean. Meza ostean, Atxa familiak eta Benito harategiak ohiko hamaiketako eman zien ermita ondoko zelaian mezan parte hartu zuten guztiei.



Arantzazutik itzuleran San Martin elizara prozesioa

SAN PEDRO ERMITAN MEZA

San Pedro egunean bertan, ekainaren 29an, meza ospatu zen Goialdea auzoko San Pedro ermitan arratsaldeko 19:00etan Bittorioren gidaritzapean. Meza ostean, bertaratutakoek mokadu goxoa dastatzeko aukera izan zuten aurtengoan ere.

SAN ADRIANGO ERMITAN MEZA

Ekainaren 20an, igandez, meza ospatu zen San Adriango ermitan Bittorio Zabalgogeasko gidari zela. Ondoren, Udalak eskainita hamaiketako izan zen koban eta Zegamako errealezaleek, argazkia atera zuten Errealaren igoera ospatuz.

AIZKORRIKO GURUTZE SANTU ERMITAN MEZA

Urtero egin ohi den moduan, abuztuaren lehen igandean, abuztuak 1ean aurten, meza ospatu zen Aizkorriko tontorrean dagoen Gurutze Santuaren ermitan. Ondoren, Udalak gazta eta edaria banatu zuten mezan parte hartu zutenen artean.

IRUETXETAKO ERMITAN MEZA

Andre Mari Zuriaren edo Elurretako amaren egunean bertan, abuztuaren 5ean, Iruetxeta auzoko ermitan meza ospatu zen Iruetxetako amaren omenez eta ondoren, herriko Udal agintariak mokadutxo eskaini zien bertara hurbildu zirenei.

SAN BARTOLOME ERMITA

Zegamako jai nagusietan, urtero bezala bi elizkizun ospatu ziren San Bartolome ermitan. Bezperak abuztuaren 23an eta herriko hildakoen aldeko meza San Bartolome bigarrenean. Mezak Bittorio Zabalgogeaskoak eman zituen. Abuztuaren 24an berriz, San Bartolome egunean, ermita honetatik San Martin elizaraino San Bartolomeren irudia eraman zen prozesioan.

Alkateak Idiazabalgoari herriko aginte makila ematean adierazten dena.

Jarraian, ermitatik Zegamako herri-gunerako bidea herriko txistulari taldearen doinuak lagun egin zuten eta ohitura denez, Idiazabalgo aguazilak gozokiak banatu zizkien euren ingurura hurbildu ziren zegamarrei. Txurrerian, Zegamako Udalak eskainitako hamaiketako dastatu ostean, autobusez Segurara abiatu ziren.

SAN JUAN BEZPERA ETA SAN JUAN EGUNA

Ikasleentzako oporren hasiera, neguko egun hotzak atzean utzi eta udari ongi etorria ematea... San Juan Bezpera eta eguna bera ere magikoak eta oso desiratuak izaten dira guztiontzat. San Joan bezperako festa, San Joan arbolaren igoerarekin hasten da Zegaman eta aurtengoan ere kamioi baten laguntzaz ezarri da zuhaitza arriskuak saiheste aldera. Zuhaitz igoeraren ondoren, gazta, ogia eta ardoa banatu ziren udaletxeko arkupeetan bertaratutakoen artean.

Arratsaldeko festari, gauean piztutako San Joan suak eman zion jarraipena. Gaueko 10:00ak aldera, sua piztu zen Jose Maiora plazan eta honen garrek argitu eta berotu zuten plaza ingurua denboraldi batez behintzat. Bien bitartean, Tobera Musika Eskolako dantzariak, herriko txistulari taldea lagun zutela dantza saioa burutu zuten suaren inguruan.

magala
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

ALAITZ ZUBIZARRETA

Zorionak!

Ellosegi kalea, 3-Benea
20210 Lazkao
☎ 943 028415

■ AIZKORRIKO LAGUNEN EGUNA

2010eko UZTAILAREN 4a



Ohiturari jarraituz, uztailaren lehen igandean, uztailaren 4an alegia, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatu zen Zegaman. Eguraldi oso argia izan ez bazen ere, jendeak ez zion bizkar eman urteroko zitari. Aurten ere bi ibilaldi prestatu ziren, oraingo honetan biak Aizkorrira. Ibilaldi bat, goizeko 6:00etan abiatu zen Aizkorrira Zegamako plazatik bertatik eta gainontzekoak 7:30etan Aldaolatik. Bidea Amezti elkarteko kideen gidaritzapean egin zen urtero bezala. Ibilbide luzea burutu zutenei, Udalak Santu Espiritun edatekoa eraman zien ibilbidea samurrago egin ziezaieten.



Aizkorriko tontorrean mendizaleak ibilaldi luzearen ondoren atsedean hartzen



Mendi tontorrean kaba edanez ospatzen da Aizkorriko Lagunen Eguna



Jendetza bildu zen hegaluzea dastatzera



Herriko elkarteetako kideen laguntza ezinbestekoa izan zen

Aizkorriko tontorrean zirela, ohitura den moduan cava edan zuten bertaratuek eta jarraian, urteroko Aizkorriko Lagunen argazkia atera zuten Aizkorriko puntan. 10:00ak aldera itzulerako bideari ekin zioten guztiak, batzuk Zegamara eta besteek Aldaolara. 11:30ak 12:00ak inguruan iritsi ziren guztiak herrira.

Ordurako Zegamako plazari hegaluze usaina zerion. Aurten ere, iaz izan zuen arrakasta ikusita, Eusko Labeleko hegaluzearen dastatzea antolatu zen 11:30etatik 14:00ak bitartean. 1,50 €ren truke hegaluze pintxoak dastatu eta sagardoa nahiz ardoa edateko aukera izan zen

plazan. Honela, mendian izan zirenek eta aukera hori izan ez zuten herritarrek, guztiak izan zuten Aizkorriko Lagunen Eguna ospatzeko aukera.

Egunari amaiera emateko, arratsaldeko 18:00etan buruhandiak izan ziren herriko plazan beti bezala arrakasta lortuz.

AITOR PEREZI HARRERA

Pasa den uztailaren 26an, Zegamako Udalak harrera egin zion Aitor Perez Arrieta txirrindulari zegamarrari, bere txirrindulari-ibilbidea goraipatuz. 2010ean egindako lorpenik aipagarriena Frantziako Tourreko 15. etapan lortutako 3. postua izan da. Honen arira, Frantziako Tourretik itzuleran, Zegamako Udalak, Elkartu-Nahi Txirrindulari elkartearen laguntzarekin harrera beroa egin zion Aitorri eta bertan izan ziren hainbat herritar ere. Edurne Albizu alkateak eta Udaleko hainbat zinegotzik harrera egin zioten udaletxeko sarreran eta Zegamako txistulari taldearen doinuak lagun, Tobera musika eskolako dantzariak agurra dantzatu eta udaletxerako sarreran arkuak egin zioten. Jarraian, udaletxeko batzar-aretoan

Edurne Albizu alkateak, Aitorren txirrindulari-ibilbidea aitortuz, koadro bat oparitu zion Udalaren izenean eta Elkartu-Nahi txirrindulari elkarte

Josetxo Arizkorretak ere izan zuen goraipamenik Aitorrentzat. Jarraian, Kasino elkartearen luntxa izan zen harreraren parte hartu zutenentzat.



■ GURE BASERRIAK ETA PARAJEAK (IX)



▲
Lokatza

Oilari
▼





▲
Moleo

Zubitxoeta



IX. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

2010eko MAIATZAK 23



ELUR GUZTIEN GAINETIK...

Maiatzak neguari oparitzen dizkion eguraldi trakets horietako batekin egin zen aurtengo Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia, Aizkor gaineko zelai eta harkaitzak elurpean zirela, maiatzaren 23an.

Hain erraz ere ahaztuko ez dugun eguna, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren bederatzigarren ediziokoa. Horrelako mendi lasterketa bat egiten den aldiko, beti baldin bada miresgarri lasterkarien adorea eta kemena, are eta miresgarriago egiten zaizkigu, Aratz, Aizkorri eta Atxuri gainak elurretan igaro eta maldan beherako herio larri hartan korrika ikusi eta gero.

Behin berritan, eguraldiak eguraldi, ikusle jendearen berotasunak eman zion bizitasuna eta indarra karrerari, **Kilian Jornet** txapeldunak bere blogean idatzitako hitz ederrotan aitortu zuen bezala:

“Cuando suena su nombre notas cómo desde los brazos hasta la nuca corre un escalofrío, oyes gritar en el fondo de tu mente los miles de espectadores en el alto del Aizkorri, como los guerreros de Braveheart antes de la batalla final. Sientes como todo el cuerpo explota y no puedes continuar luchando, pero sigues adelante por ellos a lo Gladiator. Sin duda Zegama.”

Elurrak, lokaztiak eta paraje labaingarriak jarritako zailtasunengainetik, **Kilian Jornet** izan zen irabazle eta, zaletu euskaldunen pozerako, **Aitor Osa** txirindulari ohia bigarren, kirol modalitate honetan ere, lehen bizikleta gainean bezain iaioa eta indartsua dela erakutsiz.

- **Kilian Jornet** 3:56:30
- **Aitor Osa** 4:08:27
- **Miguel Ángel Heras** 4:09:17

Emakumezkoetan, Emanuela Brizio italiarrak lortu zuen txapela -Zegaman jantzen duen

bigarrena dagoeneko -, Nerea Amilibia aiatarren aurretik.

- **Emanuela Brizio** 4:47:51
- **Nerea Amilibia** 5:09:54
- **Oihana Azkorbebeitia** 5:10:49

Lasterketari hasiera eman aurretik, 1980an **Martin Zabaleta** hernaniarrak Everest mendiaren gailurra egin zuen espedizioa kideak omendu genituen eta, batez ere, espresuki, **Luis Maria Saenz de Olazagoitia**. Izan ere, berak, Everesterako espedizioa egin eta hogeita hamar urtera, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren IX. edizio honetan parte hartu baitzuen, orduan bezain gogotsu eta sasoi oneko. Aurten 313 dortsala egokitu zitzaion lasterketarako. Zorionak, Luis Mari!

Gainerakoan, eguraldiaren gorabeherek izan zuten noski eraginik antolakuntza lanetan, mendi gailurretan batez ere, eta baita Euskal Mendi Federazioko erreskate talde bereziak, Gurutze Gorriak eta gainerako laguntza zerbitzuek egin behar izan zituzten lanetan ere. Larrietan, bereziki aipatzekoa, korrikalari katalandar



Kilian Jornet elurretan



Gizonezkoen podiuma



Podiuma osatu zuten hiru emakumeak



Luis Maria Saenz de Olazagoitia, omenaldia jaso aurretik

batek Moanon behera zetorrela izandako erorialdia eta belauan inguruan egindako zauri irekia. Bere larrian, larriagorik ez, eta antolakundea pozik, egunak izan zituen zailtasun eta elur guztien gaintetik, behin berritan, mendi lasterketa ikusgarria eta arrakastatsua izan zelako.

Dagoeneko martxan daude hamargarren edizioako antolakuntza lanak. **International Skyrunning Federation** - **ISF**ek eman du ezagutzera 2011ko egutegia eta Zegama-Aizkorri Mendi

Maratoia, hor izango da, behin berritan, munduko lasterketa handien lekuan. Zorionak, Zegama!

Kilian Jornet-ek, Zegama-Aizkorri mendi lasterketa irabazi eta astebetetera, Hondarribitik Katalunyarako ibilbidea osatu zuen zazpi egunetan, oinez eta korrika, Kantauriitsaso eta Mediterraneo Pirinioak zeharkatuz elkartzeko desioari eta erronkari erantzunez. Baita egin ere! Honela idazten zuen egindakoaz, bere berea duen apaltasunetik:

“Entre aguas para encontrarse a uno mismo.

(...)

Estoy satisfecho, porque los tiempos, los récords o las victorias se olvidan pero los momentos que he vivido durante esta travesía nunca se van a borrar de mi memoria.”

Bejondeiala, motel!

Julian Beloki Guerra

2011 SKYRUNNER® WORLD SERIES

RUSSIA: Vertical Kilometer® - Mt Elbrus - May 7

SPAIN: Maratón Alpina Zegama-Aizkorri - Basque Country - May 29

ITALY: Dolomites SkyRace® - Canazei, Trento - July 24

SWITZERLAND: Course de Sierra-Zinal - Zinal - August 14

USA: Pikes Peak Marathon / Ascent - Colorado - August 20/21

ITALY: Sentiero delle Grigne SkyMarathon® - Pasturo, Lecco - September 18



Aratz gaineko kontrol “kanpamendua”



Aitor Osa txirrindulari ohia orain korrika



Kilian Jornet Pirinioetako zeharkaldian

Juliana Larrea Mendizabal

**NIRE JAIOTETXEAN, ERROTA
GENUEN ETA BERTAN
ARITZEN NINTZEN AITARI
LAGUNTZEN**



Non eta noiz jaio zinen?

1920eko urtarrilaren 28an jaio nintzen Zegamako Jauregi etxean eta bertan bizi izan nintzen ezkondu bitartean.

Zenbait senide zineten?

5 senide ginen, hiru neska eta bi mutil. Egun hiru bizi gara, Donostiako ahizpa Xixili da hirurotan zaharrena 98 urterekin, gero Andres 95 urterekin eta neu naiz gazteena 91 urte gain gainean ditudala. Beste bi anaiak tifus gaitzak jota oso gazterik hil ziren. Aita Hermenegildo Mendiatakoa zen, zegamarra eta ama Justa berriz zeraindarra, Oatza baserrikoa.

Pena bi anaiena...

Bai, eta neu ere justu justuan libratu nintzen! Anaia zaharrena, Joxemari mendian ibiltzen zen lanean eta behin Aizkorri aldean zebilela, han iturrik ez dagoenez putzu batetik ura edan eta tifus gaitza harrapatu zuen. Joxemarik niri eta ahizpa Mariatxoi erantsi zigun gaitza eta ni sendatu banintzen ere, beste biek ez zuten gaitza menderatu eta esan bezala, gazterik hil ziren.

Gero, gaitza harrapatzeko beldurrez inork hilobiratu nahi ez eta azkenean Anduetzako Jose Ramonek eta apaizak hilobiratu zituzten.

Eta, zein da hainbeste urte bizitzeko sekretua?

Gure aitak Jauregi etxean errota izan zuen eta guk, garaik latzenetan ere ez genuen goserik pasa. Taloa eta esnea ez genuen falta izan eta behar bada, hori izan daiteke arrazoia. Taloa eta esnea oso alimentu osasuntsuak dira!

Bistan da bai! Eta zein oroitzen dituzu Jauregiko errota hartaz?

Esan bezala, aitak errota zuen Jauregi etxean eta neu ere bertan aritu nintzen lanean aitari laguntzen. Umeak ginela, aitak kulunpio bat jarri zigun errotan eta ni bertan lanean ari nintzen bitartean, nire lagunak errotara etortzen ziren jolastera. Nire lana, artoa aletzea izaten zen eta aita ez zenean alea ehotzea ere bai. Aitak ongi erakutsi zidan non bota behar nuen alea

eta nola martxa eman behar nion errotari eta beraz, aita kanpoan zenean ere errota martxan izaten zen! Dena den, errotan bakarrik ez, soroan ere lagundu behar izaten nion!

**“
Gure aitak Jauregi
etxean errota izan zuen
eta garai latzetan ere
ez genuen goserik pasa
”**

Kaletar baserriarrak zineten beraz!

Bai, egun Kooperatiba dagoen etxea, Elor Txiki, Arrano Aitz, eta Goiz Eguzki etxea eraikita dauden lur-sail haiek denak gureak ziren eta guztiak soroak ziren. Beraz, nahiz eta kalean bizi, baserriko bizimodua eraman genuen. Anaia Andresek Papeleran egiten zuen lan mekaniko gisa eta nire ahizpa berriz jostuna zen, eta beraz, niri tokatu zitzaidan baserriko lanetan aritzea.

Zein labore ereiten zenituzten soroan? Eta baratzean?

Soroan batez ere artoa eta indoaba ereiten genuen. Artoa haztean, hauen lorea (artaberdea) bildu eta behiei ematen genien jateko, hurrengo lana indoabak biltzea izaten zen eta azkenik, artaburuak heltzen zirenean haiek bildu eta ganbarara eramaten genituen lehertzera. Behin uzta bilduta, berriz lurra prestatzen hasi behar izaten ginen hurrengo urterako.

Baratzean berriz denetik izaten genuen, azak, tomateak, porruak, bainak, azaloreak...baratzetik mantentzen ginen!

Beraz, soroak edukitzeaz gain animaliak ere bazenituzten...

Bai, etxearen alde batean errota zegoen eta beste aldean ukulua genuen. Bertan, behiak, idiak eta astoa izaten genituen eta

baita oiloak eta konejuak ere. Hauentzako garo bila mendira ere joaten ginen. Oraingo aldean bizimodu sana egiten genuen orduan!

Etxeko soroekin eta errotarekin nahiko lan ez eta mendira ere bai?

Bai, ganaduarentzat azpiak egiteko garo bila mendira joaten ginen, Oazurtzara hain zuzen ere. Lapikoa etxetik eramaten nuen prestatuta, hau da, beharrezko osagaiak botata eta gero, mendian bertan egosten nuen. Sua egin, honen gainean aitak prestatutako txapa bat jarri eta honela egosten nuen lapikoa, mendian bertan bazkaltzen baikenuen! Garaio biltzearena, udazkeneko lana izaten zen eta sasoi horretan jadanik egunak motzak zirenez, ilunpetan abiatzen ginen etxetik eta ilunpetan itzuli. Leran ekartzen genuen aita eta bion artean garaio Oazurtzatik.

Eskolan ere ibiliko zinen...

Bai, monjetan ibili nintzen. Eskola etxe ondoan bertan geneukalako edo, dezente berandura arte ibiltzeko zortea izan nuen.

Eta zer moduz mojekin?

Orokorrean onak ziren, ia gehienak kanpotarrak. Jolas garaitik kanpo, isilik egon behar izaten genuen eta geure aukitik altxa gabe gainera! “Estudiatzen!” Laboreei dagokiela, ez genuen gauza handirik egin, justu-justu ikasi genuen bordatzen baina esku-lan handirik ez genuen egin.

Eta dena erdaraz, noski!

Bai, eskolan dena erdaraz egiten genuen. Dena den, ni nahiko ongi moldatzen nintzen eta ez nuen arazorik izan, txiki txikitatik erdaraz hitz egiten ohitua bainengoen! Nire lagunak, Don Eugenioren alabak



Juliana jaunartzea egin zuen egunean

adibidez, erdaraz hitz egiten zuten eta beraz, umetatik ikasi nuen erdaraz. Eskolan batzuekin euskaraz aritzen nintzen, beste batzuekin berriz erdaraz, ez dut euskaraz hitz egiten genuelako inoiz zigortu gintuztenaren oroitzapenik.

Lan egin, ikasi... eta jolastu?

Gehienetan "Guardia Zibiletan" ibiltzen ginen jolasten. Batzuk ezkutatu egiten ziren eta besteek, Guardia Zibilek alegia, hauek aurkitu behar zituzten. Maxkarreko puntaraino joaten ginen ihesi eta ez gintuzten harrapatzen!

Eskola uztean, zer egin zenuen?

Eskolan nenbilela, telefonoan lanean hasteko deitu zidaten eta horretan hasi nintzen.

Baserria, errota, telefonoa... ofizio asko izan dituzu beraz!

Bai, eta ez horiek soilik! Maniki gisa ere ibili behar izaten nuen! Nire ahizpa, Xixili, oso jostun ona zen eta kategori handiko bezeroak zituen gainera! Markesak, Rebillanekoak.... Urte guztirako arropa nire ahizpak josten zien eta gero, Donostian, Balentziagarenak zirela esaten omen zuten! Ni, maniki gisa ibiltzen nintzen, arropa guztiak probatu behar izaten nituen eta nik ez dakit nola baina oso ongi asmatzen zuen bakoitzaren neurrira arropak josten!

“

**Eskolan nenbilela,
telefonoan lanean
hasteko deitu zidaten
eta horretan hasi nintzen**

”

Dotore jantzita ibiliko zinen zu ere...

Bai, alde horretatik ere zortea izan nuen, ahizpak josten zidan niri ere arropa. Perfetari erosten zizkion telak eta honek askotan retalak ematen zizkion. Arropa onak izaten genituen.

Konta iezaguzu zer bait telefonoko lanari buruz...

Garai hartan ez zen etxeetan telefonorik izaten, telefono bakarra zegoen herrian, Jauregin alegia. Gure lana telefonoz abisuak jasotzea zen eta ondoren, abisu hauek zegokion pertsonari ematea. Abisu guztiak neuk entzun behar izaten nituen eta ondoren idatzi. Behin baino gehiagotan tokatu zitzaidan goizeko 3:00ak edo 4:00ak aldera baserrietara joatea telegramak eramatera, a zer nolako beldurra! Papelerakoek, apaizek, medikuak... lan asko ematen zidaten!



Juliana gaztetan

Telefonoan lan eginda kontu asko jakiten dira, esateko modukoak ez direnak ere bai!

Zegamarra izanik, festa zalea ere izango zara...

Bai, igandero banda egoten zen herriko plazan eta udaletxeko arkupean dantza saio ederrak eginak gara! San Bartolomeetan ere festa oso onak antolatzen ziren, jende ikaragarri etortzen zen kanpotik. Aizkora apustuak ere izaten ziren eta hanka ebakiko zutenaren beldurrez egoten nintzaien begira.

Inguruko herrietara ere joaten ginen, Idiazabalgo jaiak nituen gustukoak. Gogoan dut behin Idiazabala joan eta autobusak ihes egin zigunekoa. Karmen Erauskin eta biok korrika itzuli ginen etxera berandu gentozelako errieta egingo zigutenaren beldurrez! Iluntzeko 9:00ak izango ziren baina... beste garai batzuk ziren haiek! Beasaina berriz behin bakarrik joan ginen eta ez zitzaidan batere gustatu! Ez ginen itzuli gehiago!

Zegaman festa ugari egiten ziren urtean zehar, ba al duzu festa kuttunik?

Arantzazuko Peregrinazioko eguna oso gogoko dut. Duela 10 urtera arte, hutsik egin gabe urtero-urtero joan naiz Arantzazura oinez eta oso oroitzapen onak ditut!. Orain alabarekin autoz joaten naiz baina ez da gauza bera!

Gerra bizitzea ere tokatu zitzaizuen, ez ziren garai samurrak izango haiek...

Guk errota izatearekin zortea izan genuen. Garai hartan dendetan ez zegoen ezer eta beraz, eskerrak errotari! Garai hartan familiak ugariak izaten ziren eta jendeak gosea pasa zuen. Guk gerora jakin izan genuenez, gure aitak, taloak egiteko irina

ematen omen zien ezkutuka jendea eta aita hil zenean, jende asko etorri zitzaigun etxera eskerrak ematera, hari eskerrak bizi zirela esanez. Entzuna diot herritarren bat fusilatua izatek ere nola libratu zuten! Herritar hura fusilatu behar bazuten bera ere fusilatzeke esan eta txiripaz baina biak libratu omen ziren azkenean!

Zer nolako giroa bizi zen garai hartan herrian?

Kalean emakumeak eta haurrak ikusten ziren soilik, gizonezko gehienak gerran baitziren! Jaiero Beruntze ondoko gaztainadira joaten ginen emakume koadrila bat eta kartetan jolasean aritzen ginen bertan. Apaizak hortaz ohartu zirenean, haiek ere guregana etortzen hasi ziren eta guztiok aritzen ginen kartetan. Primeran pasatzen genuen!

Kontu tristeak alde batera utzita, zein oroitzapen dituzu zure ezkontza egunaz?

Zegamako Elizan ezkondu ginen. Nik orduan 30 urte nituen eta nire senar Robertok berriz 43, 13 urteko aldea genuen. Oso dotore joan ginen ezkontzara, beltzez jantzita garai hartan ohitura zen moduan. Soinekoa ahizpak josi zidan. Ezko-bazkaria Zirkuloan egin genuen eta ezkonbidaian berriz Madrila eta Valentziara joan ginen. Oraindik gordeta ditut bidaiako hoteletako erreziboak.

Luxuzko ezkon bidaia beraz!

Bai, nire senarrak urte asko egin zituen kanpoan lanean hargin eta igeltsero moduan. Hori dela-eta, asko zekien kanpoko berri eta behar bada hori izan zen horrelako ezkonbidaia egitearen arrazoia.

Senarra ere zegamarra izanik, bizi guztitik ezagutuko zenuten elkar...

Ez pentsa, esan bezala Roberto ni baino 13 urte zaharragoa zen eta gainera urte asko egin zituen kanpoan lanean. Bera



Juliana eta Roberto senarra

Irigon baserrikoa zen eta senideetan gazteena. Anaia zaharrago batekin Arabara joan zen oso gazterik lanera eta urte asko egin zituen kanpoan. Huesca aldean berak eginiko paretak zutik daude oraindik!

Nobio egin ginerako jadanik adinean aurrera zihoan eta beraz, segituan ezkondu ginenerako. Ezkondu ondoren, hargin eta igeltsero lanean jarraitu zuen eta berak egin da Goiz Eguzki etxea eta Otzaurteko eliza ere. Dena den, ez zuen zorte handirik izan! Oso gazterik gaixotu zen, 62 urterekin, seme-alabak oraindik oso gazteak zirenean.

Ezkondu ondoren non jarri zineten bizitzen?

Ezkontzean Zupurrutin jarri ginen bizitzen, bertan bizi ginela jaio ziren lehen semea – jaiotzean hil zena- eta alaba Maite. Etxe jabeak Aierdin bizi ziren eta haiek base- rria utzi eta Zupurrutira bizitzera etorri zirenean, gu linterneraren etxera -gaur Eduardo bizi den gure aldamenekora- etorri ginen bizitzera eta hor jaio zen Alberto semea.

Han hainbat urte egin ondoren, senarrak egun nire seme Alberto eta iloba Ainhoa bizi diren Goiz Eguzki etxea egin zuen eta bertan jarri ginen bizitzen.

Apopiloak ere izaten omen zenituen ba etxean...

Bai, ezkondu eta gero, nahiz eta senarra igeltsero eta hargin moduan lanean ibili, neuk ere zerbait egin nahi eta apopiloak hartzen hasi nintzen etxean. Medikiak, botikariak, praktikanteak, maisuak, mais- trak, beti jendez beteta egoten zen gure etxea. Garai hartan ez zegoen gaur egun bezala osasun zentrorik eta praktikanteak gure etxeko gela batean jartzen zuen bere kontsulta. Hori dela-eta, etengabe jendea izaten zen sartu irteanean gure etxean.

Goiz Eguzki etxean bizi ginela ere, Kont- zejutik eta Manolo tabernatik sarritan etortzen zitzaizkidan apopiloak hartze- ko lekurik nuen galdezka. Trenbidean konponketak egitera, kaminoak egitera... langile jende ugari etortzen zen Zegama-



Juliana eta Roberto euren seme-alabekin etxe aurrean

ra. Askotan, goizean langile talde batek etxea utzi eta iluntzean beste bat sartzen zen. Hori dela-eta, izara askorik ez nuen, goizean izarak garbitu eta iluntzerako berriro prest eduki behar izaten nituen, lan izugarria izaten nuen askotan! Eta izarak ezezik, neuk garbitzen nizkien arropak ere langileei !

Eta orain, zertan pasatzen duzu eguna?

Goizean 8ak aldera jaiki eta ohea egiten dut. Gero, neure burua txukundu eta gosaldut egiten dut. Ondoren, kalera joaten naiz periodikoa erostera eta beste zenbait enkargu egitera. Etxeratzean, egunkaria irakurri bitartean, lapikoa zaintzen pasatzen dut eguerdi artea. Ordu bata aldera bazkaldut egiten dugu alaba eta biok eta ondoren siestara joaten naiz hirurak alde- ra arte. Gero, eguraldi ona egiten badu, Aitamarren etxe ondora joaten naiz tertulia egitera. Beste batzuetan berriz, lagunak bisitatzea joaten naiz eta eurekin merien- datzen dut. Etxera itzultzean, afari koxkor bat egin eta goiz samar oheratzen naiz, izan ere ohetik telebista ikustea asko gustatzen baitzait.

Ba al duzu afiziorik?

Asko gustatzen zait irakurtzea. Esan bezala, goizean jaiki, gosaldut eta egiten dudana lehen lana kalera joan eta periodikoa erostea izaten da, bat geuretzat eta bestea semearentzako. Lehen egune- ro irakurtzen nuen egunkaria eta orain- dik ere, halaxe jarraitzen dut. Politika ere asko atsegin dut.

Aspaldiko afizioa duzu beraz egunkaria irakurtzearena...

Bai, lehen garai batean Galdosenekoekin erdi bana erosten genuen egunkaria. Guk hartu eta goiz-eguerdi partean irakurtzen genuen eta gero, bertako seme-alabaren batek beste etxera eramaten zuen. Horrelaxe egin genuen 30 bat urtez. Gerora, umeak handitu zirenean bakoitza geurea erosten hasi ginen.

“

Agindutakoa betetzen duten eta ongi portatu diren jakiteko urte osoan zehar egiten diet jarraipena politikariei

”

Eta politika ere aipatu duzu....

Bai, gertu gertutik jarraitzen ditut politikari guztiak. Agindutakoa betetzen duten eta ongi portatu diren jakiteko urte osoan zehar egiten diet jarraipena eta ikusitakoaren arabera erabakitzen dut hauteskundeetan zeini eman botoa. Telebistako debateak ere oso atsegin ditut.

Zure bertute bat...

Oso pertsona optimista naiz eta ez dut egindako ezereen penarik, hori bizitzan oso garrantzitsua da.

Zer eskatzen diozu urte berriari?

Zer eskatuko diot ba nire adinarekin? Osasuna eta bakea izan dezagula denok.

Oihana Zubizarreta



Juliana bere familiarekin

Jorge Garcia

ALTZUKARAN IKUSTERA ETORRI NINTZENEAN BERE INGURUKO PAISIAK LILURATUTA UTZI NINDUEN



Noiz etorri zinen Zegamara? Zergatik?

Nire haurtzaroa Irunen pasa ondoren, 23 urte nituela Madrilera joan nintzen, han burutu nituen ikasketak eta bertan aritu nintzen lanean ere. 28 urterekin, Madrilera jarraitzearen edo Irunera itzuli, bertan baserri bat erosi eta nekazaritza ekologikora dedikatzearen artean egin behar izan nuen aukera. Nire gogoak nekazaritza ekologikoan jardutea zen eta ondorioz, ibilian-ibilian Altzukanan baserri bizi jartzeko aukera sortu zitzaidan eta beraz, kasualitatea izan da ni Zegamara etortzea.

Zer du berezi Altzukanan baserriak?

Lehen aldiz baserria ikustera etorri nintzenean, bere inguruak, Aizkorri alde batera eta Oria bailara beste aldera, erabat liluratuta utzi ninduen eta nahiz eta konponketa handiak egin behar izan baserrian bizitzeko moduan jartzeko, ekonomikoki ere aukera ona zenez, bertan geratzea erabaki nuen.

Zertan egiten duzu lan?

Egun, nekazaritza ekologikora dedikatzen naiz baina aurreko urteetan, nekazaritzan aritzeaz gain beste lan batzuk ere egin behar izan ditut.

Zer da nekazaritza ekologikoa?

Nekazaritza ekologikoa, ez da ezer berria eta modernoa. Joan den mendean, ongarri kimiko, intsektizida eta elikagaien ekoizpenean erabiltzen diren bestelako produktu kimikoak sartu ziren arte, nekazari guztiek ingurua errespetatzen zuen nekazaritza-teknikak erabiltzen zituzten, ongarri moduan simaurra eta

landare hondakinak erabiliz. Nire iritziz, nekazaritza ekologikoa, ingurunearen hobekuntza oinarri duen nekazaritza da, honela, hurrengo belaunaldi ingurune hobea uztea ahalbidetuz eta naturan kalterik eragin gabe elikagaiak lortuz. Azken finean, nekazaritza ekologikoa, ingurua babestuko duten teknikekin oinarritzen den nekazaritza da gai naturalen birziklatzeaz lortzen diren ongarriekin lurra ongarrituz, lurren errotazioa eginez, lurraren emankortasuna bermatze aldera landareak egoki konbinatuz eta gaixotasun, parasito eta belar txarren garapena produktu kimikorik erabili gabe kontrolatuz .

“ Azken finean, nekazaritza ekologikoa, ingurua babestuko duten teknikekin oinarritzen den nekazaritza da ”

Egin al duzu nekazaritza ikasketarik?

Bai, 1996 urtean, Arteaga-Zabaltegi Fundazioan hainbat ikastaro burutu nituen. 1999 eta 2000 urteetan berriz, Zizurkilgo Mendikoi-Fraisoron, nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaro batzuk egin nituen eta geroztik gai honekin lotutako ikastaroak egiten jarraitzen dut.

Zein produktu ekoizten dituzu?

Barazkiak ekoizten ditut batez ere, eta ekoizpen bolumena, eskarien arabera finkatzen dut. Udaberri udara aldean, letxugak, ilarrak, tipulinak, lekak, pepinoak, kalabazinak eta Gernikako piperrak ekoizten ditut eta udazken negu aldera berriz kalabazak, babarrunak, azenarioak, azaloreak, azak eta porruak. Barazkiez gain, urte sasoiaren arabera, fruituak ere izaten ditut, aranak, sagarrak, mizpirak, udareak, intxaurreak...

Zertan ezberdintzen dira zure baratzeko produktuak eta edozein dendatan aurki ditzakegunak?

Nik ekoizten ditudan barazki eta fruituek ez dute bizidunen osasuna eta ez lurraren, airearen eta uren egoera kaltetzen. Nire barazkiak jaten dituztenek, dendetan erositakoak baino askoz ere zapore hobea dutela esaten didate, ez dutela dendan erositako barazkien antzik ere. Zientifikoki frogatuta dago gainera barazki ekologikoen propietate elikagarri gehiago dituztela, mineral gehiago, bitamina gehiago, eta ur gutxiago hauen iraupen luzeagoa bermatuz.

Non edo nola eros ditzakegu zure produktuak?

Errazena, helbide elektronikoaren bidez nirekin harremanetan jartzea da (altzukan@gmail.com). Behin nirekin harremanetan jarrita, astero, ditudan produktuen zerrenda bidaltzen diet bezeroei eta hauek, zerrenda horretan oinarrituz eskariak egiten dizkirate. Ondoren, hauek prestatu eta eramanez egiten dizkiet.

Datorren urteetarako zein asmo dituzun?

Epe motzera, nekazal lur gehiago eskuratzea da nire asmoetako bat, izan ere, dudak eskaria handiagoa baita ekoizteko dezakedana baino. Negutegi txiki bat jartzeko asmotan ere banabil honela, zenbait produkturen ekoizpen garaia aurreratzeko eta aldi berean luzatzeko. Altzukanango klima nahiko gogorra eta gainera, oso altu dago baserria. Hori dela-eta, zenbait produktu ekoiztea nahiko zaila da, tomateak adibidez. Baina beno... dagoen egoera ikusita, konforme naiz planeta txiki eder honetako zatitxo batez gozatzeko aukera dudalako.

Oihana Zubizarreta



Jorgeren baratzeko ekologikoa



Altzukanan baserria Aizkorri azpian

Julian Alonso Santa Catalina

**IRUNEN JAIO, URTE BATZUK
SEGURAN BIZI ETA
ZEGAMAN BUKATU DUT
AZKENEAN**



Non eta noiz jaio zinen?

Irunen jaio nintzen 1923 urtean.

Zenbat senide zineten?

Guztira lau ginen. Ni nintzen gazteena eta beste hiru arreba nituen zaharragoak. Gaur egun arreba zaharrena eta ni gaude bizirik.

Nongoak ziren zure gurasoak?

Aita madrildarra eta ama donostiarra.

Zein zen zure aitaren ogibidea? eta amarena?

Aita saltzailea zen eta ama berriz etxeko martxaz arduratzen zen.

Non ibili zinen eskolan?

Lehen mailako irakaskuntza Irungo eskolan egin nuen eta gero fraileen ikastetxe batetan egon nintzen 16 urtera arte.

Zure arrebek ere izan al zuten aukerarik ikasketak egiteko?

Bai. Nire hirurak arrebek merkataritzako karrera egin zuten eta hiruak lan on bat bilatzeko aukera izan zuten. Bat Pasaiako portuan lanean aritu zen eta garai hartan erraza ez bazen ere, Londresera joaten zen ingelesa ikastera, gero portuan ingelesez hitzegin beharra izaten baitzuen.

Etxean zein lan egin behar izaten zenuen?

Gure aita nik 6 urte nituela hil zen eta ondorioz denetik egitea tokatu zitzaidan. 16 urterekin hasi nintzen lanean, izan ere, etxean sartzen zen soldata bakarra nirea zen. Nik etxetik kanpo lan egiten nuen.

Zer egin ohi zenuten denbora librean?

Nire haurtzaroan ez nuen denbora libre gehiegi izan. Denbora nuenean lagunekin jolastea gustatzen zitzaidan. Mendira joatea ere gustuko nuen eta hainbat aldiz joaten ginen inguruko mendietara, hala nola, Jaizkibel eta Aiako Harrietara.

Udako oporretan ezer berezirik egiten zenuen?

Hondarribi gertu genuenez, sarri joaten ginen oinez hondartzan eguna pasatzera. Gogoratzen dut baita ere, hiru urtez Foru Aldundiak antolatzen zituen Ribabellósako udalekuetara joan nintzela uda igarotzera. Egurrezko eta kortxoeko barrakoiak zeuden. Ekintza ugari egiten genituen bertan: mendira irteerak, elizara joan, jolasak, potzuetan bainatu...Lagun ugari egin nituen. Izugarritzko oroitzapen onak dauzkate urte haienak.

Noiz hasi zinen lanean? eta zertan?

16 urterekin hasi nintzen. Donostiako aroztegi batetan hasi nintzen apendiz beza-

la. Egunean sei erreal irabazten nituen. Nire arrebak ondoko inprenta batean lan egiten zuten eta aroztegiko jabeak ezagutzen zituen. Horrela hasi nintzen lanean.

Gero ofizioz aldatu zenuen ezta?

Bai. Irungo ezagun batek Seguran lan egiten zuten. Esan zidan bazegoela niretzako lana eta nahi banuen joateko. Arrieta familiarekin hasi nintzen orduan. Garai hartan alpagatak egiten zituen fabrika bat zuten eta denbora batez alpagatak egiten aritu nintzen. Alpagatak egiteko tela ere bertan egiten genuen eta tela hauei nahi genuen kolorea emateko makina bat geneukan. Horrela, kolore askotako alpagatak egiten genituen.

Alpagatak egiten aritu ondoren zer?

Arrieta familiak txorixeria zabaldu zuen. 40. hamarkadan kamioia ibiltzeko karreta atera nuen. Saltzailearekin haruntz eta honuntz ibiltzen nintzen kamioi gidari. Enbutidoak saltzen genituen, batez ere Gipuzkoan baina Bizkaia eta Santander aldera ere joaten ginen noizean behin.

“ Lanbide ugari izan ditut: arotzgingtza, alpagatak egiten, gidari eta mekanikari. ”

Zer gehiago egiten zenuen kamioiarekin?

Arrieta familiak pinudi asko zituzten eta txorixerian lan egiteaz gain, papeleretara egurra eramaten nuen. 50. hamarkadan, Zegamako elektrokimikara ere etortzen nintzen lejia eta sosa bila, gero papeleretara eramateko. Madrilerara ere joaten ginen, izan ere, agente komertzialak zituzten han Arrieta sendiak.

Ikasi al zenuen beste ofiziorik?

Txorixerian nenbilen bitartean, mekanika pixka bat ere ikasi nuen orduan txorixeriko mekanikoa zen Ezenarro ordiziarrarekin. Furgonetak, kamioiak... konpontzen ibiltzen ginen eta gustuko nuen mekanika.

Noiz arte aritu zinen lanean txorixerian?

Arrieta familiak jabetza utzi zuen baina Beasaingo Dorronsoro familiaren jabetzapean jarraitu nuen lanean bertan, jubilatuta arte.

Seguran bizi izan al zinen?

Bai. Arrieta familiaren etxean bizi izan nintzen 20 urtez.

Noiz ezagutu zenuen Zegama?

Segurara lanera etorri nintzen izan nintzen lehen aldiz Zegaman. Askotan



Julian eta Rosario beraien ezkontza egunean.

etorri ohi ginen Segurako lagunekin. Zi-nearekin gogoratzen naiz asko. Ia beti oinez etortzen ginen eta noizean behin Konstantinoren autobusean. Orduetik asko aldatu da herria.

Nola ezagutu zenuen zure emaztea?

Zegamara sarritan etortzen nintzen Seguratik. Lanetik ere elektrokimikara askotan etortzen nintzen eta Rosariok papeleran lan egiten zuen garai hartan. Orduetik ezagutzen nuen. Gainera, nik familia nuen Donostian eta asteburutan sarritan joaten nintzen. Rosario ere larunbat eta igande askotan Donostiara joaten zen emakume baten etxera. Autobusean eta trenean elkartzen ginen. Ondorioz, adiskidetasuna sortu zen gu bion artean.



Bikotea ezkontza batetara joateko dotore jantzita

Noiz ezkondu zineten? Ezkontz bidaiarik egin al zenuten?

1979 urtean ezkondu ginen Billabonan. Egun ederra igaro genuen familia eta lagunekin. Ondoren, ezkontza bidaian Kanariar irletara joan ginen.



Julian Kanariar irletan, ezkontz bidaian.

Soldadutzarik egin al zenuen?

Loiolako kuartelean egin nuen soldaduta. Eskalatzaile eta eskiatzaile konpainian



Julian eta Rosario Esther ilobarekin honen jaunartzean.

nengoen eta Loiolan gutxitan egoten nintzen. Normalean mendian ibili ohi ginen eta Candanchun ere denboraldi luze batez egon nintzen. Eskiatzen ideiarik ere ez neukan baina erorketak eta golpeak hartuz ikasi nuen bai! Soldadutzako oroitzen onak ditut.

“
Mendia asko gustatu izan zait. Irunen bizi nintzenean Jaizkibel eta Aiako Harrietara joaten nintzen, hemen berriz Aizkorri aldera.
 ”

Gerra garaia nola gogoratzen duzu?

Garai horretan Irunen nengoen oraindik. San Martzial mendian etengabe tiro hotza entzuten genuen. Han izan zen 36ko uztailen urteko batailarik handiena. Ia Irun guztia kiskali zuten; Kolon pasealekua, Kale Nagusia... gure etxea sutetik ozta ozta libratu zen. Jende gehienak Frantziara ihes egin zuen eta itzuli zenean etxe kiskalduekin topatu ziren. Gu ere Frantziara joatekotan egon ginen baina azkenean nire ama, ordurako aita hilda baitzegoen, ez zen ausartu lau seme-alabekin joatea.

Zein afizio izan dituzu zure bizitzan?

Natura asko gustatu izan zait. Animalia zalea izan naiz eta gustuko izan dut mendian ibiltzea. Rosariorekin asko ibili izan naiz Zegama inguruko mendietan zehar. Baina belauneko arazoekin hasi eta hor bukatu ziren nire mendi ibilialdiak. Gaztea nintzela, bizikletaz asko ibiltzen nintzen. Gogoratzen dut egun batean, Otzaurtetik jeisten ari nintzela, bihurtune handi horietako bat hartzeko astirik izan ez eta bi zuhaitzen artean sasi artera joan nintzen. Ez dakit nola geratu nintzen bizirik!

Nola ikusten duzu gaur egungo Zegama?

Gaur egungo Zegama nik ezagutu nuen baino hobeto dago, asko aldatu da. Dena ondo zainduta dago eta oso polita dago herria.

Zer eskatzen diozu hain gertu dugun urte berriari?

Aurrekoa baino okerragoa ez dedila izan, izan ere, hobea izan dadila eskatzea zaila da gure adinean.

Ainitze Azurmendi



Julian eta Rosario egungo arkazki batean.

Anne Gragert eta Heike Hösterey



Badira jadanik urte batzuk Zegaman bizi zaretela, nolatan bi alemaniar Zegaman?

HEIKE: Duela 20 bat urte etorri nintzen Euskal Herrira lehen aldiz beste bi lagunekin. Lagun hauetako bat Iruñekoa zen eta jadanik 25 urte zeramatzan Alemanian. Bera, Iruñera itzultzeko asmotan zebilen eta berarekin Nafarroara etorri nintzen. Hasiera batean hiru hilabeterako etorri nintzen eta lekua gustatuz gero, bertan geratzeko asmotan. Geroztik Euskal Herrian bizi naiz eta beraz, gustatu zaidan seinale!

Beraz, Euskal Herria gustatu eta bertan geratzea erabaki zenuen. Ba al da zerbait bereziki hemen gelditzera bultzatu zintuenik?

HEIKE: Ez, ez nuke arrazoi bat esaten jakingo. Bizimodua gauza askok osatzen dute eta beraz, ez zen arrazoi jakin bat egon. Orokorrean hemengo bizimodua gustatu zitzaidan eta Euskal Herrian bizitzen gelditzea erabaki nuen, jadanik 20 urte daramatzat Euskal Herrian.

Beraz, alemaniarizat edo euskalduntzat jotzen duzu zure burua?

HEIKE: Euskal Herrian hainbeste urte eramanda, orain Alemaniako gazuzak dira

arraro egiten zaizkidanak. Egia esan, Alemanian arrarago sentitzen naiz Euskal Herrian baino.

Eta Nafarroan, non jarri zinen bizitzen?

HEIKE: Sunbillako baserri batean jarri ginen bizitzen. Baserria eta baserriko bizimodua oso gustuko genuen! Ni Alemanian herri handi batean bizi nintzen eta Anne berriz hiri handi batean, Hanburgon. Guretzat aldaketa handia izan zen baina onerako!

“

Arizti Zaharra baserri inguruko paisaia ikustean bertan gelditzea erabaki genuen

”

Eta zu Anne, noiz etorri zinen Euskal Herrira?

ANNE: Ni, Haike etorri eta handik bi urtera etorri nintzen egurra lantzeko asmoarekin. Heikek egurra lantzen zuen gizon heldu

bat ezagutzen zuen eta beregana joan nintzen egurra lantzen ikastera, 1993tik 1995era. Bertan, kaiukuak, tailak eta egurrezko tresnak egiten ikasi nuen.

Noiz jarri zenuen zure tailer propioa martxan?

ANNE: 1995ean jarri nuen. Hasiera batean neu hasi nintzen kaiukuak egiten baina lan asko nuela eta, Heike ere horretan hasi behar izan zuen.

Euskaraz ere bikain moldatzen zarete, non eta nola ikasi zenuten euskaraz?

HEIKE: Nik Euskal Herrira etorri nintzenean ez nekien, ez euskaraz, ez gaztelez. Hasiera batean ikasten hasi nintzen, goizean liburuetatik ikasten nuen gaztelez eta arratsaldean Sunbillako tabernara joaten nintzen praktikatzera baina Sunbillan gaztelez ikastea ez zen batere erraza! Guztiek euskaraz hitz egiten baitute han. Hori dela-eta, handik 6 bat hilabetera euskaraz ikasten hasi nintzen Doneztebeko euskaltegian. Hizkuntza zaila da ikasteko baina hanka sartzeko lotsarik gabe hitz egin genuen hasiera hasieratik eta hori da hizkuntzak ikasteko gakoa.

ANNE: Ni etorri nintzenean, goizetan Donostiara joaten nintzen gazteleraz ikastera eta arratsaldeetan berriz euskaltegiara euskaraz ikastera. Bi hizkuntzak ikasten hasi eta handi 6 bat hilabetera sekulako kakanahasta nuen buruan!

Jakina da Euskal Herrian gaztelania soilik jakinik ez dagoela komunikatzeko arazorik. Zerk bultzatu zintuzten euskaraz ikasten hastera?

HEIKE: Esan bezala, gu garai hartan Sunbillako baserri batean bizi ginen mendi puntan eta gure etxetik hurbil beste baserri bat zegoen. Bertakoek apenas zekiten gazteleraz eta beraz, beraiekin komunikatu ahal izateko euskaraz ikastea beharrezko suertatu zitzaigun. Honela, pixkanaka-pixkanaka beraiekin komunikatzea lortu genuen. Horrelako egoerak bizita, hemen bizitzeko euskaraz jakitea beharrezkoa dela konturatzen zara.

ANNE: Alemaniara bizitzera joaten bazara, alemanez ikasi beharko duzu eta ez ingelesez. Ba hemen gauza bera, Euskal Herrira etorritz gero euskaraz ikastea da logikoena. Jendeak asko eskertzen du euskaraz jakitea eta horrek ate asko irekitzen ditu. Animo faltarik ere ez genuen izan hemengo jendearen aldetik, eskertu egiten du jendeak euskaraz ikasi izana.

Hizkuntza kontuak alde batera utzita, zer dela eta etorri zineten Sunbilla utzi eta Zegamara?

HEIKE: Sunbillan bizi ginela, baserri bat erostea erabaki genuen han inguruan baina ez genuen egokirik aurkitu. Hori dela-eta, bilaketa esparrua zabalduta Zegamako Arizti Zaharra baserria aurkitu



Anne eta Heike alemaniarak Zegaman



Arizti Zaharra baserria neguan

genuen. Etxea eta bere ingurua asko gustatu zitzaizkigun eta honela, baserri hau erosi eta Zegaman gelditu ginen bizitzen.

ANNE: Baserria ikustera etorri ginenean eguraldi ederra zegoen. Bertako leihoa ireki eta Aizkorri eta bere inguruko paisaia ederra eguzkitan ikusi genuenean ez genuen zalantzarik izan, bertan gelditzea erabaki genuen.

Hura izan al zen Zegamara etorri zineten lehen aldia?

ANNE: Goierrri eskualdea pare bat urte lehenago ezagutu genuen. Artisau elkarteko kide gara eta elkarte horretako batzar orokor batera etorri ginen lehen aldiz inguru honetara, Zeraina hain zuzen ere. Zeraina Otzaurtetik barrena etorri ginen eta beraz, jadanik ezaguna genuen ingurua.

Zein izan ziren zuen lehen pausak Zegama aldean?

HEIKE: Baserria erosi genuenean, nahiko egoera txarrean zegoen eta hori dela-eta, pare bat urtez tailerra itxi eta etxea konpontzen aritu ginen. Igeltseroen laguntza izan genuen arren, gainontzeko konponketa guztiak Annek eta biok egin genituen. Egurra lantzen jakiteak asko lagundu digu horretan. Behin etxeko konponketa lanak amaituta, berriro ere tailerra ireki eta lanean jarraitu genuen.

ANNE: Zegaman tailerra irekitzeaz bat, kaikuak egiten jarraitzeaz gain xaboiak egiten hasi ginen.

Xaboiak aipatu dituzula, zergatik hasi zineten xaboiak egiten?

HEIKE: Kaikuak saltzea geroz eta zailagoa zela ikusi genuen. Alde batetik, egun geroz eta jende gutxiagok daki kaikuak zer diren eta bestetik, kaikuak egiteak



Kaiku etabestako egurrezko artzainen tresnak

esku-lan handia duenez, ez dira merkeak. Gainera, kaikua euskal tresna izanik, Euskal Herrian soilik sal daiteke eta xaboiak berriz merkatu zabalagoa dute.

ANNE: Biologo analista naiz eta Alemanian laborategi batean egin nuen lan. Hori dela-eta, xaboiakin proba egitea pentsatu genuen. Xaboiak posible da Euskal Herri-
tik kanpo saltzea. Xaboiak saltzen Valladoliden, Guadalajaran, Valentzian... izan gara eta harrera ona izan dute.



Garbi xaboi naturalak

Zer duten zuen xaboiak berezi? Azaleko gaixotasunak sendatzeko erabil al daitezke?

ANNE: Produktu naturalekin eginak dira gure xaboiak. Gaixotasunei dagokiera berriz, ez dira sendagai gisa erabiltzekoak, ez dakit horrelakorik egin daitekeen ere. Hainbat xaboi mota ezberdin egiten ditugu, batzuk apar gehiago sortzen dute beste batzuk baino, batzuk azala leunago uzten dute beste batzuk baino... baina ez dira sendagai gisa erabiltzekoak. Azoketan jende asko hurbiltzen zaigu azaleko arazorekin haurtzako konponbide bila baina guk dermatologoarenera bidaltzen ditugu.

Zein dira artisau izatearen abantaila eta desabantailak?

ANNE: Bai lan honek ere bere alde onak eta txarrak ditu. Guk ez daukagu fitxatu beharrik eta beraz, lan egiteko gogorik ez dugunean lana utzi eta nahi duguna egiteko aukera dugu, egia esan luxu handi bat da bizimodu hau!

HEIKE: Garai batzuk badira lan askokoak, beste batzuk berriz lasaiagoak izaten dira. Urtariletik apirilera bitartean lan gutxiago izaten dugu, izan ere azokarik ez baita garai horretan izaten eta honela, garai hau oporretara joateko aprobetxatzen dugu. Gabonak aurretik berriz lan asko izaten dugu, lan ordu askoko egunak izaten dira horiek!

Eta datorren azokan bezeroa Anne eta Heikeren postura joaten denean zer aurkituko du?

ANNE: Nagusiki xaboiak saltzen ditugu, azoketan kaikuak egitea oso zaila baita. Udara sasoiaren materiala lan egiteko moduan izatea nahiko zaila da, izan ere, neguan mozten baititugu urkiak. Bestalde, kaiku oso bat ezin da azokan egin, zati bat soilik egin daiteke eta hori dela-eta, azoketan kaikua egiteko prozesu osoa jasotzen duen ikus-entzunezko bat jarri ohi dugu jendeak ikus dezan.

“
Hainbat motako
xaboiak, bainurako
gatzak, masaia-olioak...
aurki ditzake bezeroak
gure saltokian.
”

HEIKE: Hainbat motako xaboiak aurki ditzake bezeroak gure saltokian, azal sentikorrentzakoa, azal koipetsuentzakoa, azal lehorrentzako... eta xaboiak gain gatzak, masaia-olioak, gorputzerako olioak eta esentziak ere aurki ditzake.

Eta azokara joan ezin duenak ba al du beste modurik zuen produktuak eskuratzeko?

Bai, internet bidez ere erosi daitezke gure produktuak, www.jabonesnaturalesgarbi.com web orrian. Bertan gure produktuen katalogo bat aurkitzen da eta helbide elektronikoko bat ere bai eskaria egiteko. Bestalde, guk parte hartuko dugun azokan egutegi bat ere jarria dugu zuzenean erosi nahi dutenentzat.

Eta amaitzeko, makina bat anekdota edo pasarte bitxi izango dituzue kon-tatzeko ezta?

ANNE: Gogoan dut azokan geunden batean gertatu zitzaiguna. Guk gure postuan saltzen ditugun produktuei, xaboiak esaterako, produktu bakoitza zer den azaltzen duen kartelxo bat jartzen diegu euskaraz eta gazteleraz. Ba azoka batean zera esan zion emakume batek beste bati: Hauek gazteleraz eta euren hizkuntzan jarri dizkiete kartelak produktuei. Dirudienez euskaraz ez zuen ezer ulertu...

Oihana Zubizarreta

Juan Carlos Irizar

**AIZKORRIKO ATARIA
MUSIKATUZ**



Nor da Juan Carlos Irizar?

Oñatiko Zubillaga auzoan jaio nintzen musikari konposatzaile bat naiz, musikari izateko jaioa. Nire familian ez da musikaririk egon baina nik banekien txiki-txikitandik muskarako eta musikatik biziko nintzela.

Zergatik aukeratu zenuen pianoa? Jotzen al duzu beste instrumenturik?

Pianoak, melodia eta akonpainamendua jotzeko aukera ematen du eta beti erakarri izan nau; pianoa nire musika tresnarik begikoena da.

Beste musika tresna batzuk ere jotzen ditut, hala nola gitarra, esku soinua etab.

Haizezko, harizko eta perkusiozko musika tresnak ondo ezagutzen ditut, konposatzean oso ondo ezagutu behar

baitira tresna guztiak, beren soinu politenak, zailenak eta dotoreenak jo arazteko.

Zein musika mota egiten duzu? Nola definituko zenuke zuk egiten duzun musika? Zein estiloren barruan kokatuko zenuke?

Piano eta konposizio ikasketengatik musika mota guztiak landu behar izan ditut, baina ni neu, barru-barruko musika (intimista), nostalgikoa eta musika erromantikoarekin geratuko nintzateke. Nire barne sentimenduak garatu eta hoberen adierazten duten musika mota egokiena da. Bestalde, gure lurraldeak (Euskal Herriak) sentimendu bereziak igortzen dizkit eta horretarako, natura eta pertsonekin harremanetan egon beharra sentitzen dut.

Musikari gisa, ibilbide oparoa duzu. Egin dituzun gauza guztietatik zerk bete zaitu gehien?

Erantzun zaila duen galdera erraza da hori, oso zaila egiten zait esatea nire diskoetatik zein den nire kuttunen edo hoberena, baina normalki, azkena egiten dudana izaten dut gustukoena; baina berehala hasten naiz beste lan berri bat sortzen. Nik musika egitean, momentuaz gozatzen dut eta gero lasaitzen naiz. Oraintxe bertan, niretzako garrantzitsuena musika proiektu berri hau da, 'Aizkorriko Ataria'.

“

Aspaldi nuen Aizkorri eta inguruko herri, txoko, ermita eta lekuei buruz musika egiteko gogoa


”

Orain, Goierri oinarritutako disko bat ateratzekotan omen zara, kontaiezaguzu proiektu honi buruz zertxobait.

Aspaldian nuen Aizkorri eta inguruko herri, txoko, ermita eta lekuei buruz musika egiteko gogoa. Sinesmena alde batera utzita, niretzako xarma handia



Juan Carlos Irizar kontzertu batean



sagarrak nola biltzen genituen ere. Leku horretara itzultzea niretzat pozgarria da. Adineaz zaharragoa izanik, makina bat aldiz joan naiz Aizkorrira, San Adriango kobak ikusi, eta buelta. Nire eskertza adierazteko modurik errazena musikaren bitartez da.

Zegama aldean ere ibili zara bertako hainbat txokotan. Aurkitu al duzu hauetakoren batean inspiraziorik? Mendian, herrian, bertako biztanleengan?

Hainbat ermita ikusi ditut Artolaren laguntzaz eta geroago ni neu ere joan naiz berriz ikustera. Zegaman bertan, inspirazioa eguneroko bizitza da, pertsona lasaiak eta atseginak topatu ditut. Norbera, pertsonen detaile eta xehetasunetan inspiratzen da, tokietan, gauza guztiek dute beren xarma.

Zegamako zein txokok liluratu zaitu gehien?

Niretzako dena da berezia, baina museoak erabat liluratu nau, Artolak egurrekin egindako lana ikusgarria da, edertasuna mirezgarria datoki horretan. Aizkorri eta bere inguruetakoa bailarez dagoen informazioa ikaragarria da.

Nola eramaten da paperera edo pianora (nola bihurtzen da musika) irudi bidez jaso duzun hori?

Nik egiten dudana lehena, eskuz paperean idaztea izaten da. Ondoren, beste musika tresnertzat konponketak egiten ditut; zein musika tresna hautatu, doinuaren arabera egiten da, doinua nolakoa den eta zer

eskatzen didanaren arabera. Ni lehengo musika egileetarikoa naiz, lanean hasteko, pentagramaz beteriko papera eta arkatza soilik behar ditut. Doinua erabat amaitua dudanean baliatzen naiz teknologia berrietako gailuez.

Zer aurkituko duzu disko horretan? Noizko izango duzu eskuartean disko hori?

Disko honetan, alde batetik bost zortziko konposatu ditut, Aizkorri inguruko bost herriei eskainiak, hala nola, Zegama, Segura, Zerain, Idiazabal eta Mutiloa; bertsoak Iker Zubeldiak egin ditu, eta Xabier Otaegik zuzentzen duen Zegamako abesbatzak abestuko ditu. Bestalde, ermita bakoitzari eskaini diot beste doinu bat, eta Zegamako leku ezberdinei ere bai. Doinu lasai eta erromantikoak entzun ahal izango dira disko honetan, atseginak.

Nire nahia litzateke datorren urteko martxoan aurkeztea. Azken diskoak beti Donostian aurkeztu ditut baina nire desioa litzateke Zegaman bertan egitea aurkezpen berezi hori. Eskertzen dut bihotzez lerro hauen bidez Zegamako biztanle guztiak agurtzeko aukera.

Oihana Zubizarreta

dute ermitak, eta Zegamako Joxe Mari Artolarekin topo egiteko aukera izan dut. Berak asko lagundu dit gauzak zehazten. Egin ditudan doinuak bertako herritarrei eginiko opari gisa hartzea nahiko nuke, nire esker ona agertzeko inguru horietan pasa ditudan momentu onengatik, zoriotsu, lasai eta neure etxean bezala sentitu arazi nauzuelako; hori dena doinuaren islatzen da.

Zergatik aukeratu duzu Goierri?

Umetan, bi urte pasa nituen Gabirian, eta gogoan dut nola joaten ginen Segura eta Zegamara; baita fraideen sagarrondoetako

“ Zegaman bertan inspirazioa eguneroko bizitza da, pertsona lasaiak eta atseginak topatu ditut ”



GOIERRI AUKERA, S.L.

METAL ETA ALUMINIO AROTZERIA

- HERRERIA.
- CARPINTERIA EN ACERO INOXIDABLE.
- MULTIMATERIALES TECNICAL.
- CARPINTERIA METÁLICA Y DE ALUMINIO.

*Araban goizartean eta
uste berri on. opa digueyul*

Polgono Industrial, 10-11 Okuliz - Tfn. 943 881 563 - fax. 943 881 407 - e-mail: auker@goierriav.com

Urte gutxitan asko aldatu da harakinaren lan egiteko modua. Garai batean, prozesu guztia herrian bertan egiten zen, Zegamatik irten ere egin gabe. Mataderian ganadua hil ondoren harategira eramaten zen saltzera. Ez zegoen gaur egungo kamararik eta ahal zen moduan kontserbatzen zen haragia. Horrez gain, harakina bera joaten zen baserri berririko hiltzera. Hiru belaunaldiren ondoren, 100 urte eta gero, harakinaren baldintzak eta lanerako moduak asko aldatu dira, egon diren aurrerapenengatik eta hein handi batean jendeak harategian saltzen ziren produktuak erosteko izan duen joera aldaketarengatik.

ELKARRIZKETA

Harakina

Benito Gorospe Zabaleta

GOROSPE FAMILIAKO HIRU BELAUNALDIREN ONDOREN ETA 50 URTE BAINO GEHIAGO HARATEGIAN LANEAN ARITU ETA GERO, AURTEN JUBILATU NAIZ.



Noiz eta non jaio zinen?

1945eko otsailaren 18an jaio nintzen Zegamako Santa Barbara kalean.

Eskolara joan al zinen?

Harategian hasi aurretik eskolan ibili nintzen. Lehenik Zegaman eta gero Gasteizen. 14 urte egindakoan utzi nituen ikasketak.

Noiz hasi zinen harategian lanean?

15 urterekin hasi nintzen harategian.

Familiako tradizioa izan al da harategia?

Bai, belaunaldi desberdinetako senideak aritu dira lanean harategian. Nire aitona (Aniceto Gorospe) hasi zen, gero nire aita (Joxe) eta azkenik nire anaia Aniceto eta ni. Aniceto eta ni aitari laguntzen hasi ginen. Geroxeago, Aniceto Legazpiko Ekonomatoan hasi zen lanean eta ni bakarrik geratu nintzen harategian.

Familian izan duzu harakin izandako jende gehiago ezta?

Bai. Gasteizen bi osaba nituen harakin, Manuel eta Bartolo. Irunen beste osaba bat, Migel eta azkenik osaba Luis Elizondon. Hauek denak nire aitaren anaiak ziren, Gorospe familiakoak. Izeba Enkarna, nire aitaren arreba, nire aitari laguntzen ibiltzen zen. Gorospe aldetik, hurrengo belaunaldian jarraitu duen bakarra ni izan naiz. Beno haseran Aniceto nire anaia ere bai baina gero ni bakarrik. Beste lehengusu bat ere izan dut harakin baina hau nire amaren aldetik, Zabaleta aldetik, Buenavistako Luis Aldasoro.

Zure aurrekoak nolatan hasi ziren harategian lanean?

Aurretik aipatu bezala, aitona hasi zen harategiarekin. Garai hartan ohituta zegoen ganadurekin eta halaxe hasi zen.

Non zegoen lehen harategia?

Betidunik orain dagoen lekuan egon da harategia. 100 urtetik gora ditu jada harategiak.

Zer egiten zen garai hartan harategian?

Denetik egin behar izaten zen garai hartan. Harakin bakoitzak bere ganadua mataderian hiltzen zuen goizean goiz. Mataderia elizondo etxearen ondoan zegoen. Mataderian hil ondoren, harategira eramaten zen ganadua eta bertan txikitu. Orduan ez zegoen kamararik eta ahal zena egiten zen haragia ondo mantentzeko. Ohikoena zen haragia tapatuta edukitzea. Egunean bertan saldu ohi zen haragi guztia, bestela galdu egiten zen. Kamarak, ni harategian hasi eta gero hasi ziren jartzen, orain dela 50 urte gutxi gora behera.

Saldu ahala hiltzen al zen ganadua? Nola kontserbatzen zen haragia?

Garai hartan ez zegoen gaur egungo kamararik haragia kontserbatzeko eta ondorioz saldu ahala hiltzen zen. Txerrien kasuan gaztu egiten genituen; txerriaren atal desberdinak gazten genituen, hau da, haragia txerri askan gatzarekin tapatu. Horrela konserbatzen zen txerri haragia. Txorixoak ez baina beste dena gatzatzen genuen. Ardia gazten genuen sesina eginez. Ardiaren haragia gatzetan sartzen genuen haragia egoera onean mantentzeko.

Harategiz kanpoko lanik egiten al zenuen mutiko zinela?

Nire haurtzaroan gurasoei laguntzen nien etxean eta edozer gauza egiten genuen. Gero ordea, harategiaz gain ez dut beste ofiziorik izan. Aitarekin harategian hasi ondoren, Gasteizen egon nintzen osabari

harategian laguntzen eta beste urte bat Elizondon beste osaba bati laguntzen, honek mina hartu baitzuen.

Baserrietara joaten al zinen txerri hiltzera?


Nire aita asko joan ohi zen inguruko baserrietara txerriak hiltzera. Ni ere joan izan nintzen baina aitarekin alderatuta gutxitan. Ni ahal nuen gutxien joaten nintzen.

Etxean hazten al zenuten ganadua?

Aittamarren ondoan ikulua izan genuen eta bertan hazten genituen ganaduak. Behiak, txerriak... edukitzen genituen. Aita tratuan ibili ohi zen harategian lana egiteaz gain eta ganadua saltzen zuen. Ganadu hori izaten zen baita ere harategian saltzeko erabiltzen genuena.

Txorixoak eta odolkiak etxean egiten al zenituzten?

Txorixoak eta odolkiak nire amona Pia Olaranek egiten zituen garai hartan. Izeba Enkarna eta Pia Arizkorreta, nire aitaren lehengusua, ere ibili ziren nire aitari laguntzen. Geroago, ni ezkondu eta nire emaztea Maria Dolores ibiltzen zen txorixo eta odolkiak egiten eta azken urteetan Amaia eta Aloña alabek ere egin izan dituzte.



Benitoren jaiotetxea Santa Barbara kalean



Benito eta bere alaba Amaia harategian

Hauetz gain zer prestatzen zenuten etxean?

Nire aitonaren eta aitaren garaian tripa-ki batzuk ere egiten ziren baina gutxitan. Nire emaztea sarrago hasi zen tripa-kiak egiten eta ondo saldu izan dira.

Hasi zinenetik gauzak asko aldatu al dira? Zertan?

Gauzak asko aldatu dira bai ni harategian hasi nintzenetik. Jendearen jateko moduan ikusten dut alde handiena; jaki prestatuak asko erosten ditu orain jendeak, lehen ezta pentsatu ere! Lehen haragia jaten zen; udazkenean ardia, neguan txerria eta urte guztian zehar txekorra. Garai batean oilaskorik ez zen saltzen harategian. Oilaskoa saltzen nik 20 urte nituela hasi zen, duela 45 urte. Konejua ere egoten zen baina gutxi, norberak izaten zituen konejuak etxean. Beste aldaketa nabarmen bat makinarian eman da. Eskulana gero eta gutxiago egiten da harategi batean. Aurrerapen handia egon da urteak igaro

ahala. Nik, harategian nuen kamaraz gain, nire jaiotetxean beste kamara bat jarri nuen eta hau laguntza ederra izan zen.

Zenbat urte egon zara harategian lanean?

Denera 50 urte egin ditut harategian lanean.

Lanbide gogorra al da harategikoa?

Niri ez zait iruditu lanbide gogorra denik. Ikasi arte pisutsuagoa egin zitzaidan baina lanbide guztiek dute beraien alde gogorra. Garai batean harakin lana gogorragoa zen, dena norberak egin behar zuen. Orain aurrerapen handiak daude.

Garai bateko bezeroetatik hona aldatu al da?

Erosteko era asko aldatu da, ikaragarri. Garai batean kexarik ez zen izaten. Kantitate handiak erosten ziren, denetik pixka bat. Larunbat arratsaldetan eta igande goizetan irekitzen zen. Ni hasi nintzenez horrela zen baina gero ia larunbat eta igande goizetan isten hasi ziren dendak.

Eroketak egiteko modua lehendik oraina aldatu al da?

Orain jendearen erosteko modua asko aldatu da; merkatuan aukera asko dago erosteko eta ondorioz jendeak aukera asko du. Nire ustez lehen generoa hobeto aprobetxatzen zen; jendeak etxean prestatzen zituen otorduak eta orain askok janari prestatuak erosten dituzte.

Zein oroitzen dituzu aitarekin lanean aritu zinen garaikoak?

Nire aitarekin harategian hasi nintzenez eskulana zen nagusi. Makina asko ez zegoen eta dena eskuz egin behar. Gaur egun mataderietan laguntza handiak daude makinariari dagokionean. Geneukan makina bakarra txorixoak egiteko erabiltzen genuena zen.

“ Lanean hasi nintzenetik asko aldatu dira gauzak; batez ere, jendearen erosteko modua eta lanerako aurrerapen handiak egon dira urte guzti hauetan zehar. ”

Zeinen laguntza izan duzu harategian?

Haseran nire emazte Maria Doloresena eta alabak koxkortutakoan baina, Amaia eta Aloñarena.

50 urteren ondoren erraza izan al da jubilaria?

Urte asko eman ditut lanean eta gustora jubilatua naiz. Urte guzti hauetan gauzak asko aldatu dira eta gustora utzi dut lana.

Ainitze Azurmendi



Mataderia



Harategia kanpokaldetik

SAN PEDRO ERMITA

San Pedro ermita, Zegamako Goialdea auzoan dago kokatua, Ainaldea auzoan hain zuzen ere. Ermita xume honen lehen aipamen idatzia 1641ekoa bada ere, lehenago eraikitakoa dela dirudi.

Oin laukizuzena du, bi isuridun teilatua eta hormak berriz luzitu edo entokatu gabeak eta hareharri harlangaitzez eginak dira. Erretaula xumea dauka eta San Pedroren tailua gailentzen da aldarean. Honen gainean, Joan Bautistaren irudia dago eta ezker aldeko paretan berriz Arantzazuko amaren irudi xume bat. Aldarearen oinean, erromatar idazkidun hilharri handi bat dago, k.o. I edo II. mendekoa. Aldarearen eskuin aldean berriz, "kredo zulo" esaten zaion zulo bat dago eta bertan burua sartuta kredo bat erreztatuz gero, buruko minik ez dela izaten esaten da Zegaman.

XVIII. mendean, egunero ematen omen zen meza ermita honetan baina dirudienez, 1757rako ondatuta zegoen eta konpondu bitartean, bertan meza ematea debekatu egin omen zen.

Eraikin hau ordea, ermita izateaz gain, eskola ere izan da duela ez hainbeste urtera arte. Garai batean, Goialdeko haurrak bertara joaten ziren eskola ikastera, herriko eskola hurrun baitzuten. Horretarako, eraikinak zenbait aldaketa jasan zituen, lehiu berriak egin zitzaizkion eta baita ikasleentzat komunak egin ere.

Hilariaren aurkikuntzaren ildotik, Foru Aldundiak emandako diru-laguntzari esker konponketa lanak burutu ziren San Pedron 1991ean. 1994an San Pedro egunez inauguratu zen eta geroztik, urtero San Pedro egunez, ekainak 29an, meza ospatzen da ermita honetan eta ondoren, mokadutxo bat izaten da bertaratu direnentzat.

ELKARRIZKETA

Larunbat arratsalde batetan elkartu eta solasaldi bikaina egin genuen, egun, San Pedro ermita zaintzeaz arduratzen diren auzokideekin: Itziar Etxabe, Jabier Berasategi, Lurdes Urteaga, Marian Arando eta Mila Alustizarekin hain zuzen ere.

Ermita zaintzeko ardurak aldatuz joan dira urteetan zehar. Hasieran, San Pedroko ermita Goialdeko eskola zen eta bertako ikasleak, irakaslearekin batera, arduratzen ziren ermita txukun mantentzeaz. Garai hartan zorua egurrezkoa zen eta mendabellarrekin garbitu ohi zuten, pupitreak berriz argizari pusketekin pasatzen zituzten

brilua ateraz. Ordutik ordea nabaria da ermita honek egin duen aldaketa, bai barrualdean eta baita kanpoaldean ere.

Eskola emateari utzi ondoren, auzokideak hasi ziren arduratzen San Pedroren mantenimenduaz; Amiñagoeneko, Amiñabarreneko, Urtzulaietako eta Arakama-Eneako familiek hartu zuten ermita zaintzeko testigua. Horrela, Amiñagoeneko Prantxiko Berasategik ermita ingurua garbitzen zuen; belarra moztu, sastrakak kendu... Amiñabarreneko Itziar Etxabek kanpokaldeko lore eta zuhaixkak zaintzen zituen; loreak erosi eta landatu, ureztatu... Urtzulaietako Felipa

Arrieta eta Arakama-Eneako Mariatxo Ormazabal arduratzen ziren berriz ermita barruko eginkizunetaz: zorua eta aldarea garbitu, mantelak atondu... Gaur egun, aurreko belaunaldiak batek jarraitzen du soilik zeregin hauetan, Amiñabarreneko Itziar Etxabek. Honek kanpokaldeko loreak zaintzen jarraitzen du. Beste baserrietatik ordea, belaunaldi berriko familia-kideak aritzen dira lanean. Amiñagoeneko Jabier Berasategik belar eta sastrakak moztzen ditu; Lurdes Urteaga Urtzulaietakoak eta Arakama-Eneako Marian Arandok eta Mila Alustizak barruko garbitasuna zaintzen dute.



San Pedro ermitako zaintzaileak ermitako aldarean



San Pedro ermita Ainaldea auzoan

Ondorengoak ere badatozela nabarmendu behar da; argazkian ageri den Arakama-Eneako Garazi Alustiza esaterako.

Urtean zehar pixkanaka bakoitzak bere zereginak egiten ditu baina San Pedro egunerako, ekainak 29rako, garbiketa sakonago bat egiten dute denak elkartzuz.

Egun, ermitan ospatzen den meza bakarra San Pedro egunekoa da. Noizean behin, jendea ezkontzen da baina azken urteetan ez da halako ospakizunik izan.

Turista eta bisitari batzuk ere etortzen dira eta giltza Arakama-Enea baserrian egon ohi da joan nahi duen ororentzat.

Elizondon beste osaba bati laguntzen, honek mina hartu bait zuen.



Ainitze Azurmendi

Itziar Etxabe, Marian Arando eta Garazi Alustiza, Jabier Berasategi, Mila Alustiza eta Lourdes Urteaga

MIKEL URBIZTONDO



Aizkorri azpian biziagatik, Mikel Urbiztondok lotura estua du itsasoarekin eta baita arrantzarekin ere. Aurten ere puntaren puntan ibili da arrantza txapelketetan buru belarri murgilduta. Arrantza ainguratuko hiru txapelketetan hartu du parte Mikelek eta hiruretan emaitza onak lortu ere!

- Gipuzkoako txapelketan 4. postua lortu zuen.

- Euskadiko txapelketa 4. postua lortu zuen.

- Espainiako arrantza ainguratuko txapelketan Euskadiko selekzioko partaide izan zen beste hiru pasaiarrekin batera. Murtziako Aguilas herrian ospatu zen txapelketa honetan brontzezko domina lortu zuten lau Gipuzkoarrek.

Zorionak Mikel eta ea datorren urtean ere beste garaipen batzuk ospatzeko moduan zareten!

■ JOXANTONIO ORMAZABAL “AIERDI” GOGOAN

Aurtengo maiatzaren hasieran izan genuen Joxanen heriotzaren berri. Neu Euskal Herritik urrun harrapatu ninduen albisteak, eta kosta zitzaidan, kosta zitzaidanez, sinestea.

Zegamatik hiru bat kilometrora dagoen Aierdi baserrian orain dela 62 urte jaiotako lau senideetan bigarrena genuen Joxan. Umetan, baserrian bizi izan zen Joxan aita-ama, izeba eta hiru senideekin. Gogoratzen naiz nola kontatzen zigun gogoan zuela artzaina neguan ardiekin baserriko belardietara etortzen zeneko garai hura, eta zein gogorra izaten zen berarentzat arkumeak hiltzen ikustea; edota amak etxean ipuinak kontatzen zizkionekoa, eta nola gogoratzen zen Peru eta Mariren pertsonaiekin.

Behin, amak “barberira” jaitsi omen zuen Zegamara. Joxemari omen zen “barberoa”, eta hala esan omen zuen: “Zein belarri moztuko diogu, klaska-klaska, ume honi ezkerrekoa edo eskuinekoa? Hasieran beldurtu egin omen zen, baina laster konturatu omen zen ez zela uste zuen bezain gaiztoa. Handik irtenda, “barbero” izan nahi zuela esan omen zion amari, eta amak ez zela ofizio txarra erantzun omen zion.

Askotan esaten zigun mundu magikoa zela berarentzat baserri inguru hura, fantasiakoa, eta kontatzen zuen mendi zoko batean dagoen baserri batean jaiotako zela, etxetik irten eta mendia besterik ikusten ez zen leku misteriosu batean, eta nola galdetzen omen zion bere buruari: “Zer ote dago hor beste aldean?”; gogoratzen zela goi haletara lehen aldiz joan zenean mundua ireki zitzaiola. Aitak esaten omen zion: “Hura Zerain dekl! Hura Gabiri!...”. Orduan ireki omen zen mundura.

Sei urte zituela jaitsi omen ziren kaleko etxe batera, Zupurruti izenekora. Aitak esaten omen zuen baserriatik kalerako ibilera neketsu hura ezin zela gehiago aguantatu, eta horregatixe erabaki zutela herrira jaistea.

Gure JoxantONIO berehalaxe moldatu omen zen kaleko bizimodura. Han egoten omen ziren “mataderoan” animaliak nola hiltzen zituzten begira. Roman “herreroa” ere oso maite omen zuten, gustuko izaten



JoxantONIO Ormazabal, bere gurasoekin eta 3 senideekin

omen zuten ganadua nola perratzen zuen edo sutegi ondoan jarri eta burdina nola lantzen zuen ikustea. Oso gizon atsegina omen zen. Joxemari arbaldakoa ere aipatu izan zuen, arbaldak eta kopetakoak egiten zituen. Akolito ere ibili omen zen.

Hamabi urterekin Saturrarangoseminarioa joan zen. Amari esan omen zion hark seminarioa joan nahi zuela, eta amak seguru al zegoen esaten ari zenarekin galdetzean, baietz esan omen zion. Han

bi urte pasa ondoren, Donostiakora joan omen zen. Hemezortzi urterekin seminarioa utzi, maisutzako titulua lortu eta Zarautzen, lehenengo, eta Beasainen, gero, haurren maisu ibili zen ikastolan, azkenean, Elkar argitaletxean bukatu zuen arte.

JoxantONIO, nonbait, ez zen familia osatzeko presaka ibiltzen zen horietakoa, eta behin hala galdetu omen zion aitak: “Egunen batean pentsatu beharko dek,



Joxantonio bere lagunekin Gabon eskean ibilita

ba, ezkontzea”? Eta semeak erantzun: “Zuk egin zenuenerako nik ere zerbait egingo det”. Azkenean, aita baino urtebete beranduago ezkondu zen, 38 urterekin. Azkeneko trenara hartu zuela esan omen zion andreaki, baina trenik politena hartu zuela. Garai hartan, Patxi kamioizaleak jaisten omen zien surtarako egurra Aierditik, eta hala esan omen zion Joxantoniori: “Ibilian-ibilian andre ederra inguratu dek”.

Aita hil zenean, Joxanek baserria mantentzeko ardura hartu zuen bere gain. Amarekin eta izebarekin batera makina bat joan-etorri eta lan egindakoa zen: hango sasitzak moztu eta bazterrak txukuntzen, ganadua mantentzen, baserriari zutik eusten. Berak bakarrik jakingo du zenbat landare aldatu zituen bazterrei garbi euste aldera. Aierdi ingurua eta Aizkorri zituen maite, eta hara inguratzen zen beste eginbeharrek tartea uzten zioten guztietan. Nola ulertu liteke, bestela, urte zahar gaua, batean lagun batekin eta bestean bestearekin, Aizkorri puntako aterpean pasa eta urte berri egunean bazkaltzera etxera itzultzea? Entzun behar izaten omen zuen gurasoengandik honelatsukorik: “Horik dituk ibilerak, horik”. Joxanek gustuko izaten zuen mendi-maldan, basoan edota sasiartean ibiltzea, leku berriak deskubritzea.

Urte askoan jardun zen San Bartolometako festetan bertsolarietara gaiak ipintzen. Oso

maiteak zituen, besteak beste, Uztapide, Lasarte eta Lazkao txiki. Zenbat barre-algara eginarazi ote zion jendeari jartzen zizkien gaiak zirela medio! Harreman estuak mantendu zituen, adibidez, Lasarterekin hil den arte. Bertsolarietara egindako hainbat omenalditan ere parte hartu zuen, antolatzen, gaiak ipintzen, eta ez Zegaman bakarrik, baita inguruko herrietan ere. Askotan izan zen epaimahaiko Goierri aldeko hainbat lehiaketa eta txapelketatan. Eta zenbat bertso idatzi ote ditu Joxanek Zegama

eta inguruko ezagunen ospakizunetarako: ezkontzetarako, urrezko edota zilarrezko ezteietarako, “despedidetarako”... “Rekordatorio” mordoska idatzitakoa da herriko jendeari. Zeini esango zioagu hau egiteko? Ba, zeini esango zioagu, ba, Aierdiri.

Herrian, edozein antolaketa zela-eta aholku eske joaten zitzaizkion, edota idazki, bertso, poema eske. Eginahalak eta bi egingo zituen mundu guztiarekin ondo konpontzeko, guztiekin harreman onak



Joxantonio mutikotan, Zegamako eskolan



Joxantoni gazte denboran

izateko, betiere, inorenganako distantziarik ezarri gabe. Ez zekien inori ezetz esaten. Oso lagunartekoa izan da beti, umoretsua, alaia, gozoa, eskuzabala, eta, era berean, maitagarria. Ez zuen denak gustura utzi arteko onik izaten. Barrea eraginarazteko artea zuen, umoreak gainezka egiten zion, berak kontatu eta berak barre-algara sanoa egin. Lagunarteko giroa aldatzeko aparteko trebetasuna zuen.

Orain arte esandakoaz gain, gure Joxan idazle, poeta, editore eta abestien letragile ere izan zen. Gogoratu besterik ez dago herriko Antoniori (Kaleko, Bolas, Trolas, Ttaka, Gezurti...) emandako bizia haren pasadizoak eta xelebrekeriak aitzakiatzat hartuta. Liburu haren aurkezpena zela medio afari ederra egin zuen orain dela zazpi urte Zegamara inguratu zen jendeak.

Herriko Xabier Azurmendiri ere makina bat lagundu zion Atzoko Zegama izeneko liburua atontzen. Gustuko liburua zuen huraxe, askotan izaten zuen esku artean, hango pasadizoak atsegin zitzaizkion. Haiek gogoratuz, garai haietara eta leku haietara itzultzen zen, amets egiten zuen.

Erretiroa hartu zuenetik aurrera, berriz, Zegamako hiztegiarekin ari zen lanean jo eta ke. Bizi izan zen arte bere ama eta azkenaldian tia Felixa izan zituen altxorrak, eta ez nolana hikoak gainera. Horien esamoldeak, hitzak... jasotzen jarduten zen. Hortxe dago bere lana norbaitek segitu nahiko balu.

Duela pare bat urte eskas erreka-harri bat ipini zuen etxearen atzeko aldean, erreka aldera begira ederki asentatuta, gainean eserita egoteko moduan, eta pintura beltzez idatzita hauxe ipini zion: pentsatzeko harria. Joxantoniok asko pentsatzen zuen, asko hausnartzen zituen gauzak, eta guk ere jaso dugu lezio ederra berarengandik. Gizon handia izateko ez dago gorputz handikoa izan beharrik, ez dago sariz josita egon beharrik, ez dago omenaldiez puztuta bizi beharrik. Gogoratzen naiz behin nola galdetu zion kazetari batek, "eta zu nor zara?". Eta Joxanek nola erantzun zion: "Munduko pertsona bat gehiago". Pertsona bai, baina a ze nolako pertsona! Handia, benetan!

Andoni Aizpeolea / Txantxon Zubeldia (2010-11-19)



Aierdi baserria, Joxantonioren jaiotetxea

■ 40 URTE DIRA, ZEGAMAKO IKASTOLA SORTU ZELA

Duela 100 bat urte gurasoek seme-alabak euskaldun hazi eta hezi nahi zituztela-eta hasitako mugimenduaren lekuko, duela 40 urte, 1970. urtean hain zuzen ere, Zegaman Ikastola sortu zen.

Zegaman duela 40 urte sortu bazen ere ikastola, XIX. mendearen bigarren erdian hasi zen eskola euskaldun edo gutxienez elebidunaren eskea. Honen fruitu, 1914an eman zituen bere hastapenak ikastolak. Urte honetan bertan sortu zen Donostian lehen ikastola eta honi jarraiki, Tolosan (1922an), Errenterian (1928an), Sorluzen (1932an), Bergaran (1932an)... hainbat ikastola sortu ziren. 1932an, Bilbon Eusko Ikastola Batzarra sortu zen, euskal eskolen garapena sustatzea helburu zuena.

Garai hartako ikastola aldarrikatzen zuten hezkuntza-eremuaren ezaugarriak hauek ziren: Herritarra izatea, Klase sozial guztiei irekia izatea, euskalduna, kristaua eta pedagogi korrante berriei irekia egotea.

Hala ere, Espainiako Gerra Zibilarekin batera, ikastolak desagertuak izan ziren, nahiz eta zenbait "andereño" eta gurasok euren etxeetan ezkutuko ikastolak ireki zituzten.

Gerra zibila amaitu eta handik urte batzuetara, 1959an lehenengo ikastola sortu zen "kalean" eta baita lehen ikastola elkartearen "Batzorde Nagusia" izenaz. Urte honetatik aurrera ikastolen "bomm-a" gertatu zen eta ikastolak Euskal Herri osora zabaldu ziren. Ikastola hauek legearen aurrean zintzilikako egoeran zeuden eta egoera hori medio, 1968ko abuztuaren 11an ateratako dekretu batek kinka larrian jarri zituen ikastolak.



Zegamako ikastola frontoi zaharraren alboan zegoen eraikuntzan lekutzen zen

Dekretu honek zera zioen, urte hartako irailaren 15erako legeztatu gabe zeuden ikastolak itxi egingo zirela. Jadanik ez zegoen denborarik ikastetxe normal gisa legepean sartzeko. Egoera honen aurrean, ikastolak bizirik jarraitzeko bide bakarra, elizaren babespean legeztatzea zen eta halaxe egin zuten. Dena den, azalekoa izan zen kasu askotan behintzat eta baita Zegamako kasuan ere elizak eman zuen babesa.

Honela, 1969ko azaroan Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-Batza edo Federazioa sortu zen, izan ere, garai hartan ikastolak bizi zuen oztupoz betetako bide hartan aurrera jarraitzeko, guztiak elkartu beharra

ikusi baitzen. Federazio hau sortzearen helburuak hauek izan ziren:

- Irakasle edo andereño egokiak prestatzea.
- Ikastola bakoitzeko irakaskuntza antolatzea.
- Indarrean zeuden eskola-legeak betetzeko bideak erakustea.
- Ikastola bakoitzean sortzen ziren arazoei erantzuteko idazkaritza iraunkorra izatea.

Garai honetan, ikastolek nahiz elizaren babespean legepean egon, ez zuten diru-laguntzarik eta beraz, gurasoek atera behar izan zuten aurrera ikastetxeetan



Ikastolako ikasleak Maxkarrera egin zuten irteera batean



Frontoi zaharrean gurasoak bertan zirela ikastolako haurrak lasterka



Ezkerretik eskubira zutik: Gurutze Arrondo, Maria Asun Irastorza, Arantza Albizu, Ana Ormazabal, Manu Arizkorreta, Xabier Arizkorreta / Faustino Mujika ?, Carmen Intxausti, Zelia Telleria, Begoña Olarte, Sara Irastorza eta María Luisa Urbizu.

Ezkerretik eskubira makurtuta: Eburne Albizu, Antton Aramendia, Iñake Aramendia, Jon Ormazabal, Idoia Aramendia, Olga Urbizu, Maiteder Asurmendi, Arantxa Berasategi eta Cristina Urbizu.

ohikoak ez ziren prozedurak erabiliz. Giro honetan sortu zen 1970ean Zegamako Ikastola.

Aurrekariak. Zegamako ikastolaren hastapenak

Zegaman, ikastola sortu arte Eskola Nazionala zegoen. Bertan haurrak 5 urterekin hasten ziren eskolan. Ematen ziren irakasgai guztiak gaztelera hutsean ematen ziren eta ordura arte jarraitu ziren irakas-metodo tradizionalan oinarritzen zen.

Bien bitartean, Goierriko beste herri batzuetan irakas-metodo ezberdin batzuetan oinarritutako eskola euskaldunak sortzen hasiak ziren, ikastolak alegia.

Egoera honetan, herriko zenbait gazte eta gurasok inguruko herrietan sortzen ari ziren ikastolen berri izan eta euren haurrentzat hauek eskola egokiagoak zirela iritzita, Zegaman ere ikastola sortzeko bideak egiten hasi ziren 1969an. Dena den, urte horretan ezinezkoa izan zen ikastola martxan jartzea eta urte bat beranduago kokatu behar dugu ikastolaren hasiera, 1970eko irailaren 15ean hain zuzen ere. Aitzgorri Ikastola izan zen jarri zitzaion izena.

Ikastola sortzeko lehen pausuak

Behin ikastola sortzeko erabakia hartuta, guraso eta gazte haiek frontoian aurkitzen zen “Centro Parroquial” deituriko Gazte-Lokalean bilerak egiten hasi ziren. Lehen egitekoa, jadanik ikastola zuten herrietara joan eta ikastola sortzeko jarraitu beharreko pausuak zein ziren ezagutzea izan zen. Bilera hauetan, halaber, gurasoei ikastolei buruzko informazioa ematen

zitzaien. Horretarako, Segura, Beasain eta inguruko beste herrietako ikastoletako ordezkarien laguntza jaso zuten.

Jarraitu beharreko pausuak finkatuta, lan asko zegoen egiteko. Lehen pausua irakasle bat aurkitzea izan zen. Garai hartan ez zegoen titulu ofizialdun andereño euskaldunik eta hori dela-eta, herriko gazte batzuei proposatu zitzaien irakasle lanetan hastea. Honela, Mari Sol Arrieta eta Maria Isabel Larreak eman zuten baiezkua eta Azpeitian ikastaroak egin zituzten lan honetan hasteko. Honela, Mari Sol Arrieta izan zen irakasle lanetan hasi zena. Mari Solek Zegamako eskolan jaso zuen hezkuntza erabat erdalduna zen eta beraz, ikastolan erabili nahi ziren pedagogi-teknika berriak ikasi eta irakasgaiak euskaraz eman ahal izateko hainbat ikastaro burutu behar izan zituen.



Ikastolako ikasleak gelan zuten su baxuaren aurrean

Behin “andereñoa” aurkituta, hurrengo pausua ikastola legezatzeko bideak egitea izan zen. Ikastola legezkoa izateko elizaren babesean eraiki beharra zegoen “Escuela Parroquial” gisa, hau da, Parroki Eskola gisa erregistratutako ikastetxe gisa eta ondorioz, gotzaindegira jo zuten informazio eske. Bertan, herriko parrokia arduradunarekin harremanetan jartzea zela egin beharrekoa esan zitzaien eta horixe egin zen. Jose Uranga izan zen oniritzia eman eta Zegamako Ikastola legezatu ahal izateko bideak egin zituen.

Konpondu beharreko beste arazoetako bat eskolak emateko gela bat topatzea zen. Horretarako, frontoi zaharraren alboan zegoen eraikuntzako goiko gela bat erabili zen, “Gazteen Lokala” edo “Centro Parroquial” zeritzona hain zuzen ere.

Honela, 1970eko irailaren 15ean, Aitzgorri Ikastola sortu zen, hau da, Zegamako ikastola. Ikastolaren sorrerarekin batera, ikastolako batzordea sortu zen eta batzorde hau, ikastola sortzeko lanean aritu ziren herriko gazte batzuk, guraso batzuk eta irakasleek osatu zuten. Beraien esanetan, momentu on asko pasa omen zituzten elkarrekin eta beraien artean oso harreman ona izan omen zuten. Garai zailak izan zirela aitortu arren, irribarrez oroitzen dute garai hau.

“Centro Parroquial” edo “Gazte Lokala” gela, ikastolako lehen egoitza

“Centro Parroquial” izeneko hau, parrokiako gazte taldeak atondutako gela zen. Hasiera batean, gela handi bakar bat bazen ere, bigarren ikasturterako, adin ezberdinetako haurrak bereizita izateko helburuarekin eta honela, garai hartan

zeuden bi irakasleek (Mari sol eta Bitorrek) bakoitzak bere gela izan zezaten, aglomeratuzko ohol batzuen bidez bi gela egin ziren. Ikasgelen prestaketa-lanak gurasoek egin zituzten herriko gazte talde baten laguntzaz. Bi geletako batean, 3-4 urteko haurrak egoten ziren, bertan ez zegoen mahairik ere eta Joxe Albizu eta Jose Ramon Agirrek Zumarragatik ekarri omen zuten lurrean jartzeko moketa. Su baxu bat ere ba omen zen gela honetan. 4 eta 5 urtekoen gelan berriz, garai hartan Alkate zegoen Manuel Urbizuren bidez lortutako zenbait mahai eta aulki omen ziren haurrentzat.

Eraikuntza hau, Udalaren jabetzakoa zen eta honek 1978an botatzea erabaki zuen frontoi berria egiteko xedearekin. Ondorioz, 1978-1979 ikasturtean ikastolako gelak zinean antolatu ziren. Gela hauetan garai hartan musika ematen zen eta beraz, 1978tik aurrera bi zeregin hauetarako erabiltzen hasi ziren Zineko gelak.

Lehen ikasturte haietako antolaketa

Ordura arte haurrak bost urterekin hasten ziren eskolan eta ikastolak, hiru urtetik aurrerako irakaskuntzarekiko apustua egin zuen. Hori dela-eta, jadanik hiru urte zituzten haurrak eskolan hasteko aukera izan zuten. Dena den, 1970-1971 kurtso hartan, 3 urteko haurrak ez ezezik, 5 urtera arteko haurrak matrikulatu ziren ikastolan eta lehen urte hartan guztiak gela berean izan ziren Mari Sol Arrieta andereño zutela. Egoera honetan, hain adin ezberdinetako haurrak gela berean izatea haurren hezkuntzarako egokia ez zela iritzita, hurrengo kurtsoarako beste gela bat prestatu zen hasierako gela hurra ahal zen moduan bi zatitan eginda. Honela, bigarren kurtsoan beste irakasle berri bat hasi zen ikastolan, Bittor Galarraga zaldibitarra. Honek ordea, soldadutza egin beharra zeukala-eta, urte bete soilik egin ahal izan zuen Zegaman eta bere orde, Segurako Mari Karmen Arostegi andereñoa hasi zen eskola ematen hirugarren kurtsoan. Hurrengo urteetan, Mari Sol eta andereño Karmele izan ziren ikastolako irakasle.

Zegamako ikastolan 9 urtera arte burutu zitzaizkion ikasketak haurrek. Ume gutxi zeudela-eta, eta neurri txikiko eskola izateak, estutasunak sortu zizkion ikastolari eta eskolaurreko mailak emateko nola edo hala moldatu arren, lehen mailako irakaskuntza ematen jarraitzeko adina kopuru eta nortasun ez zuenez, Beasainen sortu zen Lizeora joan behar izan zuten 9 urterekin Zegamako ikastolako ikasleek. Horretarako, Zegamako ikastolako ikasleen gurasoek ekonomikoki parte hartu zuten Lizeoa sortzeko prozesu horretan, eta baita handik urte batzuetara Beasainen lehen aldiz antolatu zen Kilometroak jaiaren antolaketa ere.

Andereñoak eta beraien lana

Esan bezala, euskaraz irakatsiko zuten tituludun andereñorik ez zegoela-eta, hasiera batean Mari Solek eta hurrengo urtean Bitorrek, hainbat ikastaro egin behar izan zituzten ikastolaren oinarri ziren pedagogia-teknika haien berri ikasi eta eman behar zituzten gaiak euskaraz ematen ikasteko. Kontuan izan behar da irakasle hauek, gaztelaniaz ikastetik zetozela eta beraz, teknika berriak ikasteaz gain, hiztegiari ere astindu ederra eman behar izan ziotela. Irakasleak eurak bailara-arloan biltzen ziren irakastorduz kanpo urtean zenbait ikastaro mota egiteko, udan ere, ikastaroak izan ohi zituzten. Gaiak: Euskara, Pedagogia, Esperientziak, Matematika, Eskulanak, Soziologia, etab.

Beraz, eskola emateaz gain, egun osoa ikastolari dedikatzen zioten irakasle haiek, gurasoekin bilerak zirela, ikastaroak zirela, ikasgelaren txukunketak zirela... Eta hori guztia soldata xume baten truke, gizarte segurantzarik ere ez zuten nahiz eta gaixotasunetarako aseguru berezi bat izan.

Garai hartako legeen arabera, titulurik gabeko andereñoek, hau da, magisteritza ikasi gabekoek, 5 urtetik beherako haurrei eman ziezaiaketen eskola. Hori dela-eta, 9 urtera arte behintzat haurrek Zegaman ikasteko aukera izan zezaten, 6 eta 9 urte arteko haurrei eskola emateko tituludun irakasle bat ekarri zen hirugarren kurtsoarako, Mari Karmen Arostegi segurarra izan zen bera.

Ikastolak martxan jarritako pedagogia-teknika berriak

Ikastolak pedagogia-teknikei dagokienez, berrikuntza ugari ekarri zituen. Lehen ikasturteetan, beste ikastetxeetan matematikako lau erregelak eta irakurtzen ikasten zen bitartean, ikastolan beste gai batzuk lantzeko eman zitzaion garrantzia. Kantuak, jolasak eta bestelako teknikak erabiliz umeen gaitasunak lantzen ziren. Bestalde, ikastolan, ikasgaiak irakasteko orduan, gaiak buruz ikasteari baino hauek ulertuz ikasteari eman zitzaion garrantzia eta ume bakoitzari arreta gehiago eskaintzen zitzaion.

Hori dela-eta, hainbat kezka sortu zen horren inguruan, ikastolako haurrak jolas soilik egiten zutenaren irudipena zabaldu zen eta horren ondorioz, hainbat zalantza



Benito Lertxundiren jaialdia Zinean

sortu zen gurasoen artean. Dena den, Zegamako baina lehenago sortutako beste ikastolako erreferentziak kontuan hartuta, zalantzak alde batera utzi eta egindako apustuarekin aurrera egitea erabaki zuten guraso askok eta ikusi ahal izan zenez zikloaren amaieran gainontzeko ikastetxeetako haurrek zuten jakintza maila berbera lortu zuten ikastolako umeek ere.

Ikastolek ekarri zuten beste berrikuntza bat, irteerak egitea zen helburu pedagogikoarekin. Hori dela-eta, ikastolako ikasleek irteera ugari egin ohi zituzten bai herrian bertan (Olaran aldera, Izarraga baserri ingurura, Murgira...) bai herritik kanpo ere gurasoen laguntzaz. Irteera hauen helburua, herria eta ingurunea bertatik bertara ezagutaraztea ziren.

Ikastolaren egoera ekonomikoa

Ikastolek, hasierako urte haietan behintzat ez zuten inongo diru-laguntza ofizialik izan eta hori dela-eta, gastu guztiak (eskolako materiala, irakasleen soldatak, aseguruak...) gurasoen eta laguntzaileen gain zeuden. Horrek, ikastetxeetarako ez-ohikoak ziren metodoak erabiltzera behartu zituen.

Zegaman, bazkide edo laguntzaile talde bat sortu zen eta hauek, hileroko diru-laguntza bat ematen zuten euren soldatatik ikastolarentzat. Bazkideen artean ikastolako haurren gurasoak eta guraso ez ziren herriko hainbat gazte zeuden. Haurrik ez zuten 120 bazkide ere izan zituen Aitzgorri ikastolak eta beraz, honek argi uzten du garai hartako Zegamako gazteek izan zuten jarrera eta hartu zuten konpromisoa ikastolarekiko.

Beste alde batetik, gurasoek haurrak ikastolan izateagatik ordaintzen zuten kuota zegoen eta zenbait enpresak ere diru mordoxka jarri zuten ikastolarako. Baina hori ez zen nahikoa ikastolak aurrera egiteko eta ondorioz, beste hainbat bide aurkitu behar izan ziren ikastolaren



Alkartasuna Lizeoa eraikitzeko eman zen diru-laguntzaren agiria

finantziatorako: "Bailara Zozketa" zeritzona, bestelako zozketak, jaialdiak, festetan taberna jartzea, tonbolak, gabon eskeak...

"Bailara Zozketa", izenak dioen bezala, astero-astero bailara mailan egiten zen zozketa bat zen. Kartulinazko txartel batzuk egiten zituzten eta Beasaina joaten ziren txartel horien bila Zegamatik. Txartel horien hartzaile finkoak zeuden eta haiek astero-astero txartela erosten zuten, hainbateko bat ordainduta. Txartel bakoitzak bere zenbakia zuen eta itsuen zozketan ateratako zenbakia izaten zen saritua, saria dirua izaten zen. Zozketa horretan ateratako dirua Goierriko ikastolen artean banatzen zuten ikasle kopuruaren arabera eginez partiketa. Sistema honek, Goierriko ikastolei finantzi-laguntza ederra eta etengabekoa eman zien.

Bestalde, frontoi zaharrearnean festetan egiten ziren berbenak zeuden. Garai hartan frontoia irekia zenez, toldo batzuen bidez estali eta musika talde bat ekartzen zen bertara. Sarrera kobratuz ateratzen zen dirua ikastolarentzat izaten zen.

Horretaz gain, urtean zehar euskal kantarien jaialdiren bat antolatzen zen, bertan izanak dira Ez dok Hamairu taldea, Benito Lertxundi, Antton Valverde ... Hauek, ez zuten ezer kobratzen emanaldiengatik, dietak eta Zegamara etortzeak sortu zizkien gastuak ordaintzearekin konforme izaten ziren. Kontzertu hauek, euskaraz izanik, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren baimena

behar zuten eta Manuel Urbizuren laguntzarekin, baimenak lortu ziren ekintza hauek aurrera eraman ahal izateko.

Bestalde, urtean zehar Gabonak aldera zenbait zozketa burutzen ziren, 2. eta 3. kurtso haietan arkumea eta eskopeta zozketatu zirela ikus dezakezue diru-kontuen zerrendan.

Festetan, dantzaldi haiek antolatzeaz gain, taberna jarri izan zen baita ere. Taberna Kasinoa elkartearen, egun Txanton taberna

Agur Ikastolaren Inbentari...

Badira hilabete batzuk 1971-72 ikasturteko beitu sula. Geroztik, eta diru sartu-irteerak jarraitu ondoren, ikastolako ikasle horren egoera ekonomikoa azaldu nahirik argitaratzen dugu orri hau.

Hau da ikastolako diru kontuaren diru inbentariak eta gastuak den dirua non basatu izan den.

----- 1.971 ----- 1.972'ko IKASTURTEA -----

--- SAHETIAK ---	
Aurreko urteko geldituenak	22.236,25
Ikastolako hasierako hilerak	51.200,00
Ikastolako bazkideak (sozialak)	28.700,00
"Bailara" txartelatik jasotak	11.400,00
Bakupetuek	3.450,00
Festetako berbenak	19.500,00
Es dok hamairu" taldeak	5.600,00
Kasino'ko tabernak	19.000,00
Gastodi egunkeriak	9.000,00
Gabonak, azkarak	17.200,00
Bakopetaren konkretak utsiak	20.750,00
GURPIRA	208.336,25
--- INTRERAK ---	
Bi sanderainoa soldata	158.500,00
Andereinoen seguruak	11.500,00
Ikastolarentzako gaitak	8.400,00
Beste zenbait gaitu	2.098,00
GURPIRA	181.336,00
SAHETIAK	208.336,25
INTRERAK	181.336,00
GELDITUEK	25.999,25

1971-1972 kurtsoko ikastolako diru-kontuak

dagoen lokalean nahiz Bartartxo taberna egon zen lokalean jarri izan zen eta bertan saltzeko janariak... gurasoek eurak prestatzen zituzten. Baita garbitasunak... egin ere.

Gurasoen eta herriko zenbait gazteren lana

Egoera zail haren aurrean, ikastolako lehen haur haien gurasoek eta hainbat gaztek sekulako lana egin behar izan zuten ikastola aurrera ateratzeko. Aipatu bezala, ikastolaren sorrerako lehen pausu haiek egiten ez ezezik, ikasgelak atontzen eta ikastolako gastuak ordaindu ahal izateko bazkideak lortzen, festetan taberna jartzen, jaialdiak antolatzen... Aipatzekoa izan zen baita ere Beasaingo Lizeora euren haurrak bidali ahal izateko guraso eta gazte haiek egin behar izan zuten esfortzu ekonomikoa. Kooperatiba hartako bazkide egin eta horretarako 20.000 pezeta jarri behar izan zituen, garai hartako hilabete bateko soldata gutxi gorabehera.

Gurasoekin zein ikastola sortze lanetan ibili ziren haiekin izan ditugun elkarrizketetan kontatu digutenez, makina bat tortilla, kroketa... prestatu zituzten festetan Baztartxon, orain Txanton taberna dagoen lokalean, Kasinoan... jarri zituzten tabernetan saldu eta dirua ateratzeko. Oso gogoan dituzte Zinean antolatu ziren euskal kantarien kontzertu haiek ere eta baita tonbolan txartelak saltzen pasatako orduak ere. Hauen guztien antolakuntzan gurasoak eta herriko zenbait gaztek lan ugari egin zuten eta beraiei zor diegu ikastola.

Ikastolatik herri eskolara

1980an, Ikastolaren filosofiarekin jarraituz eta herriko haurren artean zegoen bereizketarekin amaitze aldera, Herri Eskola sortu zen Zegaman, eskola euskaldun publiko elebiduna alegia. Honela, 1980an, 1go mailara arteko haurrak (3 urtetik 7 urtera bitartekoak), bai Ikastolakoak bai Eskola Nazionalakoak, Herri Eskolan elkarrekin hasi ziren ikasten. 2. mailatik gorako Eskola Nazionalako ikasleak Olarango eskolan jarraitu zuten eta 2. eta 3. mailako ikastolako ikasleak berri, Beasaingo Lizeora joateko gazteegiak zirela-eta, Segurako ikastolan jarraitu zuten 9 urtera arte. Honela, Aitzgorri ikastolak 1982an eman zuen bere azken urratsa.

Oroitzapenak

Ikastolaren sorreran zeresana izan zuten guraso, ikasle, irakasle eta gazte talde hartako kideekin izan gara solasean eta euren ekarpenei esker, ikastolaren hasiera haren berri jakin ahal izan dugu. Hona hemen guraso hauetako batzuk, ikasle batzuk eta irakasleek kontatu digutenaren laburpentxo bat.



Mari Lourdes Garmendia

Euskararen alde apustu bat egin genuen, euskara itota eta zapalduta zegoen eta beste herri batzuetan ere hasiak ziren ikastolak sortzen euskarari bultzada bat emanez eta geuk ere bide hori jarraitu genuen.

Bileraasko egiten genituen eta hauetan ikastolari buruzko informazioa ematen ziguten eta asko animatzen gintuzten gure umeak ikastolara bidaltzeko.

Ikastola aurrera ateratzeko lan asko egin genuen, tabernan eta baita tonbolan ere, esaterako, gure tailerreko furgonetan ekartzen genituen tonbolarako trasteak. Jaialdiak ere egiten ziren, Benito Lertxundi, Ez dok Hamairu, Antton Barberde, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo... izan ziren Zegaman.



Enkarna Asurmendi eta Joxe Telleria

Guk ez genuen gure seme-alabek guk jaso genuen hezkuntza jasotzerik nahi. Dena erdaraz ikasten genuen eta gure girotik kanpo sentitzen ginen. Guk etxean euskaraz hitz egiten genuen, maite genuen gure hizkuntza eta baita baloratu ere. Horretaz gain, guk eskolan ez genuen gure herriko berri ikasi, ez genekien Amezti mendia ere non zegoen, "Historia de España" ikasten genuen soilik. Guk, gure seme-alabek euskaraz ikastea nahi genuen, euren herria ezagutzea eta bertako gauzak ikastea, horregatik ikastolara bidali genituen. Horretaz gain, eskerrak eman nahi genizkieke ikastolako haurrei erakutsi zizkien balore onengatik



Pedro Berasategi eta Maria Teresa Zurutuza

Gu oso euskaltzaleak gara eta gure alabak euskaraz ikastea nahi genuen. Orduan ikastola sortzekotan zenez, hara bidaltzea erabaki genuen. Oso gogoan dugu egun Txanton taberna dagoen lokalean jartzen zen taberna. Ikastolarako dirua ateratzeko taberna jartzeko lokala utziko ote genuen eskatu ziguten halaxe egin genuen. Hainbat urtez jarri zen bertan taberna. Lokal hura urtean zehar alokatuta izaten genuen baina festetan ikastolako taberna jartzeko libre uzteko baldintzarekin.




ORMAZPEI, S.L.

2011 URTE ZORIONTSUA

OPA DIZUEGU

URTE BERRI ONI!

**PROMOZIO BERRIA OLABERRIA AUZDAN
ETXEBITZA ETA GARAJE TASATUEN BEREHALAKO ERAIKUNTZA
943 85 73 54**





Margari Garcia

Nik nire semeak euskaraz ikastea nahi nuen eta horregatik bidali nuen ikastolara. Gogoan dut zenbait lan egin behar izan genuen ikastola aurrera ateratzeko, San Bartolome jaietan Baztartxon jartzen genuen tabernarako zenbait bokadilo prestatu genituen eta nola tarbernako txanda amaituta, tonbolan txartelak saltzera joaten ginen. Makina bat "errifa" ere saldu genuen!



Ramoni Urreaga

Pena handia eman zidan haurrak ikastolara bidaltzea. Gogoan dut Olga ikastolara eraman nuen lehen eguna, frontoi zaharraren alboan zegoen eraikuntzako gelara eraman eta guztiak borobilean lurrean eserita gelditu ziren. Zaharrenak negarrez eta gazteagoak haiei begira. Joxe Mari beranduago hasi zen, gazteagoa baitzen. Egia esan oroitzen onak ditut ikastolako garai hartaz eta seme-alabak ere oso gustura ibili ziren ikastolan.



Maitere Zabaleta

Garai hartan nire senarra, Manuel Urbizu Alkate zegoen Zegaman eta ikastolaren sorrera-prozesu hartan asko lagundu zuen. Gogoan dut nola berak lortu zituen ikastolarako mahai eta aulkiak eta nola baserrietan bizi ziren haurrek eskola nazionalako komedorean bazkaltzeko bideak egin zituen. Bestalde, ikastolarako dirua ateratzeko prestatzen ziren euskal kantarien jaialdiak antolatzeko ere, baimena lortzeko bideak egin zituen, garai hartan diputatu baitzegoen.



Miren Ormazabal

Goierrin sortu ziren beste ikastola batzuen erreferentzia bagenuen eta nik, nire seme-alabek hezkuntza modu berri hura jasotzea nahi nuen eta noski, euskaraz ikastea. Gure garaian eskolan gauzak buruz ikasten genituen baina beste hainbat alderdi garatu gabe gelditzen ziren eta horrekin ez nengoen ados. Beraz, zailtasunak zailtasun, guraso guztiok batuta eta lan asko eginda aurrera egin genuen. Garai hartaz dudana beste oroitzen on bat horixe da, nola elkartu ginen gurasoak eta gazteak ikastola aurrera ateratzeko.



Joani Peñagarikano

Ikastolara gure auzoko haurrak panaderoarekin joaten ziren ogi artean eta beherakoan berriz autobusean etortzen ziren. Orduan oraindik txikiak zirenez, Santos autobuseko kobratzaileak laguntzen zien autobusetik jaisten, makina bat lagundu zien hark!

Bestalde gogoan dut baita, gure Manu hilabete batez edo gaixorik egon zenekoa ikastolara joan gabe. Hainbat aldiz etorri ziren bere ikastolako kideak ikastolatik andereñoarekin Gosategira Manu bisitatzera. Haurrek sekulako "kariñoa" zieten andereñoei eta maisuari eta baita guk ere, oso gertuko harremana genuen beraiekin.



Ixiar Etxabe

Ikastolaren garaiko oroitzen onak ditut, nahiz eta garai zailak izan, zenbait guraso elkartzeko balio izan zuen eta elkarrekin egiten genituen bileretan oso giro ona izaten genuen, nahiko barre egiten genuen! Makina bat lan ere egin genuen ikastola aurrera ateratzeko, Baztartxon goizaldera arte bokadiloak prestatzen, tonbolan... Bestalde gogoan dut San Sebastian egun batez ikastolako 9 hurrekin Donostiara joan nintzenekoa ere, goizean daborrada ikusi, arratsaldean Igeldora joan...Kaia alde hartan ere pasa nituen larritasun ederrak, haurren bat edo beste itsasora noiz eroriko!



Jon Ormazabal

Oso txikiak ginen eta ez dakit gauzak oso ondo gogoratzen ditudan. Agian batzuetan nahaspilatu egingo ditut oroitzen desberdinak. Garai berezia eta ederra izan zen.

3 edo 4 urte izango genituen, txikiak ginela joaten baikin garai hartan "Frontoiko ikastolara". Borobilean, su baxu baten ondoan esertzen ginen, andereño Mari Solek ipuinak kontatzen zizkigun bitartean. Lehengo frontoi zaharrean egiten genituen jolas saioak, futboleak, pilotan, klizean, kadenetan... errekreio garaian joaten ginen hara. Goizetan, ikastolan sartzen ginenean, lehenengo egiteko bat jangelan bazkaltzen geratu behar zirenen zerrenda egitea zen. Ondoren, kopuru hura bi ikaslek Olanen auzoan zeuden "Eskola Nazionala" eramaten zuten. Kurioso zen, zeren bi ikasleak "eskola nazionala" patioan geratzen ziren zuzendaria leihotik noiz irtengo zain. Ateratzean kopurua esaten zitzaion eta bueltan ikastolara itzultzen ginen. Gure maisu-maistrak garai hartan, andereño Mari Sol, Karnele eta Bittor ziren. Bittor, Zaldibitik egunero motorrean, "mobilete" bat zela uste dut, etortzen zen. Oso gaztea zen, 18 bat urte izango zituen. Karnele Seguratik etortzen zen eta M Sol zegamarra, Ormazabal baserrikoa zen.

Oso politak izan ziren, herri inguruko mendixketara egiten genituen irteerak (Murgi, Maxkarra, Ormazabal aldera...) Oso oroitzen politak etortzen zaizkit haiek gogoratu. Egun batean, ez dakit goiza edo arratsaldea zen, orduko alkatea zen Manuel Urbizu joan zitzaigun bisitan ikastolara jostailu pila bat hartuta. Agian Gabonak gertu izango ziren baina ez dut oso ondo gogoratzen.



Manu Arizkorreta

Gu, Gosategialdeko umeak, sarritan Joxe Panaderoarekin eta Atxatxerekin joaten ginen ikastolara Mercedes markako furgoneta batean, ogi kajen artean zutik, gure auzoan, Intxaustin, Goikoetxalden, Kalekon, Intxaurren, Ondarguenen, Ibarretan eta Aitamarreren ogiak partitu eta gero.

Ikastolako oroitzenak, benetan onak ditut, bai Marixol, bai Bittor eta bai Karmelerekin. Bi gela eta komun txiki bat zituen eta leiho zabaletatik Maxkarra aldean ardiak eta ahariak txorromorrotan nola jolas egiten zuten begira egoten omen ginen. Lehenengo abestiak han ikasi genituen. Gogoan dut, baita ere, Joxe Mari Artolak Caceresen soldatu zegoen lekutik nola eskutizak argazki eta guzti bidaltzen zizkigun.

Jolas denboran, eskailera luzeetatik behera, frontoi zaharrera irteten ginen eta bertako platanondoan inguruan harrapaketan, soka-saltoan edo baloiarekin jolasean ibiltzen ginen. Bestela, kolorinetako errekan zihozten poteei harrira egiten genien.

Bazkaltzera Mazkarian aldeko "Comedor Escolarrera" joaten ginen, Goialdeko nahiz Segura eta inguruak umeekin batera.

Arratsaldean, auzorako itzulera Arbeltxoko Mirenekin 4L-an, Karmelerekin R5ean edo bestela segurarrak eskolatik etxera eramaten zituen autobusean egiten genien.

Oroitzen berezia dut Murgialdera sarritan egiten genituen ibilaldietan, karakol txikiak nola biltzen genituen, Acuarium-eko balea eta itsasoa ikustera nola joan ginen Donostiara eta Beasaingo Lizeora 4. maila egitera joan behar genuen 8 lagunak eta Karnele andereñoa nola joan ginen Otzaurtetik irteten eta Ultzamatik pasatuz Urdalurra eta Garagartzara Sabino eta Julio artzainen etxolak bisitatzen.



Miren Arantza Albizu

Oroitzen askodit. Iñake Aramendia eta ni ginen ikastolako zaharrenak, nik ez nuen "Escola Nacionalik" zapaldu, 5 urterekin hasi nintzen. Ikastolan hasi bitartean, gogoratzen naiz, aitonak Arbeltxon erakusten zidala "abcedarioa".. 9 urterekin Lizeo Alkartasunera joan ginen, hau da, 3. mailara arte egon ginen Zegamako Ikastolan. Gure lehenengo irakaslea Marixol Ormazabalgua izan zen eta ikastola, frontoi zaharreko lokalean zegoen kokatua.

Ostiraletan mendira joaten ginen, izan ere, egun hori izaten zen "inspektorea" etortzen zena, baina egun batean itxaron egin zigun gu menditik itzuli arte, orduan komeriak ... Traje kuadratu batetik, marroiak eta bexak eta bastoi batekin, "kojea" zen eta.

Bazkaltzera ere "Comedor Escolarrera" joaten ginen, baina han hasi aurretik, egun batzutan "gazteen lokalean" bazkaldu izan ohi genuen, Bittor maixuak bazkaria jartzen zigun, arrautza prejitua patata prejituekin. Manuel Urbizuri esker hasi omen ginen "Comedor Escolarrera" joaten.

Egun batean gogoratzen naiz, Juanito Telleriaren monumentuaren atzean jolas egin ohi genuen bazkaldu ondoren eta emakume bat gerturatu zitzaigula eta erderaz galdetu zigula, kuestioa da emakume hau herrikoa zela: - ¿Qué habeis comido hoy? Eta nik erantzun niola, - Indoabas y tortilla de patata. Bere erantzunarekin sekula ez naiz ahaztuko, -¿Indoabas? Así vais a aprender vosotros, indoabas ...

Makina bat gauza kontatu ditzaket, baina, garai haietan, gure gurasoek egin zuten apustua goraiatzeko da.



Olga Urbizu

Nik 3 urte nituenean ireki zen Zegamako Ikastola eta 10 urte nituen arte ibili nintzen bertan. Orduan Zegaman “Ikastola” (frontoikoa) eta “Eskola” (olarangoa) zeuden.

Zegamako Ikastolako lehenengo eguna uste dut horrela izan zela: nik 3 urte nituen. Ama, anaia eta auzokoekin joan nintzen. Anaia ez zen han gelditu (txikia zen) baina nahiko lasai gelditu nintzen nire auzoko lagunak ere han baitzeuden. Gainontzeak ez nituen ezagutzen. Andereñoa Marisol zen; jostailuak atera zizkigun, oso goxo eta atento hartu gintuen. Lurrean eseri ginen elkar ezagutzeko. Lekua oso polita zen, txukun txukuna, margoak, ipuinak eta jostailuak zeuden. Hala ere, batzuk negar egiten zuten eta horrek zertxobait larritu ninduen.

Gainontzeko egun eta urteetan oso lasai eta gustora ibili nintzen Ikastolan.

Hasieran andereño Marisolekin egoten ginen, denok gela batean. Berehala, Bittor (denbora gutxirako) eta andereño Karmele etorri ziren eta bi gelatan egoten ginen; txikienak Marisolekin, kanpoko gelan, askotan lurrean eserita, eta handienak, 1. 2. eta 3. mailak, Karmelerekin, barruko gelan, oso ongi antolatuta, bakoitza bere mahaian eta adin berdineko mahaiaik elkartuta. Horrela 3. mailakoak batuketak ikasten zituzten bitartean 2. mailakoak idazten ikasten zuten... Honela erakutsi ziguten marrazten, kantatzen, irakurtzen, idazten, matematikako ariketak egiten...

Ikastolako bi gelak oso politak ziren, guk gainera apaindu egiten genituen marrazkiekin. Inspektorea etorri behar zuenean Espainiako bandera marrazten genuen eta hura ere paretan jartzen genuen. Inspektorea behin baino gehiagotan etorri zen eta galderak egiten zizkigun erdaraz. Gu euskaraz aritzen ginen Ikastolan baina “erdara” ere erakusten zigun andereño Karmelek handienoi eta uste dut ongi aritzen ginela inspektoreekin.

Jolas denbora frontoian egiten genuen (orduan estali gabe zegoen); normalean futbolekin aritzen ginen. Uste dut arbola batzuk zeudela eta hango egurrekin eta hostoekin ere jolasten genuen, Oria erreka ondoan genuela. Andereño Marisol eta Karmele, gu zaintzen, guri begira egoten ziren.

Eguraldi ona egiten zuen ostiral arratsalde batzutan “mendira” joaten ginen; Izarra aldeko gurutzera, Olanan aldera, San Bartolome auzotik gora (Oramazabal aldera joaten ginenean andereño Marisolen amak ura ematen zigun)...Zegama ezagutzera azken finean

Eguerdian “eskolatako” jangelan, Olanan, bazkaltzen genuen. Hango maisu-maistrak erdaraz hitz egiten zuten, gure andereñoak baino zaharragoak ziren eta oso serioak. Ni oso gustora itzultzen nintzen “ikastolara” gure andereño maitagarriekin.

Segura eta Idiazabalgo ikastolakoekin harremanak izaten genituen. Elkar bisitatzen genuen, eskurtsioren bat ere egin genuen elkarrekin eta mediku azterketak ere elkarrekin egiten genituen. Gero, Lizeora joan ginenean elkar ezagutzen genuen.

Gustora, lasai eta oso giro goxoan ibiltzeaz gain, asko ikasi nuen Zegamako Ikastolan. Horrela ikusi zen 10 urterekin Lizeora joan ginenean, zegamarrok oso nota onak ateraz hasi genuen Lizeoko ibilbidea.



Maite Asurmendi

Ikastola frontoian zegoen. Ate txiki batetik sartzen ginen gela batera eta bertan liburu batzuk zeuden “Mortadelo y Filemon” eta horrelakoak. Han egoten ginen pixka batean eta gero gure gelara igotzen ginen. Oker ez banago tximini bat zuen eta tximiniaren gainean azeri disekatu bat zegoen. Mahai txiki batzuk zeuden gelan eta ikasle denok gela berean egoten ginen adinaren arabera taldeetan banatuta. Gelaren aldamenen futbolin bat zuen beste gela bat zegoen eta eguraldi txarra zenean “errekreo” garaia bertan pasatzen genuen. Ikastolatik irteerak egiten genituen, behin Ormazabalera joan ginen, beste behin Maxkarra aldera...han, nire gurasoekin topo egin genuen, bertan baitzebiltzan artzain.Gogoan dut Erramunen etxola ikusi eta nola haren azpian zegoen askan jolasten ibili ginen... Gogoan dut eskola nazionalera azterketa bat egitera joan ginenekoa ere. Gure erdara maila nolakoa zen ikusi nahi omen zuten. Guk erdaraz ez genekien batere, “si” eta “no” esaten soilik. Azterketa aurreko egunean eskola nazionalen zebiltzan beste ikasleek, beraiek jadanik bazekitela zein galdera jarri behar zituzten azterketan eta bazekitela zer erantzun behar zen esaten ziguten kalean. Andereño Nekane jarri zigun azterketa egiten hasi ginen eta galderak irakurri bai baina ez genuen ezer ulertzen eta galdezka hasi ginen. Galdera batek zera zioen: “Pintar una flor en una maceta”. Marrazten bagenekin eta galdera horixe soilik bete genuen denok. Beste batzuk aldamenekoari kopiatuta beste galderaren bat ere erantzun omen zuten. Azterketa amaitzean ikastolara itzuli ginen andereñoarekin lore baten marrazkia eginda.

Bittor Galarraga

ZEGAMAN IRAKASLE EGON NINTZENKO OROITZAPEN OSO ONAK DITUT



Nola sartu zinen irakaskuntza munduan?

Egia esan, ni euskararen aldeko militantziagatik sartu nintzen irakasle. Goierrin ikastolak sortzen hasi ziren eta irakasle euskaldunak behar ziren. Horretarako prestatutako jenderik ez zegoenez, udaran irakasle kurtso intentsibo bat egin eta Zegamako ikastolan irakasle-lanetan hasi nintzen.

Nolatan etorri zinen Zegamara?

Nik irakasle izateko ikastaroa egiten hasi nintzenean ez nekien nora joan beharko nuen irakasle. Dirudienez, Zegaman falta zen irakasle bat eta bertara joatea tokatu zitzaidan, besterik gabe.

Zer irakatsi zizueten ikastaro horretan? Nolabaiteko titulurik lortu al zenuten?

Apiriletik irailera bitartean Lizeora joaten ginen ikastaro horiek jasotzera. Bertan, borondatezko irakasle batzuk eskolak eman zizkiguten garai hartan berriak ziren pedagogia-teknika irakatsiz. Ikastaro hauetara joateagatik ez genuen titulurik eskuratu, baina 5 urtetik beherako haurrei eskolak emateko ez zen derrigorrezkoa irakasle-titulua izatea eta beraz, titulurik gabe ere irakasle lanetan aritu ahal izan genuen.

Nola etortzen zinen egunero Zaldibitik Zegamaraino?

“Mobilete” txiki batean etortzen nintzen, ordu bete inguru behar izaten nuen Zaldibitik Zegamaraino etortzen. Negu



Bittor Maxkarra aldera eginiko irteera batean

aldera, ilundu eta gero itzuli behar nuenean, nire anaia zaharrena etortzen zitzaidan bila, berak kotxea baitzuen. Beste batzuetan berriz, gurasoekin bileraren bat genuelako-edo berandu bukatzen genuenean, Zegaman gelditzen nintzen gaua pasatzen Inaxita Ormazabalen etxean.

Ikastolaren irakaskuntza metodoa berritzailea izan zen garai hartan. Nola deskribatuko zenuke?

Zaila da bi hitzetan irakaskuntza-metodo hura deskribatzea baina bere ezaugarrietako bat zera zen, gaiak buruz ikasi ordez, logika erabiliz ikastea. Ordura artea Eskola Nazionaletan erabiltzen zutena baino pedagogia landuago zen, ikasi behar zituzten gaiak ikasteari baino (matematikak, irakurtzen, idazten ...) haurren bizipenei eta hauek gaiarekin zuten loturari garrantzi gehiago ematen zitzaion hasierako kurtso haietan behintzat.

“
Bilerak zirela, ikastaroak zirela... aste osoa ikastolako kontuekin okupatuta pasatzen genuen
 ”

Ikastolaren irakas-metodo haiek zirela-eta inguruan sortu ziren esames haiek zein eragin izan zuten zuregan?

Ez zitzaidan gogorra egin esames haiekin bizitzea, ziur negoen egiten ari ginen hura zuzena eta ona zela eta beraz, ez zidan aparteko kezkarik sortu.

Ikastolek ekarri zuten beste berrikuntzetako bat, irteerak izan zirela aipatzen da. Egiten al zenuten zuek irteerarik? Harriduraz hartu al zuten herritarrek ikastolako haurrak kalean ikustea?

Bai, egiten genituen irteerak. Irteera hauen helburua ez zen denbora pasatzea, irakastea baizik. Irteera hauetan, ikasleek euren ingurua ezagutzeko aukera izaten

zuten, landareak, animaliak... Dena den, nik haur oso txikiei ematen nien eskola, 4urtetik 6 urtera artekoei eta beraz, irteerak herrian egiten genituen. Bestalde, herritarrei dagokiela, ez zuten harriduraz hartzen, izan ere beste ikastola batzuetako berri bai baitzuten.

Kontaiezaguzu nolako zen bitorrentzat astegun bat garai hartan.

Goizean esan bezala, motorrean Zegamara etortzen nintzen 9:00etarako-edo. Goizean zehar ordu erdiko atsedean bat izaten zen eta ordu erdi horretan ikastolaren alboan zegoen frontoi zaharrera joaten ginen haurrekin. Goizeko lanaldia amaitzean, 12:00ak aldera, gurasoei haurrak itzuli eta bazkaltzera joaten nintzen. Hasiera batean, ikasgelaren azpian zegoen elkartearen bazkaltzen nuen etxetik ekarritakoa baina gero, herriko zenbait gaztek egindako diru-bilketa bati esker, Manolo tabernan ordaintzen zidaten bazkaria. Arratsaldean, 14:00etatik 16:30ak edo 17:00 arte ematen genuen eskola eta hau amaitzean beti izaten genuen zerbait, gurasoekin bilera ez bazen, Lizeoan ikastaro edo bileraren bat... Aste osoa ikastolako kontuekin okupatuta pasatzen genuen.

Eta gogoan al duzu nolako zen zure gela?

Bai, oso gogoan dut. Gela handi bat zegoen bitan banatuta eta komun bat. Eraikuntzaren kanpoaldetik zeuden eskailera batzuetatik igotzen zen gelara. Leiho handi bat zegoen eta lurtean moketa zegoen. Nire gelan mahai txiki batzuk zeuden, Mari Solenean berriz ez zegoen mahairik, haurrak zutik edo lurtean egoten ziren.

Gogoan al duzu zenbateko soldata kobratzen zenuen?

Hilean 6000 pezeta inguru kobratzen nituen eta ez genuen seguritate sozialik.

Ikastolen aldeko apustu hartan, zein edo zer goraiapatuko zenuke?

Gurasoen papera oso garrantzitsua izan zen. Ni Zegamara etorri nintzenerako dena jadanik prest zegoen baina edozein konponketa edo esku-lan egin behar zenean ... beti gurasoek hartzen zuten parte. Bestalde, garai hartan oraindik ikastolak etorkizun garbirik ez zuela kontuan izanda, ausardi handia erakutsi zuten euren haurrak ikastolara eramanda. Ikastola, abertzaletasun kontzientziaren barruan sortu zen eta kontzientzia hori indartzen egin zen lana ere goraiapatzekoa da.

Zenbat urte egin zenituen Zegaman?

1971-1972 ikasturtea besterik ez nuen egin. Soldadutzara joateko utzi nuen ikastola eta gehiagoko ikasketarik gabe lan honek zuen erantzukizunaz jabetuta, soldadutzatik itzultzean nik ikasitako ogibideari heldu nion, argiketariarenari hain zuzen ere.

Zein oroitzen dituzu garai hartaz?

Oroitzen oso onak ditut, nire bizitzan markatuta gelditu zen urte bat da Zegaman irakasle egon nintzenekoa.

Oihana Zubizarreta

Karmele Arostegi

**1972-1973 IKASTURTEAN
HASI NINTZEN ZEGAMAN
IRAKASLE ETA 6 URTE EGIN
NITUEN BERTAN**



Noiz hasi zinen zegamako ikastolan lanean?

1972-1973 ikasturtean hasi nintzen irakasle lanetan Zegaman eta 6 urte egin nituen bertan. 1978an ezkondu eta lana utzi nuen, Parisa joan bainintzen bizitzera.

Zegama izan al zen zure lehen lantokia?

Ez, aurretik Donostiako Egia auzoko Aitor Ikastolan aritu nintzen eskolak ematen. Bertan bi urte egin ondoren, Zegamara etortzeko utzi nuen lana. Dirudienez, irakasle tituluduna behar zuten, izan ere, 6 urtetik gorako haurrei eskola emateko irakasle tituluduna behar baitzen. Nik titulua nuenez eta gainera gertukoa nintzenez, bertako ikastolara joateko eskatu zidaten eta halaxe egin nuen.

Zergatik ikasi zenuen magisteritza?

Egia esan, bokazioz baino halabeharrez ikasi nuen, edo halaxe tokatu zelako. Garai hartan jadanik Goierriko Lanbide Eskolan hasiak ziren emakumezkoak deliatzaile kurtsoak egiten eta nire aita zalantzan zegoen ni harantz bidaliko ote ninduen. Bien bitartean, herriko apaiz batek magisteritza ikasketak egiteko bideak egin zizkigun eta honela, herriko beste hirurekin batera magisteritza ikasten hasi nintzen. Aurretik sekula irakasle izatea pentsatu ez banuen ere, oso gustura dihardut lan honetan eta beraz lanbidearekin asmatu nuen seinale!

Zein mailatako haurrei eman zenien eskola?

Nik Zegaman lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako haurrei eman nien eskola, hau da, 6, 7 eta 8 urteko haurrei. Gela berean hiru adin ezberdinetako haurrak izaten nituen, guztira 20 bat ikasle inguru. Laugarren maila egitera Lizeora joaten ziren bai Zegama, bai Segura eta bai Idiazabaldik, herri hauetan ez baitziren laugarrenetik aurrerako mailak ematen.

Zer moduz moldatzen zinen hiru adin ezberdinetako haurrak ikasgela berean izanda?

Garai hartan gazteak ginen eta ez ginen gehiegi jabetzen genuen arduraz. Dena den, nik ez dut gaizki moldatzen nintzenaren irudipenik.

Zergatik ez ziren ematen maila horiek?

9 urtetik aurrera ez zen komenigarria adin ezberdinetako haurrak ikasgela berean egotea ikasketak behar ziren bezala burutzeko. Maila ezberdin gehiago

sortzeko oso haur gutxi zeuden eta hain haur gutxiarekin ezinezkoa zen gela bat mantentzea. Kontuan izan behar da garai hartan bi eskola zeudela herrian eta ez zegoen nahiko haur biak aurrera egiteko.



Gurasoekin oso harreman estua genuen, babes handia eskaintzen ziguten



Deskribatu iezaguzu ikastolako irakasteko modua. Zein irakasgai ematen zenituzten?

Eskolak euskaraz izateaz gain, irakasteko modua ere asko aldatu zen. "Freinet" izeneko pedagogo frantziar baten printzipioetan oinarritu zen batez ere ikastola pedagogi teknikei dagokienean. Bere esanetan, egunerokotasunean aurkitu behar ziren ikasgaiak eta horretan oinarritzen ginen gehien bat. Garai hartan ematen genituen irakasgai nagusiak berriz matematika, hizkuntza eta ingurunea izaten ziren. Soinketarik ez genuen ematen eta ez zegoen egun bezala musikari beraziki eskainitako gairik nahiz eta asko erabiltzen genuen musika.

Inguruko eskoletako irakasleekin ba al zenuten harremanik?

Bai, askotan biltzen ginen elkarrekin, Segurakoekin, Idiazabalgoekin... Hiru herrietako irakasleok sarritan egin ohi genituen bilerak elkarrekin eta guztion artean prestatzen genituen eman beharreko gaiak eta fitxak ere. Orduan oso normala zen beste andereñoekin elkartu eta lan egitea. Egun osoa ikastolaren bueltan pasatzen genuen, orduak eta orduak sartzen genituen, hori zen normala orduan eta gustura egiten genuen lan gainera.

Garai hartan egungo aurrerapenik gabe moldatu beharko zineten ...

Bai, garai hartanez zegoen fotokopiagailurik eta hura gabe moldatu behar izaten ginen. Klitxeak erabiltzen ziren orduan, geuk eskuz tintarekin eta rodilo batzuen bidez sortzen genituen fitxen kopia.

Gogoan al duzu nolako zen zure gela?

Bai noski, oso gogoan dut. Pilotaleku irekiaren hormari itsatsita zegoen eraikuntzan ematen genuen eskola. Bi gela txiki zeuden eta kanpoko eskailera batetik igotzen zen beraietara. Gogoan dut gurasoren batek ekarrita-edo, su baxu bat zegoela eta haren gainean disekatutako azeri bat genuela.

Haurrekin ikastolan burututako ekintza berezirik?

Gogoan dut nola geuk egindako inkubadora batean txita batzuk atera genituen. Bi kartoizko kaxa hartu, bata bestearen barruan sartu isolatzeko, lurtean zerrauts pixka bat bota eta bonbila baten berotasunean jaito ziren txitak ikasgelan bertan.

Irteerak ere burutzen genituen, Olanan auzora, Murgi aldera eta Txurro aldera ere joan ginen behin. Irteera hauetan ikasleek ingurua ezagutzeko aukera izaten zuten eta inguruarekin harremanak izateko. Irteeretan gurasoen laguntza ere izaten genuen.

Nolako harremana zenuten gurasoekin?

Gurasoekin oso harreman estua genuen, oso gertukoa. Asko parte hartzen zuten ikastolan, bai bileretan, bai bestelako ekintzetan ere. Zerbaitetarako laguntza behar genuenean gurasoengana jotzen genuen beti eta babes handia genuen beraiekin.

Eta nola oroitzen duzu inspektorearen bisita?

Larritasuneko momentuak izaten ziren. Herri batetik bestera, inspektorearen bisitaren berri emanaz telefonoz deika ibiltzen ginen. Gogoan dut nola inspektore hauetako bat taxian etortzen zen Zegamara. Eskola Nazionaletik bisita egin eta gero askotan ikastolara etortzen ziren eta haurrei zenbait galdera egiten zizkien: "Cuantas provincias tiene el Pais Vasco" edo "Cual es la capital de España" eta horrelakoak. Hori dela-eta, inspektorea etortzerako haurrak prestatu egiten genituen zer erantzun behar zuten irakatsiz.

Eguerdian non bazkaltzen zenuen?

Baziren herritik aparte zeuden baserrietan bizi ziren ikasleak eta beraiekin "komedorean" bazkaltzen nuen. Eskola Nazionaleko irakasleek mahai baten jaten zuten eta nik neure ikasleekin batera beste mahai batean. Ez genuen batere harremanik Eskola Nazionaleko irakasleekin.

Ba al duzu gogoan anekdotarik?

Anekdotak baino, haurren erreakzioak ditut gogoan. Behin Pasaiara joan ginen txalupan ibiltzera eta gogoan dut haurrek izan zuten erreakzioa. Berdin gertatzen zait Txurroa egin genuen beste irteera harekin ere. Oso oroitzapen onak gordetzen ditut.

Norbaiten jarrera goraiatuko al zenuke bereziki?

Oraindik haurrik ez zuten gazte haien lana izugarria izan zela uste dut, lan asko egin zuten ikastolaren alde.

Oihana Zubizarreta

Marisol Arrieta

HAURRAK IZUGARRI GUSTATZEN ZITZAIZKIDAN ETA IKASTOLAREN PROIEKTUA ERE OSO GUSTUKO NUEN



Zergatik hartu zenuen irakasle izateko erabakia?

Ikastola sortu nahita zebiltzan herriko gazte batzuek, ikastolako irakasle izan nahi nuen galdetu zidaten eta egia esan, oso kontziente izan gabe eta non sartzen nintzen gehiegi jabetu gabe baiezkoa eman nien. Haurrak izugarri gustatzen zitzaizkidan eta ikastolaren proiektua ere oso gustuko nuen. Honela, 18 urterekin Zegamako Ikastolan irakasle lanetan hasi nintzen.

Zein izan ziren zure lehen urratsak ikastolan?

Nik garai hartan ez nuen irakasle izateko ikasketarik. Hori dela-eta, egunero-egunero Goierriko ikastoletako beste irakasleekin batera Beasainen biltzen ginen bilerak eta ikastaroak egiteko. Ikastaroak Beasainen ez ezezik, Loiolan ere egiten genituen eta gogoan dut autostopean Bartzelonara joan ginenekoa ere. Ikastaro horietan nola irakatsi ikasten genuen, matematika... irakasteko metodo modernoak hain zuzen ere. Gerora, magisteritza ikasketak burutu nituen.

Zein adineko ikasleei ematen zenien eskola?

Orduan, gela bakarra zegoen frontoian. Nik 6 urtetik beherako ikasleei eman niezaieken soilik eskola, titulurik ez bainuen. Gela geuk prestatu genuen eta garbiketarak ere geuk egiten genituen.

Ba al zenuten harremanik Zegamako Eskola Nazionalekoekin?

Eskola nazionalekoekin ez genuen tratu handirik. Dena den, bagenuen harremana bertako irakasle batekin. Ikastolako haur batzuk, baserrietan bizi zirenak, eskola nazionaleko kantinara (jangelara) eramaten nituen eta hasieran nahiko gogorra izan zen.

Zein zailtasun zuen euskaraz irakasteak? Ba al zenuten materialik prestatuta euskaraz irakasteko?

Zegaman ikastola sortu aurretik jadanik baziren beste leku batzuetan ikastolak eta beraz, bazegoen euskaraz irakasteko materiala prestatuta. Guk, dena gazteleraz ikasi genuen eskolan eta beraz, irakasle hasi ginenean, hitz berri asko ikasi behar izan genituen euskaraz. Baina hori ez zen arazoa izan, erraza zen hori!

**“
Ikasleen oroitza
izugarri onak ditut,
guztiak artista batzuk
ziren
”**

Zein oroitza dituzu ikasleez?

Izugarri oroitza onak ditut ikasleez. Mutilak neskak baino dezente bihurriagoak ziren eta askotan ibiltzen ziren elkarrekin borrokan. Neskak berriz askoz ere lasaiagoak ziren. Baina guztiak artista batzuk ziren! Oso oroitza onak ditut!

Zein finantziario iturri zituen ikastolak?

Ez zuen finantziario iturririk, gurasoek ordaintzen zutena soilik. Guk geure soldata bagenuen baina Segurantzako Sozialik ez genuen.

Horretaz gain, jaialdiak antolatzen genituen ikastola finantzatzeko dirua lortzeko. Euskal kantariak ekartzen genituen jaialdiak ematera, Pantxoa eta Peio...

Euskarazko jaialdiak antolatzeko, Donostiako Gobernu Zibileko gobernadorearen baimena behar izaten zen. Horretan garai hartan Foru Diputatu zen Manuel Urbizuk laguntzen zigun. Gogoan dut behin nola bere kotxe ofizialean eraman gintuen Gobernadorearen aurrera baimena eskatzera.

Zeingoraipatuko zenituzke ikastolaren hastapen haietan?

Gurasoek burututako lana eta beraien ausardia goraiatu nituzke. Gurasoek guregan sinetsi eta euren haurrak gure eskuetan utzi ez balituzte, ikastolak ez baitzuen aurrera egingo. Garai hartan gazteak ginen eta nuen erantzukizunaz gehiegi jabetzen ez nintzen arren, orain, horretaz jabetuta guraso haiek ausardia izugarria izan zutela iruditzen zait. Etorkizunean zer gertatuko zen jakin gabe haurrak ikastolan matrikulatzea ausardi handia izan zen eta neurri handi batean beraien ausardi horri esker sortu zen ikastola.

Ba al duzu anekdotarik gogoan?

Bai, lehen aipatu dudana bezala, nik 5 urtera arteko eman niezaiekeen eskola baina baziren 2 ikasle 6 urte zituztenak. Hori dela-eta, Eskola Nazionaleko inspektorea ikastolara etortzen zenean, bi haur hauek ikasgelaren azpian zegoen gelan ezkutatu genituen. Beste ikasleei, han ezkutatuta nola zeuden inspektoreari ez esateko esan nien eta oso ongi bete zuten nik agindutakoa. A zer larritasunak pasa nituen!

Beste zein irakasle egon ziren Zegamako ikastolan?

Ni hasi ondoren beste bi irakasle ere hasi ziren Zegamako ikastolan, Zaldibiko Bittor Galarraga eta Segurako Mari Karmen Arostegi. Nik Zegamako ikastola utzi nuenean uste dut Maite Aranzak bete zuela nire lekua.

Oihana Zubizarreta



Marisol ikasleekin eginiko mendi-irteera batean

Ikastolako argazki bilduma







■ BA AL ZENEKIEN?

Zegamako Olaberri auzoan, orain parkea eta aparkalekua dauden eremuan, XIX. mendean kafea ehotzeko fabrika bat egon zen. Fabrika hau 1887an jarri zuen martxan "Larrañaga y Compañia" k. "Guipúzcoa en la Exposición Universal de Barcelona de 1888" liburuan aipatzen denez. Hau zen Gipuzkoako mota honetako lantegirik modernoena eta bertako makinak Alemaniako etxe onenetatik ekarritakoak omen ziren. 30 zaldiko turbina baten bidez jartzen omen ziren martxan kafea txigortzeko lau txigorgailuak. Hauek zuten sistema modernoa zela medio, modu uniformean txigortzen omen zen kafea eta oso ongi gordetzen omen zen

kafearen usaina ere. Behin txigortuta, errostatik pasatzen omen zen kafea eta ondoren, zaku eta upeletan gordetzen omen zen.

3000 kilo kafe xigortu eta ehotzeko gaitasuna omen zuen fabrika honek.

Fabrika honek zituen beharrianak asetzeko, ba omen zen Zegaman kafe honentzako kaxa txikiak eta paketeak egiten zituen lantegi bat ere baina aipatutako liburu honetan adierazten denez, lan hau ez zen burutzen kafe fabrikari bertan, beste nonbait baizik. Kontuan izanda Zegamako Papelera bertan zegoela, lan hori papeleran burutuko zela pentsa liteke.



Zegamako Olaberri auzoko argazkia duzue hau. Errepidearen alboan, egun parkea dagoen lekuan agertzen den etxe luze hori da aipatutako Kafe fabrika edo txikori fabrika.

GureGipuzkoa.net / 30. instalazioa. © EEE mugaturik gabe: Egile ezezaguna; Gipuzkoako Foru Aldundia



1889an Bartzelonako Industriaren egoitzan erakusketa bat burutu zen eta bertan, Gipuzkoak zeukan eremuan honako instalazio hau ezarri zuen Larrañaga y Cia-k Zegaman ekoizten zituen produktuak erakusteko. Instalazio hau zela-eta, saria jaso zuen enpresa honek.



Honakoak, Zegamako kafe fabrikako produktuak saltzeko jarritako bi iragarki dituzue.

ACHICORIA—CAFES MOLIDOS—THES.
L.A. POSITIVA.
GRAN FABRICA DE CAFE—ACHICORIA
 DE LOS SEÑORES LARRAÑAGA Y COMPAÑIA.
Cegama y Tolosa (Guipuzcoa).
 La única premiada con medalla en la Exposición de Barcelona.
Venta del 1889: 720.000 kilógrames.
 Esta es la mejor recomendación de la bondad del género y de la baratura del precio.
 Representante en San Sebastian D. Gals Masso Idiaquez 6 entresuelo.

■ ATZOKO ZEGAMA



70. hamarkadaren hasiera aldera ateratako argazkia da. Herriko gazte talde batek “Hila Esposatu” antzezlan antzeztu zuten herriko zinean eta egun horretan ateratako argazkia da honakoa. Argazkia, zinean bertan dago aterata, atzean, antzezlenerako prestatu zen dekoratuaren zati bat ikusten delarik. Bertan, antzezleak eta zenbait laguntzaile agertzen dira.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Ramon Otaegi, Enrike Larrarte, Maria Angeles Larrea, Arantxa Azurmendi, Jose Mari Ormazabal, Begoña Artola, Juan Jose Gorrotxategi eta Isidro Lizarazu.

Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera: Don Jabier Ormazabal, Loli Ormazabal, Arantxa Aierbe, Maria Isabel Larrea, Joanita Azurmendi eta Jesus Arizkorreta.

Beheko ilaran ezkerretik eskuinera: Jose Ramon Ormazabal, Serapio Garaiar, Jose Ramon Agirre, Joxe Zubizarreta, Martzelino Larrea eta Juan Jose Garaiar.

40. hamarkadan ateratako argazkia da honakoa eta bertan, herriko dantzari talde txo bat ageri da. Garai hartan, eskolan ikasten zuten dantzan eta gero, San Bartolomeetan egiten omen zuten dantza, txistulariak zeudenean hauen doinuekin eta ez zeudenean, dantzariak eurek abesten omen zuten abestia dantza egiten zuten bitartean.

Hauek dira argazkian agertzen diren dantzariak:

Beheko ilaran: Maria Pilar Ormazabal

Goiko ilaran eskuinetik ezkerrean: Arantxa Olea, Isabel Garmendia, Maria Teresa Zurutuza eta Maria Teresa Azurmendi.



1950. hamarkadan eliza aurrean ateratako argazki honetan, herriko 4 apaizak, maisua eta udaletxeko aguazila eta "sekretarioa" agertzen dira. Apaiz hauek guztiak zeuden garai hartan Zegaman. Bestalde, aipagarria aguazilaren uniformeare.

Argazkiaren eskuinaldean, egun kioskoko plaza dagoen lekuan, garai batean egon ziren platanondoak eta eserlekua ikusten dira eta atzealdean, duela urte gutxi etxe berriak egiteko bota zen apaiz-etxea. Hauek dira argazkian agertzen direnak ezkerretik eskuinera:



Don Jose Andres Gorrotxategi (Apaiza), Tomas Cabezón (Maisua), Don Inazio Gorrotxategi (Apaiza), Alvaro Pascual (Sekretarioa), Jose Migel Arakama (Aguazila), Don Andres Oiarbide (Parrokoa) eta Don Jose Antonio Arakama (Apaiza)



Argazki hau Papelerako ur biltegitik ateratako argazkia da. Bertan San Bartolome auzoa eta Anduetza etxea ikusten dira, egun Aizkorriko Ataria dena. Ur biltegi honetara, Ugarkazabal parean Oria ibaian zegoen ur-saltotik abiatzen zen kanalean zehar bideratzen zen ura. Ura, ur biltegiara iritsi baino lehen, Ugarkazabalen zegoen etxola moduko batera bideratzen zen eta han produktu kimiko batzuk botatzen zitzaizkion ura garbiltzeko. Honela, ur garbi garbia iristen zen Papelerako ur biltegi honetara eta paper oso txuria egitea lortzen zen. Horregatik omen zuen fama Zegamako Papelerak.



◀ 1970. hamarkadako argazkia da. Ikastolako haurrak, frontoi zaharraren (estali gabekoa) ondoan daude Gabon egunean. Atzealdean, aspaldi desagertutako Zirkuloko etxea ikus dezakegu. Bestalde, Gaur egungo okindegi eta garai bateko Garmendianeko denda zegoen etxea ikus dezakegu, hala nola Jauregi errota ere bai; Ostatuaren eraikina ere gaurko moduan dago. Okindegiaren aurrean auto zuri bat ikus dezakegu, garai hartan eremu horretan ez zegoen gaur egun dagoen plazarik, ikastola aldera joateko auto eta oinezkoentzat errepidea baizik.



GureGipuzkoa.net / AUTORIDADES DURANTE LA INAUGURACION DE LA CASA MEDICO DE ZEGAMA E IDIAZABAL © CC-BY-SA: KUTXA FOTOTEKA; FONDO MARIN. PACO MARI.

▲
▶ 1954-1955. urtean ateratako argazkia dugu honako hau, Zegaman duela urte gutxira arte mediku etxea egon den eraikinaren inaugurazio egunekoa hain zuzen ere. Inaugurazio ekitaldira hainbat agintari etorri omen ziren. Mediku etxe bakoian, Espainiako bandera eta "Victoria" esan nahi duen irudi frankista ikus daitezke.



■ SENDARBELARRAK

ASUNA

Urtica dioica



Asuna oso landare ezaguna dugu gure artean, gehienetan txarrerako, izan ere landare hau ukituz gero min ematen baitugu azalean. Dena den, propietate onak ere baditu asunak eta gainera edozein bide ertzetan topa dezakegu.

Landare hau, odola garbitzeko sendabelarrik eraginkorrena da, gorputzean gelditutako toxinak bota arazten ditu eta giltzurrunen kanporatze jarduna areagotuz. Odola ezezik, digestio-hodiak ere garbitzen ditu eta ondorioz, defentsa-sistema indartu. Asunak duen burdin kantitate handia dela-eta, odola sortzen laguntzen du eta alergiari aurre egiteko eta azaleko gaitzak sendatzeko ere baliagarria da. Artritisak eta gotak sorturiko minak arintzeko ere erabil daiteke.

Asunaren hosto freskoak hartu, pixka bat zatitu eta ur irakinetara bota. Hiru minutu utzi eta gero iragazi. Infusio hau hiru aldiz hartu behar da egunean.

AZAFRAIA

Crocus nudiflorus



Azafraia sukaldaritzan da ezaguna espezie gisa baina baditu propietate sendagarriak ere nahiz eta ez oso ezagunak izan. Azafrai mota ugari dago eta badugu bat Zegama inguruko mendietan *Crocus nudiflorus* espeziea hain zuzen ere. Hau ez da sukaldaritzan erabiltzen den Azafrai espeziea baina sendagai gisa erabili dezakegu hilekoak sortutako mina arintzeko eta zikloa behar bezala finkatzen laguntzeko.

Azafraiak udaberrian garatzen ditu hostoak eta udazkenean, hostoak ihartzean, lore ikusgarria garatzen du. Mendi aldeko pagadi eta larreetan oso ugaria udazken aldean.

Infusioan hartu daiteke aurrez aipatutako minak arintzeko.

ELORRI ZURIA

Crataegus monogyna



Elorri zuria ezaguna bezain etxekoa dugu. Udaberrian, lore zuriz janzten da edertasun itzela lortuz eta udazken aldera berriz, fruitu gorriak ematen ditu.

Elorri zuria apaingarri gisa erabiltzeaz gain, sendagai gisa ere erabil dezakegu, izan ere tentsioa eta bihotz-aktibitatea erregulatzen baititu. Lo egin ezinari eta buruko minari aurre egiteko ere erabil daiteke elorri zuria.

Elorri zuriaren hostoekin eta loreekin egindako infusioa har daiteke min hauek arintzeko.

DOI TASUNEZKO MEKANIZATUAK

Pol Intxausti, Pab. 14 I - ZEGAMA

943 801 243

doilan@doilan.com

ZEGAMA OKINDEGIA

100% NATURALA ETA ERREKONSTRUA

Intxausti eremu 14 G-H pabilizak • ZEGAMA
943 801 066

Zorionak eta
Urte Berri On!

2011 urte
zortuzkoa
gara diruegu



*¡Gorionak eta
Urte Berri On!*



Zuzen Kilea, 2 - Igeldo Edificio Igo Oina - 49. Leleis • 20012 DONOSTIA
Telefono: 943 314 455 Faxa: 943 314 273 e-maila: sestrasestra.es



Zegamako
Ostatua

- TABERNA
- JATETXEA
- LOGELAK



Zorionak eta

Urte Berri On!

San Martin 3 - ZEGAMA • 943 801 051